

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIV-1

2000



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA    DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA  
DONOSTIA    SAN SEBASTIÁN

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA "JULIO DE URQUIJO"  
International Journal of Basque Linguistics and Philology  
ASJU

Sortzaileak / Fundadores / Founded by  
Manuel Agud - Luis Michelena (†)

Zuzendaritza Batzordea / Consejo de Dirección / Board of Directors

Lehendakaria / Presidente / Chairperson  
Patri Urkizu (EI, Donostia)

Bokalak / Vocales / Members of the Board  
Jon Kortazar (EI, Bilbo)  
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)  
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)  
Xarles Videgain (EI, Baiona)

Zuzendaria / Director  
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)

Argitaratzailea / Editor  
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)

Idazketa Batzordea / Consejo Editorial / Editorial Board

Gidor Bilbao (EHU, Gasteiz)  
Iñaki Camino (EHU, Bilbo)  
Ricardo Gómez (EHU, Gasteiz)  
Joaquín Gorrochategui (EHU, Gasteiz)  
Miren Lourdes Oñederra (EHU, Gasteiz)

Javier Ormazabal (EHU, Donostia)  
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)  
Iñigo Ruiz Arzalluz (EHU, Gasteiz)  
Blanca Urgell (EHU, Donostia)  
Koldo Zuazo (EHU, Gasteiz)

Aholku Batzordea / Consejo Asesor / Advisory Board

Jacques Allières (Toulouse)  
Patxi Altuna (Deustu-Donostia)  
Jesús Antonio Cid (Complutense)  
M<sup>a</sup> Teresa Echenique (Valencia)  
EHU-ko E.F.S.-ko Burua (P. Goenaga)  
Jean Haritschelhar (Euskaltzainburua)  
José Ignacio Hualde (Illinois)  
Bernard Hurch (Gratz)  
Jon Juaristi (EHU, Gasteiz)  
Itziar Laka (EHU, Gasteiz)

Jesús María Lasagabaster (Deustu-Donostia)  
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)  
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)  
Beñat Oyharçabal (CRNS-Baiona)  
José Antonio Pascual (Salamanca)  
Georges Rebuschi (Sorbona III)  
Rudolf P.G. de Rijk (Leiden)  
José M<sup>a</sup> Sánchez Carrión (Gasteiz)  
Iñaki Segurola (Orotariko Euskal Hiztegia)  
Juan Uriagereka (Maryland)

Idazkaritza Teknikoa / Secretaría Técnica / Technical Secretariat

Ainhoa Aranzabal (EI, Gasteiz)

José Ángel Ormazabal (EI, Donostia)

Eta Gasteizko Filologia Fakultateari atxikitako EHU-ko Euskal Filologia Saileko irakasleen laguntzarekin.

ASJU 1954ean sortutako euskal linguistika eta filologiazko nazioarteko aldizkaria da eta iker-eremu horietarik edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenetarik goi mailako artikulua, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zenbaki ateratzen direlarik, ASJU-k badu, orobat, GEHIGARRI sail bat non artikulua formatoaz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe.

Orijinaletik hartuemanetarako ikus bitez zenbaki bukaerako EGILEENTZAKO OHARRAK. Harpidetza eta eskarietarako: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

ASJU es una revista internacional de lingüística y filología vasca fundada en 1954. Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y otros relacionados con, o de interés para los mismos, en la actualidad de periodicidad semestral. Sin regularidad preestablecida ASJU publica en sus ANEJOS trabajos de formato superior al de un artículo.

Para correspondencia relacionada con los originales véase la INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES al final del número. Para suscripciones y pedidos: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

ASJU is a International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954. It publishes highquality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 700 pages). Longer works are published as SUPPLEMENTS to the regular issues of the ASJU.

For correspondence about papers see the INFORMATION FOR AUTHORS at the end of this issue. For subscriptions and order: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIV-1

2000



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DONOSTIA

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA  
SAN SEBASTIÁN

© Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioek 1918an sortutako erakundea  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - Tel. 943 - 31 08 55 - Fax 943 - 21 39 56 - 20007 Donostia  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@sk.ehu.es](mailto:ei-sev@sk.ehu.es)

ISSN.: 0582-6152. Depósito Legal: S.S.-400/1967

Inprimategia: Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA "JULIO DE URQUIJO"

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIV 1, 1-225, 2000  
ISSN: 0582 - 6152

## Sumario

	<u>Página</u>
Summary	4
<b>ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio; UGARTEBURU, Iñaki</b> <i>Xgabe</i> tankerako hitz elkartuak	5
<b>ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio; UGARTEBURU, Iñaki</b> Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)	65
<b>CAMINO, Iñaki</b> Goñerriko hizkera (II)	137
<b>KORTAZAR, Jon</b> Literatura konparatuaren saioak (I). Olerkariak 1930-1936	197
Analytic Summary	223

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA "JULIO DE URQUIJO"

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIV, 1, 1-225, 2000  
ISSN: 0582 - 6152

## Summary

	<u>Page</u>
<b>ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio; UGARTEBURU, Iñaki</b> Compound words of the <i>Xgabe</i> type (Orig. eu)	5
<b>ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio; UGARTEBURU, Iñaki</b> Adnominal phrases: the tradition (I) (Orig. eu)	65
<b>CAMINO, Iñaki</b> Goñi Basque (II) (Orig. eu)	137
<b>KORTAZAR, Jon</b> Attempts at compared literature (I). The poets 1930 - 1936 (Orig. eu)	197
<hr/> Analytic Summary	<hr/> 223

# Xgabe tankerako hitz elkartuak<sup>1</sup>

(Compound words of the Xgabe type)

Alberdi, Xabier  
Euskal Herriko Unib.  
Euskara Institutua  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

Garcia, Julio  
Euskal Herriko Unib.  
Zientzi Fak.  
Euskal Filologia Saila  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

Ugarteburu, Iñaki  
Euskal Herriko Unib.  
Medikuntza eta Odontologi Fak.  
Euskara Teknikoa Saila  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

---

*Euskarak "gabetasuna" adierazteko dituen bideetako bat da gabe bizkiaren erabilera. Erator-atzizkitzat ere har daitekeen arren, badirudi hitz elkartuen bigarren osagai gisa jokatzen duela gebietan. Euskarak etengabe sortzen ditu halako hitz berriak: bide emankorra eta bizia da, hortaz. Lanean eskaintzen da gaur egungo balako hitzen zerrenda zehatza, baita bizkiak dituen aldaerak (fonetikoak eta euskalkietakoak). Bestalde, elkartu hauen osaera eta gaur egungo erabilera eta elkarketaren muga zehatzak aztertzen dira, baita elkarketaren eta sintaxi egituraren arteko muga zehaztugabea ere.*

*Giltz-Hitzak:* Gabe. Posposizioa. Hitz elkartuak. Idaztaraua. Hitztegigintza. Lexikoa. Lexikologia.

*Uno de los medios de que dispone el euskara para significar carencia es el empleo del afijo gabe. Aunque pudiera considerarse como sufijo de derivación, parece que en la mayoría de los casos actúa como segundo componente de palabras compuestas. El euskara produce continuamente nuevas palabras de este tipo; resulta, por tanto, un recurso productivo y vivo. En el presente trabajo se ofrece una relación precisa de tales palabras en el euskara actual, junto con las variantes de dicho afijo (fonéticas y dialectales). Por otra parte, se estudia la formación de estos compuestos, su uso actual y los límites concretos de la composición, junto con los límites imprecisos entre composición y estructura sintáctica.*

*Palabras Clave:* Gabe. Posposición. Palabras compuestas. Norma de escritura. Elaboración de diccionarios. Léxico. Lexicología.

*L'un des moyens dont dispose l'euskara pour signifier une carence est l'emploi de l'affixe "gabe". Bien que l'on puisse le considérer comme suffixe de dérivation, il semble que dans la majorité des cas il agit comme un second composant de mots composés. L'euskara produit continuellement de nouveaux mots de ce type; il en résulte donc une source productive et vivante. On présente, dans ce travail, une liste précise de ces mots en euskara actuel, avec les variantes de cet affixe (phonétiques et dialectales). D'autre part, on étudie la formation de ces composés, leur usage actuel et les limites concrètes de la composition, en même temps que les limites imprécises entre composition et structure syntaxique.*

*Mots Clés:* Gabe. Second rang. Mots composés. Règle d'écriture. Elaboration de dictionnaires. Lexique. Lexicologie.

(1) Lan honetan erabili dugun adibidetegiak OEHren corpusetik egin dugun hustuketa du oinarri. Lan horretan UZELren laguntza eta bereziki Miriam Urkiarena izan dugu. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Euskaltzaindiari corpus zabal hori gure eskura jartzeagatik eta Beñat Oihartzabali bere ohar eta iradokizun estimagarriengatik.

## 1. Esangura

*Xgabe* tankerako elkarteek ‘gabetasuna’ edo ‘falta’ adierazten dute, funtsezko esangura hori kategoría lexiko desberdinen itxurapean ager badaiteke ere: izenondoa denean (*ganoragabe*), ‘zerbait’ (elkartearen lehen osagaiak aditzera ematen duena —gure adibidean ‘ganora’—) ez duen pertsona adieraziko du; izena denean (*nabigabe*), ‘zerbaiten falta edo eza’ —nahiz eta irudizko zentzu aldatuan— adieraziko du; eta adberbioa denean (*etengabe*) ere, gabetasunaren ideia bera adieraziko du, baina *nola* galderari erantzunez. Edozein moduz, beti, oinarriak adierazten duen horren ‘falta’ edo ‘gabezia’ ematen da aditzera *xgabe* elkarteen bidez. Aditzekin elkartzean, adibidez, ezeztapena izan daiteke *xgabe* hitzaren parafrasia edo esanahia (*hezigabe* = ‘hezi ez den/duten pertsona’; *ezkongabe* = ‘ezkondu ez den pertsona’, etab.).

## 2. Erator-atzizkia ala elkarteen bigarren osagaia?

Euskal gramatikari nagusiek (Azkue, 1923-25: §220; Lafitte, 1944: §84; Villasante, 1974: 75), —gatzelaniazko *sin-*, frantsesezko *sans-* eta ingelesezko *-less* osagaiak eratorpenaren barruan aztertu ohi diren era berean— erator-atzizkien artean sailkatu dute gure *-gabe*. Hala ere, batzuek (Campion, 1884) —arrazoi pragmatiko-engatik eta erdal aurrizkiekiko parekotasuna azpimarratzearen— *-gabe* erator-atzizkien artean sailkatu duten arren, garbi asko azpimarratu dute *xgabe* tankerakoak zentzu hertsian hitz-elkarketan sailkatzeak direla<sup>2</sup>.

Auzi hau erabakitzeko, alegia, hitz-elkarketako beregaintasunetik eratorpeneko atzizki “lotuetara” doan bide horretan, hitz batzuk elkarketatik ala eratorpenetik dauden gertuago jakiteko, honako irizpideak hartu dituzte kontuan kanpoko hizkuntzalariek (Azkarate, 1991: 104-105):

- a) Maiztasuna: elementu jakin bat hitz elkartuko bigarren posizioan maiz azaltzeak atzizkien antzeko bihurtzen ari dela adierazten omen du. Gramatikari batzuen ustez, hala ere, agerpen-maiztasun soila, besterik gabe, ez da baldintza nahikoa halako osagaia atzizkitzat hartzeko.
- b) Beregaintasuna: beregaintasuna galdu badu, nahiz “hitza” dela oraindik argi egon, atzizkietatik aski gertu egongo litzateke.
- c) Esanahi-aldaketa: gerta daiteke elementu batek esanahi bat izatea beregaina denean eta beste esanahi bat bigarren osagai denean. Halakoetan ere atzizki bihurtzetik nahiko gertu dagoela esan daiteke (euskaraz, esaterako, *bera* ‘biguna’ eta *-bera* ‘joera, erraztasuna’ ditugu).

(2) Hona hemen, Campionen azalpena: “Lo coloco entre los sufijos y le doy este nombre [“privativo”], refiriéndome a sus funciones, pues por su naturaleza es un nombre que significa “carencia, privación, nada”; siguiendo las cosas con todo rigor, esta palabra debiera figurar en la sección destinada a la composición, pero como su uso y empleo corresponden siempre a los de la preposición castellana “sin”, no me ha parecido oportuno llevar el rigorismo gramatical hasta un punto que acaso no le dejaría al lector formarse un claro concepto de las funciones ordinarias y de todos los momentos, de *gabe*; (...) Por lo demás, estas palabras [*eskeergabe*, *bidegabe*] son verdaderos nombres formados por composición.” (Campion, 1884: 224-225).



d) **Kategoria-aldaketak:** gerta daiteke, azkenik, elementu beregaina eta atzizki bihurtzeko bidean doana, jatorriz bakarra izan arren, kategoria desberdineko bilakatzea.

-*gabe* osagaiaren sailkapenaren auzia lau irizpideon arabera aztertuz gero, badirudi askoz ere gertuago gaudela hitz-elkarketatik eratorpenetik baino. Izan ere, denetatik maiztasuna litzateke -*gabe* erator-atzizkien artean sailkatzera eraman gaitzakeen bakarria. Gainerako irizpideen arabera, hitz elkartuko bigarren osagaitzat hartzera makurtuko ginatete: 1) beregaintasunari bagagozkio, bistan dago *gabe* hitza erabat beregaina dela (postpostizio gisa, izen gisa eta izenondo gisa azaltzen baita); 2) -*gabe* tankerako hitzetan ez dago esanahi-aldaketarik —ez funtsezkorik, ez azalekorik— *gabe* hitz beregainak adierazten duenaren aldean; 3) kategoriari dagokionez, behar bada zalantza gehiago egon daiteke, dena dela, *gabe* hitza postposizioa, izenondoa eta izena izan daitekeela kontuan hartzen bada (cf. infra 3.2), erabateko kategoria-aldaketarik ez dagoela esatera ausartuko ginatete.<sup>3</sup>

Bestalde, *gabe* hitzak erator-atzizkien bidez hitz eratorri berriak sortzen ditu (*gabeki*, *gabekeria*, *gabetasun*, *gabetu*, *gabezia*...), eta aukera hori itxita dago erator-atzizkientzat: alegia, benetako hizkiak ezin elkar daitezke hitz berriak osatzeko (\**tasun+kuntza*, \**ez+tasun*, \**des+pen*...).<sup>4</sup> Beraz, elkarteen bigarren osagai gisa maiz azaltzen bada ere, *gabe* nekez har daiteke zinezko atzizkitzat.

*Xgabe* tankerakoak hitz elkartuak direla frogatzen duen beste argudio hau ere gainera daiteke: hitz-elkarteetan buru ez den osagaiak ezin du izan bere aldetik hedapen sintaktikorik; horregatik, hurrengo adibidean *landu* aditzak ezin du argumenturik (*inoiz* aditzondoa) hartu, baldin eta hitz-elkarte baten osagaia bada (horrelakoetan, sintaxi-egiturara jo behar da ezinbestean).

(1) \**lur inoiz landugabea* → *landu gabeko lurra* / *lur inoiz landu gabea*

Hitz eratorriekin, ordea, ez da gertatzen horrelako debekurik: buru ez den osagaiaren<sup>5</sup> argumentu bat hitz eratorri osoaren argumentu-egituraren parte bat izan daiteke (Varela 1990: 99-100); horregatik, hurrengo adibidean ez dugu inolako debekurik *galaraz* oinarriak eskatzen duen osagarria (*manifestazioa*) hitz eratorri osoaren argumentu-egituraren barnean azaltzeko.

(2) *manifestazioaren galarazpena*

Gauzak horrela, duen maiztasun gorogatik eratorpenaren eta hitz-elkarketaren artean sailkatzea ulergarria izan badaiteke ere, funtsean uste dugu —Euskaltzaindiko LEF batzordeak bezalaxe (1991: 134)— hurbilago dagoela elkarketatik: zentzu hertsian, -*gabe* hitz-elkarten bigarren osagaitzat hartu behar dela uste dugu eta ez erator-atzizkitzat.

(3) Dena dela, puntu hau sakonago aztertuko dugu beheago, 3.2 atalean.

(4) Ik. Varela (1990: 97-98).

(5) Gogoratu behar da gramatika sortzailearen arabera hitz eratorrietan atzizkia dela buru edo ardatz, eta ez eratorriaren oinarria, atzizkiak eransten edo “kutsatzen” baitzizkio ezaugarri guztiak —kategoria lexikoa, barne— hitz eratorri osoari.

### 3. Morfologia-osaera

#### 3.1. Osaera edo eraketa: osagaien kategoria

Osaerari dagokionez, hiru aukera nagusiok ditugu:

- a) Hitz-elkartearen lehen osagaia izena izatea.
- b) Lehen osagaia aditza izatea.
- c) Lehen osagaia bestelako kategoria izatea.

Beheko sailkapenean ageri diren zerrendetatik ondoriozta daitekeenez, sarrienik izenaren gainean eratzen da hitz elkartua. Zenbaitetan, hala ere, aditzaren —partizioaren edo aditzoinaren— gainean eratzen da elkartea. Eta salbuespen moduko kasu banaka batzuetan, bestelako kategoria bat (izenondoa, adizlaguna...) izan daiteke elkartearen lehen osagaia.

Bigarren osagaiari dagokionez, zenbaitetan *-gabe* / *-gabeko* alternantzia gertatzen bada ere, badirudi *-gabe* tankerakoei eman behar zaiela lehenasuna. Oro har, halaxe jokatu dute oraingo hiztegi-gile nagusiek: HB, HBB eta EH hiztegietan —eta mai-zenik OEHn ere bai—, *-gabe* formak hobesten dira (lematzat hartuaz), eta *-gabeko* formak, aldiz, azpisarrerara gisa ematen dituzte.<sup>6</sup> Hona hemen, Hiztegi Batuko Batzordeak *zentzugabe* sarreran eginiko iruzkina:

45.51: *-gabe(ko)*: oro har, *-gabe* (eta *-orde*) formako eratorriak dira hobestekoak, *-gabeko* (eta *-ordeko*) formakoen kaltetan (cf. *-gabekeria*, *-gabetasun*, *-gabetu* pilaketak).

Beraz, eratorpenari begira *-gabe* forma baldin bada oinarria, forma horixe hartu beharko da lematzat edo hitzaren ordezkari-tzat. Dena dela, *-gabeko* tankerakoen inguruan bada zalantza bat baino gehiago. Azpisarrerara gisa nahiz sarrerara gisa aurkeztu, hiztegi-gile guztiak bat datoz *-gabeko* itxurako aldaeren izenlaguntasunari buruz; hala ere, *-gabeko* aldaeren sintaxia nahikoa askea da gainerako izenlagunenaren aldean: izan ere, aski erraz onartzen dute izenondoan lekua, izenaren ondoko posizioa alegia. OEHko *bidegabeko* azpisarreraren, esaterako, ia gehiago dira izenondo erabilera erakusten duten adibideak, izenlagunari dagokion berezko sintaxia (izenaren ezkerreko posizioa) agertzen dutenak baino. Hona hemen, ale solte batzuk diogunaren erakusgarri:

(3)

- (a) *Eguzkia, irargia ta beste gauzaren batzuk Jaungoikotzat arturirik, emoten deutsezanian adorazinoe bidebagakoak* (CrIc 51)
- (b) *Agintzen ere zuan arrika iltzeko gizaseme edo emakume Igarle bidegabeko edo Aaztuak* (Mg CC 152)
- (c) *Zeinbat logrerija, irabazte bide bagako saldu erosijetan!* (Mg CO 28)
- (d) *Ez dozu juramentu bide bagakorik egingo* (fB Ic Y 23)
- (e) *Aragizko atseginen, eta iñoren ondasunen desio bide bakoak* (CatLlo 47)
- (f) *Ez juramentu bidebagakorik egitea* (CatBus 6)

(6) OEHn joera azpisarreratzat hartzea bada ere, banaka batzuetan (*ganoragabeko*, *itxuragabeko*, *izen-gabeko*...) sarrerara gisa aurkeztu dituzte halakoak. EHn eta HBn, berriz, *-bako* batzuk kenduta (hala nola *ganorabako*, *lotsabako*...), ia sistematikoki hartu dira azpisarreratzat *-gabeko* guztiak. Elhuyar hiztegi elebidunak, aldiz, sarrerara beregaintzat hartu ditu *-gabeko* tankerako elkarte gehienak.

(g) *Ausartasun bidegabeko batekin* (Ur BulaG 558)

(h) *Halaz guztiz "doubting Thomas"-en batek (nik neronek esaterako) gogoeta bidegabekoren bat egin dezake* (MEIG I 261)

Bestalde, lexikalizazioaren eta idazkeraren arazoa dago. Hots, *-gabeko* batzuk aski lexikalizatuta badaude ere (lerradura semantiko garbia burutu baita hurrengoetan: *bidegabeko* # *bide(rik) gabeko*; *itxuragabeko* # *itxura(rik) gabeko*; *neurrigabeko* # *neurri(rik) gabeko*...), beste batzuk nahikoa hurbil daude sintaxi-egitura askeetatik (esanahiari begira, bederen, nahikoa antzekoak dira hurrengoak: *errugabeko* ≈ *erru(rik) gabeko*; *lotsagabeko* ≈ *lotsa(rik) gabeko*...). Alde horretatik, *-gabeko* tankerakoen adjektibotasuna eta izenondo erabileraren maiztasuna (*O bildots bigun, umil, errubaakoak!*; *Jolas garbi errubakoetan*; *Bere sortze errubakotik asi-ta*; *Bildots erru bagekoa*; *Gauzetan datzan edertasun errugabeko ori*; ...) arrazoi edo argudio bat izan daiteke halakoak azpisarrera lexikaltzat hartzeko eta egitura beregainetatik bereizteko. Dena dela, idazkeraren eta lexikalizazioaren auzi honetaz beherago mintzatuko gara luzeago (ik. infra 6.1 eta 6.2).

### 3.1.1. Izena + *-gabe(ko)*/*-kabe(ko)*<sup>7</sup>

- Hiztegi Batua (HB)

(4)

<i>aberrigabe</i>	<i>burugabe</i>	<i>bondargabe</i>	<i>legegabe</i>
<i>adargabe</i>	<i>dohakabe</i>	<i>bondogabe</i>	<i>letragabe</i>
<i>adingabe(ko)</i>	<i>eragabe</i>	<i>horzgabe</i>	<i>lobigabe</i>
<i>amaigabe(ko)</i>	<i>errugabe</i>	<i>ilegabe</i>	<i>lotsagabe</i>
<i>arduragabe</i>	<i>errukigabe</i>	<i>indargabe</i>	<i>lotsagabeko</i>
<i>atergabe</i>	<i>eskergabe</i>	<i>isatsgabe</i>	<i>lumagabe</i>
<i>atergabeko</i>	<i>eskolagabe</i>	<i>itxuragabe</i>	<i>mamigabe</i>
<i>atsekabe</i>	<i>etengabe</i>	<i>itxuragabeko</i>	<i>materiagabe</i>
<i>axolagabe</i>	<i>fedegabe</i>	<i>izarigabe</i>	<i>mihigabe</i>
<i>azkengabe</i>	<i>fedegabeko</i>	<i>izengabe</i>	<i>moldegabe</i>
<i>baliogabe</i>	<i>funsgabe</i>	<i>izengabeko</i>	<i>mugagabe</i>
<i>baztergabe</i>	<i>gaizgabe</i>	<i>jabegabe</i>	<i>nahigabe</i>
<i>behargabeko</i>	<i>ganoragabe</i>	<i>jainkogabe</i>	<i>neurrigabe</i>
<i>beldurgabe</i>	<i>gatzgabe</i>	<i>kafeinagabe</i>	<i>neurrigabeko</i>
<i>bidegabe</i>	<i>gorpuzgabe</i>	<i>koloregabe</i>	<i>odolgabe</i>
<i>bidegabeko</i>	<i>gozogabe</i>	<i>kulpagabe</i>	<i>ornogabe</i>
<i>bihozgabe</i>	<i>gupidagabe</i>	<i>kutsugabe</i>	<i>tolesgabe</i>
<i>bizargabe</i>	<i>hats-gabe (hasgabe*)</i>	<i>langabe</i>	<i>ustekabe</i>
<i>bizigabe</i>	<i>hobengabe</i>	<i>legamiagabe(ko)</i>	

(7) Atal honetan eskainiko ditugun sailkapen edo zerrendetan ez dira sarrerak errepikatuko, alegia, corpus berri bakoitzetik berriak edo gehitzekoak diren hitzak bakarrik jasoko ditugu: beraz, lehen zerrendan HB corpuseko "Xgabe" tankerako elkarte guztiak jasoko dira; bigarrenan, HBBk aurreko zerrendari gehitzen dizkionak; hirugarrenean, OEhk aurreko corpusei gehitzen dizkianak eta horrelaxe hurrengo zerrendetan. Azpisarreak barnerantz sartuta eman ditugu.

Arrazoi semantikoengatik sail honetan [izena + *-gabe*] sartu dugu *amaigabe* hitza, ustez XVIII. mendean geroztik dokumentatzen den *amai* izenaren gainean eratu dagoela: izan ere, *amaigabe*-ren parafrasia 'amaierarik ez duena' da eta ez 'amaitu ez dena'. Dena dela, agian ez litzateke burugabekeria izango "aditza + *-gabe*" osatera proposatzea.

- Hiztegi Baruko Batzordea (HBB)

(5a)

<i>orbangabe</i>	<i>probetxugabe</i>	<i>sustraigabe</i>	<i>zentzugabe</i>
<i>ordenagabe</i>	<i>senargabe</i>	<i>tatxagabe</i>	<i>zologabe</i>
<i>paregabe</i>	<i>sengabe</i>	<i>taxugabe</i>	<i>zuzengabe</i>
<i>paregabeko</i>	<i>sengabeko</i>	<i>taxugabeko</i>	<i>zuzengabeko</i>
<i>pozgabe</i>	<i>sinestegabe</i>	<i>usaingabe</i>	

Zalantzazkoak:

(5b)

- behargabe* (Z3:IrEm = Iritzi-emailek gehitzeko proposaturiko forma)
- belarrizilogabe* (Z3:IrEm)
- erraigabe* (Z3:IrEm)
- kaltegabe* (Z3:HBB / F = zerrendako forma hurrengo urrats batean erabakitze-ko utzi du batzordeak)
- premiagabe* (Z3:HBB / F)

- Orotariko Euskal Hiztegiaren Corpusa (OEHC)

(6)

<i>adimendugabe</i> / <i>adimentugabe</i>	<i>eitegabe</i>
<i>adimengabe(ko)</i> / <i>adimenbako</i>	<i>elizgabe</i> / <i>elizge</i> / <i>elizke</i>
<i>adoregabe</i>	<i>emazte-gabe</i>
<i>abalkegabe</i> / <i>abalkagabe</i> / <i>abalggabe</i> / <i>alkegabe</i>	<i>erraigabe</i> / <i>erraibage</i>
<i>alkebage</i>	<i>erraigabeko</i>
<i>alkegabeko</i>	( <i>erremedio</i> )
<i>aboskabe</i>	<i>erremedio(rik) gabe</i>
<i>aibergabe</i>	<i>erreparogabe</i> (Cb EG II 22)
<i>akatsge</i>	<i>errespetogabe</i> / <i>errespetugabe</i> / <i>respektugabe</i>
<i>antsikabe</i> / <i>antsibaga</i> / <i>antsigabe</i>	<i>errugabe</i> / <i>errubage</i> / <i>errukabe</i> / <i>erruge</i>
<i>antzakabe</i> / <i>antzegabe</i> / <i>antzabako</i>	<i>errugabeko</i> / <i>errubagako</i> / <i>errubageko</i> /
<i>argigabe</i> (A ARDI 120)	<i>errubako</i>
<i>arimagabe</i>	<i>eskasgabe</i>
<i>arimagabeko</i> / <i>arimaba(ga)ko</i>	<i>estakurugabe</i>
<i>arnalgabe</i> (< <i>arnari</i> + <i>gabe</i> )	<i>etengabe</i> / <i>etenbage</i>
<i>arnasgabe</i> (iz)	<i>etengabeko</i> / <i>etenba(ga)ko</i> / <i>etenbageko</i>
<i>arrazoigabe(ko)</i> / <i>erazoaba(ga)ko</i>	<i>ezagueragabe</i>
<i>artagabe</i>	<i>ezagueragabeko</i>
<i>behargabe</i>	<i>ezagutzagabe</i>
<i>behargabeko</i> / <i>behargabezko</i>	<i>ezagutzagabe(ta)ko</i>
<i>bekatugabe</i>	<i>fingabe</i> / <i>finbage</i>
<i>bilogabe</i>	<i>fingabeko</i>
<i>damugabe</i> / <i>damubage</i> / <i>damubaga</i>	<i>gaitasun-gabe</i>
<i>ditxagabe</i> / <i>tiixakabe</i> / <i>tiixagabe</i> / <i>ditxabage</i>	<i>gogogabe</i> / <i>gogohage</i> / <i>gogabe</i> / <i>gogoge</i>
<i>dudagabe</i> / <i>dudabage</i> /	<i>gogogabeko</i>
<i>dudagabeko</i> / <i>dudabako</i>	<i>gustugabe</i>

<i>baste-gabe</i>	<i>kontugabe</i>
<i>bezurgabe</i> / <i>ezurbage</i>	<i>kordegabe</i> / <i>kordebage</i> (LAR, AN, H)
<i>hezurgabeko</i>	<i>koskagabe</i>
<i>jabegabe</i> / <i>jabebage</i>	<i>leborgabe</i> / <i>leiborgabe</i>
<i>kabugabe</i> / <i>kabubage</i>	<i>logabe</i> / <i>lobage</i>
<i>kabugabeko</i> / <i>kabubako</i>	<i>loregabe</i> (PREDIKATU GISA)
<i>kalipugabe</i>	<i>markagabe</i>
<i>kalipugabeko</i>	<i>ospegabe(ko)</i>
<i>kaltegabe</i> / <i>kaltebage</i>	<i>t(h)onagabe</i>
<i>kaltegabeko</i>	<i>urrikigabe</i>
<i>kaudimengabe</i>	<i>zemaigabe</i> (ERKLAG ARRAN 175)
<i>kemengabe</i> / <i>kemenge</i>	<i>zorigabe</i>
<i>konortegabe</i> / <i>konortebage</i>	

• *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)*

(7a)	(7b)	(7c)
<i>akasgabe</i> [OEHn AKATSGE]	Zalantzazkoak:	Zalantzazkoak:
<i>atorragabe</i>	? <i>diru</i> \gabe	? <i>argi</i> \gabeko
<i>azpikeria-gabe</i>	? <i>garrantzi</i> \gabe	? <i>pare</i> \gabeko
<i>eztabaida-gabe</i>	? <i>ilargi</i> \gabe	? <i>hortz</i> \gabeko
<i>gandugabe</i>	? <i>kontzientzi</i> \gabe	? <i>inportantzia</i> \gabeko
<i>bankagabe</i>	? <i>lotura</i> \gabe	? <i>konpromezu</i> \gabeko
<i>herrigabe</i>	? <i>sinismen</i> \gabe	? <i>nahi</i> \gabeko
<i>jardungabe</i>	? <i>soluzio</i> \gabe	? <i>ondorio</i> \gabeko
<i>klorofilagabe</i>		? <i>sen</i> \gabeko
<i>kutsaduragabe</i>		
<i>loregabe</i> [IK. OEH]		
<i>notagabe</i>		

• *Euskal Hiztegia (EH)*

(8a) *ogengabe*<sup>8</sup>

Formaren hautaketa:

(8b)		
<i>adimengabe</i>	<i>erraigabe</i>	<i>logabe</i>
<i>antzegabe</i>	<i>errespetugabe</i>	<i>mamigabe</i>
<i>dudagabe</i>	<i>hastegabe</i>	
<i>elizgabe</i>	<i>kemengabe</i>	

• *Elhuyar Hiztegia (Elb..)*

<i>adeigabe</i>	<i>azentugabe</i> (Hizkl.)
<i>arantzagabe</i> (Bot.)	<i>babesgabe</i>
<i>arnasgabe</i> (iz/izond)[OEHn iz]	<i>denboragabe</i> [OEHn azpisar. <i>denbora gabe</i> ]

(8) HBBren arabera, aldiz, hitz hau *hobengabe* formaren aldaeratzat hartu beharko litzateke.

<i>emaztegabe</i> [OEHn azpigar. <i>emazte-gabe</i> ]	<i>kandugabe</i> ( <i>baritz kandugabe</i> (Bot.))
<i>erdigabe</i> (Biol.)	<i>koskagabe</i> (Bot.)
<i>erlijio-gabe</i> [OEHn azpigar. <i>erlijio-gabe</i> ]	<i>orekagabe</i>
<i>gaingabe</i> ( <i>esne gaingabe(tu)</i> )	<i>pairugabe</i>
<i>gaitasungabe</i> (Zuz) [OEHn azpigar. <i>gaitasun-gabe</i> ]	<i>personagabe</i> (Hizkl.)
<i>gizagabe</i> [OEHn <i>gizagabetasun</i> ]	<i>petalogabe</i> (Bot.)
<i>hankagabe</i> (Biol.)	<i>sepalogabe</i> (Bot.)
<i>hegogabe</i> (Zool.)	<i>zaingabe</i> [EHn <i>zaingabetu</i> soilik]
<i>hostogabe</i> (Bot.)	<i>zaporegabe</i>
<i>jabegabe</i> (izond. Zuz. 'vacante')	<i>zigorgabe</i>
	<i>zuburtzigabe</i>

### 3.1.2. Adirza + *-gabe(ko)* / *-kabe(ko)*

Esan bezala, gutxi batzuk baino ez dira aditzaren —partizipioaren eta aditzoinaren— gainean eraturako *-gabe(ko)* tankerako elkarteak. Oso zaila da, hala ere, partizipio eta aditzoinaren arteko banaketa argitzen duen erregularik ematea.<sup>9</sup> Dena dela, oro har, badirudi partizipioa maizago izaten dela elkartearen oinarria, eta aditzoinaren aukera oso markatua dela. Baieztapen hori ondo uztartzen da joskera-mailako emaitzekin: izan ere, *xgabe* elkarteak, sintaxian sorturiko egituretatik eratorritakoak dira; eta joskeran, hain zuzen ere, 'partizipioa + *gabe*' (adibidez, *Bi behi behin ere uzta-rririk jasan gabeak*) izaten da egiturarik emankorrena eta ez 'aditzoina + *gabe*' (infra. 3.2).<sup>10</sup>

Eta, beharbada horregatik hain zuzen ere, zalantzazko kasu batzuetan (*bukatugabe* / *bukagabe*; *zehaztugabe* / *zehazgabe*) Hiztegi Batuak eta Hiztegi Batuko Batzordeak partizipioaren alde egin dute (*bukatugabe*; *zehaztugabe*).

Aditzoinaren gainean eratuak, oro har, salbuespenak dira eta tradizio laburragoak. Baturako hobetsi den *ezkongabe* aldaera berria da, OEHren arabera, XIX. mendea arte ez baita *ezkondu-gabe* besterik erabiltzen. Antzeko kasua da *argitaragabe* hitzarena: Duvoisinek *argitaratubagi* dakar (1880ko *Euskal-erria*-tik jasoa) eta *argitaratugabe* zaharragoa da (1933), *argitaragabe* baino (1977koa, EHren arabera). Eta itxura denez, *lokabe*, *nahagabe* (*nasbage* formarekin) eta *oharkabe* Larramendiren asmakizunak dira. Era berean, *sinesgabe* (1929) askozaz ere berriagoa da *sinestegabe* (1545) baino, eta *ukigabe* (XIX), *uki* izenaren gainean eraturata dagoela ere pentsa liteke. *Antolagabe* eta *bataiagabe* Orixerena dira. *Bukagabe* Larramendirena da, baina Mitxelenak *bukatugabe* darabil. Azkuek dakartzan *ikasgabe*, *ikasbaga* baino zaharragoa eta lekukotasun fidagarriagoak ditu *ikasigabe* (Urte eta Duvoisin) aldaerak. Eta *erdaingabe* Olabidek asmatutako hitz berri-berria da. *Osagabe*, azkenik, askoz berriagoa da (1977), *osatu bage* (1805) baino.

(9) Kontuan har bedi batzuetan —*asege*, *izangabe*, *jaikigabe*, *jakingabe*...— ezinezkoa dela bereizkuntza, partizipioa eta aditzoina berdinak direlako.

(10) OEHn ikus daitekeenez, aditzoinarekin osaturiko sintaxi-egituren adibideak oso bakanak dira: Orixe, Zaitegi eta Lizardiren adibide bana besterik ez dakar OEHk.

- Partizipioa + *-gabe(ko)* / *-kabe(ko)*

(10)

HB	HBB	OEHC	Elb.
<i>bukatugabe</i>	<i>ondugabe</i>	<i>burutugabe</i>	<i>agerigabe</i>
<i>heldugabe</i>	<i>zehaztugabe</i>	<i>ezagutugabe</i> / <i>ezagutubage</i>	<i>baldintzatugabe</i> (PSIKOL.)
<i>bezigabe</i>		<i>ezagutugabe</i> <i>ko</i>	<i>burutugabe</i> (HIZKL.) <sup>11</sup>
<i>landugabe</i>		<i>ikasigabe</i> (URT, DV, TAG)	<i>irentsigabe</i> ( <i>mailegu irentsigabe</i> )
<i>obitugabe</i>		<i>?ikutugabe</i> <i>irendugabe</i> / <i>irendubage</i> <i>usatulgabe</i> (?)	

- Aditzoina + *-gabe(ko)* / *-kabe(ko)*

(11)

HB	HBB	OEHC	EEBS	Elb.
<i>ezkongabe</i>	<i>argitaragabe</i>	<i>antolagabe</i>	<i>konprenigabe</i>	<i>aldagabe</i>
<i>lokabe</i>	<i>simesgabe</i>	<i>bataiagabe</i>	<i>menderagabe</i>	<i>ordaingabe</i> (izond. 'impagado')
<i>oharkabe</i>	<i>ukigabe</i>	<i>bukagabe</i> / <i>bukabage</i> / <i>bukatugabe</i>	<i>zehazgabe</i>	<i>osagabe</i>
<i>oharkabe</i> <i>ko</i>		<i>bukagabe</i> <i>ko</i>		
		<i>ikasgabe</i> / <i>ikasgabe</i> / <i>ikasbaga</i>		
		<i>ikasgabe</i> <i>ko</i>		
		<i>nahasgabe</i> / <i>nasgabe</i> <i>erdaingabe</i>		

- Aditza (partizipioa nahiz aditzoina) + *-gabe(ko)* / *-kabe(ko)*

(12)

OEHC	Elb.
<i>asege</i> ('inquieta, impaciente')	<i>asegabe</i> <sup>12</sup> (1. 'no saciado, insatisfecho'; 2. (Fis./Kim.) 'Insaturado; no saturado')
<i>ezagungabe</i> / <i>ezagugabe</i> / <i>ezagunbage</i> <i>ezagungabe</i> <i>ko</i>	
<i>izangabe</i> <i>izangabe</i> <i>ko</i>	
<i>jaikigabe</i> , <i>jagika</i> , <i>jaika</i>	
<i>jakingabe</i> / <i>jakinge</i>	
<i>jangabe</i> / <i>janbage</i>	
<i>jangabe</i> <i>ko</i> / <i>janbako</i>	
<i>merezigabe</i>	

(11) OEHC ere badakar, baina ez adiera espezializatuan.

(12) OEHC *asege* ("inquieta, impaciente") dakar.

### 3.1.3. Bestelako osaera dutenak

Hirugarren azpisail honetan salbuespenak sartu dira: izenaz eta aditzaz bestelako kategoria baten (izenondoaren, adizlagunaren...) gainean eraikiak.

(13)

HB	OEH
<i>berdingabe</i>	<i>ainbaga   aingabe</i>
<i>noragabe</i>	<i>ainbagako   aimbako</i>
	<i>askigabe</i>
	<i>baregabe</i>

### 3.2. Elkarte osoaren kategoria lexikoa

Euskaltzaindiko LEF Batzordeak ohartarazi duenez (1992: 60), *gabe* hitza bigarren osagai gisa duten hitz-elkartek izenondoak izaten dira, oro har. Hala ere, batzuetan izenak eta adberbioak ere sortzen dira. Are gehiago, zenbaitetan soilik izen kategoriako hitza (*nahigabe*, *atsekabe*), edo batez ere izena (*bidegabe*, *langabe*...) edota batez ere adberbioa (*etengabe*, *atergabe*...) den elkarte sortzen da.

Elkartearen kategoria lexikoari bagagozkio, *Hiztegi Batuan* ematen diren argibideak nahikoa osagabeak dira, banaka batzuetan bakarrik eskaintzen baita delako informazio gramatikala: alde batetik, *bidegabe* edo *langabe* modukoetan "iz. eta izond." informazio gehigarria dator; baina, bestetik, ez da horrelako argibiderik ematen *nahigabe*, *atsekabe*, *etengabe*, *atergabe*... moduko salbuespenetan.

Emaitza horiek guztiak (izenondoa, izena, adberbioa) azaltzea ez da erraza, batez ere *gabe* hitza postposiziotzat hartzen bada. Gramatika sortzailearen arabera, hitz-elkarte batean burua edo ardatza da elkarteari kategoria gramatikala ematen diona. Gauzak horrela, nola esplikatu daiteke elkartearen ardatza edo burua postposizioa izanik, elkarte osoa izenondoen kategoriakoa izatea?

Miren Azkaratek (1990: 393) *gain*, *azpi*, *aitzin*, *gibel*... postposizioez osaturiko elkartean artean (*mahai azpi*, *mahai gain*...) sailkatu ditu *-gabe* elkarteak (izenondoak) eta honelako hitzez aurkezten du kategoriaren arazoa:

(...) *esku-azpian* izen elkartua ote da ('nombre compuesto')? Hala ere *azpian* postposizio ote da? Beraz, izen elkartuaren bigarren osagai postposizioa ere izan daiteke? Baina orduan zein litzateke osagai nagusia, agintzen duena, hitz elkartuari kategoria gramatikala ematen diona?

Abiapuntu horretatik, are zailagoa litzateke gainerako emaitzak —izena eta adberbioa— esplikatzeko.

OEhk honako azpikategorizazioa ematen dio *gabe* hitzari:

#### I. Postposizioa

##### 1. 'Sin'

- |                                  |                                   |
|----------------------------------|-----------------------------------|
| a) IS + <i>gabe</i>              | d) 'antes de' (IS + <i>gabe</i> ) |
| b) Partizipioa + <i>gabe</i>     | e) 'sin nada, sin ello'           |
| c) Adlatiboa (-ra) + <i>gabe</i> | f) 'en vez de'                    |



2. "(Como segundo miembro de compuestos adjetivos) Forma infinidad de compuestos, muchos de ellos plenamente lexicalizados."<sup>13</sup>

a) IS + *gabe*:

◆ IS mugagabea / Izord + *gabe*:

*Bizitza eriotzabaga eta sekulakora* (Cap 35s)

*Ardi artzain gabeak bezala* (Lg I 359)

*Ikusi dezu inoiz gau odei gabean Ilargia* (Mg CC 198)

*Jakite gaben eta gazten espiritiak* (Bp I 21)

*Guraso tonto ta Jangoikaren billdur bargaak* (JJMg BascEsc 223)

*Neskatokoak erlisioneko eskolarat, mutikoak eslisione gaberat* (HU Zez 149)

*Gazte ta eskarmentu bagea aiz* (Or Mi 85)

• (modifikatzaileekin) *Arlotia naiz, ondasun asko gabia* (PE 55)

• (ere edo batere partikularekin) *Bi gizon, oek bezalakoak, ezerere gabia* (Bv AsL171)

◆ IS-(r)ik + *gabe*:

[Lekhu] *alde guztietarik hersia, leihorik eta atherik gabea* (Ax 587)

*Fede garbi, dotriña txarren kutsurik gabia* (Bv AsL 124)

*Ikhusten baitu [gauza hauk] gaizkirik gabeak direla* (He Gudu 67)

[Gobernamenduak] *grina duela bere andre gazte errient gei lanik gabe boitaz* (HU Zez106)

• Modifikatzaileekin:

*Arkitu zuten mundua idolatriaren illunbean agitz sartua ta Jangoikoaren berri zuzenik bagea* (Mb IArg I 358)

• (Batere partikularekin) *Dudarik batere gabea den [fede bat]* (Mih 40)

b) Partizipioa + *gabe*

*Etsai agerien edo agerigabeen enboskadetarik salbatzekotan* (Harb 220)

[Bi behi] *behinere uztarririk yasan gabeak* (Lg I 528)

*Jan eta edan gabia izan behar dela gauberdiz geroz* (CatLan 139)

*Kristogana dijoaz biotz ondo garbitu gabearekin* (Mg CC 231)

*Ainbeste bekatu negar egin bageak* (Añ EL<sup>1</sup> 26) (EL<sup>2</sup> eginbaakok)

*Ezkontzako berba ariñ ta ondo pensau bargaak* (JJMg BasEsc 248)

*Bata da likurta ematen dabena, eta bestea, oraindik garbiro ezagutu gabea zer muetakoa dan* (Izt C 71)

*Zuen artean bekatu egin gaberik bada, arria bota bizaio* (Lard 413)

*Inoiz ikusi gabeak ikusteko* (Inza Azalp 80)

*Aintzira urdin bat zegon, aizeak naasi bagea* (Or Mi 83)

*Aspaldian {...} alkar ikusi-gabeak giñan* (Ldi II 29)

*Ara joaten ziran artzaiak, ardo edaten oitu gabeak ziran* (BasoM 85)

*Malizibideetan barrena gehiegi aurreratu gabeentzat* (MEIG III 82)

• (Aditzoina + *gabe*) *Berria zen, oraino uki-gabea* (Or Mi 44)

• (-ra + *gabe*) *Santa Kruz oraindik Lekunberrira gabea zala* Or Scruz 82

(13) Adibide hautatuak bakarrik jaso ditugu: bereziki, adibide lexikalizatu gabeak jasotzen ahale-gindu gara.

b) Izenondoa + *gabe* (adibide bakarra!)

*Illargi-erdi edo gau oso illun-gabe ori luzexeago bada ere, illun osorik etxunate* (Or QA 116)

3. “(Como segundo miembro de compuestos sustantivos) Algunos compuestos están plenamente lexicalizados (cf. *atsekabe*, *nahigabe*, *ustekabe*, etc.).”◆ Partizipioa + *gabe* (ik. *gabetasun*): zubereraz, batez ere.

*Izan bagea gerra uts* ‘El no tener’ RIs47

*Neure beldurrak, neure buruaz fido izan gabeak naduka* {ihes egina} (Ax 287)

*Mariaren sinbestiak Ebaren sinbetsi gabiaz Jinkoari züzen egin lizon* (Bp II 98)

*Aithor ezazü lehenago zure jakin gabia* (Mst I 2, 3)

*Franzesaren Heuzkarala itzulziaren neke handiak eta ene heuzkararen aski untsa jakin gabia* [...] *izitzen eta gibelitzen nindizien* (AR 4s)

*Sira, gaiski egin zünian / hil arazi gabia* ‘De ne pas les tuer’ (Xarlem 1114)

◆ IS mugagabea + *gabe*:

*Aitzineko manamendua abolitzen da bere debilitateagatik eta probetxu gabeagatik* (Lç He 7)

*Ezazula othoi beba ene esker gabera* (EZ Man II 11)

*Argaltasunak edo aginte gabeak dakar aldi txarra*(Mg CC 219)

*Abereren gaitzik guzienak ardura gabetik oi datoz* (It Fab 59)

## II. Izena eta izenondoa

## 1. Izena: ‘necesidad, carencia, falta; pobreza’

*Orhoitu gabe bere leheneko gabeaz* (Ch III 7, 3)

[Lagun urkoari] *emanaz beraren gabeak edo premia* eskatzen duen gauza (Mb OrGai III 255)

*Zure Jainkotasuna eta gizontasuna enplegatut izan ditutzu ene gabearen bethetzen* (Brtc 73)

*Ezin obeagoa, utsik ta gaberik ez duana* (Ub 126)

*Ez dugu behar lurrean, / aise bizirik etxean, / utzi laguna gabean* (Elzb Po 197)

• -en + *gabe*:

*Beti trabaiillatzen zelarik, gauza ororen gabian zela* (AR 248)

*Onerako gogoaren gabea eta gaitzerako makurtasuna* (AA I 398)

## 2. Izenondoa: ‘necesitado, pobre, (el) que no tiene’.

*Bere aziendetarik gabeei parti limosna* (EZ Man I 113)

*Gabeak hatsa karats* ‘Le pauvre’ (O Pr 173)

*Billatzen ta eskatzen ez duen gabeak izan ez oi du nai duenik* (Mb IArg II 309)

*Euskara aski eskasa eta gabea da fonema-kontuan* (MEIG VI 134)

Eskema baten bidez honela adieraz daiteke OEHk *gabe* hitzari ematen dion azpi-kategorizazioa:

(14)

<p>I. POSTPOSIZIOA</p> <p>I.1. 'Sin'... (IS /Part./... + <i>gabe</i>)</p> <p>I.2. Bigarren osagai "izenondo (-balioko)" elkarreetan (asko erabat lexikalizatuak).</p> <p>a) IS + <i>gabe</i>: <i>Bizitza eriotzabaga eta sekulakora</i> (Cap 35s)</p> <p>b) Partizipioa + <i>gabe</i> [Bi behi] <i>behinere uztarririk yasan gabeak</i> (Lg I 528)</p> <p>I.3. Bigarren osagai "izen(-balioko)" elkarreetan (batzuk erabat lexikalizatuak).</p> <p>a) Partizipioa + <i>gabe</i> <i>Beldurrak, neure buruaz fido izan gabeak naduka</i> [ihes egina] (Ax 287)</p> <p>b) IS mugagabea + <i>gabe</i> <i>Abereen gaitzik guzienak ardura gabetik oi datoz</i> (It <i>Fab</i> 59)</p>	<p>II. IZENA ETA IZENONDOA</p> <p>II.1. Izena: 'necesidad, carencia, falta; pobreza' <i>Orhoitu gabe bere leheneko gabeaz</i> (Ch III 7, 3)</p> <p>II.2. Izenondoa: 'necesitado, pobre, (el) que no tiene'. <i>Bere aziendetarik gabezi parti limosna</i> (EZ <i>Man</i> I 113)</p>
--	---

Nabarmena denez, artikulua honetan aztertzen ari garen egitura lexikoaren (*xgabe*) jatorrian *OEH*ko I.2 eta I.3 eraikuntzak ditugu; izan ere, gure *-gabe* elkarreak goragoko I.2 eta I.3 egituren forma lexikalizatuak baizik ez lirateke izango.

Dena dela, baldin eta —*OEH*k ezarri duenez— goiko I.2 eta I.3 ataletako *gabeak* postposizioak badira, lehengo auziak askatu gabe segituko luke: nola izan liteke bigarren osagai den postposizio batek izenondoak eta izenak sortzea? Hala eta guztiz ere, gure ustez *OEH*ko I.2 eta I.3 eraikuntzetako *gabeak* nekez har daitezke postposiziozat.<sup>14</sup> Izan ere, *EGLU*-lean esaten denez, postposizioak "perpausen sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten dituzten forma askeak" badira, ez dirudi I.2 eta I.3 ataletako *gabeak* definizio horretan erraz sar daitezkeenik: lehenik, horrelakoetan *gabek* sintagma barneko erlazioa adierazten duelako eta ez sintagmen artekoa; bigarrenik, horrelakoetan *gabek* adizlagunek bideratzen duten "erlazio gramatikala" adierazten ez duelako. Bestalde, postposizioen ezaugarrietako bat kasu-marka aldaigaitza hartzea da (*diru(rik) gabef*), baina I.2 eta I.3 egituretan *gabe* hitzak ia edozein determinatzaile (mugatzailea, erakuslea...) eta kasu-marka (absolutiboa, ergatiboa, datiboa, genitiboa, inesiboa, adlatiboa...) har dezake, aurreko elementuekin batera izenondo baten edo izen baten zeregina betetzen baitu dagokion izen-sintagman.

Beraz, I.2.ko adibideetan *gabe* adjektiboa da. Zehatzago mintzatuz, predikatuak seinatzen dituen morfema adjektibala dela esan daiteke. Eta kategorizazio hau (izenondoa), hain zuzen ere, ondo ezkontzen da *gaberi* dagozkion forma eratorriekin (*gabetu, gabezia, gabeki, gaberik, gabekeria, gabetasun...*): hots, izenondo baten gainean erraz eratzen dira halako eratorriak.

(14) Azpimarratzekoa da Sarasolak bere hiztegian (*EH*) "gibel hitza" izendapen bereziaren bidez sailkatzen duela *gabe* hitza eta ez postposizioen artean.

Bestalde, I.3.ko adibideak ikusirik, kontsidera daiteke marginalki *gabe* izen kategoriakoa ere izan daitekeela, nahiz eta egitura oso emankorra ez izan. Hain zuzen, I.3 egituraren emankortasun apalak esplikaturako luke izen kategoriako *xgabe* elkartearen urritasuna.

Ondorioz, onartu beharko dugu *gabe* postposizioaz (I.1) gainera, funtsean *gabe* izenondoa (I.2 eta II.2) eta *gabe* izena (I.3 eta II.1) ere badirela. Proposamen hori ez da hain burugabea, kontuan harturik kategoria eta esanahiaren aldetik erabateko kide-tasuna edo parekotasuna dagoela bi egituren artean: I.2 eta II.2, biak dira izenondoak eta 'ez duena' adierazten dute funtsean; I.3 eta II.1, biak dira izenak eta 'gabetasuna, eza, falta' adierazten dute funtsean.

Esplikazioak esplikazio, guk hemen honako hau azpimarratu nahi dugu: *-gabe* elkarteak, *OEH*ko I.2 eta I.3 sintaxi-egituretatik eratorritako forma lexikalizatuak baik ez dira. Eta funtsean lexikalizazio horretan ez da kategoria-aldaketarik burutu, I.2 eta I.3 ataletakoak izenondoak eta izenak baitira. Kontuan har bedi maiztasunari begira ere ez dagoela kontraesanik: bien artean, I.2 egitura da emankorrena ("forma infinidad de compuestos") eta horregatik gertatzen da *-gabe* gehienak izenondoak izatea.

Adberbio erabilerari dagokionez, *gabe* postposiziotik (*OEH*ko I.1 egituratik) abiatuta esplika daitezke halako erabilera eta adierak: are gehiago, horrelako zenbaitetan *-gabe* adberbio lexikalizaturia (*bidegabe*) eta lexikalizatu gabeak (*bidegabe*, *bidebaga*...) eta eratorriak (*bidegabeki(ro)*, *bidegabezki*, *bidegabero*...) lehian sartzen dira. Oro har, bide hau ez da hain emankorra.<sup>15</sup>

Gauzak horrela, orain hobeto ulertzen da agian zergatik sortzen zaizkigun kategoria desberdinetako hitz-elkarteak: lehenik eta maizenik, izenondoak (*burugabe*, *amaigabe*...); bigarrenik, izenak (*atsekabe*, *nahigabe*, *ustekabe*...); eta hirugarrenik, adberbioak (*etengabe*...).

Dena dela, izen kategoriakoei dagokionez, honako datu hau azpimarratu beharra dago: izenak diren *-gabe* elkarteetariko asko eta asko Larramendiri (batez ere *Diccionario Trilingüe* ospetsuari) zor dizkiogu. Batik bat, Larramendi, Añibarro eta Harriet hiztegi-gileek atera diote etekina bide horri, zenbaitetan eskueran zuten *-gabetasun / -gabekeria / -gabezia* aukeren kaltetan. Nolanahi ere, etorkizuneko lexiko-sorkuntzari begira ez dirudi lehia horretan *-gabe* nagusituko denik izen berriak eratzeko orduan.

Ondoren, hiztegi hiztegi eskainiko dugu salbuespenen kategoria lexikoari buruzko informazio gramatikala.

- HB

(15)

*azkengabe* izond  
*bidegabe* iz eta izond  
*langabe* iz eta izond

(15) Adberbio erabilera onartzen duten batzuk (*azkengabe*, *baztergabe*) zenbaitetan mailakatzaille gisa ere erabiltzen dira:

*Jaungoiko azkengabe arteza eta onak, zuzendu dau...* (Itz Azald 21)

*Azkengabe jakintsu ta egiaren iturri zeran Jaun handi orrek...* (KikG 84)

*Zure zer-izan mei mearekin eta muiñarekin gertatzen baita, eta azkengabe mei ta sarkor danez...* (Or QA183)

• OEH<sup>16</sup>

(16)

<i>arduragabe</i> izond; (adb); ( iz)	<i>gogogabe</i> iz (Lar, Añ, H); izond
<i>argigabe</i> izond; iz ('eclipse')	<i>gozogabe</i> izond; (adb); (iz) (Lar)
<i>arnasgabe</i> iz ('indar falta')	<i>gorpuzgabe</i> izond; (iz) (Lar, Or)
<i>arrazoigabe</i> izond; (iz)	<i>gupidagabe</i> izond
<i>atergabe</i> adb; (izond)	<i>bezurgabe</i> izond; iz (Hb, Lh); iz
<i>atsekabe</i> iz; izond	<i>ilegabe</i> izond; (iz 'calva')
<i>axolagabe</i> izond; (adb); iz (Lar)	<i>indargabe</i> izond; (iz) (H)
<i>azkengabe</i> izond; (iz); (adb)	<i>itxuragabe</i> izond; (adb); (iz)
<i>baztergabe</i> izond; (adb); (iz)	<i>izengabe</i> izond; (iz) (H)
<i>bidegabe</i> iz; izond; adb	<i>kabugabe</i> izond; <i>kabu baga</i> adb
<i>bizigabe</i> izond; iz (?)	<i>kaltgabe</i> izond; (iz) (Lar)
<i>burugabe</i> izond; adb	<i>kemengabe</i> izond; (iz) (Lar...)
<i>dohakabe</i> izond; iz (Lar)	<i>konortegabe</i> iz 'desmayo' (Añ)
<i>eragabe</i> izond; iz (Lar, Añ, A)	<i>kordegabe</i> izond; (iz) (Lar, Añ, H)
<i>errespetugabe...</i> izond; (iz) ('errespetu falta')	<i>langabe</i> (iz); izond
<i>errugabe</i> izond; (iz) (Or)	<i>legegabe</i> iz / izond
<i>eskergabe</i> izond; iz (Lar, Añ, H)	<i>letragabe</i> iz / izond
<i>etengabe</i> izond; adb [maizago]	<i>logabe</i> izond; (iz) (Dv -> H); <i>lobage</i> iz (Lar, Añ, H)
<i>ezagueragabe</i> izond; (iz) (Lar)	<i>jakingabe</i> izond; iz (Izt, Dv; SP, H)
<i>ezagutzagabe</i> izond; (iz) (Lh)	<i>jangabe</i> iz (Lar, Añ)
<i>fingabe</i> izond; <i>finbaga</i> (adb)	<i>jangabeko</i> / <i>janbako</i> iz ('falta de comida')
<i>ezkongabe</i> izond; (iz) (Lar)	<i>ainbaga</i> / <i>aingabe</i> adb; (iz)
<i>lokabe</i> izond; iz (Lar)	

• EH<sup>17</sup>

(17)

<i>aberrigabe</i> iz	<i>bizigabe</i> izond eta iz	<i>legegabe</i> izond eta iz
<i>adingabe</i> izond eta iz	<i>burugabe</i> izond eta (adlag)	<i>logabe</i> iz
<i>aingabe</i> adlag	<i>eragabe</i> izond eta (adlag)	<i>materiagabe</i> izond eta (iz)
<i>arduragabe</i> izond eta (adlag)	<i>eskergabe</i> izond eta (iz)	<i>nabigabe</i> iz
<i>atergabe</i> adlag (Goi); (izond)	<i>etengabe</i> izond eta (adlag)	<i>ornogabe</i> izond eta iz
<i>atsekabe</i> iz	<i>fedegabe</i> izond eta iz	<i>pozgabe</i> iz
<i>axolagabe</i> izond eta (iz (Goi))	<i>itxuragabe</i> izond eta (adlag)	<i>sinestegabe</i> izond eta iz
<i>behargabe</i> iz	<i>jainkogabe</i> izond eta iz	<i>taxugabe</i> izond; (adlag); (iz).
<i>bidegabe</i> iz; adlag; izond (Zah)	<i>langabe</i> iz	<i>ustekabe</i> adlag; iz; (izond)
<i>ezkongabe</i> izond eta iz		
<i>jakingabe</i> (iz); izond		
<i>lokabe</i> izond; (adlag); (iz)		
<i>oharkabe</i> adlag; (izond)		
<i>sinesgabe</i> izond eta iz		

(16) Parentesien artean erabilera berezi eta markatuak eman ditugu, erabilera urriak, alegia.

(17) Parentesien artean emango ditugu erabilera berezi edo markatuak, alegia, maiztasun apalagoa dutenak.

• ELHUYAR (*Elb.*)

(18)

1 <i>adingabe</i> iz / izond	<i>erlijogabe</i> iz / izond	<i>taxugabe</i> izond; adb
2 <i>adingabe</i> iz / izond	<i>errugabe</i> iz / izond	<i>ustekabe</i> iz; izond; adb
<i>ahalkegabe</i> iz / izond	<i>fedegabe</i> iz / izond	<i>zorigabe</i> izond; iz
<i>ahoskabe</i> iz / izond	<i>gogogabe</i> izond; iz (Ipar)	
<i>arnasgabe</i> izond; iz	<i>herrigabe</i> iz	<i>jaikigabe</i> iz
<i>atsekabe</i> iz; izond	<i>bezurgabe</i> izlag; iz / izlag (?!)	<i>jakingabe</i> iz / izond
<i>azkengabe</i> izond; iz; adb	<i>jabegabe</i> izond	<i>atergabe</i> izond; adb
<i>behargabe</i> iz	<i>jainkogabe</i> iz / izond	<i>ezkongabe</i> iz / izond
<i>bidegabe</i> iz; adb	<i>langabe</i> iz	<i>ikasgabe</i> iz / izond
<i>bizigabe</i> iz / izond	<i>legegabe</i> iz / izond	<i>lokabe</i> izond; iz; adb
<i>damugabe</i> iz / izond	<i>materiagabe</i> iz / izond	<i>oharkabe</i> adb; izond
<i>dohakabe</i> izond; iz	<i>nahigabe</i> iz	<i>sinesgabe</i> iz / izond
<i>eragabe</i> izond; adb	<i>ornogabe</i> iz / izond	
<i>erdigabe</i> iz / izond (Biol.)	<i>sinestegabe</i> iz / izond	

Beraz, orain arte erakutsi ditugun osaera posibleak honela labur daitezke, onarturik, hala ere, kategoria bakar batekoak diren hitz elkartu (izenondo elkarte “huts”, izen elkarte “huts” eta adberbio elkarte “huts”) gutxi daudela eta ondorengo aurkezpena neurri handi batean abstrakzio bakuntzailea dela.

(19)

XGABE IZENONDOAK	XGABE IZENAK	XGABE ADBERBIOAK
1a. izond[iz + gabe] izond <sup>18</sup> <i>adargabe, adingabe, amaigabe, baliogabe, beldurgabe, bibozgabe, bizargabe...</i>	2a. iz[iz + gabe] iz <sup>19</sup> <i>aberrigabe, atsekabe, behargabe, bidegabe, langabe, logabe, nahigabe, pozgabe...</i>	3a. adb[iz + gabe] adb <i>atergabe, bidegabe, burugabe, etengabe...</i> [Gutxi batzuk dira]
1b. izond[ad + gabe] izond <i>bukatugabe, heldugabe, bezigabe, landugabe, obitugabe, ondugabe, zebazitugabe...</i>	2b. iz[ad + gabe] iz <i>jakingabe, jangabe, lokabe...</i> [Erabilera markatu edo bereziak dira, gehienetan]	3b. adb[ad + gabe] adb <i>oharkabe, ustekabe...</i> [Salbuespenak dira]
1c. izond[izond/adlag... + gabe] izond <i>berdingabe, noragabe...</i> [Salbuespenak dira]		3a. adb[izord? + gabe] adb <i>aingabe / ainbaga...</i> [Salbuespenak dira]

Jakina, horrelako elkarte askoren aldamenean *xgabeko* tankerako “izenlagunak” ere agertzen zaizkigu. Halakoak sintaxi-egitura askeetatik (*x gabeko*) bereizi dira, lexikalizazioaren ondorioz: edo esanahi-lerradura jasan dute egitura askeen aldean (*bide(rik) gabeko* # *bidegabeko*), edota kategoria-aldaketa (izenondo erabilera) onartzeko erraztasun handia dute.

(18) Hau da, zalantzarik gabe, emankorrena, elkarte gehienak lehenik izenondoak direlako eta bigarren mailan onartzen dutelako bestelako kategoria (izena edo adberbioa).

(19) Sail honetako batzuk, jakina, izenondo gisa ere erabiltzen dira, kategoria batetik besterako aldaketak erraz gertatu ohi dira eta: *erlijogabe, eskolagabe...*

XGABE HITZ ELKARTUEN ZERRENDA<sup>20</sup> (ORDENA ALFABETIKOA)

Hiztegiak adierazteko erabilitako kodeak:

HB=	1	EEBS=	4
HBB=	2	EH=	5
OEH=	3	Elb.=	6
OEHC=	3'		

(20)

<i>aberrigabe</i> (1, 2, 5, 6)	<i>askigabe</i> (3, 5)
<i>adargabe</i> (1, 2, 3, 5)	<i>atergabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>adeigabe</i> (6)	<i>atergabeko</i> (1, 3, 5)
<i>adimendugabe...</i> (3)	<i>atorragabe</i> (4)
<i>adimengabe(ko)...</i> (3, 5, 6)	<i>atsekabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)
<i>adingabe(ko)</i> (1, 2, 3, 5, 6)	<i>axolagabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)
<i>adoregabe</i> (3, 5, 6)	<i>azentugabe</i> (6-HIZKL.)
<i>agerigabe</i> (5, 6)	<i>azkengabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)
<i>ahalkegabe ...</i> (3, 4, 5, 6)	<i>azkengabeko</i> (3, 5)
<i>alkegabeko</i> (3)	<i>azpikeria-gabe</i> (4)
<i>ahoskabe</i> (3, 5, 6)	<i>babesgabe</i> (5, 6)
<i>aiherga</i> (3, 6)	<i>baldintzatugabe</i> (6-PSIKOL.)
<i>aihergabe</i> (3')	<i>baliogabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>aingabe...</i> (3, 5, 4 = 6 <i>haingabe</i> )	<i>baregabe</i> (3')
<i>aingabeko</i> (5)	<i>bataiagabe</i> (3, 5)
<i>ainbagakolainbako</i> (3, 6)	<i>baztergabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>akasgabe</i> (4, 6)	<i>baztergabeko</i> (3, 5)
<i>akatsge</i> (3)	<i>behargabe</i> (?2, 3, 4, 5, 6)
<i>aldagabe</i> (3, 6)	<i>behargabeko</i> (3, 5)
<i>amaigabe(ko)</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)	<i>behargabeko</i> (1)
<i>antolagabe</i> (3')	<i>bekatugabe</i> (3, 5)
<i>antsikabe...</i> (3, 5, 6)	<i>belarrizilogabe</i> (?2)
<i>antzegabe...</i> (3, 5)	<i>beharri-zilogabe</i> (3)
<i>arantzagabe</i> (6-BOT.)	<i>beldurgabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>arduragabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)	<i>beldur gabeko...</i> (3)
<i>argigabe</i> (3)	<i>beldurgabeko</i> (5)
<i>argitaragabe...</i> (2, 3, 4, 5, 6)	<i>berdingabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>arimagabe</i> (3, 5)	<i>berdingabeko...</i> (3, 5)
<i>arimagabeko...</i> (3, 5)	<i>bidegabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)
<i>arnalgabe</i> (3)	<i>bidegabeko</i> (1, 3, 5)
<i>arnasgabe</i> (3; 6)	<i>bidegabeko</i> (6)
<i>arrazoigabe(KO)...</i> (3)	<i>bihozgabe</i> (1, 2, 3, 4, 5, 6)
<i>arrazoigabe</i> (5, 6)	<i>bihozgabeko</i> (3, 5)
<i>arrazoigabeko</i> (5, 6)	<i>bilogabe</i> (3, 6)
<i>artagabe</i> (3, 5, 6)	<i>bizargabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)
<i>asegabe</i> (6)	<i>bizargabeko</i> (3)
<i>asege</i> (3)	<i>bizigabe</i> (1, 2, 3, 5, 6)

(20) Adibide berri(ago)etarako ikus 5.1 azpiatala.

- bizigabeko (3, 5)  
 bukagabe... (3, 5)  
     bukagabeko (5)  
 bukagabeko (3)  
 bukatugabe (1, 2, 3)  
 burugabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     burugabeko (5)  
 burugabeko (3, 6)  
 burutugabe (3, 5, 6-HIZKL.)  
 damugabe... (3, 6)  
     denbora gabe (3)  
 denboragabe (6)  
 ditxagabe... (3, 5, 6)  
 dohakabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     dohakabeko (3)  
 dudagabe... (3, 5)  
     dudagabeko... (3, 5)  
 dudagabeko (6)  
 eitegabe (3, 5, 6)  
 elizgabe... (3, 5)  
 elizge (3 elizgabe sar., 5, 6)  
     emazte-gabe (3)  
 emaztegabe (6)  
 eragabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     eragabeko (3, 5)  
 erdaingabe (3, 5)  
 erdigabe (6-BIOL.)  
     erlijio-gabe (3)  
 erlijiogabe (5, 6)  
     erlijiogabeko (5)  
 erraigabe (?2, 3, 4, 5, 6)  
     erraigabeko (3, 4)  
     erremedio(rik) gabe (3)  
 erreparogabe (3)  
 errespetugabe... (3, 5, 6)  
 errugabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     errugabeko (3, 5)  
 errukigabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     errukigabeko (5)  
 errukigabeko (3)  
 eskasgabe (3)  
 eskegabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     eskegabeko (5)  
 eskegabeko (3)  
 eskolagabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     eskolagabeko (5)  
 eskolagabeko (3)  
 estakurugabe (3, 6)  
 etengabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     etengabeko... (5)
- etengabeko (3, 6)  
 ezagueragabe (3, 5)  
     ezagueragabeko (3, 5)  
 ezagungabe... (3, 5, 6)  
     ezagungabeko (3, 5)  
 ezagutugabe... (3, 5)  
     ezagutugabeko (3)  
 ezagutzagabe (3, 5, 6)  
     ezagutzagabe(ta)ko (3)  
 ezkongabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
 ezkongabeko (3)  
 eztabaida-gabe (4) / eztabaida(rik) gabe (3)  
 fedegabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     fedegabeko (1, 3, 5)  
 fedegabeko (6)  
 fingabe... (3, 5)  
     fingabeko (3, 5)  
 funsgabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     bibozgabeko (3, 5)  
 funsgabeko (6)  
 gaingabe (6)  
 gaitasun-gabe (3)  
 gaitasungabe (6)  
 gaizgabe (1, 3, 4, 5)  
     gaizgabeko... (3) / gaizgabeko (5)  
 gandugabe (4)  
 ganoragabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     ganoragabeko (5)  
 ganorabako (3, 5, 6)  
 garrantzi-gabe (4)  
 gatzgabe (1, 2 F, 3, 5, 6)  
     gatzgabeko (5)  
 gatzgabeko... (3, 6)  
 gizagabe (6) {3 gizagabetasun}  
 gogogabe... (3, 6)  
     gogogabeko (3)  
 gorpuzgabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     gorpuzgabeko (3, 5)  
 gozogabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
 gupidagabe (1, 2, 3, 5, 6)  
     gupidagabeko (3)  
 gustugabe (3, 5, 6)  
 hankagabe (4, 5, 6-BIOL.)  
 hastegabe (5))  
 haste-gabe (3)  
 hats-gabe (hatsgabe\*) (1, 2, 3)  
 begogabe (6-ZOOL.)  
 heldugabe (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     heldugabeko (3)  
 hostogabe (6-BOT.)



*herrigabe* (4, 6)  
*bezigabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     *bezigabeko* (3, 5)  
*bezurgabe...* (3, 6)  
     *bezurgabeko* (3)  
*hobengabe* (1, 2, 3', 5, 6)  
*bondargabe* (1, 2, 5, 6)  
*bondogabe* (1, 2, 3', 4, 5, 6)  
*horzgabe* (1, 2, 5, 6)  
*ikasigabe* /... (3, ?4)  
*ikasgabe* (3, 6)  
*?ikutugabe* KO (3')  
*ilegabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *ilegabeko* (3)  
*indargabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
*indarge* (6 / 3: IK. *indargabe*)  
*irendugabe* (3, 6)  
*irentsigabe* (6: *mailegu irentsigabe*)  
*isatsgabe* (1, 2, 5, 6)  
*itxuragabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *itxuragabeko* (1, 2, 5)  
*itxuragabeko* (3)  
*izangabe* (3)  
*izangabeko* (3)  
*izarigabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *izarigabeko* (3, 5)  
*izengabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *izengabeko* (1, 2, 5)  
*izengabeko* (3)  
*jabegabe* (1, 2, 3, 5, 6-ZUZ.)  
     *jabegabeko* (5)  
*jaikigabe...* (3, 6)  
*jainkogabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
*jakingabe* ... (3, 5, 6)  
*jangabe...* (3)  
*jangabeko/ janbako* (3)  
*jardungabe* (4)  
*kabugabe* (3, 5, 6)  
     *kabugabeko* (3)  
*kafeinagabe* (1, 2)  
*kalipugabe* (3, 6)  
     *kalipugabeko* (3)  
*kaltegabe* (2, 3)  
     *kaltegabeko* (3)  
*kandugabe* (6-BOT.)  
*kaudimengabe* (3, 6)  
*kemengabe...* (3, 5, 6)  
*klorofilagabe* (4)  
*koloregabe* (1, 2, 5, 6)  
     *koloregabe* (3)

*kolorga* (3, 5, 6)  
*konortegabe...* (3)  
*konprenigabe* (4)  
*kontugabe* (3, 5, 6)  
*kontzientzigabe* (4)  
*kordegabe* (3)  
*koskagabe* (3, 6-BOT.)  
*kulpagabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     *kulpagabeko* (3)  
*kutsaduragabe* (4)  
*kutsugabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     *kutsugabeko* (3)  
*landugabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
*langabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
*langabeko* (3)  
*legamiagabe(ke)* (1)  
*legamiagabe(ke)* (2, 3)  
*legegabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
*lehorgabe...* (3)  
*letragabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *letragabeko* (3, 5)  
*logabe...* (3, 5)  
*lobigabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
     *lobigabeko* (3)  
*lokabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
*loregabe* (3, 4)  
*lotsabako* (5)  
*lotsagabe* (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
     *lotsagabeko...* (1, 2, 3, 5)  
*lumagabe* (1, 2, 3, 5, 6)  
*mamigabe* (1, 2, 5, 6)  
*markagabe* (3')  
*materiagabe* (1, 2, 5, 6)  
     *materiagabeko* (5)  
*menderagabe* (4)  
*merezigabe* (3', 6)  
*mibigabe* (1, 2, 5, 6)  
*MOLDEGABE* (1, 2, 5, 6)  
     *moldegabeko* (5)  
*mugagabe* (1, 2, 3', 4, 5, 6)  
*nahasgabe* (3', 5, 6)  
*nabigabe* (1, 2, 3', 4, 5, 6)  
*neurrigabe* (1, 2, 3', 4, 5, 6)  
     *neurrigabeko* (1, 2, 5)  
*neurrigabeko* (6)  
*noragabe* (1, 2, 3', 5, 6)  
*notagabe* (4, 5, 6)  
*odolgabe* (1, 2, 3', 4, 5, 6)  
*ogengabe* (5, 6)  
*oharkabe* (1, 2, 3', 5, 6)  
     *oharkabeko* (1, 5)

<i>obitugabe</i> (1, 2, 5, 6)	<i>tatsxagabe</i> (2, 5)
<i>ondugabe</i> (2, 5, 6)	<i>taxugabe</i> (2, 3', 5, 6)
<i>orbangabe</i> (2, 3', 4 ( <i>orbaingabe</i> ), 5)	<i>taxugabeko</i> (2, 5)
<i>ordaingabe</i> (6)	<i>tolesgabe</i> (1, 2, 3', 4, 5, 6)
<i>ordenagabe</i> (2, 5, 6)	<i>t(h)onagabe</i> (3')
<i>orekagabe</i> (6)	<i>trebegabe</i> (4)
<i>ornogabe</i> (1, 2, 5, 6)	<i>ukigabe</i> (2, 3', 4, 5)
<i>osagabe</i> (5, 6)	<i>urrikigabe</i> (3', 6)
<i>ospegabe</i> (KO) (3', 5, 6)	<i>usaingabe</i> (2, 5, 6)
<i>ospegabeko</i> (5)	<i>usaingabeko</i> (5)
<i>pairugabe</i> (6)	? <i>usatugabe</i> (3')
<i>paregabe</i> (2, 3', 4, 5, 6)	<i>ustekabe</i> (1, 2, 3', 5, 6)
<i>paregabeko</i> (2, 5)	<i>zaingabe</i> (6)
<i>paregabeko</i> (6)	<i>zaporegabe</i> (6)
<i>pertsonagabe</i> (6-HIZKL.)	<i>zebazgabe</i> (4, 2-F)
<i>petalogabe</i> (6-BOT.)	<i>zehaztugabe</i> (2-A, 3, 4, 5, 6)
<i>pozgabe</i> (2, 3', 5)	<i>zemaigabe</i> (3')
<i>premiagabe</i> (2)	<i>zentzugabe</i> (2, 3', 4, 5, 6)
<i>probertxugabe</i> (2, 5, 6)	<i>zentzugabeko</i> (5)
<i>senargabe</i> (2, 5, 6)	<i>zigorgabe</i> (6)
<i>sengabe</i> (2, 5, 6)	<i>zolagabe</i> (2, 5)
<i>sengabeko</i> (2, 5)	<i>zorigabe</i> (3', 4, 5, 6)
<i>sepalogabe</i> (6-BOT.)	<i>zorigabeko</i> (6)
<i>sinesgabe</i> (2, 3' <i>sinisgabe</i> , 4)	<i>zuhurtzigabe</i> (6)
<i>sinesiegabe</i> (2, 5, 6)	<i>zuzengabe</i> (2, 4, 5, 6)
<i>sustraiagabe</i> (2, 5, 6)	<i>zuzengabeko</i> (2, 5)

#### 4. Hots-aldaketak

##### 4.1. *gabe*-ren aldaera dialektalak: sailkapena (*bako*, *bage*, *bagako*, *ge...*)

*Gabe* hizkiak bi aldaera nagusi ditu, kontsonanteen metatesi edo trukaketaz sortuak: *gabe* eta *bage* (Mitzelena, 1976: 12.22; cf. *gibel/bigel*, eta abar). Hauen ondoan bada herskari ahostuna duen *-kabe* aldaera ere (cf. infra 4.2). Bestalde, bizkaierazko berrikuntza dugu *baga* aldaera, hitzaren amaieran maiz gertatu ohi den bokal-nahas-teak sortua (*bagal/bage*, *belal/bele*, *labal/labe...*).<sup>21</sup>

Aldaera hauen murrizketa ere gertatzen da, batez ere bizkaieran, bokal arteko kontsonante igurzkaria galdu eta bokalak (berdinak edo desberdinak) bildu ondoren (Mitzelena, 1976: 21.5; cf. *babe* > *-be*). Honela sortzen dira *-ga* eta *-ge* aldaerak:<sup>22</sup> *arte-ga* 'inquieta', *donga*, *deunga* 'malo' (lit. 'sin don'), *esker-ga* 'difícil' (RS 250, lit. 'ingra-

(21) K. Mitxelena dioenez (1977: 128): "No hay duda de que se trata de una innovación vizcaína (cf. préstamos como *arata* 'pato', *lora* 'flor', etc.), que no hay por qué atribuir a causas fonéticas. Ese dialecto confunde en el sing. de la declinación determinada, desde los primeros textos, los temas en *-a* y en *-e...*"

(22) Azkuerentzat (1923-25: 218) *-gal/-ge* dira jatorrizko aldaerak. Are gehiago, azken garaiko *-ga/-ge* aldaeren murriztea eta *gabe/bage* aldaeren ugaritzearen arrazoia (hau da, atzizkia erabili beharrean sekuentzialki erdal preposizioaren parekoa den euskal postposizioa ugaritzearen arrazoia) erdararen araberako jokaera mimetikoa litzateke.

to'); *abalge* 'vergüenza', de *abal* 'poder'. Lexikalizazio-maila handiko aldaerak dira hauek: gaur egun ez dugu halako hitz berririk sortzen atzizki hauek erabiliz; izan ere, atzizkitzat har ditzakegu ez direlako beregain eta beti hitzaren atzean eta hari zuzenean loturik ageri direlako. Bestalde, aspaldiko testuetan (RS 1596, esate baterako) ageri diren hitz hauek nekez uler ditzake gaurko hiztunak hitz soil modura ez bada; hau da, lerratze semantikoaren ondoren galdu egin da oinarriaren adieraren (*abal*) eta hitz eratuaren arteko lotura semantikoa (*abalge*). Are gehiago, *gabezia* esanahia ere nekez suma dezake gaurko hiztunak *artega* bezalako hitzetan. Lexikalizazio-prozesu hori, dena den, aspaldikoa izan daiteke, Mitxelenak adierazi bezala.<sup>23</sup> Hitz hauen lexikalizatzeko edo ihartzearekin batera *gabe* hizkiaren erabilera nagusitu da. Dena den, zail da esaten atzizki gisako erabilera honen murrizte eta indar galtzean euskararen inguruko hizkuntzek eraginik izan duten, nahiz eta Azkuek horixe salatzen duen (Azkue 1969: 218) gaztelaniazko eta frantsesezko 'sin' eta 'sans' preposizioen paretotasuna ikusita.

Aurreko paragrafoan azaldu ditugun aldaeren ondoan badira *-ka* eta *-ke* aldaerak ere, *-kabe* aldaerari dagozkionak.

Azkuek bere hiztegian (Azkue: 1905 eta 1923) honakoak biltzen ditu Bizkaiko eskualde bat edo besteko forma sinkopatu modura:<sup>24</sup> *artega*, *donga/deungal/donge* (Mendiburu, Agirre), *edadega* ('árbol bravío'), *elge*, *eskerga*, *gozaga*, *indarga*, *itxurga*, *kolorga*, *lotsaga*, *senga*, *ulega*; *aseka*, *arteka* (*artega*), *atsaka* ('sin ganas'), *doaka* (G ere bai), *endeka* (endatik), *egoska*, *egika*, *ganoka*(?), *geldika*, *geraka* (*gereka*), *gozaka* (*gozaga*), *ikuzka*, *inauska*, *inuska* ('lelo, hurraño', *inauskatik*), *indarka* (*indarga*), *loka*, *moldaka*.

Aldaera sinkopatu hauek aditz-izenari lotuak ere ager daitezke: *-tzaga*, *-tzaka*, *-tzake* eta *-t(z)eke*... Oro har, Bizkaiko erabilera da, nahiz eta Gipuzkoako idazleek ere erabili dituzten.<sup>25</sup> Azkuek honakoak aipatzen ditu: *afaltzaga* (RS), *aspertzaka*, *betetzaka* ('iru urte betetzaka' Lardizabal), *dudatzaka* ('indudablemente' Uriarte), *egintzaga*, *eltzaga*, *ezkontzaga*, *ezkontzaka*, *eztitzaga*, *isiltzaga*, *isiltzaka*, *parkatzaga* (Añibarro), *sentitzaka* ('insensiblemente' Mogel), *uletzaga* (?); *betetzaka*, *dudatzaka*, *ezautzaka*, *oartzaka* (Lardizabal), *konsagratzake* (Mendiburu), *asmatzaka* ('no acertando' Arrese-Beitia), *jakiteke*. Baina Azkuek berak aipatzen du idazle batek berak erabili ohi duela *gabe* hizkia aldi berean (*konsagratzake* eta *konsagratu gabe*, Mendiburu).

Lehen aipatutako *-ga/-ge* atzizkiak bezala, oinarritzat aditz-izena hartzen duten hauek ere ihartuak daude eta nekez sor daiteke gaurko euskararen halako berririk. Azkuek berak ere aipatzen du *asmatzaka* Arrese-Beitiak sortu berria dela. Gaurko hiztegiak jasotzen dituzten halako hitzak oso urriak dira. Elhuyar hiztegi elebidunean (*Elh.*) hauek dira sarrera lexikal modura jaso direnak: *heltzaka*, *irentzaka*, *kentzeke*, *ohartzake*. *Euskal Hiztegiak* (EH) beste hauen lekukotasuna ere eskaintzen digu:

(23) K. Mitxelenak dioenez (1977: 412): "El valor original del sufijo ha llegado a desconocerse hasta el punto de que Oihenart vuelve a sufijarle *-gabe-*: *abalgue-gabe* 'effronté' (Prov. 9)"

(24) *-tzaka* B eta G aipatzen du, Lardizabalen adibideak eskainiz (*oartzaka* Lard. Test. 177-21; *betetzaka* Lard. Test. 284-27)

(25) *-tzake* (AN?) dio Azkuek bere hiztegian, lekukotasunik eskaini gabe.

(21)

*aspertzeke, aspertzaka*  
*gelditzeke, gelditzaka, gelditzeke*  
*geratzeke, geratzaka*  
*isiltzeke, isiltzaka*  
*kentzeke*  
*ohartzeke, ohartzaka, ohartzeka*

Horietaz gain badira bat edo beste adibideen artean (*garbitzeke, lantzkeke*). Forma ihartu hautetatik bi baino ez ditu jaso Hiztegi Batuak: *esateke, ohartzeke*. Adibide gehiago eskaintzen ditu Altubek (Altube, 1934: 27-28) aldaera hauek B eta G (Goierri) euskalkietakoak direla adierazi ondoren.

Zer esanik ez dago lan honetan aztertzen ari garen *gabe* hitzari atzizkiak ezartzen zaizkion neurrian aldaera fonetiko berriak sortuko direla. Esate baterako *-rik* eta *-ko* atzizkidun formak: *gaberik, bagerik, barik, bako (gabeko)*... Hauetako batzuk oso lexicizaturik egon daitezke, adibidez Hiztegi Batuak bizkaierazko hitz modura jaso duen *lotsabako*. Azken hori (*-bako*) da Bizkaiko hainbat eremutan bereziki hedatu dena (*lotsabako, ganorabako*...), nahiz eta bestelakoak ere erabiltzen diren (*lotsagabe, ganoragabe*...). Bizkaiko *-bako* aldaeraren lexicizazio-gradua nabaria da Azkuerentzat ere eta beti lotua idaztea proposatzen du nahiz eta testu zaharretako idazketa beste era batekoa izan (Refranes y Sentencias: *igi bagea, auzo bako*...).<sup>26</sup>

Aldaera bat eta besteren euskal testuetako lekukotasunak *Orotariko Euskal Hiztegia*n aurki daitezke (ikusi 3.1.1. atala):

(22)

- *bako: adimenbako, antzabako, arimaba(ga)ko, errazoaba(ga)ko, dudabako, erruba(ga)ko, etenba(ga)ko, kabubako.*
- *baga: antsibaga, damubaga.*
- *bage: alkebage, damubage, dudabage, erraibage, errubage(ko), etenbage(ko), finbage, gogobage, (gogabe), hezurbage, jabebage, kabubage, kaltebage, konortebage, kordebage, lobage.*
- *kabe: aboskabe, antsikabe, titxakabe, errukabe.*
- *ge: akastge, elizge, erruge, gogoge, kemenge.*
- *ke: elizke.*

Hauek dira bada, *gabe* hizkiaren aldaera fonetikoak (formari gagozkio, kategoria eta beste zehaztasunetarako ik. supra 2. eta 3.1.):

(23)

- I. Bereizia (hitz beregain edo gibel-hitz gisa): *gabe*
- II. Lotua: *-gabe / -kabe* (oinarriari lotua)
  1. aldaera fonetikoak: *-gabe / -bage, -baga*
  2. aldaera sinkopatuak (batez ere B): *-ga, -ge / -ka, -ke*
  3. aditz izenaren ondorengo aldaera sinkopatuak (batez ere B): *-tzaga, -tzaka, -t(z)eke*

(26) "El proverbio correspondiente a 'casa sin fuego, cuerpo sin sangre' debe ser escrito no como lo hizo el autor de Refranes y Sentencias y se transcribió en el Diccionario, sino unidos *bako* y *bage* a su y odol en esta forma: *subako etxea, gorputz odolbagea*" (1923-25: 159)

## III. Atzizkidunak (idazkera lotua edo bereizia; ikusi 7. atala)

1. Flexio-atzizkiak hartzen dituztenak:
  - *gabe(t)an* / *bage(t)an*
  - *gabe(a)z* / *bagez*
  - *gabe(ki)ko*
  - *gaberik(an)*, *bagerik(an)*, *gabarik*, *barik* (*baarik*)
2. *ta* artizkia hartzen dutenek badute euskalkien arabera banaketa:
  - G: *gabatarik(an)*, *bagatarik*, *gabetatik* (? kopistaren hutsa, ikus OEH: 104)
  - ekialdea (BN, Z): *gabetanik(an)*, *gabemandik(an)*, *bagetanik* Lar. 'Es pleonasmoko de *gabe/gaberik*' (OEH: 104)
3. *-ko* atzizkiaren bitartez osatzen diren lexikalizazio gradu handiagoko aldaerak (OEH: 97 '*gabeko* y *gabetako* (Adnom.) forman innumerables compuestos más o menos lexicalizados'). *Gabeko* garai eta euskalki guztietan ageri da Z izan ezik. *Lotsabakua*, *dirurik bakua*, *uste bakua* Etxba Eib. (OEH 96)
  - *gabeko* / *bageko* (*baeko*), *bagako* (*bagaako*)
  - B: *bako*, *baako*
  - *gabeko(t)an*, *ba(a)koan*
4. *-ko* atzizkia partitiboaren gainean ere ezar daiteke:
  - *gaberiko*, *bageriko*
  - *bariko*, *bareko* (*txamarra hau poltsiko barekua* da OEH: 98; *Eta axolabarikoak arrastoak uzten ditu gainera*, Euskaldunon Egunkaria, 1999-04-21)

Aldaera hauetaz gain badira hizkiari flexio-atzizkia eranstea bokal-egokitzapez sorturikoak (B):

- *baga* > *bagaa* > *bagea*, pl. *baga(a)k*
- *bagean* > *bagian* / *bagaan*

4.2. *-kabe* aldaera

Arreta berezia merezi du *-kabe* aldaerak, euskararen estandarizazioan eta hitz berriak sortzeko orduan aldaera bat edo beste hautatzea zail gerta daitekeelako (4.1 atalean azaldu ditugun beste aldaerek ez dute halako arazorik sortzen ihartuak dau den neurrian bakarrik erabiltzen direlako; haietan horixe dugu arazoa: tradizioa aztertu eta lexikalizazio-gradua bereiztea).

Bi aldaera hauen artean (*gabe/kabe*) herskari ahostun/ahoskabe txandaketa dago, eta txandaketa hori zein ingurune fonikotan gertatzen den aztertutik pentsa daiteke oinarri edo lehen osagai den hitzaren amaierak erabaki dezakeela bat edo beste (cf. txistukaria+herskari ahostuna: *ez da/ezta*, *hizpide* eta abar). Arrazoi bera izango litza-teke *-kal-ke* txandaketarako, Azkuek adierazi bezala (Azkue 1923: 156).<sup>27</sup> Horretarako, bi ingurune aipatzen ditu Azkuek:

1. Txistukariaren ondoren: *biozka* (Laukiniz, B), *siniska* 'incrédulo'.
2. Aditzoinaren ondoren: *egoska*, *egika* 'incompleto', *inauska*, *ikuzka*.

(27) "En un principio este sufijo habrá sido permutación fonética de ga ... por choque con los dígrafos ts y tz ... o por supresión de la terminación de un tema verbal".

Baina aditzoinaren ondorengoetan gerta daiteke aldaera ahoskabea nahiz eta aditzoinaren bukaera txistukaria izan ez. Are gehiago, Azkuek berak aipatzen ditu beste hainbat adibide arrazoi fonetikorik gabeak, bere ustetan sortu berriagoak (analogiaz?): *aseka*, *arteka* (*artega*), *atsaka*, *doaka*, *endeka*, *ganoka*(?), *geldika*, *gozaka* (*gozaga*), *indarka* (*indarga*), *loka*, *moldaka*. Eta *-kabe*: *atsakabe*, *atsekabe*, *antsikabe*, *ajolakabe*, *gatzkabe*, *garkabe*, *ustekabe*.

Axularrek ere *antsikabe*, *atsekabe* darabil *bidegabe*, *bondargabe*, *gozogabe*, *paregabe*... aldaeren ondoan (Villasante, 1981: 75). Azken urteetako hiztegitikileek etengabe izan dute zalantza eta *neurrigabe*, *liluragabe*... eta *interesgabe* bezalako ondoan zehazkabe edo *gorpuzkabe* (cf. Hiztegi Batuko *gorpuzgabe* edo Kintana, 1977 *gorputz gabe* 'incorpóreo') bezalakoak proposatu dituzte (L.M. Mugica 1984).

Euskaltzaindiaren LEF batzordeak (Euskera, 1992-2: 808) honela biltzen ditu datuok:

(24)

*Lotsagabe* modukoetan, batez ere lehen osagai txistukariz amaitzen denean, duda-muda ageri da sarri *gabe* eta *kabe* artean. Bizpahiru ohar egin behar da, halere:

- Alternantzia hori bokal ondoren ere ageri da: *antsikabe*, *atsekabe*, *ustekabe*, *zorikabe*, (*axolakabe*)... Baita *oharkabe* modukoetan ere. Ez dirudi, beraz, hots-ingurune jakin baten baldintzapen estuaz hitz egin daitekeenik.
- Lehen osagaiaren amaierako txistukarietan zalantza ageri da, gainera, *gatzgabelgatzgabe*, *akasgabelakatsgabe* moduko bikoteen artean.
- Orainagoko elkarteetan, ez dirudi bodega/petaka hots-araua gehiengutan betetzen denik: *funskabe*, *horzkabe* edo *akaskabe* gortuen ordez *funsgabe*, *horzgabe* edota *akasgabe* ozenak dira askogatik nagusi.

Beraz, datu gehiagorik ez dugularik ezin esan dezakegu hots-inguruneak erabakitzen duenik bi aldaera hauen agerpena. Gainera antzeko zalantza ikus daiteke beste atzizki edo hizki batzuekin ere (cf. *hausgarri*, *eragozgarri* eta *azkarri*, *euskarri*) baina badirudi, oro har, herskari ahostuna duen aldaera nagusitzen dela (Hiztegi Batuan *euskarri* da *-karri* aldaera duen bakarra eta *hozpera* bezalakoak gaitzetsi egiten dira euskara estandarerako). Badirudi ez dela hots-ingurunearen araberrako hau-tua, eta bai garai bateko herskari ahoskabe eta ahostunen arteko kidesanaren arrastoa (agian hitz hasiera edo hitz barneko agerpenaren araberrakoa), Mitxelenak proposatu bezala.<sup>28</sup>

Egoera honetan Hiztegi Batuak orain arteko erabilera nagusiari kasu egin dio eta *gabe* aldaeraren alde makurtu da, nahiz eta lehen osagaiaren amaiera txistukaria izan: *bibozgabe*, *funsgabe*, *hats-gabe* (*hasgabe\**), *horzgabe*, *isatsgabe*. Eta lehen osagaiaren amaiera bokala izan arren: *atsekabe*, *dohakabe*, *ustekabe*.

(28) K. Mitxelenak dioenez (1977: 254): "El sistema oclusivo del vasco antiguo contaba con dos series de fonemas. Uno se componía de constrictivas de articulación laxa, ya desde antiguo fricativas entre vocales. Su anterior falta de sonoridad en inicial ha podido conservarse (...) también acaso en las variantes de ciertos morfemas, características de su empleo como sufijos: *-pe* junto a *-be*, *-ka* (*-ke*) junto a *-ga*, cf. *baga*, *bage*, *gabe* 'sin', etc."

Hiztegi Batuko horietaz gain badira *Euskal Hiztegian* txistukari + *kabe* modukoak, sarrera nagusi gisa (*aboskabe*) edo adibideetan (*bihozkabetu*, *pozkabetu*, *toleskabe*). Bestelako hots-ingurunea dutenak: *lokabe*, edo bokal ondorengoak (*atsekabe*, *dobakabe*, *oharbe*, *ustekabe*). Hitz hauek lexikalizatuak daude, zaharrak dira (*antsikabe*) edo bietara ageri dira (*antzakabelantzegabe*, *nabikabelnabigabe*).

*Elhuyar Hiztegiak* sarrera bakarra dakar txistukaria + *kabe* modukoa (*aboskabe*, Hizkl.); besteak txistukaria + *gabe* erakoak dira: *akatsgabe*, *arnasgabe*, *babesgabe*, *funs-gabe*, *ikasgabe*, *isatsgabe*, *nahasgabe*, *sinesgabe*, *tolesgabe*, *bihozgabe*, *gatzgabe*, *gorpuzgabe*, *horzgabe*.

### 4.3. Euskalkien araberako banaketa

*Gabe* hitzaren aldaera fonetikoen banaketa dialektalari dagokionez, hauek dira daturik aipagarrienak:

- Euskalki guztietan erabili ohi da baina *gabe* aldaera iparraldeko euskalkietan (OEH: 86 '*gabe* es propio de los dialectos septentrionales').
- *Gabe* eta *bage* aldaerak euskalki berean, baita idazle baten lanetan bertan ere, nahasian ageri dira.
- Mende honetan *gabe* aldaera nagusitu da.
- Bizkaierazko testuetan *baga* da aldaerarik zabalduena testu zaharrenetan (eta 4.1 azpiatalean azalduriko bokal-elkarketen ondorengo aldaera fonetikoak), baita *bage* aldaera ere. XIX. mendetik aurrera *gabe* aldaera ere aurki daiteke.
- Euskalki eta garai bereko testuetan, baita idazle baten testuetan ere, aldi berean agertzen dira *gabe* (*baga*) aldaera eta *gaberik* aldaera atzizkiduna (*bagarik* > *barik*). Aldaketa hau XIX. mendeko eta XX. mendeko testuak erkatuz gertatzen da nabarmen.
- 4.1. azpiatalean aipatu ditugun beste aldaera atzizkidunen artean ere banaketa bera gertatzen da: *gaberik* / *bagarik* (B), *gabeko* / *bako* (B) eta abar.

Azpieuskalki, idazle eta testuetako erabilera zehatzen berri *Orotariko Euskal Hiztegiak* eskaintzen du (OEH: 86-108).

## 5. Gaur egungo erabilera eta emankortasuna

### 5.1. Elkarte sortu berriak

Aurreko ataletan azaldu dugu nola honelako elkarte berriak etengabe sortzen eta zabaltzen ari diren (ikus adibide modura Elhuyar hiztegiak 3.1.1 atalean). Hitz berri hauen inguruan, ordea, hainbat arazo hartu behar ditugu kontuan:

- Erabilera urrikoak dira ohiko testuetan. Izan ere, beti du idazleak *gabe* postposizio gisa erabiltzeko aukera eta horixe da aldizkarietan (Argia, HABE, Egunkaria...) nagusitzen den joera. Badira, dena den, adibideak: *lurgabetu*, *papergabe* ('indocumentado'), *ziurtatzeke*...

- Hitz berri hauek arlo berezietako hiztegiatan sortzen dira, oro har (Ekonomia, Politika, Teknika...)
- Hitz hauek maiz dute hitz bakarreko ordaina inguruko erdaretan, euskarak erabil ezin dezakeen bideetatik eratua, esate baterako *a(n)*- edo *in-*aurrizkien bidez eratua.

Esan daiteke hizkera esparru berrietako beharrei erantzunez zabaltzen ari direla hitz hauek. Horrela plazaratu dira erdal aurrizkien ordain izan litezkeen euskal eräketa-ereduak (L.M. Mugica, 1984). *Diccionario General y Técnico* elebidunean (DGT, L.M. Mujika) hiztegian honako hauek aurki daitezke, besteak beste:

(25)

*ditigabetu* ('destetar')  
*esangabe* ('indecible')  
*interesgabezia* ('desinterés')  
*kaltgabezia* ('inocuidad')  
*liluragabetu* ('desilusionar')  
*moralgabe* ('amoral')  
*norgabe* ('impersonal')  
*soinugabe* ('átono')  
*sustraigabetu* ('desarraigar')

Gerora ere hiztegi tekniko elebidunetan urratu da bide hori batez ere. Esan beharra dago, dena den, izenondo kategoriako hitz berriak direla zabaldu direnak; bakanak dira, ordea, izen kategoriakoak (tradiziozkoak ez badira —*nabigabe*— edo izen nahiz izenondo izan daitezkeenak —*lotsagabe*—) edo aditzondo direnak (*gabe* hitzarekin sortuak —*etengabe*— edo *-ke* atzizkidunak —*kentzeke*, *ohartzeke* ELH—, sintaxiegituratik hurbilago daudenak). Hona hemen Euskalterm datu-baseak (1999) eskaintzen dituenak, zein arlotakoak diren adierazita. Ez ditugu aipatuko Hiztegi Batuak jaso dituenak edo tradizioan errotoak daudenak, ezta Elhuyar (ikusi 3.1.1) edo urte hauetako hiztegi gehienetan ageri direnak ere:

(26)

IZENA + -GABE

<i>adeigabe</i> Erl	<i>azkengabe(ko)</i> Fil
<i>albumengabe</i> Biol	<i>azukregabe</i> Merk
<i>alkobolgabe</i> Merk	<i>babesgetu</i> Pol
<i>amaigabe</i> Art (aditzoina + <i>gabe</i> ?)	<i>baimengabeko</i> Zuz
<i>amaigabe</i> Fil (aditzoina + <i>gabe</i> ?)	<i>baldintzagabe</i> Fil = 'incondicional'
<i>amaigabe</i> Ind (aditzoina + <i>gabe</i> ?)	<i>baliogabe(ko)</i> Zuz
<i>amaigabe</i> Merk (aditzoina + <i>gabe</i> ?)	<i>baliogabeko</i> Adm
<i>arantzagabe</i> Biol	<i>baliogabeko</i> Kir
<i>arartegabe</i> Psik	<i>baliogabeko</i> Zuz
<i>arartegabe(ko)</i> tasun Fil	<i>baliogabetu</i> Zuz
<i>arretagabe</i> Zuz	<i>baliogabe</i> Zuz
<i>artikulagabe</i> Hiz	<i>basogabe</i> Biol
<i>azalgabe</i>   <i>azalgabe</i> Merk	<i>berungabe</i> Ind



*betegingabe* Fil  
*bornegabe* Mat  
*defentsagabe(ko)* Zuz  
*determinagabe* Fil  
*dimentsiogabe* Kim  
*dirugabe* Zuz  
*distiragabe* Gar  
*distiragabe* Ind  
*eraztungabe* Biol  
*ernarigabe* Med  
*esanahigabe* Hiz  
*eskugabe(ko)* Zuz  
*etxegabe* Pol  
*etxegabeko* Pol  
*formagabe* Erl  
*fosfatogabe* Merk  
*fruitugabe* Biol  
*gakogabe* Biol  
*gasgabe* Merk  
*gastugabe* Eko  
*gastugabeko* Eko  
*harigabe* Gar  
*indargabetu* Zuz  
*iraupengabe* Psik  
*itzuleragabe* Mat  
*jabetzagabe* Zuz  
*jainkogabe* Erl  
*kalikulugabe* Biol  
*karpelogabe* Biol  
*kaudimengabe(ko)* Eko  
*korapilogabe* Merk  
*kupoigabe* Eko  
*langagabe* Gar

*laukigabe* Merk  
*lepogabe* Merk  
*lurgabe* Merk  
*mahukagabe* Merk  
*motibogabe* Hiz  
*mugagabeko* Eko  
*muntagabe* Merk  
*nerbiogabe* Biol  
*obulaziogabe* Med  
*oibartzungabe* Zuz  
*oinordegabe* Zuz  
*ondasungabe* Zuz  
*ordeinugabe(ko)*Zuz  
*periantogabe* Biol  
*pipitagabe* Nek  
*pistoigabe* Art  
*profesiogabe* Erl  
*puntagabe* Biol  
*septatugabe* Biol  
*soinugabe* Hir  
*temagabe* Hiz  
*testamentugabe(ko)* Zuz  
*tonugabe* Hiz  
*uztaigabe* Nek  
*zedarrigabe* Biol  
*zedarrigabe* Hiz  
*zedarrigabe* Med  
*zelomagabe* Biol  
*zentrogabe* Ind  
*zergagabe* Nek  
*zigorgabe(ko)* Zuz  
*zurtoingabe* Biol

#### PARTIZIPIOA + -GABE

(27)

*agertugabe(ko)* Zuz  
*arantugabe* Pol  
*asegabe* Kim  
*asegabe* Psik  
*azaldugabe* Psik  
*banatugabe* Eko  
*betegabe(ko)* Eko  
*betegabe* Adm  
*burnutugabe* Hiz  
*erabakigabe* Zuz  
*eraikigabe* Adm  
*erdaindugabe* Erl =incircunciso

*espezializatugabe* Ind  
*federatugabe* Kir  
*gogartugabe* Fil  
*idatzigabe* Erl  
*idatzigabe* Zuz  
*jaiogabe(ko)* Zuz  
*jasogabe* Zuz  
*justifikatugabe* Merk  
*konbinatugabe* Ind  
*kontrolatugabe* Biol  
*krea(tu)gabe* Fil  
*lumaturugabe* Merk

*moteldugabe* Ind  
*operkulatugabe* Biol  
*ordaindugabe* Eko  
*ordaindugabe(ko)* Eko  
*osatugabe* Zuz  
*osotugabe* Fil

*programatugabe* Hir  
*sor(tu)gabe* Fil  
*trenkatugabe* Biol  
*zaitugabe(ko)* Zuz  
*zulatugabe* Med  
*zulatugabe(ko)* Med

Aditzoina + -GABE

(28)

*aitorgabe* Zuz  
*alboragabe* Mat  
*argitaragabe* Hiz  
*bereizgabe* Eko  
*definigabe* Mat  
*determinagabe* Fil  
*erdigabe* Med

*ez-ezkongabe* Adm  
*krea(tu)gabe* Fil  
*kutsagabe* Erl  
*moldagabe* Psik  
*sor(tu)gabe* Fil  
*ustelgabe* Erl

Baina testuetara jo gabe, datu-basean bertan badira bietarako idazkerak, lotua eta berezia:

(29)

*bezurrik gabe* / *bezurgabe*  
*azalik gabe* / *azalgabe*  
*estali gabe* (?) Kir='no cubierto' / *estalgabe* Merk='no cubierto'  
*baldintzatu gabe* (?) Psik = 'no condicionado' / *kondizionatugabe(ko)* Fil='incondicionado'

Esan gabe doa, idazkera lotuko hitz hauen inguruan berezita idatzitako terminoak ere badira, batez ere erdal ordaina hitz bakarrekoa ez denean:

(30)

*abereak lotu gabe*, 'ganado suelto' (*Bide Seinaleak*, HPIN, EJ)  
*alkoholik gabe*, 'sin alcohol'  
*baloirik gabe*, 'sin balón'  
*bereizkeiarik gabe*, 'no discriminatorio' (*Europako Itunen Hiztegia*)  
*beso gabeko*, 'sin mangas' (cf. *mahukagabe*, *uztaigabe*, *lepogabe*...)  
*birjarpen gabeko*, 'sin reemplazamiento'  
*botorik gabe*, 'sin voto'  
*disimulurik gabe*, 'sin disimulo'  
*dote estimatu gabe*, 'dote inestimada'  
*egosi gabelgordin*, 'natural/cruda'  
*erantzun(ik) gabe*, 'non réponse'  
*erosketarik gabe*, 'sin compra'  
*gainditu gabe*, 'no apto' (*Hezkuntza Saila*, E.J.)  
*bedadurarik gabeko*, 'inextenso'  
*irakaslerik gabe*, 'self access'  
*isilgailurik gabe*, 'sin silenciador'  
*itundu gabe*, 'no concertado'  
*kalifikaziorik gabe*, 'sin calificación' (*Hezkuntza Saila*, E.J.)  
*klororik gabe*, 'libre de cloro'

*konpentsaziorik gabe*, 'compensación excluida'  
*konsolidatu gabe*, 'no consolidado'  
*kontsumatu gabe*, 'no consumado'  
*lanik gabe gelditutako langileak*, 'main-d'oeuvre disponible' / 'redundant workers' (*Europako Itunen Hiztegia*)  
*prestatu gabe*, 'sin preparar'  
*sugarrik gabe*, 'sin llama'  
*zerga gabe*, 'libre de derechos' (*Europako Itunen Hiztegia*)

Beste hiztegi batzuetan ere badira idazkera lotua ageri duten elkartuak baina badirudi nekez jotzen dutela hiztegitileek bide horretatik. *Zirkulazio Hiztegia*, esate baterako idazkera bereizia da nagusi:

(31)

*baimendu gabeko*, 'no autorizado'  
*berunik gabeko*, 'sin plomo'  
*distiragabe*, 'mate'  
*distirarik gabe*, 'no luminoso'  
*etengabe*, 'continuo'  
*etenik gabe(ko)*, 'ininterrumpido'  
*gaitasunik gabe utzi*  
*gidabaimena indargabetu*, 'suspender el permiso de conducir'  
*indargabe uzte*, 'suspensión'  
*irteerarik gabeko*, 'sin salida'  
*lotu gabeko animalia*, 'animal suelto, en libertad'  
*sidekarrik gabe*, 'sin sidecar'

Beste adibide batzuk:

(32)

*alboragabe*, 'no sesgado' (*Epidemiologia Hiztegia*, OEE)  
*egituragabe/egitura gabe*, 'no estructurada/inestructurada' (*Psikologia Hiztegia*, EHU-UZEI)  
*kargugabetu* (*Kooperatiba Hiztegia*, IVAP-HAEE)  
*sailkatugabea*, 'no clasificado' (*Udal Administrazioako Hiztegia*, IVAP-HAEE)

Beste hiztegi batzuetan, berriz, ezohiko maiztasuna ageri dute idazkera lotuko formek (arloko erabilera gabe, hiztegitilearen proposamen edo aurreiritziaren ispilu izan daiteke). Horrela, *Enpresa Hiztegia* (UZEI):

(33)

*banatugabe*, 'no distribuido'  
*betegabe*, 'no atendido'  
*emangabe*, 'pendiente'  
*kaudimengabe*, 'insolvente'  
*kaudimengabezia*, 'insolvencia'  
*kobragabe*, 'pendiente de cobro'  
*kotizatugabe*, 'no cotizado'  
*ordaingabe*, 'impagado'  
*ordaingabe*, 'pendiente'

Edo *Ibardunaldi Medikoetako Hiztegian* (OEE):

(34)

*diferentziatugabe, berezigabe*, 'indiferenciado' (cf. bereizi gabeko DSM III, EHU)  
*beldugabe*, 'inmaduro'  
*monosaturatugabe*, 'monoinsaturado'  
*muzinagabe*, 'no mucinoso'  
*polisaturatugabe*, 'poliinsaturado'  
*porlangabe*, 'no cementado'  
*sintomagabe*, 'asintomático'  
*transformatugabe*, 'no transformado'

## 5.2. Erdal aurrizkien ordainak

Aurreko atalean adierazi dugu testuetan baino gehiago hiztegi tekniko elebidunetan ugaritu direla *gabe* hizkia lotua duten elkarteak. Bada horretarako eragile bat kontuan hartu beharrekoa. Azkuek berak aipatzen ditu erdarazko *sinnúmero, sinfín, sinvergüenza, sansculotte, sanssoucci, sansdent* bezalakoak euskarazko ordainen pareko gisa.

Itzultzaileak (eta hiztegiak) maiz du erdal hitzaren ordaina eman beharra. Aztertzen ari garen egiturari dagokionez badira hainbat hitz edo egitura euskaraz *gabe* hizkiaz sortutako elkarten bidez ordain daitezkeenak:

(35)

hitz soilak: *sorpresa* (*ustekabe*), *inocente* (*errugabe*)  
*falto de: fallo de juicio* (*zentzugabe*), *falto de ánimo* (*adoregabe*)  
*in-*: *insípido* (*gatzgabe*), *incomparable* (*paregabe*), *inadvertidamente* (*ohartzeko*), *insaturado* (*asegabe*), *inarticulado* (*giltzagabe*)  
*des-/dis-*: *despreocupado* (*arduragabe*)  
*a(n)-*: *adimensional* (*dimentsiogabe*), *amoral* (*moralgabe*), *atemporal* (*denboragabe*)  
*sin-*: *sinvergüenza* (*lotsagabe*)  
*no*: *no casado/soltero* (*ezkongabe*), *no clasificado* (*sailkatugabe*), *no acostumbrado* (*obitugabe*), *no presentado*

Dena den, eraketa-bideak ez datoz beti bat hizkuntza batean eta bestean eta banan-banan aztertu behar dira hitzok euskal ordaina eman aurretik.

(36)

*incruento es / non sanglant fr* (*odolgabe*)  
*impagado es / non acquitte fr* (*ordaindugabe*)  
*unemployed en / chômeur, sans emploi fr / parado, desempleado es* (*langabe*)

Eta oro har kontuan hartu beharra dago *gabedun* elkartuen bidez osa daitezkeen egitura hauek beste bide batzuetatik ere osa daitezkeela euskaraz.

(37)

*aitzakiarik gabeko / erantzunezin* ('inapelable' *fig*)  
*bukaezin / amaigabe* ('interminable')

*ezgaitasun* / *gaitasun ez(a)* ('incapacidad')  
*gezatu, gatzgabatu* ('desalar')  
*bezigabe, gizabidearen kontrako, gaizki ikasi* ('incivil')  
*inkoherentzia* / *koberentzia ez(a)* ('incoherencia')  
*margul, koloregabe, kolorge* ('inoloro')  
*moldagaitz* / *desegokitasun* ('inadecuación')

Euskarak honelako hitz edo egiturak erabil ditzake ordain gisa:

- Hitz soila: *kamustu* (desafilar); *isolatu, bakartu* (incomunicar), cf. *komunikagabatu* (L.M. Mugica, 1984).

Euskal ordainak beste oinarri bat hartzen duenean, bestelako atzizki edo elkarterako bigarren osagairen bat har daiteke (*gogaikarri*, 'incómodo'). Dena den, euskal hizkuntzan sortutako forma hauetan maiz gertatzen da euskal ordain bereziaren ondoan erdarazkoaren forma mimetikoa ere badela (euskal usadiokoa edo berria: *deseroso/incómodo*) edo erregistroaren arabera bereizten direla (*geldo* 'inactivo' / *aktibitate gabe* Geo 'inactivo').

- Aurrizkia (*des-/ez-*). Aurrizki honen esanahietako bat (ukapena edo kontrakotasuna, gabetasuna, zerbait edo nonbaitetik atera) bat dator *gabe* osagaiarekin: *ustekabe* / *ezuste*. Oinarritzat har dezake aditza (*deserrotu; desestali*, cf. *estalgabatu*), izena (*deserria, ezizen*), izenondoa (*desberdin*), aditzondoa (*ezklarki*), aditz partizipioa (*ezikusia*). Oro har, erdarazko egitura aurrizkidunen ordaina euskal aurrizkiaren bidez osatzeko joera izan da, euskal forma jatorragoen (postposizioa...) kaltetan: *ezlegezko, ezmoral, eztrebe...* Azken urteetan erdarazko *no* + partizipioa (*no presentado*), *no* + izenondoa (*no traumático, no promiscuo*) edo *no* + izena berezia (*no Hodgkin*) euskarara itzuli beharrek zalantza ugari sortu du hainbat aukeraren artean:

(38)

*Ezikusia, ezentzuna* bezalakoen antzera *ez-agertu, ez-aurkeztu* sortu izan dira *agertu gabe, aurkeztu gabe* egituren kaltetan.

(39)

*Ez-traumatiko, ez-gubernamental, ez-nahasi* bezalakoak sortu dira *traumatikoa ez den* bezalako egitura parafrastikoen, *governuz kanpoko* postposizioaren edo *nahasi gabe* bezalakoen ondoan.

Halakoak bereziki ugaritu dira hiztegi batzuen proposamenen ondorioz. UZEIren *Matematika Hiztegiak* (1982) esate baterako honakoak dakartzta: *ez-bakar, ez-euklidear, ez-harmoniko, ez-jator, ez-lineal, ez-nulu, ez-periodiko, ez-trukakor, ezoso* (cf. *osagabe* 'incompleto').

- Aurrizkia kultur hitzetan (tema bati loturik): *a(n)-* edo *in-*.

Hitz hauek erabat ihartuak egon daitezke inguruko erdaretan eta beren euskal ordaina euskal hitza (edo egitura) edo mailegua izan daiteke: *incorporar* (*erantsi*), *inculpar* (*errua egotzi*), *inciensu* (*intsentsu*), *invertir* (*inbertitu* Eko), *incubar* (*inkubatu* Med).

Honela sortutako euskal hitzaren oinarria gardenen izan daiteke edo beregaina ez den kultur tema. Oinarria gardenen denean izan ohi da zalantza, bereziki:

(40)

anormal: *anormal* (?), baina *obizkanpoko*, *ezobi(z)ko*, *normala ez den(a)*  
 átono: *atono*, *azentugabe*  
 acéfalo: *azefalo* (baina *irud. buruzagi gabe*, *nagusi gabe*)  
 analfabeto (cf. 'no alfabetizado' *alfabetatu gabeko*)  
 anestesia: *anestesia* (ildo beretik *biperestesia*, *parestesia*...)  
 atomo: *atomo*

• Bigarren osagaitzat *ezin*, *gaitz* duten izaera-elkarteak ere maiz dira erdarazko *in-* edo *des-* aurrizkidun hitzen ordain: *eskuraezin*, *eskuragaitz* ('inaccessible'), *onarrezin* ('inacceptable'), *gaitzetsi* ('desaprobar'). Baina hauek nekez sortzen dute *gabe* hizkiar osatutakoekin zalantzarik: 'torpe' *moldakaitz* (Elh.), *moldegabe* (L.M. Mugica), *moldakaitz/moldagabe* (LUR).

Badirudi hauxe dela biderik emankorrena erdarazko *in-* eta *-ble* aurrizki eta atzizkidun hitzen ordainak osatzeko: *aldaezin*, *itzalezin*, *atzeraezin*, *atzemanezin*, *nekagaitz*, *erregaitz*..., baina *duda(rik) gabe* 'indudable'.

• Ez + aditza: *ez betetze* ('incumplimiento'), *ez bertaratze* ('inasistencia'), eta *ez-agertul/agertu gabe* ('no presentado'). Ikusi supra "no + partizipioa" eta abar.

• Izena (absolutiboa edo partitiboa) + *ez(a)*, 'falta, carencia, penuria, pobreza': *inapetencial/jateko gogo(rik) ez*; *inconsistencia* / *trinkotasunik ez(a)*. Baina aldi berean 'inconsistencia, informalidad' *funtsik ez(a)* / *funsgabetasun*, *funsgabekeria*.

• *Gabe* hizkia: postposizioa, (*-rik) gabe*, edo elkartea (*-gabe*). Hitz soilaren, aurrizkidunaren edo atzizkidunaren ordaina izan daiteke. Ikusi adibideak 5.1. atalean.

(41)

nulo: *baliogabe*  
 cobarde: *bibozgabe* (metaforikoa)  
 sin voto: *botorik gabe*  
 descubierta: *estalogabe*, *estali gabe*  
 non bati, no edificado: *eraiki gabe*  
 hyphe non-cloisonnée: *bifa trenkatugabe*  
 incomplète, incompleto: *osagabe*  
 wingless: *begogabe* (áptero)  
 semilla exalbuminosa (exalbuminée, exalbuminous): *bazi albumengabe*  
 apétalo: *petalogabe*  
 nervio, nerveuse (sans nerf): *nerbiogabe*

• Sintaxi-egitura edo forma perifrastikoa: *harpide izateari utzi* ('desabonarse'), *obitura lagarazi* ('desacostumbrar', cf. 'desacostumbrado' *obitura(rik) gabe*, *obitu gabe*). Maiz zalantza erakusten dute hiztegi-gileek: *armak kendu* / *desarmatu* ('desarmar'), *kaltzioa galdu/kendu* / *deskaltzifikatu* ('descalcificar'). Aditzetan erabili ohi da bide hau *gabe* > *gabetu* (*axolagabetu*, *baliogabetu*, *bibozgabetu*...) eratorpenarekin batean (ikusi infra 5.3).

### 5.3. Erabilera-mugak

Bigarren osagaitzat *gabe* hizkia duten elkarteak euskal tradizioan aski errotuak daude eta gaur egun ere hitz berriak sor ditzakete. Idazkeraren arazoa (lotua edo bereiz) hurrengo atalean aztertuko dugun arren, komeni da hemen aipatzea muga batzuk badirela elkarketarako. Muga horien barruan eraturako hitza zuzena izango da, baina horrek ez du esan nahi gaurko hiztunak (edo hiztegiak) berehalakoan onartuko dituenik: lehen aipatu ditugun hainbat hiztegitako *distiragabe*, *obulaziogabe* edo *operkulatugabe* (hauek ere hiztun askok postposizio gisara nahiago lituzketenak, dudarik gabe) haien ondoan osa genitzake *kapitalgabe*, *ordenagailugabe*, *mahaigabe* edo halakorik? Dena den, usadioaren arazoa alde batera, badira muga batzuk gainditu ezin direnak, hizkuntz zuzentasunari dagokionez bereziki.

#### 5.3.1. Forma (hots-arazoak)

Gorago adierazi dugun bezala *gabe* da euskara estandarerako proposatzen eta hobesten den forma *kabe* aldaeraren kaltetan, nahiz eta elkartearen lehen osagaia txis-tukaria izan. Salbuespen dira usadioak era horretara finkatu dituenak: *atsekabe*, *ohar-kabe*, *dohakabe*... (ikus 4. atala). Horrela osatu dira *bereizgabe*, *gasgabe*... (Euskalterm). Hauen ondoan bada Hiztegi Batuan *lotsabako* hitza *Bizk* markarekin: bide horretatik eratuek (*bako*), oro har, marka hori izango dute, hedadura bat edo beste delarik ere.

#### 5.3.2. Kategoria

*Gabe* bigarren osagaitzat hartzen duten elkartu berriek, oro har, izenondoak osatzen dituzte (ikus supra 3.1 eta 3.2). Usadioak finkatu dituen izen kategoriako hitz bakanez gain (*nahigabe*...) gaurko erabileran, hortaz, izenondo ditugu honelako elkarteak baina hauetako asko izen modura ere erabil daitezke. Gaurko erabilaren berri eman diezagukeen hiztegi bat hartuta (Elhuyar) ikus dezakegu 159 sarrera direla *gabe* (edo *kabe* aldaera) bigarren osagaitzat dutenak; hauetatik 150 dira izenondo kategoriakoak eta 39 izen kategoriakoak (hauetatik gehienei iz eta izond kategoria aitortzen zaie eta 6 baino ez dira iz kategoria soila dutenak: tradizio zaharreko *behargabe* 1757, *bidegabe* 1545, *nahigabe* 1740; berriagoa den *langabe*; *berrigabe* eta *jaikigabe*).

#### 5.3.3. Alderdi semantikoa

Ihartuak dauden hitzez gain (hauetan ez baita hain gardena osagaien adiera: *donga*...), badira hainbat hitz lerratze semantikoaren bidez esanahi berezia edo metaforikoa hartu dutenak:

(42)

*agerigabe*: 'oculto'

*bihozgabe*: 'cobarde'

*burugabe*: 'insensato'

*eragabe*: 'excesivo'

#### 5.3.4. Oinarriaren kategoria<sup>29</sup>

Elkarte hauen oinarriaren kategoriari dagokionez ere ikusi 3.1 eta 3.2 atalak. Gaurko elkarte berriei dagokienez ere, oinarria izena edo aditza izan ohi dela ikus daiteke, ez izenondoa. Oinarria aditza denean partizipioaren gainean eratzen da elkarte, nahiz eta aditzoinaren gainean eratuak ere bat edo beste badiren: *definigabe, ustelgabe...* (Euskalterm)

Arazoa gerta daiteke inguruko erdaretako hainbat hitz, falta edo gabezia adiera izanik oinarritzat izenondoa dutenak. Halakoetan ezin osa daiteke euskal forma mimetikorik: aurrizkia + izenondoa = \*izenondoa + *gabe*

(43) *informal: \*formalgabe*

Halakoetan, hiru dira hautazko bideak:

1. Mailegu zuzena. Errazago onartu ohi da "hizkia + tema" erako elkartuetan (*afoniko, afasiko, abioniko...*). Bide horretatik jo dute *amoral* hitza hautatu duten hiztegiek. Jakina da mailegatu hauen muga ez dela garbia eta errazago jo dutela bide horretatik idazle edo hiztegi batez beste batzuek baino (*Elb.: reunión informal / bilera informala*).

2. Elkartea *gabe* osagaiaren bidez osatzea, oinarritzat izen kategoriako hitza erabiliz. Halakoak ditugu *informal / ganoragabea* edo *informal / funsgabea* bezalakoak. Bide hau egokia dugu baina itzulpen-prozedura berezia eskatzen du *formala: ganora duena* bezalako parafrasia eskatzen baitu sorburu-hizkuntzan (*incivil: bezi-gabea*).

3. Sintaxi-egitura, *gabe* hitza erabiliz (*formalitaterik gabea*), beste hizki (*incapaz: ezgauza, ezgai*) edo postposizio batzuek (*incivil: gizalegearen kontrakoa*) edo bestelako egitura batzuek (*funtsik ez duena*).

Gogora dezagun, bestalde, beti dela erdal hitzen euskal ordain zuzena bilatzeko aukera egituren kopia mimetikoan erori *gabe*, nahiz eta beti erraza ez den ordain hauek hizkuntz erregistro eta testuinguru guztietan erabiltzea:

(44)

indiscret: *begiluze, mihiluze, zoko-miatzaile*

indiscreción: *arinkeria*

inactivo: *motel* (baina *Kim?*)

indépendent: *berezi, aparteko; burugain; independiente*

Erdal hitz aurrizkidunaren euskal ordaina emateko orduan, honakoa izan daiteke egoera:

1. Sorburu-hizkuntzako hitzaren oinarria aditza denean, euskaraz aditza har daiteke oinarritzat eta hitz elkartua edo sintaxi-egitura eratu *gabe* hitzaren bidez: *descubierto / estaligabe, estali gabe*. Halakoetan aditz-partizipioa hartu ohi da maizen.

(29) Gai honetan eskerrak eman behar dizkiogi M. Azkarate irakasleari bere azalpen argigarriengatik eta bereziki EHU/UPVko 1995eko Hobekuntza ikastaroan eskainitako azterlanarengatik.



2. Sorburu-hizkuntzako hitzaren oinarria aditz-partizipioa denean ere euskaraz hitz elkartua edo sintaxi-egitura osa daiteke oinarritzat aditza erabiliz: *insaturado / asegabea; maleducado / bezigabea, lotsagabea; no presentado / bertaratu gabea...*

3. Sorburu-hizkuntzako hitzaren oinarria izena denean, euskaraz izena har daiteke oinarritzat eta hitz elkartua edo sintaxi-egitura eratu *gabe* hitzaren bidez: *shameless / lotsagabe*.

4. Sorburu-hizkuntzako hitzaren oinarria izenondoa denean ez dago euskaraz oinarritzat izenondoa hartzerik: ikus supra *informal* > *\*formalgabe*.

5. Sorburu-hizkuntzako hitzaren oinarria aditzetik eratorritako izenondoa izan daiteke. Bereziki ugari dira halakoak *-ble* atzizkiaren bidez eratuak: *increible, incurable, indeseable, indivisible, inigualable, invisible...* Euskaraz maiz da *-garri* atzizkia erdarazko *-ble* atzizkiaren ordain (*ikusgarri, sinesgarri...*) baina oinarria aditza duelarik (ikus berrelkarketa 5.3.6 atalean). Honelakoetan, 5.2. atalean azaldu ditugun eraketa-bideak dira egokienak: *sinestezin, ezin sinetsizko, moldagaitz...*

### 5.3.5. Hitz osoaren kategoria

Aurreko ataletan azaldu dugun bezala maiz darabilgu *gabe* hizkiaren bidezko elkarketa erdarazko aurrizkidun hitzen ordaina asmatzeko. Baina aurrizkiak ez du oinarriaren kategoria aldatzen; elkartetan, berriz, kategoria-aldaketa gerta daiteke eta, ikusi dugun bezala, elkarketa-burua *gabe* hitza denean hitz elkartua izenondo kategoriakoa izan ohi da.

Hortaz:

(45)

actividad (iz): *jarduera* (iz), *ekintza* (iz), *aktibitatea* (iz)  
 inactividad (iz): *\*jardueragabea, \*ekintzagabea, \*aktibitategabea* (xgabe elkartean izond direlako)  
 inactividad: *jarduera(rik) eza, gelditasuna, geldirik egotea* (beste erabide batzuk)

Euskal hizkuntzaren barnean eraketa-mugak aski garbi (ez beti) badaude ere, kontuan hartu beharra dago 5.3.4 eta 5.3.5 azpiataletan aztertu dugunaren arabera, inguruko erdaren indarrak eta gaurko erabilera teknikoak eskatzen duen lexiko-sortzeak paradigma nahasi samarrak sor ditzaketela. Hau da, ez dagoela paradigma hauetan eraketa-bide bakar bat hitz guztietan erabiltzerik eta banan-banan erabaki beharko direla lan honetan aztertzen ari garen mugen barnean.

(46)

intolerable (izond): *onartezin, jasangaitz, eramangaitz, eramanezin...*  
 intolerante: *intolerante(?)*  
 intolerancia: *tolerantzia(rik) eza, intolerantzia(?)*,  
 imparcial: *inpartziala(?)*, *ez alderdikari(?)* (ELKAR euskara-frantsesa), *zuzen(?)*,  
*\*partzialgabea*  
 impartialment: *zuzen(?)*, *bereizkuntzarik gabe...*

5.3.6. *Berrelkarketa*

5.3.6.1. *Gabe* hizkiaren bidez osatutako elkarteek atzizkiak har ditzakete, beren kategoriari dagozkionak, izenondoari alegia.

1. Izenak sortzeko *-tasun* edo *-keria* har ditzakete. Izen abstraktuak sortzen dituzte eta arrazoi semantikoan ondorioz bietako bat edo biak har ditzakete. Hona hemen Hiztegi Batuak orain arte jaso dituenak:

(47a)	(47b)
<i>errugabetasun</i>	<i>axolagabekeria</i>
<i>fedegabetasun</i>	<i>bidegabekeria</i>
<i>funsgabetasun</i>	<i>burugabekeria</i>
<i>hobengabetasun</i>	<i>eragabekeria</i>
<i>indargabetasun</i>	<i>eskergabekeria</i>
<i>lotsagabetasun</i>	<i>funsgabekeria</i>
<i>mugabetasun</i>	<i>itxuragabekeria</i>
<i>neurrigabetasun</i>	<i>lotsagabekeria</i>
	<i>neurrigabekeria</i>

2. Adizlagunak sortzeko atzizkiak: *-ki*. Hauek dira Hiztegi Batuak jaso dituenak:

(48)	
<i>bidegabeki</i>	<i>itxuragabeki</i>
<i>eragabeki</i>	<i>lotsagabeki</i>
<i>funsgabeki</i>	<i>neurrigabeki</i>

3. Aditzak sortzeko: *-tu*.

(49)	
<i>axolagabetu</i>	<i>itxuragabetu</i>
<i>baliogabetu</i>	<i>konortegabetu</i>
<i>bihozgabetu</i>	<i>kordegabetu</i>
<i>burugabetu</i>	<i>lotsagabetu</i>
<i>bats-gabetu</i>	<i>nahigabetu</i>
<i>indargabetu</i>	<i>odolgabetu</i>

Arazoa gertatzen da bereiztea noiz dugun *xgabe* tankerako hitz elkartu baten ondorengo hitz eratorria eta noiz dugun *gabetu* hitza elkarketaren bigarren osagai. *Xgabetu* erakoekin ikus daitekeenez *axolagabetu*, *bihozgabetu*, *eskergabetu*, *lotsagabetu*, *gatzgabetu*... bezalako hitzen eraketa bi modutara azaldu daiteke:

- (50)
- a)  $[[\text{indar} + \text{gabe}]_{\text{izon}d} + \text{-tu}]_{\text{ad}}$  (Elkarte baten gainean eraturiko hitz eratorria)
- b)  $[[\text{indar}]_{\text{iz}} + [\text{gabetu}]_{\text{ad}}]_{\text{ad}}$  (Hitz soil batez eta eratorri batez osaturiko hitz elkartua)

Hau da, hiztunaren intuizioak hurrenez hurren 'indargabe bihurtu' (50a) eta 'indarrez gabetu' (50b) parafrasien bidez ulertuko lituzkeenak. Bi horietatik (50a) egitura gertatzen da gaur egun emankorren (izon<sup>d</sup> + *-tu*), hitz berriak sortzeko ia

mugarik gabe. Bigarren egiturari dagokionez (50b), askoz emankortasun apalagokoa dela ikus daiteke, nahiz eta halako elkartuak sortzeko oztoporik izan ez.<sup>30</sup> Izan ere testuetan aztertuz gero noiz egiten den egitura sintaktikoaren aukera (zertaz gabetu, zertatik gabetu...) eta noiz osatzen den elkartea (*kemen bagetu, anima gabetu...*) nabaria da bigarren aukera hau ez dela emankorra. Gauza bera gertatzen da beste atzizki batzuekin (ikus infra *lotsagabetasun, mugagabetasun, neurrigabetasun...* vs *diru gabezia, ganora gabezia...*).

Dena den  $x +$  *-gabetu* moduko egitura ere bada euskaraz. Esate baterako, *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera* liburuan honako hauek ematen dira egitura horren erakusgarritzat:

(51)

- (a) *baimengabetu*,
- (b) *baliogabetu*,
- (c) *txartelgabetu* (adibide sortu berri(ago)en artean).

Adibide hauetan beharbada bi egitura desberdinen aurrean gaude: *baimengabetu* eta *txartelgabetu*, *xgabetu* (50b) egitura elkartuaren araberakoak izan daitezke ('zerbait ez gabetu'); baina *baliogabetu*-k, *baliogabe* elkarteren gainean eratua dirudi. Esan bezala, kontua da zenbaitetan semantika aldetik zail samarra dela bi egituren (50a/50b) arteko bereizkuntza.

Bestalde, Sarasolak bere *Euskal Hiztegia*-n gramatikazko hurrengo oharra egiten du beheko erabilera aurkeztean: "Zenbait izen, inolako mugatzailerik ez badaramate, delako deklinabide atzizkia gabe [-(-e)z gabe] erabil daitezke."

(52)

- (a) *Judutarrak errege-gabetuak izan zirenean* (Lç-ren adibide egokitua)
- (b) *Lebenik, bakailaoa ongi gatz-gabetu behar da*
- (c) *Bertan hasi zen ezagutze gabetzen* (Lç-ren adibide egokitua)

OEH-k zera dio: "Forma parte de gran cantidad de compuestos más o menos lexicalizados, como *axolagabetu, bibozgabetu, eskergabetu, indargabetu, lotsagabetu, gatzgabetu*, etc., por lo gral., como se ve, tras sust.; sólo excepcionalmente se encuentra tras verbo (en *egingabetu* (q.v.)). "Des, se explica con *des* o *bagetu, getu*: v.g. *desaguar, urbagetu, -gabetu*, desvergonzarse, *lotsabagetu*, etc." Añ. Hona hemen, OEHTik jasotako beste adibide batzuk:

(52)

- (d) *Itzul miñgaña / Zakariasi bezala hitz gabetu zaitana* (EZ Man)
- (e) *Abere lepo-gabetu bat* (Ub)
- (f) *Korputza janari gabe argaltzen ta aginte gabetzen da* (Mg CC)
- (g) *Zezena kemen bageturik erori zakean lurrera* (Izt C)
- (h) *Beldurrez yadaneke odol gabetua* (Hb Esk)

(30) Elkartu hauen barne egituraz (*odolustu < odolez bustu; gurutziltzatu < gurutzean iltzatu...*) beste lan batean arituak gara (ik. X. Alberdi et &: 1997).

- (i) *Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabetzeak arrotzu* (Ldi II)
- (j) *Haurraren gorputz gonorte-gabetuak*(Mde HaurB)
- (k) *Inditar iskillu gabetuak Erromako mendietatik alderatzen dituzuna* (Ibiñ Virgil)
- (l) *Gure etxea mueble gabe zegoen hustua / anima gabetua bilbutsia*(Lasa-Poem)
- (m) *Lo gabetua dabile* (AN-5vill) (Gte Erd 213)

### 5.3.6.2. Xgabetu tankerakoen egitura

Aurreko ataleko azterketa eta adibideetatik honakoa ondoriozta daiteke:

1. Gaurko hiztegian egitura biak agertzen zaizkigu: (50a)ren arabera sortuak diren *indargabetu* modukoak; eta (50b)ren arabera sortuak diren *baimengabetu* tankerakoak. Hauek dira *Euskal Hiztegiak* jasotzen dituenak:

(53)

<i>adargabetu</i>	<i>adoregabetu</i>
<i>abalkegabetu</i>	<i>angabetu</i>
<i>antsigabetu</i>	<i>arduragabetu</i>
<i>armagabetu</i>	<i>axolagabetu</i>
<i>babesgabetu</i>	<i>baliogabetu</i>
<i>bibotzbagetu</i>	<i>burugabetu</i>
<i>erabagetu</i>	<i>estalgabetu</i>
<i>fedegabetu</i>	<i>gatzgabetu</i>
<i>gogogabetu</i>	<i>hais-gabetu</i>
<i>horzgabetu</i>	<i>idungabetu</i>
<i>indargabetu / indargetu</i>	<i>itxuragabetu</i>
<i>kemengabetu</i>	<i>koloregabetu</i>
<i>kolorgetu</i>	<i>konortegabetu</i>
<i>kordegabetu</i>	<i>lepogabetu</i>
<i>lotsagabetu</i>	<i>nahigabetu</i>
<i>pozgabetu</i>	<i>tresnagabetu</i>
<i>zaingabetu</i>	<i>zentzugabetu</i>
<i>zorgabetu</i>	

Baina beste asko ere sortzen dira hiztegitan. *Elb.* hiztegiak, adibidez, beste hauek ere proposatzen ditu:

(54)

*errugabetu*  
*gaingabetu*  
*gaitasungabetu*  
*bezurgabetu*  
*hosgabetu*

2. Zenbaitetan semantika aldetik zaila da bi egituren artean (50a eta 50b) bereiztea: dena dela, *xgabetu* hitzaren aldamenean *xgabe* tankerako oinarria dugunean, era-

torpenaren (50a-ren) aurrean gaudela pentsa daiteke (*gatzgabetu*, *odolgabetu* modukoetan, adibidez).

3. (50b) egituraren araberakoak diren forma lexikalizatuak (*lepogabetu*, *baimengabetu*, *txartelgabetu*) aldamenean, badira sintaxian sortuak diren egiturak, hala nola 52a, c, d, f, i, k, m.

4. Esanak esan, badirudi (50a) egitura (eratorpena) dela emankorrena eta tradizio zabalena duena (*axolagabetu*, *bibozgabetu*, *eskergetu*, *indargabetu*, *lotsagabetu*, *gatzgabettu*). Halakoan aldean, (50b) ereduak ez da hain emankorra: gutxi dira *xgabetu* tankerako hitz erabat lexikalizatuak.

5. Azpimarratzekoa da *indargabetu* modukoetan gertatzen den hurrenkera: lehenik, hitz elkartua sortzen da (*indargabe*) eta, ondoren, hitz elkartua oinarritzat hartzen da eratorpenerako (*indargabe*+ *-tu*).<sup>31</sup> Euskaraz, gutxienez, tankera horretako honako salbuespen emankorrak ditugu (*gabe* hitzarekin osatutakoan adibideak 5.3.6.1. atalean):

(55)

- a. [X+*gabe*]tu
- b. [X+*gabe*]tasun
- c. [X+*gabe*]keria
- d. [X+*gabe*]ki
- e. [aditzoina+*gaitz*]tasun: *ulergaitzasun*, *adigaitzasun*, *fidagaitzasun*, *iragangaitzasun*, *iragaitzasun*, *kutsagaitzasun*, *sinesgaitzasun*
- f. [aditzoina+*ezin*]tasun: *aldaezintasun*, *aseezintasun*, *hautsezintasun*, *hilezintasun*, *ikusezintasun*, *ulertezintasun*, *ukiezintasun*
- g. [oinarria+ets(i)]pen: *mirespén*, *gaitzespén*, *gutxiespén*, *ezespén*, *gorespén*, *onespén*

Egitura horiek guztiak (*-gabe*, *-gaitz*, *-ezin*, *-gai*) hitz-elkarketaren eta hitz-eratorpenaren artean daude: hau da, bestelako euskal hitz-elkarteek nekez onartzen dute erator-atzizkirik.

Horrela gertatzen da elkarte sintetiko arruntak azaltzeko orduan. Bai egile-elkar-teak (*bibotz-hunkigarri*, *kale-garbitzaile*, *euri neurgailu*), bai ekintza-elkar-teak (*fede-ukapén*, *hitz-osaera*, *lan-eskaintza*) errazago uler daitezke

[izena + [aditzoina + atzizkia]]

aditz elkartuen ondorengo eratorpen modura baino.

### 5.3.6.3. Beste hitz eratorri batzuk.

Aurreko paragrafoetan azaldu ditugunez gain, badira *gabe* hitzak har ditzakeen beste atzizki batzuk:

1. *-zia*. *Gabe* > *gabezia*.

Gaur arte batez ere ekialdean erabilia.

(31) Inguruko hizkuntzetan, salbuespenak salbuespen, honako hurrenkera proposatu da: 1. eratorpena; 2. elkarketa. Eta horrek esan nahi du nekez hartzen dela hitz-elkartera eratorpenerako oinarritzat.

(56)

*Nagitasuna da gabeziaren eta pobreziaren unhidea eta haz-ama (Ax.)  
Barnetiko indarraren gabezia erakbusten beitie (OEH: 108)*

-*ezia* atzizkiak izenondoak hartzen ditu oinarritzat izen abstraktuak sortzeko, baina ez da gaur egun emankorra. *Hiztegi Batuan* honakoak baino ez ditugu tradizioetik jasoak: *abilezia, abulezia, gabezia, dotorezia, flakezia, pobrezia*... Hortaz, aspaldi sortu eta lexikalizaturiko *gabezia* hitza (OEHk 1696ko lekukotasuna aipatzen du) hitz-elkarketako oinarri izan daiteke, baina ez dirudi *xgabe* izenondoei ezar dakiokenik. Bat datoz horretan *Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batuaren* araua: *langabezia* da onartzen den tankera horretako hitz bakarra. Beste hiztegi batzuetan, ordea, ugari dira honelakoak: *adoregabezia, axolagabezia, fedegabezia, gogogabezia, ilegabezia, kaudimengabezia, logabezia, simesgabezia* (?) (Elb.).

2. Beste hitz eratorri batzuk. *Gabe(ko)* hitzaren eta hartatik eratorriaren kategoriaren arabera gerta daiteke hartzea:

- txikigarria: *gabekotxo*  
*Batzuk umeai zuzenbidea erakusten ardura gabekotxuak izan oi diralako* (Ag. Kr. 107)
- *gabetsu* 'Hb), pauvre' Lh. (OEH)
- *gabetu* > *gabetze* / *bagetze* (aditz-izena)
- aditz-arazleak: *gabearazi, gabe(e)ragin*
- elkartuak: *gabealdi*
- aurreko ataletan azaldu dugun aldaera lexikalizatua: *gabe* + *-ko* (*lotsabako*)

3. Bestalde, 4.2 atalean aipatu ditugun *gabe* hizkiaren adaera fonetikoaren parekoak badira hitz horretatik eratorritakoetan ere.

- *gabetasun* izenondoa:  
*gabetasun* / *bagetasun*  
*gabekotasun* / *bakotasun*
- *gabetu* aditza  
*gabetu* / *gabemandu* / *gabetzatu*  
*gabekotu*

## 6. Idazkera

Jorratu behar dugun hurrengo gaia hitz-andana hauen idazkera da. Egia esan, gai korapilatsua da eta argitzen zaila. Izan ere, Euskaltzaindiak LEF (1993: 61) batzordearen bitartez araua-edo emana duen arren:

(57)

Idazkera:

1. *lotsagabe* modukoak loturik, bat eginik idaztekoak dira: *burugabe, lotsagabe, mugagabe, zentzugabe*. Hitz bien arteko lotura ilun gera daitekeenean, salbuespenez, hobe marra erabiltzea: (gutun) *sinestamendu-gabea, robot-gabea*.

arau hori ez da, agian, oso zehatza, eta zalantzak sortzen dira haren hedaduraz edo erabil-esparruaz. Hau nolabait zedarritzen da elkarteen kategoria zehazteaz, *izenondo* edo *izen* izan behar baitute (Ib. 60. or.):

(58)

a) *lotsagabe* modukoetan elkarte osoa izenaren ondoko adjektiboa izan ohi da gehienetan; batzuek izen gisa soilik jokatzen dute, ordea.

Horren arabera, *gabe* postposizioak sorta horretatik kanpo daude eta bereiz idatzi behar dira (*koixe gabe, beldur gabe...*). Eta haiekin batera, postposizio horiek oinarri hartuz sortutako izenlagunak ere (*jorratu gabeko (saila)...*).

Arazoa da, ordea, ez dela zehazten zer sartu behar den *lotsagabe* deitura horren pean; alegia, *gabe* postposizio-izenlagunez at, zein *gabe* hitz-andana sartu behar den eta zein ez *lotsagabe* multzo horretan. LEFen liburuxkan emankortasunari buruz esanaren arabera (60. or.), guztiz bizirik dago oraindik hiztunaren baitan mota honetako elkarteak sortzeko gaitasuna. Uste izateko da, horrenbestez, hiztunak, haietakoren bat sortu eta idatzi beharrean gertatzen denean, goiko arauari jarraituz, loturik idatziko duela, eta horrela *lotsagabe* moduko elkarteak sortuko. Baina, izatez, lexikalizatuak bakarrik ageri ohi dute idazkera lotu hori, lexikalizatu gabek bakanka aurkitzen direlarik horrela idatziak:

(59)

*Kontuak kontu, Euskaldunon Egunkariako kazetariak komadunak zein komagabeak erabiltzen dituzte, luzera gorabehera.* (Senez 20.; 60. or.)

Hau da, hiztunak, itxura denez, sintaxi-egitura baliatzen du gehienbat, elkarteak osatzen duten bi elementuen bategitea zorizkoa bada: *komarik gabe(ko)*.

Beste arazo bat da gesatu samartua dela lexiko-unitateen eta sintaxi-unitateen arteko muga, batez ere adieran bat datozenean: batzuetako edo besteetakotzat jotzeko alde bakarra da loturik edo bereiz idatziak izatea. Elkarte lexikalizatuetan —nolabaiteko tradiziodunetan bederen— finkatua da idazkera abenikoz, eta, hortaz, haietan ez dago dudarik lotuak ala bereiz idatzi behar diren. Gainera, haietarik askok adiera-batasuna ageri dute, eta abiagune duten sintaxi-eraikuntzek ez bezalako adiera hartzen: *nahigabe ? nahi gabe*; guztiek ez baina: *lumagabe = luma gabe*.

Zer baldintza semantiko, sintaktiko edo sintaktiko-semantiko bete behar dute (dituzte), ordea, honako hitz-andana hauek, “sorrera berrikoak” diren honako hauek, muga hori igaro eta lexiko-unitate bihurtzeko?

(60)

*inguru urbanizatu gabea / inguru urbanizatua*  
*auzi politizatu gabea / auzi politizatua*  
*pertsona dokumentu gabea / pertsona dokumentuduna*  
*pertsona arma gabea / pertsona armaduna*

Alegia, inolako dokumenturik ez daukan pertsona bat eta une jakin batean dokumenturik ez daraman pertsona bat, *dokumentu gabek* ala *dokumentugabek* dira? Edo bata *dokumentugabea* eta bestea *dokumentu gabea*? Agian, egitura baten eta bestearen

artean ez dago batere alderik, eta hautan du hiztunak batera edo bestera idaztea. Baina duda hor dago, argitu gabe.

Azpiatal honetan, banan-banan aztertuko ditugu *gabe* hitzak parte hartzen duen egitura guztiak, haien idazkera zehazteko, gure ahalaz.

### 6.1. "X (izena/aditza) gabe"

Eskema horri jarraituz sortzen diren egiturak, duda izpirik gabe, postposizioak dira eta beraz bereiz idaztekoak:

(61)

*Diru(rik) gabe joan da*  
*Ikasgaiak ikasi gabe etorri da gaur*  
*Lobi gabe ekarri du jantzia*  
*Pena(rik) gabe utzi zuen lana*  
*Zu gabe hobeto nago*  
*Langile haiek gabe ez duzu etxea garaiz bukatuko*  
*Langile gehiago gabe ez duzu biharko amaituko.*

Badira, hala ere, salbuespen batzuk. Alegia, postposizioetatik sortu dira, lexikalizazioz, hurrengoan gisako elkarteak, loturik idazten direnak (ik. 3.1.2. eta 3.2.):

(62) *atergabe, ustekabe, oharkabe...*

### 6.2. "X(izena/aditza) gabeko"

Aurreko egituratik abiatuz izenlagunak eraikitzen dira, *-ko* atzizkia gaineratuz. Hauek ere, *gabe* postposizioak bezala, bereiz idatzi behar dira, eta izenaren ezkerrean kokatu —gehienetan—. <sup>32</sup>

(63a) "Izena gabeko"

*bekatu gabeko biziera...*  
*parerik gabeko leial eta noblea*  
*fruitu gabeko elorri zaharra*  
*gerokorik gabeko mina*  
*osabiderik gabeko gaitza*  
*ur gabeko ardoa*  
*arrazoiketa gabeko*  
*batere lermorik gabeko patata*  
*erlijiorik batere gabeko batzuk*  
*adiskiderik gabeko bizitzea*  
*daitekeen itzal txikiena gabeko*  
*joan-etorria*

(63b) "Aditza (partizipioa) gabeko"

*atertu gabeko zaparrada*  
*Inork jarri gabeko izena*  
*Egin gabeko bekbatu mortalez*  
*Emezortzi urte bete gabeko mutila*  
*gizonarekin ibilli gabeko emakumea*  
*mezarik entzungabeko dohakabe...*  
*Obitu gabeko terminak ulertu nabiz*

(32) Adibide banaka batzuetan izenaren eskuinean ageri da:

*...ontzi kaxkar, ondo konpondu gabekoetan...*  
*...gazte gaitz-ikusit gabeko banakak baizik...*



Badira, baina, *gabeko* izenlagun batzuk, lexikalizatuak-edo, literatur tradizioan loturik ageri direnak:<sup>33</sup>

(64)

<i>adingabeko</i>	<i>amaigabeko</i>	<i>arduragabeko</i>	<i>arimagabeko</i>
<i>arrazoigabeko</i>	<i>atergabeko</i>	<i>azkengabeko</i>	<i>behargabeko</i>
<i>berdingabeko</i>	<i>bidegabeko</i>	<i>bizargabeko</i>	<i>burugabeko</i>
<i>dudagabeko</i>	<i>eragabeko</i>	<i>errugabeko</i>	<i>eskergabeko</i>
<i>etengabeko</i>	<i>ezagutugabeko</i>	<i>fedegabeko</i>	<i>gaizgabeko</i>
<i>gozogabeko</i>	<i>heldugabeko</i>	<i>bezigabeko</i>	<i>bezurgabeko</i>
<i>itxuragabeko</i>	<i>izengabeko</i>	<i>kaltegabeko</i>	<i>kabugabeko</i>
<i>lotsagabeko</i>	<i>materiagabeko</i>	<i>oharkabeko</i>	<i>paregabeko</i>
<i>taxugabeko</i>	<i>ustekabeko</i>	<i>zuzengabeko</i>	<i>landugabeko</i>

*Gabeko* izenlagun hauetarik batzuek bereizgarri dute izenaren eskuinean ere agertzea, izenondoaren gunea hartuz:

(65)

*Ekartzu beso kaltebagako hori. Mg PAb 76*  
*Ausartasun bidegabeko batekin Ur BulaG 558*  
*Ta ortik eldu da erosta amaigabeko ori, ...Erkiag Arran 153*  
*Eta zelan izan leiteke, izate azkengabeko bat, Jaungoikoa dan legez,... Itz Azald 31*  
*Bere miserikordya kabugabekoagaitik... CasLlo 925*  
*Erantzueria lotsa gabeko oni gazteak etzioten itzik trukatu. Lard 175*

Diogun, bukatzeko, izenlagun “lexikalizatu” hauek sintaxi-eraikuntzaren forma berreskuratzen dutela lehenengo atala (izena edo partizipioa) sintaktikoki garatzen denean, bai izenak kasu-marka (partitiboa) hartzen duelako edo izenondo bat lagun duelako, bai partizipioak perpaus-osagairen bat (subjektua, osagarri zuzena,...) hartzen duelako:

(66)

*berdinik gabeko dantza*  
*Inork uste gabeko lanbidea...*  
*Gaitzik gabeko hamaika kaldar*  
*Lotsa handi gabeko bat*  
*Zentzu apurrik gabeko gurasoak*  
*gogorik gabeko farra*  
*Ez jan ongi heldu gabeko fruitarik*  
*Hezurrik gabeko hau*  
*...sekula inork ezagutu gabeko itsasbazterrak*  
*hirurogeita hamar urte arte ezagutu gabeko seme barengana...*

Literatur tradizioan, hala ere, idazkera lotuaren adibideak ere aurkitzen dira, banakak baina:

(33) Ondoko taula, *EHT*ik eta *OEHT*ik harturiko datuez osatua da.

(67)

...*parre gozo eta gaitzirik gabeko batek...*  
 ...*otso zar ortziririkabea bezala*  
 ...*zorionikabeko gure España*  
 ...*noiz atso ingarri, itxura ikaragarri bizartsu, ortzikabe, erren...*

### 6.2.1. "Aditza (partizipioa) gabeko"

*Gabeko* izenlagunetan, "aditza *gabeko*" hitz-andanak merezi du tarte zabalxeagoa opatzea. Izan ere, aditzak ez du bere aditzezko izaera galtzen *gabeko*-rekin bat egitean, eta, gorago esan bezala, ohiko perpaus-osagaiak har ditzake:

(68) ...*gogora inori etorri gabeko misterioa*

Hori dela eta, gaingiroki bada ere, mota honetako izenlagunen hainbat ezaugarri morfosintaktiko emango ditugu, haien ezaupidea hobetu beharrez.

Formari dagokionez, partizipioaren gainean eraikitzen dira, ez aditzoinaren gainean. Eta aditza *izan* perifrasiaren denean, izenki-osagai soila ageri da, aditzezko osagaiaren beharrik gabe:

(69)

*Inork uste gabeko lanbidea jarri zait esku hauexetan!*  
*Abek uste gabeko gauzak pasatzen dira munduan!*  
*Nabi gabeko ezkontza nekea eta kaltea*

Semantikaz den bezainbatean, haien bidez aditzera ematen da ez dela burutu partizipioak adierazten duen ekintza:

(70) ...*esnerik eman gabeko bularra* = 'esnerik eman ez duen bularra'

Adibidean, 'bularrak esnea ematea' litzateke burutu beharreko ekintza; baina ez da gauzatu.

Semantikaren barruan aditzaren *aktionsart*-a, hau da, aditzaren aspektu semantikoa ere aipatzekoa da, eta esan behar aditz telikoak zein atelikoak aurkitu ditugula adibidegietan. Alegia, hala berezko bukaeradun situazioa adierazten duten aditzek (telikoek) nola adierazten ez dutenek (atelikoek) har dezakete parte mota honetako egituretan:

Aditz atelikoak:

(71)

*Ez dago gazte izan gabeko zaharrik*  
*Inorekin erabili gabeko hobi berri-berria*  
*Gizonekin ibili gabeko emakumea*

Aditz telikoak:

(72)

*Oilotik jaio gabeko arrautzaren bat*  
*Hemezortzi urte bete gabeko mutila*  
*Afrikara joan gabeko gizona*

Aspektu flexiboari<sup>34</sup> dagokionez, bestetik, aditzezko atala partizipioa denez, [+burutu] aspektua dute. Gainera, parafrasia eginez gero, haien ordeztu [+burutu] aspektudun perpausak erabiltzen ahal dira:

(73)

- Afrikara joan gabeko gizona*
- *Afrikara joan ez den gizona*
  - *??Afrikara ez doan gizona*

Azkenik, gisa honetako izenlagunak erlatiboetako perpausarekin berdindutuz daitezke, *-tako/-riko* atzizkidun erlatiboetako perpausarekin hain zuzen. Erlatibo hauek debeku-edo bat ageri dute sintagma erlatibatuaren (bukaerako egituraren ageri ez den sintagmaren) kasu-markari buruz: alegia, sintagma horrek gramatika-kasuren batean egon behar du —absolutiboan eta erlatiboan batik bat—. “Partizipioa *gabeko*” izenlagunak jokabide antzekotsua erakusten dute. Izan ere, erlatiboetako perpausen erara deskonposatzen baditugu, sintagma erlatibatuari legokiokkeen sintagma, gure corpuseko izenlagunetan, gramatika-kasuren batean deklinaturik ageri da gehienetan; kasu absolutiboan batez ere, baina ez dira falta kasu erlatiboaren adibideak.

Absolutiboa:

(74a)

- Inork ezertzat hartu gabeko minean gelditu ginen*  
(mina ez du inork ezertzat hartu)
- Iñork agindu gabeko lanean nembilen*  
(lana ez du inork agindu)
- Agiriko edo isilkako batzarrak behar bezala mugatu gabeko zabaltasunez egiteko*  
(zabaltasuna ez da behar bezala mugatu)
- Sekula inork ezagutu gabeko itsasbatterak*  
(itsasbatterak ez ditu inork ezagutu)
- ...inork garaitu gabeko asaben lauburu garbi...*  
(asaben lauburu garbia ez du inork garaitu)
- ...atsegina baita ere burniareak inoiz ukitu gabeko eta gizonen mendean inoiz izan gabeko arloak ikustea*  
(arloak ez ditu inoiz burniareak ukitu eta ez dira inoiz gizonen mendean izan)
- ...lehen ikusi gabeko zubaitz berri bat zegoen erdian,...*  
(zubaitza ez zen lehen ikusi)
- ...lehen entzun gabeko mintzaira lodi eder bat...*  
(mintzaira ez zen lehen entzun)
- ...aspaldian ikusi gabeko nagusiari zakur leialek egin obi dioten antzera*  
(txakurrak ez du aspaldian nagusia ikusi)

(34) Ez dira nahasi behar aspektu flexiboa eta aktionsart edo aspektua semantikoa (telikoa/atelikoa). Lehenengoa, kategoria gramatikala da, adizkiaren forman islatzen dena: aspektua ez-burutua (*-tzen*), aspektu burutua (*-tu*), aspektu puntukaria (adizki sintetikoak)... Bigarrena, aditzak adierazten dituen zenbait berezko ezaugarritan oinarritzen da: iraunkorra izan edo ez izatea, berezko bukaera eduki edo ez edukitzea, dinamikoa izatea edo ez.

- ...*eta ezta inguruetan zalduntxoen isekaz erre eta zauritu gabeko gizonik izaten.*  
 (gizona ez da zalduntxoen isekaz erre eta zauritu)  
 ...*eta inork bere baitan izan gabeko asmakizunez bete...*  
 (inork bere baitan ez dituen asmakizunak)  
*Eginik bada presaka eta saltaka artean inoiz ikusi gabeko zeremonia haiek*  
 (zeremoniak ez dira artean ikusi)  
 ..., *eta behar adina behin ere goraitatu gabeko Tirante Zuria*  
 (Tirante Zuria ez da behin ere behar adina goraitatu)  
*Baina nor da bekatuz kutsatu gabeko gizona...*  
 (gizona ez da bekatuz kutsatu)  
*,alderdikeriak kutsatu gabeko aitorra behar baikenuen*  
 (alderdiak ez du aitorra kutsatu)  
 ..., *eta inoiz uztartu gabeko beste hainbeste bigantxa*  
 (bigantxak ez dira inoiz uztartu)  
 ...*oraindik lehortu gabeko orri idatzi berria jaso zuen*  
 (orri idatzi berria ez da oraindik lehortu)

Ergatiboa:

(74b)

- ...*gizonik ezagutu gabeko neskatxa garbi eta...*  
 (neskatxak ez du gizonik ezagutu)  
*Hizkuntza bat besterik inoiz ikasi gabeko gizon haiek*  
 (gizon haiek hizkuntza bat besterik ez dute ikasi)  
*Inoiz hitzaldirik egiten ikasi gabeko Pedrok egun hartan egin...*  
 (Pedrok ez zuen hitzaldirik egiten ikasi)  
 ...*ta behin ere borrokarik egin gabeko jaun bat hurbilduko zait eta...*  
 (jaun batek ez du behin ere borrokarik egin)  
 ...*mezarik entzun gabeko dohakabe hura*  
 (dohakabeak ez du mezarik entzun)

### 6.3. Sintaxi-egitura: “partizipioa gabe + determinatzailea”

“Aditza gabea” atalean egin dugun antzera —horietariko izenlagunen ezaugarri gramatikal batzuk aipatu baititugu—, aztergai dugun egiturari buruz ere merezi du zerbait adieraztea. Esan daiteke, oro har, “aditza gabea” egiturak bezalako berezitasunak dituela semantikaren zein sintaxiaren aldetik. Baina corpusetik abiaturik, xehetasunen bat ageri da haren erabilerari buruz.

Lehenengoa —eta agian garrantzitsuena— kokapenari dagokio, hau da, partizipioa garatua edo garatu gabea izatearen arabera elkarreak hartzen duen kokaguneari. Alegia, adibidetegitik sumatu den joeraren arabera, partizipioa sintaktikoki garatu gabea denean, hau da, subjekturik ez objektu zuzenik ez adjunturik ez duenean, hitz-andanak izenondoaren gunea hartzen du, izenaren eskuinekoa:

(75)

*San Juan* jaio gabea  
*Eliza* alfabetatu gabea  
*Mailegu* irentsi gabea

*Gizon ezagutu gabea  
Lur bedeinkatu gabea  
Landa jorratu gabea  
Larre hertsu gabea  
Itsaso goldatu gabea  
...izkera baldan ta urria, luze-zale ta garatu gabea...*

Partizipioa garatua duelarik, ostera, adibide bat bakarrik aurkitu dugu gure corpusen izenaren eskuinean:

(76) ...itsaso inork ezagutu gabeak

Horrelako lotura gauzatu beharra suertatzen denean, badirudi joera handiagoa dagoela "partizipioa gabe" izenlaguna erabiltzera.

Jorratu ditugun adibideetan, bestalde, atributuzko perpausetan ageri da batik bat "partizipioa gabe" hitz-andana, predikatu-osagarriaren funtzioan:

(77)

*Langilea naiz, kondutakoa, gaizkirik egin gabea...  
Obi berri bat aitz bizian egiña zeukan, besterekin kutsatu gabea  
Urruti joan arren ba dakik etxean beñiere aztu gabea izango aizela  
Ikusitako gauzak ez dauzkat gogoan artu gabeak  
Okerragorik ikusi gabea bazera etzaitut erruki  
Neskatxa bati lagundu gabea naiz nere bizitzan  
Baztarr-olak kendu gabea da gizon hori  
Eskolarik ikasi gabea naiz  
Orrelakorik egundo egin gabea naiz, Jainkoaren aurrerako  
Txakur txiki bat inori kendu gabeak dituzu oiek  
Jaungoioak egin eta limixkatu gabea aiz  
Len plazarik ikusi gabeak ziran zezanak  
Alde ura oraindik etxez osatu gabea agiri zan eta...  
Alkarren artean oraindik itz egin gabeak dira...  
Oerakoan iru "Agur Mariak" k esan gabeak zituala bururatu...  
Dolmenen katalogazioan sartu gabea dugu hau ere*

Orobat aurkitu dugu aposizio modura:

(78)

*Bekai gu bi baxo erdi, ...inork edan gabeak  
Gurdi berri bati bi bei ume egin berri erantsi ziozkatzen, uztarrarian beñiere lotu gabeak  
Gizon beretzakoa: inoiz mesederik egiñ gabea inori  
Jo soñuak, pozen pozagaz! Jo euskaldunen zortziko alegereak! Erbestekoen soñueta-  
tik izpirik atu gabeak!  
...kondaira zarreko kontubak azaltzea, oraindik izkribatu gabeak batezere,...  
Jaunaren bidean sartu berriak eta oraiño ungi ikhasi gabeak erre*

Eta bai sustantibatua ere:

(79) Zigarro erretzen beñiere ikusi gabeak ikusi genituen arribillan beera...kea sudu-  
rretatik zeriotala

Diogun, bukatzeko, adibideetan ez dela aditzezko atala ageri hitz-andana *izan* perifrasiak osatua dagoenean (“partizipioa *gabe*ko” izenlagunetan berdin gertatzen da):

(80)

...iñoiz ere aldaratearen beldur gabea  
 Jaunaren izenari agur egin nahi gabeak...  
 Beste milla duro ere ba'nduzkan,..., iñori-ere zor gabeak  
 Euskalerritar itxutua zan bera, baña iñorentzat gorroto gabea<sup>35</sup>

#### 6.4. “Aditza + *gabe* + determinatzailea” :: sintaxi-egitura ala elkartea?

Gorago esana denez (3.1.2), partizipiotik sortuak dira gehienbat gisa honetako elkarreak, aditzoinaren gainean eratuak banakak izanik (*ezkongabe*, *lokabe*, *argitaragabe*...). Azken hauek ez dakarte berez inolako zailtasunik idazkeran, guztiak loturik ageri baitira;<sup>36</sup> hori dela eta, ez diegu tarte zabalik opako, eta batik bat besteei, partizipiotik eraikiei alegia, lotuko gatzazkie. Izan ere, hauek sortzen dute buruhaus-terik gehien, eta, halaber, korapilatsuenak dira arau finkoa ezartzeko, ez baitira idazkera bakarrarekin ageri.

Hasteko esan behar da LEF batzordeak (1993) ez duela berriaz adierazten nola idatzi behar diren hitz-andana hauek. Eta “aditza+*gabe*” elkarreak *lotsagabe* deituraren pean sartuak ditu,<sup>37</sup> izenetik sorturiko elkarreetatik bereizi gabe, ez kategorian ez idazkeran: idazkera bera esleitu die *lotsagabe* moduko elkarre guztiei, idazkera lotua alegia. Hortik ondorioztatzekoa da, beraz, “partizipioa+*gabe*” hitz-andana “guztiak” ere loturik idatzi behar direla.

Galdera, baina, hauxe da: horietarik edozein idatzi behar da horrela? Ala lexikalizatuak bakarrik? Izan ere, idazkera lotu hori orokorra bada, “partizipioa+*gabe*” elkarre guztiak (lexikalizatuak zein lexikalizatu gabeak) idatz daitezke loturik eta, funtsean, ez da zertan izan inolako arazorik honelako elkarreak sortzeko:

(81)

<i>alde urbanizatugabea</i>	<i>azterketa zuzendugabea</i>	<i>bekatu aitortugabea</i>
<i>espezie ikertugabea</i>	<i>espezie immunizatugabea</i>	<i>bideo ikusigabea</i>
<i>gaixo sendatugabea</i>	<i>galdera erantzungabea</i>	<i>gizarte militarizatugabea</i>
<i>gizarte politizatugabea</i>	<i>hiri hornitugabea</i>	<i>irla aurkitugabea</i>
<i>langile espezializatugabea</i>	<i>lur ustiatugabea</i>	<i>ondare aitortugabea</i>
<i>sagar zuritugabea</i>	<i>telebista konpondugabea</i>	<i>zezen toreatugabea</i>
<i>zor ordaindugabea</i>		

Areago, idazkera hori bat dator, esaterako, Azkuek (1923: 157) adieraziarekin:

(35) Lau esaldi hautean, ez ditugu izenak, aditz perifrasiak baizik, *beldur izan*, *nabi izan*, *zor izan* eta *gorroto izan* perifrasiak hain zuzen. Horregatik ageri dira adizlagunak hitz-andana horietan.

(36) Literatur tradizioan idazkera horren salbuespenak aurki daitezke ordea:

*Beraz, guk ere anai bataia gabea ezagutuko yuagu.* Or OA 99

*Gu jakinezak, eskola bageak gera* Gco I 393

*Eskola-gabea joan bazan bere basarri zokotik.* Mok 6

(37) Adibidetegian (60. or.) aditza duten adibide bi besterik ez dira: *sinesgabe* eta *hezigabe*.

Cuando el privativo *bage* (*baga*, *gabe*) forma con el vocablo anterior un sustantivo o un adjetivo capaz de recibir el determinativo *a* o el numeral *bat* debe ser considerado como sufijo.

Horren arabera, elkarreak, haren bi osagaiak lotuko badira, baldintza sintaktiko bat bete behar du, besterik ez: alegia, osagaiak bat egitearen ondoriozko elkarreak determinatzailea hartu behar du. Hori horrela baldin bada, guztiz zilegitzat jo behar dira aurreko taulako elkarreak oro, bada guztiek betetzen dute delako baldintza hori.

Errealitatea bestelakoa da, ordea. Izan ere, guk eginiko araketan horrelakorik banaka batzuk besterik ez dugu aurkitu idazkietan, oraingoetan zein aurreko mendeetakoetan. Eta aurkituak hiztegietan jasoak (lexikalizatuak) dira, hain zuzen (ik. 3.1.2). Orain arte esanaren erakusgarri gisa, hona hemen OEHN datozen adibide batzuk:

(82)

*Etsai ageri edo ageri gabeen enboskadetarik salbatzekotan* (Harb 220)  
*Berrientzat, usatu gabeentzat*, (Ax 585)  
*Hañ pobre eta merexi gabe bat* (Mst III 10, 2)  
*...eta gozoagoa da urde xikhiretu gabeena baino.* (Dv Dial 97)  
*Sortu gabeen galtzea ez da gaizkia.* (Xa. Odol 220)

UZEIren corpuseko batzuk:

(83)

(...) *itsaso zabal mugatu gabeak bezala...*  
*Eta San Juan jayo gabea Esker ugariz bete da.*  
 (...); *izkera baldan ta urria, luze-zale ta garatu gabea;...*  
*Eliza alfabetatu gabea*  
 (...) *mailegu irentsi gabeak...*  
 (...) *oztopo harrigarriena hizkuntza zen, batean aberatsegi, besteetan motzegi, batu gabea*

OEHren corpuseko batzuk:

(84)

*Lur bedeinkatu gabean*  
*...landa iorratu gabean bezala*  
*...larre bertsi gabeen...*  
*..., itsaso goldatu gabean barrena*

Eta, bukatzeko, Mokoroaren bildumatik atereak:

(85)

*Bost joko segidan! Ez kosta gabeak, ez!*  
*...borondate gaizki ohitu eta ukatu gabea.*

Orobat, gaur egun eskura ditugun hiztegietan ere ez dira gutxi bereiz idatzitako "partizipioa *gabe*" hitz-andanak:

(86)

<i>aditu gabe</i>	<i>aldatu gabe</i>	<i>amaitu gabe</i>	<i>andeanu gabe</i>
<i>ase gabe</i>	<i>asebete gabe</i>	<i>aztertu gabe</i>	<i>bereziz gabe</i>
<i>bete gabe</i>	<i>bukatu gabe</i>	<i>ehortzi gabe</i>	<i>erein gabe</i>
<i>esploratu gabe</i>	<i>garaitu gabe</i>	<i>hobiratu gabe</i>	<i>ikasi gabe</i>
<i>jendetu gabe</i>	<i>kontaminatu gabe</i>	<i>kutsatu gabe</i>	<i>landu gabe</i>
<i>lurperatu gabe</i>	<i>menderatu gabe</i>	<i>miatu gabe</i>	<i>moldatu gabe</i>
<i>osatu gabe</i>	<i>poluitu gabe</i>	<i>ukitu gabe</i>	<i>usteldu gabe</i>
<i>zibilizatu gabe</i>			

(hitz-andana hauetarik gehienek lexikalizatua dute ordaina gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez).

Guztiarekin ere, esan behar da, halaber, aurki daitezkeela loturik idatziak hauetarikoko elkarte batzuk, banakak badira ere: *jokatugabe*, *ihartugabe*, *markatugabe*, *laburtugabe*, *arautugabe*, *azaldugabe*, *banatugabe*...; elkarte horiek sorrera berrikoak dira eta tradizio gabekoak, baina hala ere, loturik idatziak. Horren harian, hasierako galde bera datorkigu berriro burura: elkarreok kontestualak dira? Hau da, halabeharrez sortuak dira, bi osagai horiek uztartu beharra suertatu delako, ez besterengatik? Ala eduki semantiko jakin eta berriazkoa adierazteko eraikiak dira? Erantzuna bada kontestualak direla (erantzunik errazena, nonbait), arazo formal hutsera itzultzen gara. Aitzitik, kontzeptu jakinak izendatzeko sortuak direla bada erantzuna, semantikaren ildotik jo behar dugu; nolahi ere, nekez argudia daiteke zergatik idatzi behar den loturik *jokatugabe* ('jokatu gabe dagoena'), eta, esaterako, *hobiratu gabe* ('hobiratu gabe dagoena') berriz bereiz.

Beste alde batetik, ez dira aipatzeko utzi behar mota berezi bateko egiturak. Haietan partizipioa ez da bakarrik ageri, baizik berekin batera badakar osagarriren bat lagun. Hau da, partizipioaz gain beste elementuren bat —edo batzuk— ageri da adjektibo-sintagmaren baitan, eta osagarri horiek modifikatzen dute partizipioa:

(87)

*Etxekoandre! Bekaigu bi baxo erdi, ... iñork edan gabeak...*  
*Neskatxa bati lagundu gabea naiz...*  
*Gizon beretzako: iñoiz mesederik egin gabea iñori*  
*Oilarrak jo gabeak dira arraultz oiek*  
*...ondo konpondu gabekoetan itsaso iñork ezagutu bageak igaro dituztenak*  
*...naiz-ta soil eta abstraktu samarra izan, iñork landu gabea noski.*

Hauek ere betetzen dute, bistan denez, delako "determinatzailea hartzeko araua". Idatzi behar dira, haatik, loturik? Badirudi ezetz (ezezko biribila ez ematearren). Izan ere, sintagma-eraikuntza libreak dira, eta haien baitan ageri diren osagaiak ez dira finkoak, baizik alda daitezke kasuan kasuko testuinguruaren arabera. Baina hauek sintaxi-eraikuntzak badira eta hori dela eta bereiz idatzi behar, zer dira, bada, goragoko (86)ko hitz-andanak (*aditu gabe*, *aldatu gabe*, *amaitu gabe*, *andeanu gabe*...), orobat bereiz idatziak? Haiek ere sintaxi-egiturak dira? Edo, nahiz eta bereiz idatziak, lexiko-unitateak? Edo, azken aukera gisa, lexikalizazio-bidean diren sintaxi-egiturak? Eta lexiko-unitateak badira, nola bereizi —formalki ezin da eta— sintaxi-egituretatik? Esaterako, 3000 *Hiztegian bukatu gabe(ko)* sarrera aurkitzen dugu. Nola



hartu behar da sarrera hori? Lexiko-unitatetzat ala egitura gramatikaltzat? Eta azken hau bada, nondik nora ageri da lexiko-sarrera modura?

Arazoa areagotzen da gogoan hartzen badugu badirela “partizipioa *gabe*” egitura batzuk izenondo izan gaberik izen direnak. Elkarre horiek ezezkako aditz-izenaren baliokidetzat jo daitezke:

(88)

*izan gabea* = ‘ez izatea’

*neure buruaz fido gabeak* = ‘neure buruaz fido ez izateak’

*euskara aski ongi jakin gabeak* = ‘euskara aski ongi ez jakiteak’

OEHren arabera, elkarre horiek zubereraz erabiltzen dira batik bat. Hala ere, horiek ere “partizipioa+gabe” itxurakoak dira; gainera, determinatzailea hartzearen baldintza betetzen dute; eta haietarik batzuk, lexikalizatuak egonik, hiztegiatan ageri dira: *jakingabe* (ezjakintasuna), *jangabe*, *izangabe*... Sarta honetako hitz-andanak ere *lotsagabe* elkarrean zakuan sartu behar dira?

Beste alde batetik, eta hasierako galderari berriro heldurik, bigarren aukerara jotzen badugu —hau da, hitz-andana lexikalizatuak bakarrik idatzi behar badira loturik— hiztegiatan jasotako elkarreak besterik ez dira horrela idaztekoak, eta gainerako guztiak bereiz. Arazoa da, ordea, hiztegiak ez datozela bat haietarik zein jaso behar diren eta zein ez. Eta horrela, *beldugabe* elkarre hiztegi guztietan jaso da; baina *bukatugabe* eta *jakingabe* elkarreak, ordea, ez; edo, orobat, hiztegi batzuetan elementu lexikoaz adierazten dena (*ukigabe*, *bukatugabe*) beste batzuetan elementu sintaktikoaz egiten da (*ukitu gabe*, *bukatu gabe(ko)*).<sup>38</sup>

Lexikalizazioaren ildo horretan barrera joz gero, gainera, beste gorabehera bat sortzen zaigu, alegia, zehaztea zer irizpide erabili behar diren erabakitzeko terminoa lexikalizaturik dagoenetz: tradizioari begiratu eta haren arabera loturik edo bereiz idatzi? Ala elkarrearen adiera-batasuna hartu aintzat? Tradizio soilari lotzen bagatzazkio, mendetan loturik idatziek bakarrik agertu beharko lukete idazkera lotua. Horren arabera, ordea, sorrera berriko terminoak, esaterako, tradizioari gabeak direla eta, bereiz idatzi beharko lirake. Horrenbestez, idazkera lotua bide ihartua izango litzateke hitz berrien sorrerarako.

Maileguak direla eta, antzeko arazoa agertzen da. Hizkuntza zeintifiko-teknikoe-tan —eta arruntean ere gero eta gehiago— oso ohikoa da auzoko hizkuntzetatik termino berriak sartzea. Termino horiek, edo diren direnean hartzen dira jatorrizko hizkuntzatik, aldaketa fonetiko beharrezkoak eginik (maileguak); edo bestela hizkuntzaren baliabide lexikoez baliatuz, unitate lexiko bat sortzen da, berria eta kanpoko terminoaren adiera bera duena (kalko morfologikoa). Termino horiek, sorrera berriko terminoen gisara, tradizioari gabeak dira, eta beraz, tradizioari besteri begiratu ezean, bereiz idaztekoak lirake. Hala bada, nola azaldu *jokatugabe*, *ihartugabe*, *markatugabe*, *baldintzatugabe* edo *asegabe* elkarrean izatea?

(38) *Elbuyar Hiztegia*:

intacto, -a. *adj.* *Ukitu gabe*,...

3000 *Hiztegia*:

intacto, ta: 1 *adj.* *ukigabe(ko)*.

Guztiarekin ere, esan behar da literatur tradizioaren bidez ere ezin ondo azal dai-tekeela zergatik idazten diren elkarte batzuk lotuak eta beste batzuk, berriz, bereiz; izan ere, are gaur egun idazkera finkatua izanez loturik idazten diren elkarte batzuek ere ez dute batasunik ageri beren idazkerari dagokionez testu zaharretan, eta hiruta-ra ageri dira idatziak: lotuak, marraz lotuak, bereiziak:

*Hezigabe*

(89)

*Idisko mardo, baña alper ta ezi gabea.* (VMg 85)  
*Ez da izan, zion Ciceronek, {...} jende aĩn basati eta ezigaberik, non ...* (AAII 20)  
*Belarri eziñgabeek ez omen dute aditzen alakorik.* (Zait Plat 72)

*Ezkondugabe/ezkondu gabe (ezkongabe)*

(90)

*Emazte ezkondu batek bere senarraz bertzerekin, eta ezkondu gabeak ere bebar eztena-rekin bekhatu egitera...* (Ax 78)  
*Donzella garbi ezkondugabea askatua ta libre dago bere buru osoa Jainkoari emateko.*  
 Ub 222  
*Erraiten drauet ezkondu-gabei eta albargunei.* (LA 1 Cor 7, 8)

*Ezagutugabe/ezagutu gabe (ezagungabe)*

(91)

*Gizon ezagutu gabea baitzen herri bartan* (SP Phil 349)  
*Ezagutugabe batzu bagiñe bezala ungi ezagutuak garren arren.* (He 2 Cor 6, 8)  
*Igelsuaren enplegua {...} ez da arras ezagutu-gabea ere, ikhusi izan dut ezen...* (Dv.  
 Lab 193)

*Landugabe/landu gabe*

(92)

*Beraren lantegian utzitako irudi landu gabe arakoa gogoratzen digu* (Zait Plat 109)  
*Gurutzea zan egur luze {...} batzutan landua ta askotan landugabea.* (Inza Azalp  
 68s)

*Obitugabe/obitu gabe*

(93)

*...ta onelako umekerietan oitu gabea izanik* (Berron Kijote 106)  
*...arrantzalea-ta, arrantzuko zereginetan oitugabea izanda* (I Arg Uzl 278)  
*...desgaraian bait-nakar eta oitugabea izanik ibilli-otan* (Berron Kijote 224)

*Jakingabel/jakin gabe*

(94)

*Gizon jakinak jakingabea errexki enganatzen du* (Dv)  
*Osoki jakin gabea da* (H)  
*Tristeen konsolatzailea, iakin-gaben <-ec-> irakatsailea, erien sendatzailea.* (Mat  
 281 s.)

Adiera-batasunari so egiten badiogu, bestalde, *obitugabe(a)* (inacostumbrado/inacoutumé), esaterako, lexikalizatua da eta hiztegian jasoa. Baina *esploratu gabe(a)* (inexplorado/inexploré), *ustiatu gabe(a)* (inexplotado/inexploité), *usteldu gabe(a)* (incorrupto/incorrompu), *menderatu gabe(a)* (invicto/invainan), *ordaindu gabe(a)* (impagado/impayé) edo *bereizi gabe(a)* (indistinto/indistinct) berriz, ez. Zertan ote dario, gero, *obitugabe*-ri gainerakoei baino adiera-batasun handiagoa? Gure ustez, kontzeptu jakinak izendatzeko erabil daitezke (eta erabiltzen dira); baina hala ere, bereiz idatzirik ageri dira hiztegien, eta erdal lematik bilatu behar dira, ez baitute berezko lemarik euskarazko atalean (lexikalizatu gabeak diren seinale, ote?) Haiei ere adiera-batasuna aitortzeko frogarria da —edo halakorzat jo daiteke— dugu, esaterako, elkarre horietarik batzuk aditzoinen gainean ere eraikiak direla, elkarre lexikalizatu batzuen ereduaz: *ordaingabe/ordaindu gabe*, *aldagabe/aldatu gabe*, *asegabe/ase gabe*; eta hori adierazgarria da, nonbait, elkarre horiek adiera-batasunduntzat joak direla.

Euskaltzaindiko LEF batzordeak (1991: 176-177), bestalde, badakar zein irizpideri begiratu behar zaien jakiteko hitz-andana ihartua den ala ez, edo ihartzeko bidean denetz:

(95)

1. Desmotibazioa
2. Jatorrizko lexema bikotea lexema-bakarturik agertzea
3. Azentu-batasuna eskuratzea
4. Osagaien beren junturan berariazko hots-eraketa agertzea
5. Grafiazko hitz-batasuna lortzea

Darabilgun arazoa argitu beharrez, haietarik lehenengo biez baliatuko gara batez ere: desmotibazioaz (aldaketa semantikoa) eta jatorrizko lexema-bikotea lexema-bakarturik agertzeaz (aldaketa morfosintaktikoa). Beste hirurak ihartze-bideko ondoriozko aldaketatzat jo daitezke. Gainera, bosgarrena da, hain zuzen, argitu nahi den arazoa, eta, laugarrenari dagokionez, hizpide ditugun elkarreetan, behintzat, ez dago halakorik.<sup>39</sup>

Lehenengo irizpidearen arabera: “ihaturiko hitz-andanetan osagaien (batez ere sintagma-buru edo muin den osagaiaren) esanahia bilakatua edo aldatua da higaduraz edo finkapenez” (176. or.). Aztergai ditugun hitz-andanetan, osaeraz den bezainbatean, bi osagai bereizi beharra dago: partizipioa eta *gabe* hitza. Lehenengoarekin, ekintza edo egoera adierazten da eta bigarrenarekin, gabezia edo ezeztapena. Eta multzo osoaren adiera da ez dela partizipioak adierazitako ekintza burutu; adiera hau, ekintza burutu ezaren adiera alegia, gisa honetako hitz-andana guztietan betetzen da (lexikalizatueta zein lexikalizatu gabeetan). Arazoa da, baina, osagaien ez dutela inolako aldaketarik jasaten bat egiten direnean; eta osagaiok beren berezko esanahieremua (eremu semasiologikoa) arxikitzen dute elkarrean. Gainera, bat egitearen ondoriozko elkarreak ez du hartzen sema berezirik bi elementuek sintagma-eraikuntza bezala hartzen ez dutenik. Sema berezi horren agertzeak justifika lezake nolabait lexikalizazioa.

(39) Ez dago halakorik partizipioen gainean eraikietan, baina bai aditzoinen gainean eraikietan: *lokabe* (*lot*+*gabe*) eta *obarkabe* (*obart*+*gabe*).

Hau da, Euskaltzaindiko LEF batzordeak (1991: 187-188) dakarren adibide bat gure eginez, *galtza-motz* elkarreak badu sema bat (sema berezia edo “ezaugarri berezile”) *galtza motz* sintagmak ez duena: *galtza motz* guztiak ez dira *galtza-motzak*, neurri jakin batekoak bakarrik baizik, belauetik gorakoak alegia; sema hori dela eta, *galtza-motz* elkarrea entzun edo irakurtzen duen orori belaunerainoko praken irudia datorkio gogora eta ez, adibidez, orkatilarainokoena. Hain zuzen ere, halako sema berezi edo “ezaugarri berezile” baten beharrean daude aztergai ditugun elkarreak. Alegia:

(96) *Galtza-motzak ? galtza motzak*

Baina:

(97)

*Lan bukatugabea = lan bukatu gabea*  
*Pertsona obitugabea = pertsona obitu gabea*  
*Lur landugabea = lur landu gabea*  
*Pertsona landugabea = pertsona landu gabea*  
*Pertsona bezigabea = pertsona bezi gabea*

Berdinketa horietan eremu semasiologiko bera dute alde batekoek eta bestekoek: *lan bukatugabea* nahiz *lan bukatu gabea* ‘bukatu ez den lana’ da; *pertsona obitugabea* zein *pertsona obitu gabea* ‘ohitu ez den pertsona’ da...

Dena dela, zenbait elkartetan aurki daiteke arrazoi semantikoren bat lexikalizatze- edo hori argudiatzeko. Izan ere, haietarik batzuek murrizketa nabarmena izan dute beren esanahi-eremuan, eta partizipioari aitortzeki adieretatik bat besterik ez du hartzen *gabedun* elkarreak. Horren adibideak *beldugabe* eta *ondugabe* ditugu:

(98)

*Sagar beldugabea*  
*Mutil beldugabea*  
*\*gutun beldugabea*  
*\*kargamentu beldugabea*

Beste alde batetik, bigarren irizpideari, hau da, jatorrizko lexema-bikotea lexema-bakarturik agertzeari dagokionez, hona zer dioen LEF batzordeak (1991: 178) *galtza-motzak* elkarrea dela eta:

(99)

...sintagma bakar bat da, funtsean, *galtza-motzak* sintagma eraikuntza. Jatorrizko sintagma-buruaren kategoria gramatikal berbera (hots izena) duen lexema bakarra da hori, hain zuzen ere. Eta ondorioz, **Ab** eraikuntza ez baina **A** izen-lexema denez, ezin perpaus-jardunaren baitan **Ab** eraikuntzen konbinatoria sintagmatikoa onar eta erabil ere dezake: ezin litezke, horrela, **Ab** moduko hitz-andana librean kasuan hain berezkoak diren sintagma-erabideok sortu eta erabili:

*\*Oso galtza-motzak erosi dizkiote*  
*\*Galtza-motxagoak nabiago nituzke aukeran*

Esandako guzti horren arabera lexema-bakarra da, ondorioz, *galtza-motzak* hitz-andana...

Varela-k (1990: 100), gaztelaniazko elkarteei buruz mintzo delarik antzeko debekua darabil: “En el caso de los compuestos, el elemento léxico que no es núcleo no deja traslucir fuera de la contrucción léxica superior sus posibilidades de expansión sintáctica.”

Batzuek zein besteak esanak gurera aldatzen baditugu, ikusten da, batetik, hizpide ditugun hitz-andanetan kategoria-aldaketa izaten dela, lehenengo aipuan esanaz bestera. Izan ere, elkartea sortzeko oinarri den sintagmak *gabe* postposizioa du buru, eta, beraz, ondoriozko elkarreak, aipuan esanaren arabera, dagokion sintagmaren kategoriari eutsi beharko lioke, adverbioen kategoriari alegia. Baina hauetariko hitz-andanetan ez da horrela suertatzen, zeren elkarreak adjektiboen kategoria hartzen du (partizipioari, aditz-adjektibo den aldetik, aitor dakiokkeen kategoria bera, hain zuzen). Kategoria-aldaketa hori lexikalizazio-adierazgarritzat har liteke; alabaina, lexikalizatu gabeetan ere gertatzen da: *hezigabe* elkartea izenondo da, eta *itsaso inoiz ikusi gabea* sintagman *inoiz ikusi gabea* ere izenondo da (adjektibo-sintagma). Horrenbestez, baldin kategoria-aldaketa hori dela zio bata lexikalizaturik badago, bestea ere halakotzat jo beharko da.

Bestetik, buru ez den osagaiak elkartean garapen sintaktikoa duela eta ez duela, diogun, lehenik, aztertu ditugun hitz-andanarik gehienetan *gabe*-tik bereiz idatzirik dagoela partizipioa baldin honetaz gain hitz-andanaren baitan beste elementuren bat ageri bada. Horrek, nolabait, berresten du goragoko aipu batean zein bestean adieraziriko debekua. Izan ere, elkartea osatzen duten bi osagai oinarritzkoetatik partizipioak bakarrik har ditzake osagarriak;<sup>40</sup> alegia, hura besterik ezin gara daiteke sintaktikoki, subjektua, objektu zuzena edo adjuntuak hartuz. Baina, elkartean, buru ez denez, galtzen du, antza, tasun hori:

(100)

*Lan inork bukatu gabea*  
 (??) *Lan inork bukatugabea*

Dena dela, debeku-edo horren kontrako adibide bat aurkitu dugu:

(101)

*...eta burruka-gai naiz ordaiñ-kontutan oitugabeak*  
*...alako indar-neurketetan oitugabeako mutila*

Salbuespentzat jo daiteke, agian, *obitugabe* elkartea, eta uste izan osagarriak onarzen dituela. Edozein kasutan ere, horrelako egiturak ez lirake bitxiak izango euskaraz, baldin eta honako hauekin parekatzen baditugu:

(102)

*astiro ibilzale*  
*bere burua erakustezale*  
*kontuak garbi, txukun eta egunean berean eramanzale*

Elkarte horietan bigarren atalak, loturik baina, eusten dio bere aditzezko izaerari, perpaus-osagarriak hartzen dituelarik.

(40) Aditz-izenondoa denez, partizipioak, perpausak bezala, edozein sintagma har dezake: izen-sintagma (subjektu, objektu zuzen edo zehar objektu modura), preposizio-sintagmak...

Gogoeta hauen guztien argitan, bistakoa da ez dagoela batere argi nola idatzi behar diren gisa honetako hitz-andanak. Izan ere, LEF batzordeak emaniko araua orokorra izanik, ez litzateke inolako zalantzarik izango haiek elkarri loturik idazteko, baldin eta horrela egiteko baldintza bakarra partizipio soila eta *gabe* postposizioa tesuinguruan bat egitea balitz. Baina hiztegiak halako hitz-andanak bereiz idaztera jotzen dute (ihartuak izan ezik).

### 6.5. "Izena+gabe(a)"

*Partizipioa gabe* hitz-andanetan bezala, "izena *gabe*" modukoetan ere bereizi beharra dago lexikalizatuen eta lexikalizatu gabeen artean. Lehenengoi dagokienez, ez da dudarik sortzen idazkerari buruz: hiztegietan jasoak dira, eta hartan nola ageri baitira halaxe idatzi behar ditugu.<sup>41</sup> Arazoa datorkigu, ordea, lexikalizatu gabeetatik, horrelakoetan zalantza baitago non ezarri muga hitz-andana elkartetzat edo sintaxi-egituratzat jotzeko; bereizketa hori funtsezkoa da hitz-andana loturik edo bereiz idazteko.

Argi dago hitz-andana sintaxi-egituratzat jo behar dela, eta beraz bereiz idatzi, izena sintaktikoki garatua denean, hau da, kasu-markarekin, izenondoarekin, izenlagunarekin edo beste elementuren batekin ageri denean. Eta halakotzat hartu behar dira, orobat, elkarte lexikalizatuak ere, baldin eta elementu horietatik baten bat jasozten badute (lexiko-unitate izateari uzten diote eta sintaxi-unitate bihurtzen):

(103)

- ...*seme gaitzik gabeak*... (*gaizgabe*)
- ...*korputz indarrik gabea* (*indargabe*)
- ...*zer hitz frantses makur, kakola, buru-buztanik gabeak*
- ...*gozo neurririk gabea* (*neurrigabe*)
- ...*zure bizia dadila izan itzalik gabea*
- Eguzkia, ilargia, alizar, izar beltz...guziak elkarren antzik gabeak...*
- Basarri oien arrosak eztiragerolarantz gogorrik gabeak*
- Eta gein-geienak katoliko ez direlarik, inolako sinismen gabeak baizik*
- Basarri batere arrokeri gabeak*
- ...*artista ezin izan ditekela politikarik gabea*
- Ankarik gabea, goputzkera luzekoa, eta ezkama legunex jantzia delarik...*
- ...*bizkera zebatz, makulurik gabea eta abaloirorik gabea*
- ...*itzulpenak anonimoak direla, nabardura pertsonalik gabeak eta...* (*IZ+gabea*)
- Senda-medilkuntza beharrezkoa da dudarik gabe, baina garestia eta neurri batean*
- behintzat zentzurik gabea* (*zentzugabe*)
- ...*herriko euskaratik aldendua eta herri kutsurik gabea edo...* (*herri-kutsurik gabea, ez herri kutsugabea*)
- Lodikotea zen eta oinik gabea*
- Ekaiak dimentsio egokiak dituen eta akatsik gabea den aztertu...* (*akasgabea*)
- Aitzinapen automatikorik gabeak*
- Mugimenduaren jarraipen aldakuntzarik gabea*
- Bakallo tripik gabea*
- ...*ezeren kutsu eta naas-txar gabeak izan oi dira*

(41) Dena dela, "partizipioa *gabe*" elkarrean bezala, hiztegien bat etortzea ez da guztizkoa, bai baitira elkarte batzuk hiztegi batzuetan bai baina beste batzuetan ageri ez direnak.

*Orain-ere ordainik gabea izan da baserritarraren nekea  
Bertzen hutsen ondotik dabilana ez da bera hutsik gabea  
...aren galdu beharra neurririk gabea zen...  
...ta bakarra, berdinek gabea, beingoa... (berdingabe)  
...boza eta kanta penik gabeak, ...  
Gizon gogor eta barrenik gabea zan  
Jendetasun izpirik gabeak dirudite (jendetasun-izpirik gabeak)  
Arteraño erru txar gabeak ziren  
Zer esanik gabea zan mutila*

Hitz-andana bereiz idatzi behar da berebat elkarteak ez bezalako adiera hartzen duenean:

(104)

*arduragabe ? ardura(rik) gabe  
behargabe ? behar(rik) gabe  
nahigabe ? nahi(rik) gabe  
bihozgabe ? bihotz(ik) gabe*

Sintaxi-egitura horien adierak ez daude elkarten adiera-eremuan jasoak, eta hori dela eta ezin erabil daitezke batzuk besteen ordeiz.

Ez da, ordea, berdin gertatzen, esaterako, *itxuragabe*, *burugabe* edo *odolgabe* elkarteekin. Elkarte horiek, izan ere, badituzte bi adiera (edo gehiago); bata elkarteko bi osagaietz osaturiko sintaxi-egituraz ere adieraz daiteke eta bestea, irudizkoa edo, aldiz ez:

(105)

*Gorputz itxuragabea = gorputz itxura(rik) gabea ('itxurarik ez duena')*  
*Jenderza itxuragabea = jenderza guztiz bandia (? 'itxurarik ez duena')*

Horren arabera, hiztunak horrelako kasuetan aukeran izaten du lehenengo adieran elkarte edo sintaxi-egitura erabiltzea. Baina bigarrenean elkarteaz bakarrik balia daiteke.

Arazoa, hala ere, hitz-andana ez sintaktikoki garatua ez lexikalizatua denean sorzen da, hau da, izen soilaren eta *gabe* postposizioaren bat-egitea konstestuala denean, zeren ez dago batere argi halakoetan nola jokatu behar den. Badirudi beti dugula hitz-andana sintaxi-egituratzat hartu eta bereiz idazteko aukera; bide horren lekukokak hainbat ditugu adibidetegian:

(106)

*Etxe hoietan ez dira albistari txarrak, ez irudidun ez irudi gabeak  
Euskara gabea ezin izan euskalduna  
..., obe da gizaseme ergel eta gaiztakeri gabeak zuzendua izatea, gartsu eta gaiztoak baiño  
Eta gauean burnizko zubi arin, dotore, astunkeri gabeak, ...  
Bizitza gogorra, nastua, ordu gabea da arrantzaliene  
Ikusi dezu inoiz gau odei gabean Ilargia?  
Gazte ta eskarmentu bagea aiz  
Ez naizela Chomskytarra, ez amorratua ez amorru gabea.  
Badut zoko bat pultsu gabea...  
Baiña ez horregatik meritu gabea*

...alako ezkil-ots garbia marranta gabea ta...  
 ...josteta hoiek ez direla arrisku gabeak  
 ...esango ahal dut argi erregela izengabeak aita gabeak direla...  
 Gaixoak nabiz urgentziazkoak izan nabiz urgentzi gabeak...  
 ...arruntak ziren izpiritu gabeak...  
 ...herri guziaren aurpegi zuri eta berotasun gabeen akuiluei...  
 Hor ibilia da gure euskara untzi pilotu gabeen pare...

*Gabe* postposizioaren sintaxiaren arabera, hautan du hiztunak izena kasu-markarekin (partitiboarekin) edo gabe idaztea. Horrenbestez, uste izateko da hizpide ditugun hitz-andanek ere, postposizio hori oinarri dutela eta, onartzen dutela sintaxi hori, eta beraz ez dagoela, alde horretatik, zertan bereizi partitiborik gabekoak partitibodunetik ez sintaxi ez semantika aldetik —arrazoi formala alde batera utzirik, jakina—. Hau da, ez dagoela inolako araurik “izen zehaztugabea *gabe*” hitz-andana guztiak —kontestualak izanik ere— loturik idaztera behartzen gaituenik —edo behintzat ez dugu halako araurik aurkitu bibliografian—.

Dudak hartzen gaitu, ordea: loturik ere idatz daitezke goiko hitz-andana horiek honelako elkarreak sortzeko?

(107)

<i>aitagabe</i>	<i>amorrugabe</i>	<i>arriskugabe</i>	<i>astunkeriagabe</i>
<i>berotasungabe</i>	<i>eskamentugabe</i>	<i>euskaragabe</i>	<i>gaiztakeriagabe</i>
<i>hodeigabe</i>	<i>irudigabe</i>	<i>izpiritugabe</i>	<i>marrantiagabe</i>
<i>ordugabe</i>	<i>pilotugabe</i>	<i>pultisugabe</i>	<i>urgentziagabe</i>

Izatez, banakak baina, aurkitzen dira bat-egite kontestualen batzuk loturik idatziak:

(108)

...azkona zartuak, maskilla puskatuak, txirola soñugabeak, liburu desegiñak, ...  
 Bizitza eriotzabaga eta sekulakora  
 ; aritz ostogabeak beren mugieran badirudite otzak...  
 San Juan eurigabea, urtea ogi gabea  
 Harma-gabek harmadunak garaitzea<sup>42</sup>  
 Gizon bat ba zen Igande-gabea  
 Arbola adar-gabeen parena naiz  
 Gure antzerkilari-taldeetan dabiltzan langille sari-gabeei  
 Zela epai huts-gabea emon (...)?

Esaldi horietan, bat-egiteak ez dakarkie —itxuraz behintzat— inolako adiera berezirik hitz-andanei, bada berebat adieraz daitezke sintaxi-egituraz:

(109)

*Txirula soinu gabea*  
*Bizitza beriotza gabea*  
*Haritz hosto gabea*  
*Arbola adar gabea*

(42) Gidoidunak ere sartu ditugu lotuetan. Bada gidoiaren agertzeak pentsarazten digu hiztunak sumatu zuela halako lotu beharra, unitatea adierazteko edo.



*Langile sari gabea*  
*Soldadu arma gabea*  
*Gizon igande gabea*  
 ...

Antzeko adiera-berdinketa ageri dute elkarte lexikalizatu batzuek eta haien sintaxi-egiturek:

(110)

*lumagabe* = *luma(rik) gabe* = 'lumarik ez duena'

*gorpuzgabe* = *gorputz(ik) gabe* = 'gorputzik ez duena'

Elkarte hauen inguruan, bestetik, beste arazo bat sortu zaigu, semantikoa. Alegia, onartzen baditugu gisa honetako hitz-andanak oro, lexikalizatuak zein lexikalizatu gabeak, loturik idatz daitezkeela, nola jokatu behar da elkarte lexikalizatu (sorrera berriko elkarte lexikalizatu) eta elkarte kontestuala bete-betean adieran bat ez datozenean? Esate baterako, hiztegieta *hostogabe* lema aurki daiteke. Termino hori biologian (botanikan) erabiltzen dute *afilo* deritzen landareak izendatzeko: berez historik ez duten edo hostoak oso txikiak dituzten landareak dira landare afiloak. Argi dago, beraz, hostodun landareak ez direla afiloak, nahiz eta arrazoiren batengatik noizbait historik gabe dauden; nola bereizi, orduan, goragoko adibide batean ageri zaigun *haritz hostogabea* (haritzak zuhaitz hosto-erorkoak dira, eta beraz neguan historik gabe egoten dira) *hostogabe* lema horren pean sartuak diren landareetatik? Beste horrenbeste gerta dakiguke hitz arrunten gainean asmatuiko beste edozein elkarterekin: etxeko telefonoari haria kentzen badiot, telefonoa *harigabea* (gazt. *inalámbrico*) da? Ortuko madariondoa *fruitugabea* (gazt. *no frutal*) da fruiturik ez dakarrenean?... Arazo hau konpontzeko bide bat testuingurua izan daiteke, testuinguru epistemikoa zenbaitetan; baina bide hori ere nahiko baldintzatua da.

Ukitu behar dugun beste auzi bat erdararekiko morrontzari dagokio. Esan nahi da zenbaitetan erdal terminoa euskaratzean ez zaiola adierari bakarrik begiratzen baita formari ere. Horrela, *a(n)-, in-, ex-, i-...* aurrizkiak dituzten erdal unitateak hitz bakarrez euskaratzen dira (*xgabe*). Aitzitik, *sin* preposizioaz eratuak sintaxi-egituraz bihurtzen dira euskarara (*xgabe*).

Baliteke idazkerari buruz darabilgun auzi hau oro har guztiz antzu eta ustela izatea, eta *gabe*-dun hitz-andana loturik edo bereiz idaztea hiztunaren esku egotea. Baina gure ustez oso esanguratsua da hiztegieta gisa honetako hitz-andanen idazkerari buruz nabari den adostasunik eza. Izan ere, bietara idatzirik aurki daitezke haietarik batzuk, kontzeptu bera izendatzen badute ere: *soinugabe/soinu(rik) gabe, baldintzatu-gabe/baldintzatu gabe*.

Bukatzeko, diogun Euskaltzaindiak arau jakin eta zehatza eman beharko lukeela mota honetako elkarteen osatzeko. Bestela, hiztunaren senaren esku uzten da, nolabait, haien batera edo bestera idaztea; hau da, hiztunak (hiztegi-gileak) hitz-andana nola "sentitzen" duen (lexiko-unitatetzat edo sintaxi-eraikuntzatzat), halaxe idatziko du, irizpide sendorik edo agerikorik jarraitu gabe. Edo, agian arriskutsuago dena, auzoko hizkuntzetako hitzen grafiari begiratu (hitz bakunak diren ala ez), erdal hitz horien eredu sortuko ditu euskal ordainak, esanahia ez ezik forma ere euskaratuz.

## Bibliografia

- Alberdi, X.; Garcia, J.; Ugarteburu, I., 1997, "“Erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra” jokatimolde mimeretiko euskal terminologian”, in *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, Donostia: IVAP-UZEI, 307-339.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea (Donostia).
- \_\_\_\_\_, 1991, *Irakaskuntza-proiektua: Euskal Hizkuntza. Lexikologia*, EHUko Euskal Filologia Sailean aurkeztutako proiektu argitaragabea.
- Azkue, R.M., 1905-1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo [1969, La Gran Enciclopedia Vasca].
- \_\_\_\_\_, 1923-1925, *Morfología vasca*, Bilbo. [1969, La Gran Enciclopedia Vasca]
- Campion, A., 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa [1977, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca].
- Euskaltzaindia (LEF Batzordea), 1987, *Hitz-Elkarketa/1*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Hitz-Elkarketa/3*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- \_\_\_\_\_, 1993, *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Baiona, [1979, Donostia: Elkar].
- Michelena, L., 1961, *Fonética Histórica Vasca*, Donostia: Diputación de Guipúzcoa [1977]
- Perez, E., 1995, "Aurrekoz atzera? (I)", *Euskaldunon Egunkaria*, 1995/04/21, 26.
- \_\_\_\_\_, 1995, "Aurrekoz atzera? (II)", *Euskaldunon Egunkaria*, 1995/04/28, 26.
- \_\_\_\_\_, 1998, "Ezikasiak ikasi, ikasiak desikasi?", *Studia Philologica In Honorem Alfonso Irigoien*, Deustuko Unibertsitatea, 175-205.
- Varela, S., 1990, *Fundamentos de morfología*, Madrid: Edit. Síntesis.
- Villasante, L., 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Oñati: Edit. Franciscana Aranzazu.

## Hiztegiak, corpusak eta erabilitako laburdurak:

- OEH** Michelena, L., 1987-1998, *Diccionario general vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia. [bereziki, VIII. liburukia, gabe sarrera dakarrena]
- OEHC** Laburdura honetaz baliatu gara **OEH**ren corpusa izendatzeko.
- EH** Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa.
- HB** Laburdura honetaz baliatu gara Euskaltzaindiak 1995etik hona kaleratu dituen hiztegi-mailako erabakien bilduma izendatzeko.
- HBB** Laburdura honetaz baliatu gara Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko Batzordeak —*Hiztegi Batua*-ren oinarri gisa— prestatu dituen txostenen bilduma izendatzeko.
- EEBS** Laburdura honetaz baliatu gara UZEIren *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* izeneko corpusa izendatzeko.
- Elb.** Elhuyar, 1996, *Euskara-Gaztelania/Castellano-vasco Hiztegia*, Iruñea: Elhuyar.
- DGT** Mujika, L.M., 1984, *Diccionario general y técnico (castellano-vasco/vasco-castellano)*, Donostia: Sendoa.
- Euskalterm** UZEI, 1998, <http://www.uzei.com>
- Epidemiologia Hiztegia-Dictionary of epidemiological Terms*, John Last, OEE 1995
- Ihardunaldi Medikoetako Hiztegia* (OEE, 1994)
- Psikologia Hiztegia*, EHU-UZEI 1997.

# Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)<sup>1</sup>

(Adnominal phrases: the tradition (I))

Alberdi, Xabier  
Euskal Herriko Unib.  
Euskara Institutua  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

Garcia, Julio  
Euskal Herriko Unib.  
Zientzi Fak.  
Euskal Filologia Saila  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

Ugarteburu, Iñaki  
Euskal Herriko Unib.  
Medikuntza eta Odontologi Fak.  
Euskara Teknikoa Saila  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 Leioa

---

*Artikulu hau —“Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)”— euskal literatura tradizioan perpaus adnominal bezala egin den erabilerari buruzko azterlan zabalago baten atala da (datuak Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia corpusetik ustiatu dira). Artikulu honen lehen kapituluak perpaus osagarri izenlagunen sailkapena eta aurkezpena laburbiltzen da, Euskaltzaindiak bere gramatikan agertarazi duen eran (Euskal Gramatika: Leben Urratsak-V. Mendeko Perpausak-I, hemendik aurrera EGLU V deituko duguna). Ondoren —bigarren kapituluak—, tradizio idatzian erabili egituren deskribapen osoa eta horien adibide ugari eskaintzen da, bai eta perpaus osagarriak bar ditzaketan 39 izen ere (agindu, damu, duda, entzueria, erabaki, errezelo, esperantza, froga, galdera, ideia, etab.).*

*Giltz-Hitzak: Sintaxia. Perpaus osagarriak. Perpaus osagarri izenlagunak. Literatura-tradizioa.*

*Este artículo es la primera parte —“Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)”— de un estudio más amplio sobre el uso de las oraciones adnominales a lo largo de la tradición literaria vasca (datos obtenidos del despojo del corpus del Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia). En el primer capítulo de este artículo se resume la clasificación y presentación de las oraciones completivas adnominales vascas, tal y como ha sido expuesta por la Academia de la Lengua Vasca en su gramática (Euskal Gramatika: Leben Urratsak-V. Mendeko Perpausak-I, citada en adelante como EGLU V). A continuación —segundo capítulo— se ofrece una descripción exhaustiva, así como abundantes ejemplos de las estructuras que han sido utilizadas en la tradición escrita con 39 nombres susceptibles de complementación oracional (agindu, damu, duda, entzueria, erabaki, errezelo, esperantza, froga, galdera, ideia, etab.).*

*Palabras Clave: Sintaxis. Oraciones completivas. Oraciones adnominales. Tradición literaria.*

*Cet article est la première partie —“Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)”— d’une étude plus vaste sur l’usage des phrases adnominales tout au long de la tradition littéraire basque (données obtenues du dépouillement du corpus du Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia). Dans le premier chapitre de cet article se trouve résumée la classification et la présentation des phrases complétives adnominales basques, tel que l’a exposé l’Académie de la Langue Basque dans sa grammaire (Euskal Gramatika: Leben Urratsak-V. Mendeko Perpausak-I, citée dorénavant comme EGLU V). Ensuite —second chapitre— l’on offre une description exhaustive, ainsi que de nombreux exemples des structures qui ont été utilisées dans la tradition écrite avec 39 noms susceptibles de complément de la phrase (agindu, damu, duda, entzueria, erabaki, errezelo, esperantza, froga, galdera, ideia, etab.).*

*Mots Clés: Syntaxe. Proposition complétive. Propositions adnominales. Tradition littéraire.*

(1) Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutako ikerketa-proiektu baten (UPV 033.356-HA097/98) lehen emaitza da.

## Sarrera

Ikerketa honen helburua aurreko artikulu batean (Alberdi, Garcia, Ugarteburu: 1997) aurkeztu genuen ikuspegia (“Izenen mendeko perpausak: XX. mendeko erabilera”) osatzea da. Batetik, oraingo honetan literatura-tradizio osoa arakatu nahi izan dugu, lehengo ikuspegi mugatua gainditzeko; horretarako, *Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusaz* baliatu gara. Bestetik, bitarte honetan Euskaltzaindiak bere gramatikaren hurrengo liburukia plazaratu du (*Euskal Gramatika: Lehen Urratsak V. Mendeko Perpausak-1*, aurrerantzean *EGLU V* laburduraz aipatua), non perpaus osagarri izenlagunen gaiari dagozkion bereizkuntza funtsezkoak ezarri diren.

Funtsezkoa da, esate baterako, *EGLU* Vean perpaus osagarri izenlagunak mugarrizteko egin den ahalegina; izan ere, ondo bereizi behar dira izen batek gobernatu-riko perpaus izenlagunak (...*galduak zirelako berria*), eta izen baten gainean eraturiko predikatu konplexuek gobernatu-riko osagarriak (... *galduak zirela etorri zen berria*), alegia, ondo bereizi behar dira benetako izenlagunak eta izenlagun-itxurakoak. Funtsezkoa da, orobat, perpaus osagarri izenlagunen sailkapena: adierazpenekoak (...*egin ebalako damua*), zehargalderakoak (?*autoa zenbat ordaindu genuen galdera*) eta subjuntibokoak (?*Orok maita zaitzaten desirak galduko zaitu*).

Beraz, ikerlan honetan *EGLU* Vek egiten duen ekarpenetik abiatu behar izan dugu ezinbestean: hain zuzen ere, artikularen lehen atalean *EGLU* Veko sailkapenaren eta azalpenaren laburpena eskaini dugu. Bigarren atalean, perpaus osagarri izenlaguna onar dezaketen 39 izenen (*agindu, damu, duda, entzueria, erabaki, errezelo, esperantza, froga, galdera, ideia*, eta abarren) literatura-tradizioa arakatu dugu, izen horietako bakoitzak hartu dituen perpaus osagarri-motak erakutsiz eta sailkatuz.

Bukatzeko, artikulu hau perpaus osagarri izenlagunen tradizio idatziari buruzko ikerketa zabalago baten lehen zatia dela esan behar dugu. Oraingo honen jarraipena izango den beste artikulu batean —“Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (II)” — hurrengo alderdiak aztertuko dira: perpaus osagarri izenlagunen maiztasuna eta bilakabidea, eta predikatu-egiturek gobernatu-riko perpaus osagarriekiko lehia (*Galduak zirelako berria etorri zen* vs *Etorri zen berria galduak zirela*); perpaus osagarria onartzen duten predikatu-egitura konplexuen bilketa (*dudagabea izan, duda egin, dudan ipini, duda(rik) egon, duda ukan/izan/eduki, dudan egon, duda hartu...*); adierazpeneko perpaus osagarri izenlagunetako menderagailuen azterketa (a. *-eN/-eLAKO* menderagailuen tradizioa; b. *?-eLAREN, ?-eNEKO, ?-eNAREN, ?-eLAKOAREN* menderagailuen tradiziorik eza); zehargalderako eta subjuntiboko perpaus osagarri izenlagunen tradizio urria; eta perpaus osagarri jokatu-gabeen azterketa.

## 1. Perpaus osagarri izenlagunak EGLU Ven arabera<sup>2</sup>

### 1.1. Perpaus osagarri izenlagunak

Perpaus osagarri izenlagunak dira, ez aditz batek edo predikatu batek, baizik izen batek bere mendean eta osagarri modura hartzen dituen perpausak, edo beste era batera esateko, izen batek gobernatzen dituenak. Halako egituretan, izenari “ele-

(2) Ikus *EGLU V*: 145-158 eta 169-171 orr. Ikus orobat 19-21, 28 eta 51-52. orr.

mentu gobernatzaille” deritzo, perpaus osagarria bere mendean —konplementazio-erlazioan— hartzen duelako; eta delako perpaus osagarria ezkerretik hartzen du, izenlagun modura, alegia. Beheko adibideetan (1-2) letra etzanaz markatu ditugu perpaus osagarriak eta maiuskulaz elementu gobernatzaillea, izena, alegia.

- (1) [[*Diruak dena lortzen duelako*] USTEA] oso zabaldua dago.  
 (2) Badira oraindik [[*lurra zapala den*] USTEA] baztertu ez dutenak.

Espero zitekeenez eta aipaturiko adibideetan ageri denez, horrelako perpausok izenlagunek hartu ohi dituzten atzizkietako bat hartzen dute: *-eN* edo *-KO*, azken hau *-eLA* menderagailuari erantsita (*-eLAKO*).

Hurrengo adibideetan ikus daitekeenez (3-5), aditz edo predikatu batek gobernatu-  
 turiko perpaus osagarri jokatuak hiru motatakoak izan daitezke: a) adierazpen-per-  
 pausak (3); b) zehargalderak (4); c) subjuntiboko perpaus osagarriak (5).

- (3) [*Pozik daudela*] IKUSI dugu.  
 (4) [*Zer nahi dugun*] GALDETU digute.  
 (5) [*Ondo bizi gaitezen*] NAHI dute.

Gauzak horrela, geure buruari hurrengo galdera egin diezaiokegu: perpaus osaga-  
 rri izenlagunak ere goiko (3-5) sailkapenaren arabera bana ditzakegu? Alegia, perpaus  
 osagarri izenlagun adierazpenekoak (6), zehargalderakoak (7) eta subjuntibokoak (8)  
 ote ditugu euskaraz?

- (6) [[*Euskara Afrikatik datorren*] HIPOTESIA] defendatu dute batzuek.  
 (7) [[*Madriren zenbat aldiz izan naizen*] GALDERA] ehun bider egin didate.  
 (8) [[*Orok maita zaitzaten*] DESIRAK] galduko zaitu.

Dena den, sailkapen hirukoitz horri ekin baino lehen, perpaus osagarri izenlagu-  
 nak ongi zedarriztatzeko balio duen bereizkuntza bat aztertuko dugu hurrengo azpia-  
 talean, elementu gobernatzaillearen inguruko bereizkuntza bat, alegia. Izan ere,  
 perpaus osagarri batzuen gobernatzaillea ez da izena bere soilean, izen horren ingu-  
 ruan eraturako predikatua baizik (9a, 9b).

- (9) a. [Elkarren berri bazekitela] *dudarik ez da*.  
 b. [Noiz zuen mingain oiek askatuko ote diran] *zalantzaz nago*.

Beherago frogatuko denez, (9)ko perpaus osagarriak, ongi begiratuta, ez dira  
 benetako izenlagunak, predikatu baten osagarri “bereziak” baizik.

## 1.2. Predikatu konplexuak gobernatzaille: izenlagun-itxurako perpaus osaga- rri “bereziak”<sup>3</sup>

Zenbaitetan izena ez, baina izenaren inguruan eraturako predikatu-egitura kon-  
 plexu bat izaten da elementu gobernatzaillea. Adibidez:

- (10) a. Ternuako hegietan galduak zirela *etborri zen berria*. (J.P. Arbelbide, *Igan-  
 dea edo Jaunaren eguna*)

(3) Ikus *EGLU* V: 20, 51-52. orr.

- b. *Sospetxa daukat*, ikusiak ikusita, orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direla makina hauek. (*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-06-16)
- c. Erretor sorginak trufaz moztua zuela, *dudarik* nehork ez zezaken izan, De Lancren arabera.

Horrelakoetan elementu gobernatzailea zuzenean izena (*berria*, *sospetxa*...) ez dela egiaztatzeko, ohar gaitezen kasu bakoitzean izen hori bere testuinguru predikatibotik ateraz gero sortzen diren perpausak ez direla egokiak:

- (11) a. \*Ternuako hegietan galduak zirela gezurtatu zen berria.
- b. \*(Zure) sospetxaz orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direla makina hauek hitz egin zenuen.

Beraz, agerikoa da (10) modukoetan izena bere soilean ez dela gobernatzailea eta predikatu-egitura osoak betetzen duela egiteko hori. Hori bezain agerikoa da, hala ere, izena dela egitura predikatibo osoaren muina eta haren funtsa daramana. Horregatik bere mendean har dezake izenak perpaus osagarria, *-KO* atzizkiaren bitartez izenlagun bilakatua:

- (12) a. {Ternuako hegietan galduak zirelako} *berria* gezurtatu zen.
- b. {Makina hauek orduko mentalidade berberarekin erabiltzen direlako} *sospetxaz* hitz egin zenuen.

Adierazpeneko *-eLA* perpausetan asko dira (10) bezalakoak: *berria zabaldu*, *notizia etorri*, *elea ibili*, *agindua eman*, *beldur izan*, *esperantza izan*, *usmoa izan*, *arrazoi izan*...

- (13) a. *Elea zebilen* eskuindarrekin irabaziko zutela.
- b. *Irudipena daukat* okerren bat egin duzula.

Era berean, izen baten osagarri diruditen zehargaldera batzuk ere, ondo begiraturata, ezingo ditugu perpaus izenlaguntzat jo, elementu gobernatzailea izen soila ez, baizik izen horren inguruan eraturiko predikatua delako:

- (14) Noiz zuen mingain oiek askatuko ote diran *zalantzez nago*.

Ondorioz, funtsezkoa da elementu gobernatzailea (izen soila ala izenaren inguruan eraikitako predikatua?) ongi bereiztea, bereizkuntza hori erabakigarria baita perpaus osagarria izenlaguntzat hartzeko edo osagarri "berezien" artean sailkatzeko.

### 1.3. Izenlagun-motak: (a) perpaus osagarri izenlagun adierazpenekoak

Lehenengo adibideetan ikusi ahal izan dugunez (1-2), ez dago batere *dudarik* adierazpeneko perpaus izenlagun osagarriei buruz. Are gehiago, euskaraz perpaus izenlagun gehienak adierazpenekoak ditugu eta, esan bezala, *-eN* eta *-eLAKO* menderagailuen bidez gauzatzen dira.

*-eN* menderagailua sarritan *uste*, *usmo*, *beldur*, *esperantza* eta horrelako izenen menderako perpaus osagarriek hartu ohi dute:

- (15) [[*Etsiko dun*] USTEA] ba du berak ere. (Orixe, *Euskaldunak*, 133)  
 (16) Piarres, Gabon aurretik eldu zen Etxahuniara, [[*Eguberri jai aiek etxeko berotasunean igaroko zitun*] ITXAROPEN eztiakin]. (Etxde JJ 248)  
 (17) [[*Euskara Afrikatik datorren*] HIPOTESIA] defendatu dute batzuek.

Gogoan izan behar da, noski, menderagailu bera izan arren (-eN), perpaus osagarri hauek eta erlatiboek egitura desberdina dutela. Erlatiboetan, izen ardatzaren erreferentzia bera duen izena izaten da isilpean —(18) adibidean *gizona*—. Baina osagarrietan ez dago horrelakorik, izen gobernatzailea perpaus nagusian baizik ez dagoelako: (19) adibideko osagarria, esate baterako, *euskara Afrikatik dator(ren)* da eta perpaus horren barnean ez dago lekurik, ezta isilpean ere, *hipotesia* izenaren-tzat:

- (18) [[zurekin  $\emptyset$ ; etorri den] *gizona*<sub>i</sub>] maisua da (P. erlatibo)  
 (19) [[*Euskara Afrikatik datorren*] HIPOTESIA] defendatu dute batzuek (P. izenlaguna)

Bestalde, *uste*, *susmo*, *beldur*, *esperantza* eta abarrek hartzen duten perpaus izenlaguna -eN atzizkiarekin ez ezik, -eLAKO menderagailuarekin ere egin daiteke (20-21):

- (20) [[*Euskara Afrikatik datorren*] HIPOTESIA] defendatu dute batzuek  
 (21) [[*Euskara Afrikatik datorrelako*] HIPOTESIA] defendatu dute batzuek

-eLAKO atzizkidun perpaus izenlaguna hartzen duten izen gobernatzaileak balio semantiko desberdinak izan ditzake, hala nola, esate baterako, komunikaziozkoa (*berria*, *zurrumurrua*, *hitza*, *kontua*...), iritzizkoa (*ustea*, *susmoa*, *esperantza*, *aitzakia*...), balizkoa (*hipotesia*, *iritzia*...), edo arretazkoa (*kezka*...). Perpaus osagarriak, kasu hauetan, delako berriaren, ustearen, iritziaren edo kez karen edukia zein den ematen du aditzera. Hona hemen, adibide batzuk:

- (22) [[*Printzesa hil delako*] BERRIA] iritsi zaigu  
 (23) [[*Koldo eta Maite banatu direlako*] ZURRUMURRUA] zabaldu da  
 (24) Zer dakizu [[*Europa osoan euroa sartu nahi dutelako*] KONTU HORRETAZ]?

Aurreko perpaus izenlagunetan (-eLAKO + izen gobernatzailea) izen gobernatzailea isilpean gera daiteke: orduan -a mugatzailea erantsita edo erakuslea gehituta sortzen da osagarri izenlagun berria, zeinak -eLAKOA / -eLAKO HORI... itxura baitu.

- (25) *Haserre dago*ELAKOA egin du, baina ez egin kasurik, pozik dago  
 (26) *Zer da Ameriketara joatekoa zare*LAKO HORI?

Bestalde, *EGLU* Ven arabera, perpaus osagarri izenlagunak eraikitzeke erabide okerrak dira -eLAREN (27), -eLAZKO (28), -eNAREN (29) eta -eNEKO (30) menderagailuak:

- (27) \**Datorren urtean ezkonduko zarelaren berria* hedatu da.  
 (28) \**Haurra jaiotzearen berria* ekarri zigun.  
 (29) \**Gauzak hobetzen ari direnaren seinale* da hori.  
 (30) \**Jesus etorri zeneko berria* zabaldu zen.

#### 1.4. Izenlagun-motak: (b) zehargalderak, izenaren osagarri?

*EGLU* Ven arabera, euskaraz zehargalderak nekez izaten dira izen baten osagarri. Hots, zehargalderak gehienetan predikatu baten mendean joaten dira (31a), baina nekezago izen baten mendean (31b):

- (31) a. [*Autoa zenbat ordaindu genuen*] GALDETU digu.  
 b. \*[[*Autoa zenbat ordaindu genuen*] GALDERA] ez zitzaidan egokia iruditu.

Gauzak horrela, (31b) bezalako badaezpadako egituren ordez, nahiago izaten dugu bestelako zenbait itzulingurutara jotzea, zehargalderak aditzaren esparrutik atera gabe. Adibidez:

- (32) a. Autoa zenbat ordaindu genuen galdetzea ez zitzaidan egokia iruditu.  
 b. Autoa zenbat ordaindu genuen galdetu zigun eta galdera hori ez zitzaidan egokia iruditu.

Nolanahi ere, badira euskaldunak zehargalderak izenaren osagarritzat emateko arazorik ez dutenak. Halakoentzat guztiz zuzenak eta arruntak dira hurrengo modukoak:

- (33) a. Madrilen zenbat aldiz izan naizen GALDERA ehun bider egin didate.  
 b. Noiz hilko naizen BELDURRA askotan sentitu dut.  
 c. Etorriko den DUDAK higatu du gizajoa.  
 d. Zer esango digun KEZKAK hartu nau.

Dena dela, esamolde horien tankerakoak ez dira euskaldun gehienek gogobetekoak. Horregatik, goiko (33)ko badaezpadako perpaus horien ordez, beste hauek (34), nolabait “erdibituak”, askozaz onargarriagoak egiten zaizkigu:

- (34) a. Galdera egin didate Madrilen zenbat aldiz izan naizen.  
 b. Beldurra sentitu dut noiz hilko naizen.  
 c. Dudak ditut etorriko ote den.  
 d. Kezka handia dut zer esango digun.

(34) modukoetan zehargaldera predikatu konplexu baten mendean doa (*galdera egin, beldurra izan/sentitu, duda izan, kezka izan...*) eta ez izen soil baten mendean. Eta hain zuzen ere, horrelakoetan badirudi bi hurrenkerak direla zilegi eta onargarri (35a/35b):

- (35) a. Galdera egin didate Madrilen zenbat aldiz izan naizen.  
 b. Madrilen zenbat aldiz izan naizen galdera egin didate.

Hain zuzen ere, (35b) gisakoak dira tradizioan noizbehinka agertzen direnak eta ez —autore berrien artean ez bada— (33) modukoak. Hona hemen, idazleen horrelako pare bat adibide:

- (36) a. Era onetako jardunean egon ziran arrantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer gertau ete zan *kezkaz beterik* (D. Aguirre, *Kresala*, 23).  
 b. (...) bigarren mallako jantokira aldatzen utziko ote zioten *galdera egin zue-nean*, zerbait ordain eta utzi zioten (J.A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 21).

Esan bezala, *EGLU* Ven arabera, (36) gisakoetan gobernatzailea ez da izena bera bere soilean, predikatu-egitura osoa baizik (*kezkaz beterik egon, galdera egin*). Eta egiazki zehargalderak *kezka, galdera* eta antzeko izenen osagarri zuzenak ez direla ikuste-



ko, aski da saiatzea izen horiek absolutiboaz beste kasu-marka batez hornitzen eta perpausuan legokiekeen osagai gisa lan egiten uztea. Adibidez:

- (37) ??(...) *bigarren mallako jantokira aldatzen utziko ote zioten* GALDERAK zerbairetarako balio izan zuen.

Hortaz, zailtasunak ditugu delako izena absolutiboaz beste kasu batean emateko, eta hori da, hain zuzen, izen horrek eta aditzak predikatu konplexu bat (*galdera egin, kezka bete, kezka izan...*) osatzen dutela pentsarazten diguna.

### 1.5. Izenlagun-motak: (c) subjuntiboko perpaus izenlagunak

Hemen galdera da ea euskaraz hurrengoan modukoak esan daitezkeen ala ez:

- (38) *Bazkaria presta dezan* ESKEA egin diote.  
 (39) *Bazkaria presta dezalako* ESKEA egin diote.

Galdera horri erantzuteko gogoan izan behar da hemen ere perpaus osagarriaren gobernatzailea zenbaitetan predikatu-egitura oso bat izaten dela eta ez hartan ageri den izena bere soilean. Hona adibide batzuk (letra etzanaz eman dugu predikatu-egitura):

- (40) Gaixoak sendo dituen *esperantzan gaude*  
 (41) Bakandereak txarrik egin dagixun bildur-ete-zara, ba.

Antzeko zerbaite gertatzen da ondoko perpausetan ere:

- (42) a. Azienda erosterakoan badagoko ongi begiztatzea heia ortzik gabe denetz, ahul dadien *beldurrez*. (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 94)  
 b. Jaiki-erori zebilela ekusirik, bidean il zekien *beldurrak*, eman zioten lagun bat. (S. Mendiburu)

*Beldurrez, beldurrak* horiek ere predikatu dira, *beldur izanik, beldur zelarik* edo horrelakoen pare, eta ez dute osagarria izenlagun gisa hartzen.

Zenbaitetan, hala ere, zalantza sor daiteke izenak berak zuzenean ote daraman osagarria ala hura predikatu-egitura baten zati den. Ikus, esate baterako, ondoko adibidea:

- (43) Hortakotz *igorri dautzut jin zaitean galdea*. (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 116)

Perpaus hori bitara uler eta analiza daiteke:

- a. *Galdea igorri dizut* [(jin zaiten)] (Predikatu konplexua: *galdea igorri*)  
 b. *Igorri dizut* [(jin zaiten) *galdea*] (perpaus osagarri izenlaguna)

Bietatik, *EGLU* Ven arabera, lehen irakurketa da bidezkoena, zeren bigarrena onartuz gero, hurrengoan modukoek ere gramatikalak izan beharko lukete eta nahi-ko dudazkoak dira:

- (44) a. ?*Jin zaiten galdeak* harritu nau.  
 b. ?*Ez diozu kasurik egin behar jin zaiten galdeari*.

Izan ere, (44)ko perpaus izenlagun jokaturia (*jin zaiten galdea*) baino ohikoagoa da perpaus izenlagun jokaturgabea: *jiteko galdea* esatea, alegia.


Edozein modutan, zalantzak zalantza eta bitasunak bitasun, *EGLU* Ven arabera ez dirudi erabat ezinak eta baztertzekoak direnik izenlagun subjuntiboak, doi bat bitxiak eta ezohikoak diren arren. Ikus, esate baterako, ondoko perpausa:

(45) *Orok maita zaitzaten desirak* galduko zaitu.

Zenbaitetan, gainera, izenlagunek eraman ohi duten *-KO* atzizkia eta guzti ematen da subjuntiboko osagarria:

(46) *Haren diszipuluak obitiek gorputza ostu, ta eraman zezaelako bildurrez*, ifini zituen obia zaitzeko guardak (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 94).

Laburtzeko, hona hemen, perpaus osagarrien eskema orokorra (*EGLU* V, 28. or.):



## 2. Perpaus osagarri izenlagunen azterketa izenez izen

### 2.1. Agindu (iz.)

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:  $\emptyset$

1.2. Jokatugabeak:

-t(z)eko agindu: %96,8 (31/32)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

## b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak

## 1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %3,1 (1/32)1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$ 2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

Gure corpuseko datuen arabera, perpaus izenlagun jokatugabea da *agindu* izenak hartu ohi duen osagarria. Zehatzago esateko, gure datu-baseko adibide guzti-guztiak *-i(z)eko agindu* tankerakoak dira.

Ez dugu *-eN/-eLA*KO *agindu* tankerako perpaus izenlagun jokaturik aurkitu. Izen honen azpikategorizazioa kontuan harturik, nekez itxaron zitekeen adierazpeneko edo zehargalderako osagarri izenlagunik, baina bai, aldiz, subjuntiboko osagarria. Kontua da, ordea, ez dagoela horrelako perpaus jokaturik, alegia, ez dago gure corpusean *egin zezan (zezalako) agindua eman zuen* modukorik eta hutsune hori azpimaragarria iruditzen zaigu.

*-i(z)eko agindu* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatugabea): %96,8 (31/32)

- (47) Orrelaxen berriz ere etorri zan aurrera *segitzeko agindua*, eta Urkiolara eraman giñuzten. (Salav 88)
- (48) Zer debekutzen dau aragia *izteko aginduak*? (KIkV 77)
- (49) Nekezarijak gizenduten ditu idijak, okela ona jaateko; ta enzun neutsan nik gizon jakintsu bati, Jangoikuak egieban lenengo gizonari, emon eutsala lurra *landuteko aginduba*, onek pekatu egieban baño leenago, lurra samur ta biar-erraza bazan bere; ta pekatu egiebanian gogortu, arantzatu ta lartu jakola lur berez bigun ta samurra zana; baño len ta gero izan zala Adan atxurlarija ta baserrikua. (Mg PAb 149)
- (50) Etzan orduan orain legez pekatuak *konfesatuteko agindurik*, ez zelan autortu bear zirian, ez nos, ez zeinbat pekatu egin eben esateko premiñarik. (Añ<sup>4</sup> GGero 336)
- (51) Ni *iltzeko agindua* zutenak berak esan zidaten zer asmo zun, eta aiek etzute-la alakorik egingo. (Or SCruz 95)
- (52) Jesus *iltzeko Pilatoren agindua*. (Lard 456)
- (53) Jesus'en iñori ez *esateko aginduari* begiratu gabe, soraio onek bereala barreatu zuen, zer gertatu zitzaion, eta guziak are arrituagoak, eta Jesus'ganonz etziñagoak jarri ziran: eta soraio bakarrean bizi bearrean arkitzen zana, gero gizonen artean bizitzen asi zan. (Lard 386)

Bestalde, badugu adierazpen-perpaus osagarri baten adibidea (*-eLA*), baina ez *agindu* izen soilaren mendean, *agindua etorri zan* predikatu-egituraren mendean baik. Hona hemen, adibidea:

Predikatua + *-eLA* (osagarri “berezia”, adierazpenekoa eta jokatua): %3,1 (1/32)

- (54) Gero, kinto abek instruzioa ikasi ta frenterako moduan jarri ziranean, *agindua etorri zan* konpañi batek joan bear zuala Vitorira. (Salav 76)

## 2.2. Aire

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:  $\emptyset$
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko airez</i>	%100 (1/1)
-----------------------	------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak:  $\emptyset$
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Adibide bakarra dago gure corpusean, perpaus osagarri izenlaguna da, jokatugabea. Dena den, alderdi semantikoari begira, gero aztertuko dugun *itxura* izenak gobernatzen dituenen multzoan ere sailka genezake.

- (55) Handizki anpatzen du begitartea; baño kolore sano du, larrua zapatzen kri-kri egiten du, *ardiak larrutzeko airez* anpatzen diren bezalakoek (FIr 192)

## 2.3. Aitzakia

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eLAKO aitzakia</i>	%33,3 (17/51)
<i>-eN aitzakia</i>	%3,9 (2/51)
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko + aitzakia</i>	%45,1 (23/51)
----------------------------	---------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eLA + predikatua</i>	% 7,8 (4/51)
<i>predikatua + -eLA</i>	% 9,8 (5/51)
    - 1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*Aitzakia* izenak perpaus jokatuak nahiz jokatugabeak hartzen ditu osagarri modura,<sup>4</sup> batez ere *-t(z)eko aitzakia* erako jokatugabeak (bat datoz, hortaz, tradizioa eta mende honetako usadio nagusia). Jokatuaren artean *-eLAKO* menderagailua hartzen

(4) Kontuan izan beharra dago egitura formala eta sintaxi-egitura ez datozela beti bat eta *-t(z)eko aitzakia* testuan aurkitzen den hainbatetan aztertu beharra dagoela ea perpaus izenlaguna dugun edo aditz-sintagmako atala. Hona adibide bat:

du ia beti. Halakoetan, bi eratara ager daiteke *aitzakia* izena perpaus nagusian: inesibo-markarekin (*aitzakian*) —adizlagun modura eta ia beti koma artean bereizia— edo soziatibo-instrumental kasu-marka duela (*aitzakiaz*, *aitzakiarekin*). Ez da behin ere ageri subjuntiboan edo zehargaldera modura. Jokatugabeetan ere inesibo edo soziatibo-instrumental kasu-marka darama *aitzakia* izenak, eta inesibo-marka dutenen artean badira mugagabeak ere, jokatueta ez bezala (*-t(z)eko aitzakitan*). Testuetan maiz ageri diren *-t(z)eko aitzakia* erako egituretan ez dago perpaus izenlagunik, helburuzko perpaus arrunta baizik (*Eskatzen zaitzunik ez egiteko aitzakiak dira oriek*).

Hona adibide batzuk:

*-t(z)eko aitzakia* (adierazpen-perpaua):

- (56) Galtzarbean liburu bat eta eskuan aulki txiki bat zeramazkiala, ordutik iñular-arte *astia irakurtzen emateko aitzakiakin*, basopeko itzalera joan zan. (TAG Uzt 263)
- (57) Ala ere, Uriko jende guzia asaldatu zan, eta Elizara bilduta, San Pablo'ri eldu zioten, Elizatik kanpora atera zuten, kolpez iltzer uzten zutela, eta ateak itxi zituzten, berriz sartu etzedin, aren odolarekin *Eliza ez loitzeko aitzakitan*. (Lard 522)

*-eLAKO aitzakia* (adierazpen-perpaua):

- (58) Emakume bat arkitzen zan urte osoetan lotsaz bere bekatuak konfesatu ezinda *Konfessore ezagunik etzedukalako aitzaki edo estalkiaz*. (Mg CC 127)
- (59) Ijitoen Jainkoari zeritzan Isis, onela zoratu, itsutu, ta engañatu zituan demonioak, Jainko egiazkoari zor zaizkan, agur ta adorazioak beretzat izateagatik; eta *Jainkoa hondratzen zuelako aitzakian*, gaitz itsusi asko eragiteagatik: orregatik jende itsu zoratu aek, Idoloai, ta Idoloen barrenen sarturik zeuden, demonioai egiten zizten, pestak ziran ordikeria, deshonetseria, ta onelakoak. (Ub 036)
- (60) Yesusek eriak yai-egunean sendatzen dituelako, asarretzen dira Yuduak, ori *lan-egitea ta beraz yai-egunean debekatua dalako aitzakiaz*. (Ir YKBiz 104)

*-eN aitzakia* (adierazpen-perpaua):

- (61) Alabak ere, *eskuak izarditzen zaiozkan aitzakiyakin*, aguro laja zuen senar gai kojua, laugarren kapataza. (Iraola 024)

Gobernatzaile modura predikatu-egitura dutenetan, *-eLA* ageri da menderagailu gisa eta perpaus osagarria predikatu-egituraren atzetik doa, oro har. Osagarria predikatuauren aurretik erakusten duten perpaus guztiak dira lekuko bakar batekoak (AA) eta denak dira *aitzakiatzat hartu* edo *aitzakiatzat eman* erakoak; izenlaguna predikatuauren atzetik ageri duten esaldiak, berriz, hainbat idazle (And, Berron, Mg...) eta mendetakoak ditugu (XIX, XX). Azken hauen artean ere *aitzakia(tzat) eman/izan* dira maizenak.

---

Eta onek orretako ez dagoela, edo *gero egiteko aitzakiak emanarren*; Konfessoreak badaki, orrela fiatu, ta Konfesioa utzi bear ezjala; baizik, al dan bezala, bereala eragin. (Cb Eg III 229)

Hau da, 'aitzakiatzat eman du gero egingo duela' parafasiak adieraziko liguke perpaus izenlaguna dugula, baina pentsa daiteke helburuzko perpaus arrunt bat dugula: 'aitzakiak ematen ditu (zerbait) gero(ago) egiteko'.

Predikatua + *-eLA* (adierazpen-perpaua):

- (62) Eta zer esan bear da kristau nagi asko gatik, zeintzuek sarriago ez konfesatu ta komulgatzeko aitzakitizat ematen duten, obe dala gaizki komulgatzeko batere, edo urtean bein baño ez komulgatzea? (Mg CC 209)
- (63) Baiña gauza onek ba du bere akatsa, auxe: burruka onen kondaira idatzi zuanak, une ontan bertan moztu-ta zintzilik utzi zuala, aitzaki emanaz, alegia, ez zuala ezer arkitu paperetan Don Kijoteren ekintza auetaz, berak idatzirik uzten dituan oietaz-beste. (Berron *Kijote* 106)

*-eLA* + predikatua (adierazpen-perpaua ):

- (64) Begira, izan ote dezun etsaiaren kontra edozeñ gauza sinisteko oitura, zañak ala esaten dizula aitzakiatzat arturik? (AAII 222)

Lekukorasunik zaharrenetan (SP, Ub...) perpaua izenlagunak aurkitu ditugu (jokatuak nahiz jokatugabeak) eta predikatu-egituraren mendekoak izenlagunekin batera XIX. eta XX. mendeetan. Corpusean aurkitu ditugun perpaua gehienak gipuzkerazkoak dira (%90,6) eta ez dago, hortaz, euskalkien arteko erkatzerik.

## 2.4. Albiste

a) Perpaua osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

<i>-eLAKO albistea</i>	%23,1 (3/13)
<i>-eN + albistea</i>	%7,7 (1/13)
<i>-eNEKO albistea</i>	%7,7 (1/13)

1.2. Jokatugabeak:

<i>-i(z)eko + albistea</i>	%7,7 (1/13)
----------------------------	-------------

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaua osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + <i>-eLA</i>	% 30,8 (4/13)
--------------------------	---------------

1.2. Jokatugabeak:

2. Zehargalderakoak:

predikatua + <i>-eN</i>	%23,0 (3/13)
-------------------------	--------------

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Ikusten denez, *albiste* izenak osagarriak hartzen ditu, jokatuak (*-eLAKO* mendera-gailuarekin lotzen diren adierazpen-perpauak nagusiki) nahiz jokatugabeak. Hona adibide batzuk:

- (65) Basarte aietatik irten ez al ziran, jende asko topatu zuten; *bada Jenobeba arkitua zalako albistea*, ingurumaiko errietan laster barreatu zan. (Arr GB 116)
- (66) Lenengo zatia Gabriel Goiaingeruak esan zion Mariari, *Jainko-Semea gizon egitteko albiste zoragarria* ekarri zionean. (Inza *Azalp* 154)

Bestalde, predikatu-egiturak osa ditzake, perpaus osagarri arrunten gobernatzaile, honako aditz hauekin:

*albistea bialdu*  
*albistea eduki*  
*albistea egon*  
*albistea ekarri*  
*albistea eman*  
*albistea hartu*  
*albistea ibili*

Halakoak adierazpen-perpaua (-eLA menderagailua) edo zehargaldera izan daitezke (*albistea* + -eN). Hona hemen adibide batzuk:

- (67) An inguruan jaiua dan abade gazte batek *albistea bialdu dau Meza emoten duala* onen egunetan eta onen ordutan, Mezarako biar izaten diran gauzak albistariyaz bialduta. (Kk *Ab II* 070)
- (68) Geroago *egon zan albistea, zelan joan zan* Ondarroako txalupa batera, *ta gizon bi il eutsezala* euren iskillioakaz Ondarroarrari. (Echta *Jos* 116)

Aurreko sailean sartu dugun perpaus bat bada, -eN *albiste* erakoa (Lardizabalen testuetako adibide bakarra), irizpide formalez hala sailkatu dugun arren predikatuzko egituratzat har daitekeena, *albistea hartu* erakoa alegia.

- (69) Erroma'ko kristauak artu zutenean *San Pablo urreratzen zitzaien albista*, batzuek emerezortzi leguan, besteak amaikan bidera irten zitzaiozkan. (Lard 530)

Garaiz garaiko azterketak ez du aparteko daturik erakusten; izan ere, *albiste* hitza 1745ean agertzen da euskal testuetan (*Euskal Hiztegia*) eta aztertzen ari garen egitura erakusten duten gure corpuseko lekukotasun guztiak XIX. eta XX. mendeetakoak dira. Aurkitu ditugun agerpen guztiak bederatzi egileren bizkaierazko nahiz gipuzkerazko testuetakoak dira.

## 2.5. Arrasto

*Arrasto* izenaren agerraldi bakarra aurkitu dugu corpusean:

- (70) Nunbaitetik *atera zuten arrastoa Piarres an zela ezkutatuta*. (Etxde *JJ* 191)

Honako honetan, ageri denez, predikatu-egitura darabilgu —*arrasto atera*—, batetik, eta, bestetik, perpaus osagarria —*Piarres an zela ezkutatuta*—.

## 2.6. Aztarna

-eLAKO:

- (71) Eskoriazako mendietan arkitzen dira burnia, ta *likurta noizbaiten ere atera oi ziralako aztarna egiazkoak*. (Izt *C* 074)
- (72) Onela bizi ziral, *jainkoaren zigorrada urreratzen zitzaielako aztarna eta zanzua*, Erroma'tik zijoazkien Eraentzalleetan zekusten. (Lard 537)

-eN

- (73) Lurra idiki, eta su eta garrak botatzen zituen; eta odeietatik jatxi zan sufre eta suzko jasa ikaragarriak Sodoma, Gomorra, Adama, eta Seboin'go erriak irazeki, eta osotoro erre, eta kiskaldu zituen, *zer izan ziran aztarnarik ere utzi gabe* (Lard 020)<sup>5</sup>

Gutxi dira izen honen lekukoak: hiru adibide besterik ez. Bitan (71, 72), perpaus osagarriak izenlagunak dira, -eLAKO-dunak, eta hirugarrena (73), zatizko zehargaldera.

## 2.7. Beldur/bildur

Izen honi atxikitzen zaizkion perpaus osagarrien azterketak berekin dakarren zailtasuna dela bide, aurreko izenekin ez bezalako azterbidea erabiliko dugu. Alegia, ez ditugu erabide bakoitzaren erabil-maiztasunaren datu orokorrak emango, egituraka baizik; horrela, izan ere, aiseago ikusiko dugu zein erabide erabiltzen den perpaus osagarri bakoitza sortzeko, baina berau "lotu" behar zaion egituraren arabera.

Bost egitura bereizi ditugu.

- a. *beldur izan* (*beldur* ∅)
- b. *beldurrez* (*beldurrez* egon)
- c. *beldurr(a) ukan* (*ez ukan beldurrik*)
- d. *beldurrak*
  - d.1. *beldurrak* egon (*beldurrak* ∅)
  - d.2. *beldurrak hartu*
  - d.3. *beldurrak eman*
- e. perpaus izenlagunak

Lehenengo laurak predikatu-egituratzat jo daitezke, aurrerago adieraziko ditugun salbuespenak gorabehera. Eta bosgarrenean, berriz, perpaus osagarri izenlagun argiak daude sartuak.

### 2.7.1. *Beldur izan* (*beldur*)

Atal honen barruan ez dugu predikatu-egitura honen forma arrunta bakarrik aztertuko, hau da, aditz laguntzailea agerian daukan kasua (maizkoena) bakarrik:

(5) Adibide honetaz gain, beste bat aurkitu dugu:

Eta nekez aurkituko dugu hizkuntzetan, bizidunen artean bezala, *denboraren zedarriak atzeraziko dituen aztarnarik*. (MEIG VI 086)

Adibide honetan, ordea, duda dugu perpaus osagarri ala erlatibozko perpaustzat jo behar den. Perpaus izenlaguntzat jotzen badugu, arazoak daude haren sailkatzean, bi mailatan gainera: egituraren aldetik eta perpaus motaren aldetik. Lehenengoari dagokionez, duda da zer egitura dugun, predikatu-egitura bikuna (*aztarna aurkitu*) ala bakuna (*aurkitu*); predikatua bikuna bada, haren osagarri dugu *denboraren zedarriak atzeraziko dituen* perpausa; bakuna bada, aldiz, *aztarna* izena haren objektu zuzena da, eta perpaus osagarria izen horren izenlagun. Bigarren zailtasuna, bestalde, perpausaren beraren mota zehaztetik dator: zehargaldera ala adierazpen-perpausa?



- (74) Nik, aldiz, bere buruagan eta zimendutzat hartu duen lurrean hain dut aurkitzen fidatua, *non inoiz edo bebin beldur bainaiz ez ote dion lur horrek huts emango egun edo bihar*, haurtxo bat bezain ahul eta zurtz gelditzen delarik. (MEIG IX 096)

baita adizkia isilpean daukan forma:

- (75) Iñok ikusten eztaben barruko kurutzea milla bidar astunagoa da agirian darabilguna baño ta barruan erabilen berea Mañasik, *iñok ikusi ezeion bildur* (Ag Kr 076)

eta pertsonagabea ere:

- (76) Eztakigu, zer igaro zitzaion bekatari oni; baña *beldur izateko da*, ainbeste Komunio gaiztoren buruan gogortua geratu zitzaiola biotza, eta etzala Jau-nagana biurtu biotz osoz. (AA I 431)

Corpusean predikatu-egitura honen 382 agerraldi aurkitu ditugu. Eta aurreko izenekin erabili dugun sailkapenari jarraituz, honela bereizi ditugu perpaus osagarri-motaren arabera:

- a) Perpaus osagarri izenlagunak:  $\emptyset$   
 b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile  
 a. Adierazpenekoak: %31,4; 158/382  
 b. Zehargalderakoak:<sup>6</sup> %31,0; 118/382  
 c. Subjuntibokoak: %27,6; 106/382

Azterketaren abiagunea lan-hipotesi bat dugu: alegia, hiru gisa horietako (a, b, c) perpaus osagarriak *beldur izan* predikatu-egituran elkarren ordez erabil daitezkeela, hau da, berdin esan daitekeela:<sup>7</sup>

Beldur naiz etorriko dela  
 Beldur naiz etor dadin  
 Beldur naiz etorriko (ote) den

Begiratu arinean aski argi dago adierazpeneko perpaus erabil-maiztasun handiagoa agertzen dutela zehargalderak eta subjuntibokoek baino. Baina, horretaz gain, argibide gehiago eman ditzakegu haiei buruz, bi aldagai aintzat hartuz: euskalkia eta epea. Lehenengoari dagokionez, hiru euskalki "nagusi" bereizi ditugu —bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera—, haietan ageri baitira agerraldirik gehienak; eta haiei buruzko datuak batuaren datuekin alderatu ditugu. Emaitzak hauexek dira:<sup>8</sup>

	BIZKAIERA	GIPUZKERA	LAPURTERA	BATUA
Adierazpenekoa	%42,0	%44,4	%48,6	%15,2
Zehargalderakoa	%21,6	%40,8	%4,6	%84,8
Subjuntibokoa	%36,4	%14,8	%46,8	%0

(6) Bereizketa egin behar da formaren eta adieraren artean. Izan ere, *EGLU* Vek dioskunez, gisa honetako perpaus osagarriak formaz zehargalderak dira; adieraz, aldiz, adierazpenekoak.

(7) Abiagune hori ez da guztiz zuzena: perpaus osagarriaren aditza, bakanka bada ere, [+ gero] aspektuaz bestetan ere ager daiteke ([+ iragan] aspektuan batik bat); eta aspektu horiek nekez (edo ezin) ordezka daitezke subjuntiboaz, aspekturik gabeko adizkia berau.

(8) Ehunekoen batuketak goitik behera irakurri behar dira eta ez ezkerretik eskuinera.

Taulan ageri denez, ehuneko berdintsuetan erabiltzen dira hiru euskalkietan adierazpen-perpauos osagarriak *beldur izan* predikatuan. Galde-perpauos osagarrien erabileran, ostera, alde nabarmenak nabari dira: gipuzkerak ehuneko garaiena ageri du, eta larputerak aldiz beherena. Horren antzeko joera, baina alderantzizkoa, subjuntibo-perpauos osagarrien erabileran igartzen da, lapurterari baitagokio ehuneko gorena, eta gipuzkerari berriz beherena. Batuari dagokionez, bestalde, galde-perpauos osagarriak ugariagoak dira, askoz ere, beste bi gisetako perpauosak baino; are baten (subjuntiboaren) lekukorik ez dugu corpusean.

Epeez den bezainbatean, bigarren aldagaiaz alegia, bitara jo ditugu: XX. mendearen aurrekoak eta XX. mendekoak. Ehunekoak hauexek dira:

	< XX.a	XX.a
Adierazpenekoa	%44,8	%37,0
Zehargalderakoa	%8,4	%56,4
Subjuntibokoa	%46,8	%6,6

Honetaz nabarmentzekoa da, batik bat, bi garai hauek galde- eta subjuntibo-perpauos osagarrien erabilerrari buruz ageri duten aldea: XX. mendearen aurreko testuetan, esaterako, lekukotasun oparagoa dute subjuntibo-perpauosak galde-perpauosen aldera; XX. mendeko testuetan, berriz, alderantziz gertatzen da: ugariagoak dira galde-perpauosak. Galde-perpauos osagarriaren ugaritze hori, hein batean, logikoa da; izan ere, XX. mendeko agerraldirik gehienak gipuzkerari eta batuari dagozkie, eta, esana denez, euskalki horietako testuetan nagusi da perpauos osagarrien erabide hori. Dena dela, adierazi behar da, orobat, gipuzkeran galde-perpauosaz erruzago baliatzen nabari den isuri hori ez dela XX. mendearen aurreko testuetan: XX. mendearen aurreko gipuzkerazko testuetan adierazpen-perpauos osagarria %58tan ageri da, zehargalderakoa %8tan eta subjuntibokoa %34tan; beste euskalki aztertuetan antzematen zaion joera berdintsua alegia.

Azter ditzagun, orain, banan-banan, perpauos osagarri-motak:

a. Adierazpenekoak (158):

a.1. Jokatua: %56,3; 89/158

a.2. Jokatugabeak: %43,7; 69/158

Ehunekoetatik ondoriozta daitekeenez, erabil-maiztasun garaiagoa dute —corpusean— perpauos osagarri jokatuak jokatugabeek baino. Azken hauek bereizgarri sintaktiko bat ageri dute: perpauos nagusiak eta osagarriak, alegia, erreferentziakide direla subjektuari dagokionez. Subjektuen erreferentziakidetasun hori irizpidetzat jo liteke noiz erabide jokatua eta noiz jokatugabea erabili behar den asmatzeko; baina jokatuaren zenbait adibidetan ere atzeman daiteke halako erlazioa (erreferentziakidetasuna) perpauos nagusiaren eta mendekoaren (osagarriaren) subjektuen artean, ondokoetan esaterako:

(77) Bainan *beldur naiz halako guti kausituko dudala*. (Dv Lab 251)

(78) Baina nire urtean dituzunean gauzak pixka bat urrutixego ikusten dituzu, eta *beldur naiz ez dudala sekula egingo inoiz ere pentsatu nuen hori*. (MEIG IX 066)

(79) ezperen *ortik aterako ez naizen bildur naiz*. (Or Mi 043)

Perpaus osagarri jokatuak eta jokatugabeak sortzeko bideak hauexek dira:

a.1. Jokatua: 89

a.1.1. -eLA: %84,3; 75/89

a.1.1.1. -eLA + predikatua: %9,3; 7/75

(80) Bainan Panamako *bori dorpeago izanen zela beldur ziren.* (HU Zez 045)

(81) Berealatik Jaungoikoagana biurtzen ezpazera, *sekulan biurtuko etzerala bildur izatekoa da.* (Arr May 093)

a.1.1.2. predikatua + -eLA: %90,7; 68/75

(82) Neure adeskidia, konklusioia dugun eman nik herioaz, zure, eta euskaldun ororen amorekatik egin dudan libru pobriari, *beldur niz enuiatu ere bazirela, ene sobera luze izanez suiet triste baten gainian.* (Tt Onsa 175)

(83) Konfesatzen ninzan aldian graziz biztua nirudien nik; *baña beldur naz ez nazala biztu* bein ere ta Jangoikoak dagokidan eran artu ta kondena nazan bere tribulanean. (Mb IArg I 280)

(84) Etziren hargatik atrebitzen Jesusi galdetzerat haren hitz sailduen argitasunik: *beldur abal ziren erranen ziotela zerbait gauza damuzta zetzakenik.* (Lg II 171)

a.1.2. -eN: (%10,1; 9/89)

a.1.2.1. -eN + predikatua: %22,2; 2/9

(85) ...ezperen *ortik aterako ez naizen bildur naiz.* (Or Mi 043)

(86) Areago orandik: norberaren uste ta bulkoak itzen bidez *inoren gogoan erein zitezkean bildur zan:* itz soilen ahala orrenbestearainokoa zanentz bien-arteoko ta zalantzan zegoen. (Zait Plat 102)

a.1.2.2. predikatua + -eN: %77,8; 7/9

(87) Eta *beldur naiz girstinoetarik ere, gebienek, bide hura hartzen duten.* (Ax 093)

(88) Bainan, gehiago dena, oi, ala *beldur izateko baita juje zorrotz bark asko bekhatu mortal ere kausituko duen halako Kristau laxo baten bizitzean!* (Dh 141)

a.1.3. beste batzuk: %5,6; 5/89

(89) Zuk zeure semia onzat daukazu, urlija neskatilla onzat daukazu, eta nai badozu santatzat; *baña alanbere errazoe andijagaz bildur izan zinaitেকে, alkarregaz adiskide badira. eta denpora luzian badagoz, galdu leitezazana,* eta guztiz ondo egingo dozu galazoten badeutsazu zeure semiari daukan adiskidetasuna, edo beragaz egoten. (Astar II 180)

(90) Leenengo begiraldian, *nik aiek ongi beteko ez ditudanen beldur ote-zeran* iruditu zait. (Ldi IL 094)

(91) Ixillaldi orrek estanda egineta *gaitz burrunbatsua ekarriko dulakoaren beldur naiz.* (Zait Sof 087)

(92) Denbora luze orren buruan bere gorrototzko garra oztu zitezkean eta *bildur zen au gerta zekiokenik.* (Etxde JJ 184)

(93) Beure erritik ain urrun gorputza utzi bearrak bildurtzen ez al zun galdegin ziotenean, Iainkoagandik ezer ez dago urrun, erantzun zien, *ez naiz bildur azken-egunean ni piztu-lekua aamtziko zaionik.* (Or Aitoré 234)

Eskura ditugun datuen arabera, literatura-tradizioan *-eLA* menderagailua baliatzen da maizenik adierazpen-perpau osagarri jokatuak sortzeko. Eta halako menderagailuarekin perpau osagarria predikatu-egituraren eskuinean kokatzen da batik bat.

a.2. Jokatugabeak: 69

a.2.1. *-t(z)eko*: %55,1; 38/69

a.2.1.1. *-t(z)eko* + predikatua: %42; 16/38

- (94) Aiek etzuten izketa ori erdetsi; illuna zan aientzat eta etzuten ulertu; *ortaz ari galdegiteko beldur ziran ordea*. (Ir YKBiz 250)
- (95) Baña Yudean Arkelao bere aita Heroderen ordez errege zala entzunik *ara yoateko beldur izan zan*. (Ir YKBiz 031)

a.2.1.2. predikatua + *-t(z)eko*: %58; 22/38

- (96) Zeren *aiz*, Herodes, *beldur, erresuma galtzeko?* (EZ Noel 071)
- (97) Eta San Anselme *ez da beldur erraiteko eta segurtatzeko* Mariaren egiazko zerbitzari lejala ezin gal daitekela. (MarII 067)
- (98) Baña etzitzaion onela gertatu Tobias gazteari, *bildur bazan ere ezkontzeko sararekin*. (AA III 394)
- (99) Halako orduetan, *beldur garenean gure kontzientziako mintzoaren arabera egiteko*, orhoit gaiten haur gazte batzuk eman darozkiguten etsenpluez. (Jnn SBi 177)

a.2.2. *-t(z)earen*: %2,9; 2/69

- (100) Amorioduna da, eta diruduna, Bizkaiko Bankuan deposito ederra dauka azio-paperetan, lau miloi baino goragokoa, pepr onean, Labe Haundiak eta Iberdueroak, miloi bat eta erdi harri preziatuetan, hor daramazki, lepotik zintzilizka, diamanteak eta brillanteak: *gezurra dirudi, bola karrikatik ibiltzearen bildur eztenak*, Errekaldeberri etxe-bloke 120 bizitegiko bat (...). (Arti Ipuin 056)

a.2.3. *-t(z)eaz*: %7,2; 5/69

- (101) San Augustinok erran zuen bere konfesionetako laugarren liburuan bere arima eta adiskidearena etzirela arima huts bat baizen, eta zeraman bizia higointzen zitzaiola, eta hura hastio zuela bere adiskidea hillez geroztik, zeren ezpaitzuen erdi bizi nahi; eta *halaber orobat beldur zela hiltzeaz*, bere adiskidea osoki hil eledintzat. (SP Phil 362)

a.2.4. *-t(z)ea*: %2,9; 2/69

- (102) Onetxegatik, aurrenekoz, Usoaren kezka Mu-oaren semearekin ezkontzeko, *bildur baitzan alostorreko bizi zorikabeari igestearren txarragoan erortzea*. (Etxde AlosT 058)

a.2.5. *-t(z)era*: %11,6; 8/69

- (103) Baina gauza hauk gogoan zerabiltzala, huna, Iaunaren Aingerua ager zekion ametsetarik, zioela, Ioseph David-en semea, *ezaizela beldur eure*

*emazte mariaren hartzera*: ezen hartan konzebitu dena, Spiritu sainduagantik duk. (L@8c 002)

a.2.6. *-t(z)en*: %7,2; 5/69

(104) *Nor bildur iango ezta pekatu onetan jausten?* (Astar II 195)

a.2.7. *aditzoina*: %8,7; 6/69

(105) *Ametsetan ikus-bildur ere dira*, esnai daudela ikusarazi bai lien, edo eder-izenak eragin litun gisan. (Or Aitorik 289)

a.2.8. *partizipioa*: %2,9; 2/69

(106) *Begira*, esan zitzaion bere jabeari; azpigarria nai badezu edo, *azpigarria galdu bildur bazera* piñua sartuta, jarri errenkadak beti gora ogei metrotik ogei metrora; eta piñu landareak iru metrotik iru metrora. (Munita 069)

a.2.9. *beste batzuk*: %1,4; 1/69

Ikus daitekeenez, anitzak dira perpaus osagarri jokatugabeak sortzeko menderagailuak; haietarik, ordea, *-t(z)eko* gailentzen da. Atzizki hau daukan perpaus osagarria aditzaren eskuinean zein ezkerrean jar daiteke.

b. Zehargalderakoak: 118

b.1. *ote...-eN* + predikatua: %16; 19/118

- (107) *Yesusek akar errixta mokoka egingo ote zion beldur zan*; argatik belaunikatu zitzaion, barkamena eskatzeko bezela. (Ir YKBiz 097)
- (108) Eskerrik asko, eta orain meza nagusira noa, eta *belutxo izango ote dan beldur naiz*. (Urruz Zer 096)
- (109) *Geiegi esan ote dedan beldur naiz*, emakume: orregatik, dana dala bera ikusi gale naiz. (Zait Sof 078)

b.2. *predikatua + ote...-eN*: %84; 99/118

- (110) *Bildur nas astirik izango ez ete dodan* konfesoarearen oñetara elduteko. (A@4n EL2 155)
- (111) Bada, asko kondenetan badira Kristiñau fededunetarik bere, zegaitik zu bere, kristiñau sinislea izan arren, *etzara bildur izango kondematuko dirianetaririk izango ete zarean?* (A@4n GGero 111)
- (112) *Bildur nas zerbaiten uts egin ete dodan, len danik gaistotu ete nasan*. (A@4n GGero 295)

Aitortu behar da *ote* moduzko partikulaz beste markarik ez dugula galde-perpaus osagarriak *-eN* atzizkidun adierazpenekoetatik bereizteko. Arazoa da, ordea, *ote*-rekin zein gabe ager daitezkeela zehargalderak, eta *ote*-rik gabekoak bat datozela forman *-eN* menderagailudun adierazpen-perpausekin; horrenbestez, ez dago, forma soilari begiratu, argudio edo irizpide sendorik *-eN*-dun adierazpen-perpausak zehargalderatzat ez jotzeko, testuinguru bertsuan ageri baitira mota batekoak eta bestekoak. Dena dela, predikatu-egitura honetan gutxi dira *-eN*-dun perpaus osagarri *ote*-rik gabeak.

## c. Subjuntibokoak: 106

## c.1. -eN: %98; 104/106

## c.1.1. subjuntiboa + predikatua: %4,8; 5/104

- (113) Bertze alde, ez gare baitezpada gal dadin beldur ere. (Arb Igand 031)  
 (114) Baina eskola handirik ez zuelakotz, khasu guti egin zezoten beldur zen. (Laph 069)  
 (115) Zerurako deretx eta eskabidea Jaungoikoak kendu degizun bildur etzera? (Arr May 026)

## c.1.2. predikatua + subjuntiboa: %93,2; 99/104

- (116) *Karitatea beldur da gaizkiarekin inkontra dadin*, ezta beraz perillik haren bilha doan, eta hura inkontrazten duenean, itzultzen du burua hartarik, eta ez ikusi iduri egiten du; aitzitik begiak serratzentu hura ikus dezan baino lehen, haren ikusteko sentitzen duen seinalerik xipienean; eta gero simplezia saindu batez zinetsten du etzela gaizkia bera, baina xoilki gaizkiaren itzala edo zenbait itxura zela. (SP Phil 345)  
 (117) Zeren *beldur baitzen, jende hek trubla lezaten* bere sakrifizioak egitian eta elian aski atenezione bere adorazionian, zuri eta niri eta mundu orori exenplu eta lekzione egiteko, noiz ere orazione bat, edo sakrifizio bat nahi baitugu Iinkoari rendatu, gure pensamendiak eta munduko egitekoak utzirik a la part, intenzione eta atenezione handirekin egin behar dugula gure akzionia. (Tt Arima 034)  
 (118) Neure adiskidea *beldur nizu zuri eta niri gertba dakigun* Pharaon erregeari bezala hark Moiseren, eta Ienkoaren populiaren kontra zuela Moisek eta haren iendeek itsaso gorria bi partetara erdiraturik haier pasaje emaiteko, itsasoa iragan zuten oiñak busti gabe, Pharaon aldiz bere jende ororekin itsasoaren erdian itho, eta hondatu, ikhusi zuenean Pharaonek itsasoaren erdira zenian itsasoko ura elkharganat iuntatzen zela oihu eta heia gora egin zian .... (Tt Onsa 032)

## c.2.-eLA: %2; 2/106

- (119) Bardin, egiten dau pekatu besteren aurrian esaten dituzanak; *bada bildur izan biar da pekatu erazo leijola enzuten dituzanari*; ezpadauka bere pekatu eruateko gogo, edo intenzinoerik, beti izango da pekatu mortal berba loi, eta zikinak esatia: bada beti dago pelleburu au. (Astar II 143)

Subjuntibo-perpau osagarriari buruz, nabarmentzekoa da haren lekukotasun urria XX. mendeko perpau osagarri jokatueta: XX. mendearen aurreko testuetan subjuntibokoan agertze-maiztasuna, beste erabide jokatuenekin alderatua, %53,7koa da; XX. mendeko testuetan, berriz, %8,6ra jaisten da maiztasun hori.

2.7.2. *Beldurrez*

EGLU Vek 156. orrialdean hauxe dio: "*Beldurrez, beldurrak eta beldur horiek ere predikatuak dira, beldur izanik, beldur zelarik eta horrelakoen pare, eta ez dute osagarria izenlagun gisa hartzen.*" Hortaz, atal honetan aztergai dugun egitura, aditz gabea bada ere, predikatu-egituratzat jo eta harakoaren antzera azertu behar dugu.

Lehenik esan behar da lekukotasun mardula duela tradizio idatzian (200 agerralditik gora gure corpusean). Epe guztietan erabiltzen da —lehenengo agerraldia 1600. urtearen aurrekoa da— eta euskalki guztietan. Eta salbuespen banaka batzuetan izan ezik kausazko adiera hartzen du: zerbaiten beldurrak era jakin batean jokatzea eragiten du.

- (120) Egiptura *Herodesek bill zezan beldurrez* eramana, ardiats diezadazu grazia, neure etsaien kolerei alde egiteko. (EZ *Man* II 176)
- (121) Kondatzen da Mithridates Ponte herriko errege handi bat *beldurrez bere erresuman, edo konpoan, zonbait traidore jende gaiztok pozoaturik billerazi lezaten* inbentatu ziala, egin, edo egin arazi ziala kontrapozoa admirable bat, pozoa ororen kontre erremedio bat, zeini eman baitzian bere izena, eta deitha erazi, Mithridata. (Tr *Onsa* 037)
- (122) An exeri zan anak plaza aldera zintzilik zituala, ta zezena azpitik pasatzen zanian, anak igo egiten zituan Galtzaundi'k, *zezenak arrapatuko ote zizkion bildurrez*. (Urruz *Zer* 143)

Salbuespenetan egoera adierazten da:

- (123) Santos gaxotu da ta Premiña or dabill *beldurrez, ezkondu baiño len alargunduko ote dan*. (Urruz *Zer* 069)
- (124) < Bai auek, batez ere Patrixirena, oso ixillik emanak izan omen ziran, eta orregatik, ba ziran *ezkontza ura legezkoa ez ote zan bildurrez* bizi ziranak. (NETx *LBB* 122)
- (125) Maite-kezkek eraginda, *besteren batek emaztea ostuko ote zion bildurrez* bizi omen zan beti senarra, ta susmo txarretan galdua. (NETx *Antz* 089)

Predikatu-egitura honetan perpaus osagarriak honako ehunekoetan ageri dira literatura-tradizioan:

- a. Adierazpenekoak: %39,1; 92/235  
 b. Zehargalderakoak: %13,2; 31/235  
 c. Subjuntibokoak: %47,7; 112/235

Datu horiek epe edo gaika ematen baditugu subjuntiboaren gailentze hori berehala desagertzen da XX. mendeari dagozkion datuetan:

	< XX.a	XX.a
Adierazpenekoa	%31,9	%54,3
Zehargalderakoa	% 2,5	%35,8
Subjuntibokoa	%65,6	% 9,9

Egiturakako ehunekoak hauexek ditugu:

- a. Adierazpenekoak:  
 a.1. Jokatua: %27,1; 25/92  
 a.1.1. -eLA: %12,0; 3/25  
       -eLA + predikatua: ø  
       predikatua + -eLA: 3

a.1.2. -eN:	%88,0; 22/25
-eN + predikatua:	%95,5; 21/22
predikatua + -eN:	%4,5; 1/22
a.2. Jokatugabeak:	%72,8; 67/92
a.2.1. -t(z)eko:	%64,2; 43/67
-t(z)eko + predikatua:	43
predikatua + -t(z)eko:	∅
a.2.2. aditzoina:	%33; 22/67
aditzoina + predikatua:	%91; 20/22
predikatua + aditzoina:	%9; 2/22
a.2.3. partizipioa:	%2,8; 2/67
b. Zehargalderakoak:	
ote...-eN:	
zehargaldera + predikatua:	%84; 26/31
predikatua + zehargaldera:	%16; 5/31
c. Subjuntibokoak:	
c.1. subjuntiboa + predikatua:	%44,6; 50/112
c.2. predikatua + subjuntiboa:	%55,4; 61/112

Nabarmentzekoa da, batetik, -eLA atzizkiaren lekukotasun urria (hiru agerraldi baizik ez; *beldur izan* predikatu-egituran askoz ere ugariagoa da), eta, bestetik, adierazpeneko eta zehargalderakoetan nagusi den hurrenkera: perpaus osagarria + predikatua; “nagusitasun” hori lausotu egiten da subjuntibokoetan.

Hona hemen kasu bakoitzaren adibide zenbait:

*beldurrez* + -eLA:

- (126) *Beldurrez ez ziola utziko pakean*, marmar asi zan Sultan Pinto ikustean, begiak armaturik, jasorik sudurra, letagi-az puskatzen zuela ezurra (It *Fab* 020)
- (127) Alan irakurten dogu Alexandro andiak bere arako bitoria famatua Errege Darioren ganean izan ebanean; ta onen alaba ederrak beste presoen artean artu zituanean, ez eban nai aetarik ekartea bere aurrera, *bildurrez ikusi ezke-ro bear ezitana eragingo eutseela*. (A@4n *GGero* 268)
- (128) *Danak bildurrez jausiko zala*, baiña bein ere etzan jausi. (And *AUzta* 086)

-t(z)eko + *beldurrez*:

- (129) *Limosnatik probetzeko beldurrez*, eta guztiak neuretzat nahiz, eztut egin. (EZ *Eli*@8c 154)
- (130) *Hartarakotz aphaurtxo bat gorritzeko beldurrez*, zure kontra egin tudan billuztean hobenez. (EZ *Man* II 073)
- (131) *Arbuiatua izateko beldurrez*, eztuzu hiroik aditu nahi zure eskasen gainean, eta zabiltza zure buruaren edertatzeko aitzekia billha. (Ch 283)

aditzoina + *beldurrez*:

- (132) Hori aitzean, Franzes yaunen erdiak abiatu dire, xapelak eskuan, ximinoak iduri, itzulika eta yauziz, ezartzen zutelarik ikhaspena buruko alderdi haz-



karreanean, *abantz beldurrez*, eta egiten dute dioakotena, badakitelakotz geroztik Yainkoak ez duela nihortaz axolarik. (Hb *Egia* 138)

- (133) Behazazu hatik, premu Jauna; nik oinhaze hauk jasiaten ditut *gortheko andren begietan deus gal beldurrez*, eta sailduiek hoinbertze eta gehiago jasan dute Jainkoaren amoregatik. (Laph 020)
- (134) *Beilariek ezagut beldurrez*, Iñazio goizik ahera zen Mont-Serratetik. (Laph 034)

-eN + *beldurrez*:

- (135) Baña hau argandik aditu ta ere, *duenderen bat zen beldurrez* asaldatu ta arritu ziran guziak. (Mb *IArg* I 291)
- (136) Itz auetara, *bere biotzeko gaiztakeria bere lagunen artean ondo ezagutuko zan bildurrez*, atera zan Apaizburuekin itzegittera ta noiz bear zuten Jesus lotu erakustera. (Inza *Azalp* 066)
- (137) Elbarrituta oera zeramatenean, erori egin naiz, erori egin naiz —zion— *Martiñi errurik ezarriko zioten bildurrez*; ta gero, Malentxo zauriak garbitzen ta sendatzen zegokonean: Ixo, maite, ixo; ez iñori ezer esan, ezta ondota, baño, berriz orrelakorik aitatzen badizu, jaikiko naiz ta burua puskatuko diot. (Ag *G* 232)

-eN...ote + *beldurrez*:

- (138) Orraitik be, *baserritarak ikaratuko ete-diran bildurrez*-edo, jaun orreitatik batzuk euren eretxia bigundu nairik, auxe gañeratzen dabe: Baserritar lugi-ai orain darabillezan bazter eta lurren jabetzea kendu arren, bazterra bera kendu bearrik ez legoke. (Eguzk *GizAuz* 124)
- (139) Aitonari begira, *ezer sumatuko ete zuan bildurrez*. (Ag *G* 314)
- (140) Baionara trenean zeramatela, tunel batean sartzerakoan, ondoan zeramate-nak estutu egiten zuten, *igeseingo ote zien bildurrez*. (Or *SCruz* 124)

subjuntiboa + *beldurrez*:

- (141) Badarik ere prinzipaletarik ere anhitzek hura baithan sinhets zezaten: baina Fariseuakgatik etzuten aithortzen, *sinagogatik kanpora egotz litezen beldurrez*. (L@8c 189)
- (142) Egiptura *Herodesek hill zezan beldurrez* eramana, ardiats diezadazu grazia, neure etsaien kolerei alde egiteko. (EZ *Man II* 176)
- (143) Othoi, launa, zure eskuak irakas eta gida nazala halako gauzen artean, *deus soberarik egin dezadan beldurrez*. (SP *Imit* 166)

*beldurrez* + subjuntiboa:

- (144) Eserziza hek guziek behar dute gure bihotzean pausatu, eta konsiderazio-netik edo meditazio-netik ilkhi gaitezinean, emeki eta baratxe sartu behar gara egitekoetan eta jendartetan, *beldurrez gure erresoluzioeen gozoa berebala isur dadin*. (SP *Phil* 539)
- (145) Aktarrek senditurik akzident horren berria, *beldurrez fazoin berian yeien aberriak gertha daitezzen*, othoizten naute adiskide batzuek zenbait fagore eritarzun horren kontra egiteaz, eta hala resolutu dur haien satisfazioea gatik obra xume baten egitera, zeinetan erakutsiko baiteret Idien, eta behien, eta ardien eritarzun prinzipalen ezagutza, eta heier komeni zaizkoten erremedio miragarriak. (Mong 586)

- (146) Otso gaitztoa beti gure iges dabill, *beldurrez ez dezagun atzeman eta ill*; eta zigoña berriz bizi da gurekin, zeren ez dizaioke iñork gaitzik egin. (It *Fab* 088)

Perpau osagarri hauetaz gain, corpusean ugarietak eurak, beste mota batekoak aurkitu ditugu. Menderagailuari begira (*-eLAKO* menderagailua dute eta) izenlaguntzat jo behar dira:

- (147) Fraide sarzeko zegon mutik gazte bat eta fraidanzan diran barurak, otoitzak eta zerbait neke dakarten beste gauzak izutzen zutela, ta denbor luzekoak izan bearako zutelako *beldurrez* utzi zuen bere bide on hau ta artu zuen ezkontzako. (Mb *IArg* I 321)
- (148) Hortik heldu da gure buruak kontentatzeko deseñu xoillarekiñ maitatzen, edo higuifitzen dugun gauza bat, uste baitugu maitatzen, edo higuifitzen dugula, Jaiñkoari agradagarri izanen zaiolako desiraz, *edo hari pena eta damu egiñen dioelako beldurrez*. (He *Gudu* 069)
- (149) *Ezpata batekin irten, ta illko zaituelako beldurrez*, gogo gabe bazan ere, uzten badiozu korputza bekatu egiteko, egingo dezu bekatu mortala, zeren leenago eman bear da bizitza bekatua egin baño. (Mg *CC* 111)

Esan behar da *-eLAKO*-dun perpau izenlagunak oso gutxi direla gure corpusean (10 agerraldi): *beldurrez*-en agerraldien %4tan bakarrik dago erabilia perpau izenlaguna. Horretatik ondoriozta daitekeenez, eta perpau izenlagun hauek perpau osagarriez ordezkari daitezkeela onartzen badugu (150), argi dago hiztuna, aukeran, *beldurrez* adizlaguna predikatu gisa erabiltzera makurtzen dela:

- (150) *Ezpata batekin irten, ta illko zaituelako beldurrez*, gogo gabe bazan ere, uzten badiozu korputza bekatu egiteko, egingo dezu bekatu mortala, zeren leenago eman bear da bizitza bekatua egin baño. (Mg *CC* 111)
- (150-a) *Ezpata batekin irten eta hilko zaituen beldurrez*,...
- (150-b) *Ezpata batekin irten eta hil zaitzan beldurrez*,...

*Beldurrez*-i buruzko azpiatal honen barruan beste predikatu bat aztertu behar dugu: *beldurrez egon*:

- (151) Banengoke antxen ondo bizitzeko Baña, *beldurrez nago beti ni illtzeko*, Eta ill egin bear ara igotzeko, Uso nai nuke izan bizik egatzeko. (AB *AmaE* 402)
- (152) Neure Erria, gaur dirudie Israeltar gisaixuak Zure semeak, dabilzalako Asko egabanatuak; *bildurrez nago ete gaukazan jaunak madarikatuak*, Ez orrenbeste; nai dogu izan Kristiñau katolikuak. (AB *AmaE* 070)
- (153) Baiez, gogotik, ez balu auzoan eri bat, *kofesatu gabe hil dakion beldurrez dagona*. (HU *Aurp* 182)

Predikatu honen forma ikusirik, gogoak eman diezaguke —begiratu arin batean— agian hauxe dugula *beldurrez* soilaren oin-egitura. Baina *beldurrez egon* predikatuak oso agertze-maiztasun urria du gure corpusean —7 agerraldi besterik ez—, eta agerraldiok XIX. mendearen bigarren erdiaz geroztikoak dira; bi behaketa horiek, beraz, bidean jartzen gaituzte predikatu hau berria eta tradizio handirik gabekoa dela irizteko.

Predikatu-egitura honekin hirutariko perpau osagarriak aurkitu ditugu: adierazpeneko jokaturgabea, subjuntibokoa, zehargalderakoa. Goiko hiru adibideetan (151-153) ditugu haien erakusgarriak.

2.7.3. *Beldurra ukan (ez ukan beldurrik)*

Predikatu-egitura honen 47 agerraldi aurkitu ditugu corpusean, honela banatuak:

a. Adierazpenekoak:	%80,9; 38/47
b. Zehargalderakoak:	%14,9; 7/47
c. Subjuntibokoak:	%4,2; 2/47
a. Adierazpenekoak: 38	
a.1. Jokatua:	%34,2; 13/38
a.1.1. -eLA:	%61,5; 8/13
-eLA + predikatua:	%25; 2/8
predikatua + -eLA:	%75; 6/8
a.1.2. -eN:	%38,5; 7/13
predikatua + -eN:	%40; 2/5
-eN + predikatua:	%60; 3/5
a.2. Jokatugabeak:	%60,5; 25/38
a.2.1. -t(z)eko:	%80; 20/25
-t(z)eko + predikatua:	%75; 15/20
predikatua + -t(z)eko:	%25; 5/20
a.2.2. aditzoina:	%20; 5/25
aditzoina + predikatua:	5
predikatua + aditzoina:	∅
a.2.3. partizipioa:	∅
b. Zehargalderakoak: 7	
b.1. <i>ote...</i> -eN:	%85,7; 6/7
zehargaldera + predikatua:	3
predikatua + zehargaldera:	3
b.2. Zatizko zehargaldera:	%14,3; 1/7
c. Subjuntibokoak: 2	

Ehuneko hauetatik ondoriozta daitekeenez, predikatu-egitura honetan adierazpenekoak ditugu ugarienak, eta hauen artean, jokatugabeak. Perpaus jokatugabeetan subjektuen erreferentziakidetasuna betetzen da, hurrengo adibidean izan ezik:

- (154) Ardandegian zeudenak, orratio, lenengo arrituardia itzali ondoren, erbeste-  
arra sartu zanean etendako ariari egotzi zioten berriro agoa ta ango edale  
zorabiatuak ateratzen zuen itzotsera, *etzuen izan ixil-izketa ura inõrke entzun  
bildurrik*. (TAg Uz1 206)

Hona predikatu honen zenbait erakusgarri:

-eLA:

- (155) *Badauke bildurrik, leku, edo etxe atara juanagaz galdu leitekezala*, galazo ara  
elzen bere. (Astar II 096)
- (156) Zure egina nauzu muina ta hezurra, *hola pasako zela banuen beldurra*; orai-  
no're zurekin ni beti gostura, zutan kusi nuena ez baitzen gezurra. (Xa Odol  
342)

*-eN*:

- (157) Eta oraino *badut beldurra, jin bidez joan behar izan zen gibelerat*, egundaino bezen itsu. (HU *Aurp* 207)
- (158) Eta *barrero arrapau ta salduko eben bildurrik ezaban*, ordurako ba Ingellanda'ko gudontzajak gerrako-barku) ibilli ebiltzan Apirka'ko itxasoetan, baltz-arrapatzalliak arrapetan, eta samatik eskegiten, eta galerazoten onantxe gixonak gixona aberia lez saltzia. (Kk *Ab I* 085)

*-t(z)eko*:

- (159) Bai segur, eta *inork ere expaitu gizonen desgogarako izateko beldurrik*, haiña gozatuko da bake handi batez. (Ch 233)
- (160) *Ezkonduteko bildurra dozu*, Ta eñ barik egon nai ez. (Enb 181)

## aditzoina:

- (161) Nausiak, kontentik, erraiten dio bere andreari: *Gaur, ez dugu bazkari saria gal beldurrik!* (Barb *Leg* 142)
- (162) Asieran sofistaren alde zuen ixurkia eztabaida ark: *aren alde zeudenek etzuket gal beldurrik*. (Zait *Plat* 151)

## zehargaldera:

•*ote...-eN*:

- (163) Ta ez aitari itzal andia ziolako bakarrik; itzala zion *ta azpiratuko ote zuan bildurra zeukan*. (Ag *G* 019)
- (164) Maitezko bide latzetan oso naiz egarri: *ito bear ote naizen bildurra* det sarri. (NEtx *LBB* 352)

•*zatizko zehargaldera*:

- (165) Beren iaubeak *eukan kolkoan bildurra noiz ezagutuko zan astoan guzurra*. (Azc *PB*, 054)

## subjuntiboa:

- (166) Izan zaite aberats samur eta karitate egille heien iduriko, zeñek erromesen aitak billakatzen direlarik, *ez baitute beldurrik amoña emateaz erromes daitezten*. (Mih 084)
- (167) Zuen gañean, *San Pablok zeukan bildurra daukat, zuek beste askori predikatu, zeruko bidea erakutsi, ta salbatzen lagundu, ta zerok galdu etzaitetzen*: .... (Cb *Eg II* 008)

Azken adibidean (167) predikatu-egiturako izena (izen-sintagma) bakuna (*beldurra/beldurrik*) ez baizik anizkuna dugu, izena erlatibozko perpausaz modifikaturik baitago (*San Pablok zeukan bildurra...*). Beste zenbaitetan, berriz, izenondo z gauzatzzen da izenaren modifikatzea:

- (168) haren egiazko nortasuna non zegoen, eta zer eskatzen zuen, baleki, edonori gogor egiteko lain izanen lizateke noski, edozer gertaturik ere, ezen hark ere sinesten zuen hoben dela sehaskan dagoen inut-aurrari lepoa tintkatzea norberaren bihotzeko nahikari bakar bat itotzea baino; oraindik ez

zekien ordea zer nahi zuen haren bihotzak, *bildur latz bat zedukan haren irriki zoroa arimaren egarria kentzaille izan behar zitzaion ur garden ospila, itur-buruan agortuko zitzaiola*, esteta baten solas alferra baizik izan ez zelako hasieran. (Mde HaurB 007)

#### 2.7.4. Beldurrak

Izenburu orokor honen pean lau predikatu ditugu sartuak:

*beldurrak*  $\emptyset$   
*beldurrak* *egon*  
*beldurrak* *eman*  
*beldurrak* *hartu*

Predikatu hauen 20 agerraldi jaso ditugu corpusean; predikaturik “ugarienak” *beldurrak* *egon* eta *beldurrak* *hartu* dira, zazpina agerraldi baitute.

- |                                 |  |             |
|---------------------------------|--|-------------|
| a.                              | Adierazpenekoak:                       | %90; 18/20  |
| b.                              | Zehargalderakoak:                      | %10; 2/20   |
| c.                              | Subjuntibokoak:                        | $\emptyset$ |
| a. Adierazpenekoak: 18          |  |             |
| a.1. Jokatua: %55,5; 10/18      |  |             |
|                                 | -eLA:                                  | %30; 3/10   |
|                                 | -eLA + predikatua: 1                   |             |
|                                 | predikatua + -eLA: 2                   |             |
|                                 | -eN:                                   | %77,8; 7/10 |
|                                 | -eN + predikatua: 7                    |             |
|                                 | predikatua + -eN: $\emptyset$          |             |
| a.2. Jokatugabeak: %45,5; 8/18  |  |             |
| a.2.1. -t(z)eko: 8              |  |             |
|                                 | -t(z)eko + predikatua: 7               |             |
|                                 | predikatua + -t(z)eko: 1               |             |
| a.2.2. aditzoina: $\emptyset$   |  |             |
| a.2.3. partizipioa: $\emptyset$ |  |             |
| b. Zehargalderakoak:            |  |             |
| b.2. <i>ote...</i> -eN:         |  |             |
|                                 | zehargaldera + predikatua: 2           |             |
|                                 | predikatua + zehargaldera: $\emptyset$ |             |
| c. Subjuntibokoak: $\emptyset$  |  |             |

Predikatu hauetan —taxuzko azterketa egiteko adina datu ez badugu ere, eta salbuespenak diren arren— perpaus osagarriak izenaren ezkerrean ageri dira gehienbat.

-eLA:

- (169) Au da modua pasazeko ongi eguna ta gaua; gisa ontan baliarazten dire berze gisas debalde lidoazken lanak; ta egiten zaio zerbitzu pixka bat estadoaren

konforme, yake ta ez karen gauza, egiteko gauza andiak, iragazteko arimak, emateko bizia ta odola Jangoikoagatik: Falta da explikazeko jaietan portazeko modua, ta gañarako obserbatu bear diren gauza prinzipalenak: baña utzi bearko dugu urbilen platikako, ezi ya *beldurrak nago nekatu zaratela*. (LE Prog 102)

-eN:

- (170) Apostoluak, beren kontura kristau ongilleak utzitako ondasunakkin esturasun jakiñak estaltzen zituzten; baña *goseteak zekarzkienetaraño iritsiko etziran bildurrak eman zien*: argatik Antiokia'rrak, aitatu dan lanbide artara aurreratu ziran. (Lard 501)
- (171) Nor ziran, Jose'k bereala ezagutu zituen; baña Benjamin anaiatxoa an ez ikusteak atsekabe andia eman zion, *berari egiña bera benjaminñi ere egin zioten bildurrak artu zuelako*. (Lard 055)

-t(z)eko:

- (172) Oskillasoren liburua irakurri ez duenari, eta *behabada borrelako liburu lodixkoa irakurtzen hasteko beldurrak dagoenari*, eske bat egingo nioke. (MEIG III 093)

ote... -eN:

- (173) Eta nola gora begira zetorren, *norbaitek ikusiko ote zuan bildurrak*, noski, ez zuan Joxe ikusi. (Ugalde Itz 068)

### 2.7.5. *Perpau osagarri izenlagunak*

Atal honetan perpau osagarri izenlagunak bildu ditugu.<sup>9</sup> Hauexek dira haien ehunekoak:

a. Adierazpenekoak:	%92,4; 98/106
b. Zehargalderakoak:	%5,7; 6/106
c. Subjuntibokoak:	%1,9; 2/106
a. Adierazpenekoak: 98	
a.1. Jokatua:	%19,4; 19/98
a.1.1. -eLAKO + izena:	%68,4; 13/19
a.1.2. -eN + izena:	%31,6; 6/19
a.2. Jokatugabeak:	%80,6; 79/98
a.2.1. -t(z)eko:	%74,7; 59/79
-t(z)eko + izena:	%98,3; 58/59
izena + -t(z)eko:	%1,7; 1/59
a.2.4. -t(z)earen:	%3,8; 3/79
a.2.3. aditzoina:	%11,4; 9/79
aditzoina + izena: 9	
a.2.4. partizipioa:	%10,1; 8/79

(9) *Beldurrez* predikatu-egitura aztertzean jorratu ditugunak salbu.

- b. Zehargalderakoak: 6
  - b.1. *ote* -eN: 5
  - b.2. Zatizko zehargaldera: 1
- c. Subjuntibokoak: 2
  - c.1. subjuntiboa + izena: 1
  - c.2. izena + subjuntiboa: 1

*-eLAKO:*

- (174) Estu aski geldituko zen Massy jauna abisu au artu zuenean; zergatik, alde batetik Enperadorearen itzak zorrotzak ziran, eta beste aldetik aundia zen beraren arrokeria, eta *beragatik baita jendeak parra egingo ziolako beldurra-re.* (Go@4ni 090)
- (175) Bitarte artan gobernaria ta erriko guziak *ontziak itsasoan edo pelean galdu ziralako beldur andi batekin* arkitzen ziran ta S, Francisco Xavierrek ezetz esanagatik, etzuten erritarrak hau siñisten. (Mb *IArg II* 291)

*-eN:*

- (176) Ementxe, errota-osteko gelan sartu gindekez, *iñok entzungo dauskun bildur barik.* (Kk Ab I 077)

*-t(z)eko:*

- (177) Gauz oriek adirazten dituzten gauzak dira gorputzeko eritasunak, barreneko kezkek, *zerua galzeko beldurrak*, bere gañera datozkiola deritzan infernuko neke gogorrek, etxeko norbaitek bizten diozkan kudu-miñak eta erriertak, auzoko batek egiten diozkan naigabenz eta esker gaiztoak, eta oriekin batean ilzeko ta bere bizi gaiztoaren kontu zorrotzak emateko ta oni dagokan zori gaiztoko saria arzeko dagolako gogoranz eta oroitzapen illunak. (Mb *IArg I* 121)
- (178) Ezagut-arazi zioten bititze urrikgarri bat zaramatela, eta *itxurazko prestutasun baten fama galzeko beldurrak* gibelatzen zituela penitentzia egitetik. (Lg II 230)

*-t(z)earen:*

- (179) Zentzua eta umiltasuna zu baitan daukazu jori; baldin ta uzten ez baduzu zuk hartu duzun plegu hori, *damutzearen beldurrik gabe* kantatuko dut orori: gure alaba ez da zurekin esku txarretan erori. (Xa *Odol* 290)
- (180) Etziran Jainkoaren bildur, gauz gabearen, behartasunaren, gaitzaren, eritasunaren, eta *hiltzearen bildurragatik* baizik, Judatar ispiritukoiaik, edo espiritualak zerraizkan Jainkoari gogoz, ta biotzez; maite zuen Jainkoa, ta agur andiak egiten ziozkeen, zeren ori, ta agitz geiago zor zaion haren, guzirako duan, esku, edo ahalari, jakiunde eziñ-geiagoko ari, ta ontasun ezin-obeagoari. (Ub 057)

## aditzoina:

- (181) Gaitz guzietarik gerizean izanen dire hekien gorphutzak; ez goserik, ez egarririk, ez hotzik, ez berorik, ez nekerik, ez oinhazerik, ez eritasunik, ez *hil beldurrik* ezta izanen Jaunaren egoitza seindu hartan, dio Isajaz profetak. (Dh 181)
- (182) *Il-bildur onek* mendera ditu ni lako ezigabeak. (Or *Eus* 122)

## zehargaldera:

-ote...n izena

- (183) Semeari etzedilla apostuetan sartu esaten zionean, *naieza baño bere mutilla parregarri geldituko otezan bildurra* ta berak aurreratutako diru ederren arriskua erakusten zuan geiago Ana Josepak. (Ag G 099)
- (184) Ez gaitezen izi *buruak leber eginen dion beldurrarekin*. (Osk Kurl 114)

## -zatizko zehargaldera:

- (185) Orrek eta zer gertatuko zaigun *bildurrak* elbarritzen gaitu, eta gerta leiken ori geienean ez da gertatzen. (JAIRaz Bizia, 095)

## subjuntiboa:

- (186) Hau esan ta igan zen S, Francisco Xavier bere aldarera ta iratzarri ta esnatu zen gisatzar zikin lotsabagea; ta esnatu ta iratzarri zen, zen guzia arrit-ikaratua ta alkez begirik aldarera ezin goratu zuela; ta an *bertan S, Francisco Xavierrek egiteko gaistoren bat egin zezan beldurrez betea*, joan zen andik igesi bere itxera ta gau ta egun ibilli zen ill betez S, Francisco Xavieren beldur andiarekin ta andre gaistoaren itxera urbiltzen ere etzela. (Mb IArg II 332)

Darabiltzagun datuei begira, argi dago adierazpeneko jokatuak ditugula perpaus osagarri izenlagun ugarienak.

Guztiarekin ere, esan beharra dago perpaus osagarri izenlagunetan sailkaturiko perpaus batzuk —izena + *gabe* egitura dutenak, hain zuzen— orobat predikatueta sailka genitzakeela. Izan ere, beren agerraldirik gehienetan onartzen dute adberbiozko parafrasiaz ordeztuak izatea (EGLU V: 1999, 156. or.):

- (187) Ez besterik, ezpada, bertako iturri garbiak ematen duten ur geza + gozo txaua, zeñetatik edaten duten gogoz, izerdia gorputz guztitik txirrian dariotela egon arren, *gaixotzeko beldurrik bage*. (Izt C 076)
- (187a) ...gaixotzeko beldur ez direlarik...
- (188) Esan dezaket izkribu onetan, *iñork ukatzeko beldurrik gabe*, Ondarrabiko Ama Birjiña Guadalupekoaren agerpena gertatu zala, edo Arantzazukoa baño lenago, edo bedeintzat ordutik laster. (Zab Gabon 087)
- (188a) ...iñork ukatzeko beldur ez naizelarik...
- (189) Orai gozatzen dute munduak eman ez dezaken zorion bat, *zorion haren galtzeko beldurrik gabe*. (Laph 021)
- (189a) ...zorion haren galtzeko beldur ez izanik...
- (190) Neska gazteak eta lotsa-legea, lasai ibiltzen ziran, leen ere esan dut-eta, non-nai, banaka ta bakarka, *iñoren grina txar lotsagabeak kalte egiteko beldurrik gabe*; beren galbidea, beren artarako kutizi naiean sortu oi zan. (Berron Kijote 125)
- (190a) ...inoren grina txar lotsagabeak kalte egiteko beldur ez direlarik...

Corpusean, 35 adibidetan gauza daiteke parafrasiaz ordezte hori. Eta haietan, batean izan ezik, perpaus osagarria jokatugabea da.



## 2.8. Berme

- a) Perpaus osagarri izenlagunak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
  - 1. Adierazpenekoak: 8
    - 1.1. Jokatua:
      - predikatua + *-eLA*: 8
    - 1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$
  - 2. Zehargaderakoak:  $\emptyset$
  - 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Banaka batzuk dira izen honen lekukoak (8 besterik ez), guztiak iparraldeko euskalkietakoak. Agerraldi urri horietan izena artikulurik gabe ageri da, predikatu-egitura tarteko da (*berme* + aditza) eta honen barruan predikatu-osagarriaren betekizuna du: perpausak, alegia, atributuzkoak dira.

- (191) Miseria hontzaz egunian behin orhit zite, hala egin badezazu, *ni sartuko nitz zure berme, hilze hon bat eginen duzula, zure orena jin dadinian, mundu hontan, eta bertze mundian bizitze eternal bat ukhenen duzula.* (Tt Onsa 108)
- (192) *Nor yarriko da berme bihar munduan izanen naizela:* erran nahi da beraz gaur berean hil naitekeiela. (Lg II 250)
- (193) Segur naiz beraz, eta Jesu- Kristo, *berenazko egiaren hitza berme dut, eznaizela errebelatuko*, Elizari behatzen natzajono, eta hark irakhasten darotana sinheztisiz, irakhasten deraitan zenbait misterio nik ezin endelgatua gatik ere; deusere adimendu zuzenari hobeki dagokonik, adimendua bera Jainko baten hitzari sumetitzea baino. (Dh 111)
- (194) Errana da suge batez, *berme ez naiz hala dela*, Lehenago harotx baten hauzotan bizi zela. (Gy 135)
- (195) Ordu danik hor *berme ditugu gaizo lagun on mendiak, goiz diuela gozo-gozoki perekatzen iguzkiak.* (Ox 029)
- (196) Urthe hartan Aiherreko erretor zen *Londaitz jaunaren ageria hor dugu berme ezkontza hori bai muthikoak bai nexkak burbasoen baimenarekin egin zutela.* (Ox 191)
- (197) Halere gogotik *berme jar gintazke ama familiako batzu hautak izanen direla biruak:* emazte batzu berekin ukanen dituztenak osasuna, fedea, esku-lanaren amodioa, jakitatea, bertze zerbait gehiagorekin oraino, hau baitzaiku nausi eta etzekandere gehienen gainerako itzala, herrian. (JE Ber 067)
- (198) *Izen haundi horiek oro berme ditugu ez dela psikologigandikoa gezurrezko jakintza, ben-benetakoa, egiazko baizik.* (Mde Pr 318)

## 2.9. Berri/barri

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
  - 1. Adierazpenekoak
    - 1.1. Jokatua:
      - eLAKO berri*                      %45,8 (27/59)
    - 1.2. Jokatugabea:  $\emptyset$
  - 2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  - 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

## b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak:

## 1.1. Jokatua:

predikatua + -eLA: %54,2 (32/59)

## 1.2. Jokatugabeak: ø

## 2. Zehargaderakoak: ø

## 3. Subjuntibokoak: ø

Lehenik eta behin esan behar da bi egitura nagusiak (-eLAKO *berria* eta *berria...-eLA*) ez direla elkarren ordezeko gisa aurkeztu behar, hau da, ezin erabil daitekeela aukeran egitura bat bestearen orde; guztiz bat ez baitatuz beren erabil-esparruan. Esaterako, lehenengoa (-eLAKO *berria*) bigarrenaren orde (*berria...-eLA*) erabil daiteke, baina ez beti alderantziz. Hiru kasu berezi ditugu: batean gauza daiteke ordezte hori, beste bietan ordea ez.

Elkarren ordeztea zilegi den kasuan, oro har, bi baldintza-edo bete behar ditu izenak: absolutiboan egotea, batetik, eta, bestetik, mintzagai-egituran iruzkinean tarteko izatea, hau da, mintzagai ez izatea (*berria...-eLA* egituraren adibidetegiko esaldi guztietan betetzen ditu izenak bi baldintza-edo horiek). Hona hemen ordezte horren zenbait adibide:

- (199) Egun gitxiren *epean aita txit gaizki zegoalako berria izan zuen*, eta Manases eta Efrain bere bi semeak berekin arturik, aitari joan zitzaion (Lard 061)
- (199a) Egun gitxiren *epean berria izan zuen aita txit gaizki zegoala*, eta Manases eta Efrain bere bi semeak berekin arturik, aitari joan zitzaion
- (200) Bazirudien, eta Amalek'tar ark uste izango ere zuen, Dabid'gandik sari andiren bat artuko zuela, *legez eta bidez zegokion errege-aulkia Saul illarekin ustuzala, eta berak eseri baizik etzuelako berria eraman zuenean*; baña Dabid zuzen-onak etzuen era artan odoldutako aulkirik nai, eta are gitxiago odol-isurle batgandik albista hura artzerik: bada, Dabid Israel'ko Errege egiazkoa izanak etzion Saul iltzeko eskurik iñori ematen, eta eskua ezarri ziona, kastigatu nai izan zuen. (Lard 183)
- (200a) Bazirudien, eta ..., *berria eraman zuenean legez eta bidez zegokion errege-aulkia Saul illarekin ustuzala, eta berak eseri baizik etzuela*;...
- (201) Etixerakoan, bere morroiak bidera atera zitzaizkion, ta *bere semea bizi zalako berria eman zioten*. (Ir YKBiz 075)
- (201a) Etixerakoan, bere morroiak bidera atera zitzaizkion, ta *berria eman zioten bere semea bizi zala*.
- (202) Haritchabalet'ek berehala hatzeman zian Droundaren galbidetik idokiteko vtzvlia: Habil, erran zeron, eta orotan *beda-eraz ezak etxekandere xabarra bil zaizielako berria eta haren ebortzeta bihar izanen delakua*. (Const 030)
- (202a) Haritchabalet'ek berehala hatzeman zian Droundaren galbidetik idokiteko vtzvlia: Habil, erran zeron, eta orotan *beda-eraz ezak berria etxekandere xabarra bil zaiziela eta haren ebortzeta bihar izanen dela*.
- (203) *Athoron kontrabandoa gordeta delako berria* zabaldu duk nunbait. (Etxde JJ 046)
- (203a) *Berria zabaldu duk* nunbait *Athoron kontrabandoa gordeta dela*

Ordezte edo aukeratze horren erakusgarri agerikoena hurrengo adibideetan dugu:  
(-eLAKO berria)

(204) Eta Aingeru Gabrielelek ekharri zuen zerutik lurrerat, ekharri zionean  
Andre-dena Mariari *jainkoaren ama izanen zelako berria*. (Jnn SBi 014)

(berria...-eLA)

(205) Zeren egvn hartan *Aingvrv Gabrielelek ekharri beitzian Mariari berria Jinkua-*  
*ren ama izanen zela*. (CatS 099)

(206) Orai Eliza ezinago eder den baten erdian, marbre baliusenez vngvratvrik,  
ikhusten da etxe saintv hura, zointan Maria sorthv beita eta zointan *aingv-*  
*riak ekharri beitzeion berria izanen zela Salbazaliaren Ama*. (Ip Hil 139)

(207) Zeren lehenbiziko hitz horiekin eman baitzion agurra Gabriel Aingeruak  
Mariari, *ekharri zionean berria Jainkoaren Ama izanen zela*. (Cat Jauf 102)

(208) Andere honari jin zaion meziari *Gabriel aingvriak berria ekharri zerionian,*  
*Jinko semiaren ama izanen zela*, zoin berriak egin baitv gure salbamentiarene  
hatsarria. (Bp I122)

Ageri denez, idazleak, esaldi bertsurako, egitura batera edo bestera makurtu dira  
(predikatu-egituraren aldeko isuria nabariagoa da baina).

Nolanahi ere, hizpide dugun kasuan (perpauis izenlagunaren ordez predikatu-egi-  
tura erabiltzea zilegi denean, alegia) konparazio-azterketarik egiten bada egitura bat  
edo bestea aukeratzeari buruz, begi-bistakoa da autoreek literatura-tradizioan —eta  
guk darabiltzagun datuen arabera, jakina— *berri* izenarekin predikatu-egitura era-  
biltzera jotzen dutela:

- -eLAKO berria: 7/39 %18
- berria...-eLA: 32/39 %82

Horri buruz, esanguratsua da, gure ustez, lehenengo egituraren zazpi agerraldiak  
aspaldikoak ez izatea: haietarik bi XIX. mendearen bigarren erdikoak dira eta beste  
bostak XX. mendekoak; bigarren egiturak (*berria...-eLA*), berriz, lehenagokoa du  
aurreneko agerraldia, XVII. mendearen bigarren erdikoak.

Perpauis osagarria eta predikatu-egitura aukeran elkarrez ordeztu daitezkeen  
kasua azterturik, ekin diezaiegun beste bi kasuei, ordezte hori gauzatzea zilegi ez den  
kasuei alegia; haietan, perpauis izenlaguna (-eLAKO berria egitura) nagusi da. Lehenik  
eta behin esan behar da oraingo bi kasu hauetan ez dela betetzen aurreko kasuan aho-  
tan hartu ditugun bi baldintzetarik baten bat: izena kasu absolutiboan egotea eta  
iruzkinean tarteko izatea.

Izena kasu absolutiboaz bestetan egotea:

- (209) Hiru sainduak errearaztera *zaramanzkatelako berri horrek* trixtarazi zituen  
hiriko jende guziak. (Jnn SBi 144)
- (210) Fucheoko hiriari deusek ere ez zezoken hainbertze atsekabe eman, nola  
*Franzizko galdu behar zuelako berriak*. (Laph 222)
- (211) Igor-bidaltu zien bein Ninibetar bekatari andiei Jonas profeta aien erria berro-  
gei egunen buruan *avrasatuko zuelako berri izugarriarekin*:... (Mb IArg I 120)

- (212) Ango sarze berean arkitzen zen Jerico zeritzan erri orietatik bar, murall edo murru sendorrez ingurutua ta israeldarrak probinziatz jabetzera *zetoztelako berriarekin* armaz ta jendez ongi betea. (Mb IArg I 388)
- (213) Gaztea zen oraindik Fernandez ta ondasunduna, ta beregandik bere gaitza kendu naiez, barber-tan, medikutan ta sendagaitan gastatzen zuen kupide bage; baña eriarrentzat etziran deusetako barber-medikuen alegiñak eta sendagai guzien indarrak, eta guzien ondoan gelditu zen iltzeko tranzean ta Elizako gauzak *artu behar zituelako berriarekin*. (Mb IArg II 333)
- (214) Eta noizta gutxiena uste duan iltzea, arkitzen da bereala ill bear dualako berriarekin. (AA III 569)
- (215) Mandatariak itzuli ziran, Esau, anaia Jakob alderatzen zitzaiola aditu bezain laster lareun gizon arturik, *bidera zetorkiolako berriarekin*. (Lard 041)
- (216) Aitaren etxera eldu ziran, eta guraso penatu onek Benjamin maitea ikustearekin eta Jose ustez illa, Ejipto'n Jauntasun andian *bizi zalako berriarekin* artuko zuen poza eta atsegiña nork esan? (Lard 060)

Izena, eta hari datxekion perpauos osagarria, mintzagai:

- (217) *Eliz andi au Billafrankara zeramatelako barria* inguruko Errietan zabaldu izan zalako, batu omen zan bertara, Santa Ana egunean pestara bildu oi dan jendea baino geiago, Artza ikustera; eta billera zoragarri onen atsegiñerako Markesak ifini-erazo omen zeban Artza altxagarriakin lau oñen gañean bera berez bizirik bazegoen bezalaixen, eta gisa berperean euki ere omen zuten, jendea bakandu zan arteraño. (Izt C 192)
- (218) Etzuen orrenbat galdu Davidek bere seme gaizto Absalon galdu zuen aldian, ta galdu bazuen ere berari bere erreinu guzia kenzera zetorrela ta beraren soldadu berei eman zien batall gaiztoan, *ill zelako berria* aditu zue-neko, damuz, bihotzeko miñez ta naigabez beterik asi zen esaten: Absalon, nere nere seme maitea, nere seme Absalon, nork eman lezakedan zure ordez ni ill ta zu bizirik gelditzea: ....(Mb IArg I 172)
- (219) Etzuen orrenbat galdu Heli apaiz nagusiak eta aren Silotar gaisoak, galdu zuten aldian Testamentuko arka edo kutxa; ta al-ere *galdu zutelako berria* orietara bezain laster bere kataderatik erori ta illa gelditu zen Heli, ta aren erritar guziak asi ziran aiez ta orro arrituz aize guzia nasten: .... (Mb IArg I 172)
- (220) *Azella artu zalako berria* Tangerra iritxi ez al zan, itsumustuan ango jende guziak al zuten guzia beren ondasunetatik bildu, eta andik iges egiñ zuten, armak erabilli bearrik-gabe Alfonso an sartuaz. (Arr May 188)
- (221) Batzarrearen bi mandatari oiek, San Pablo eta San Bernabe'rekin batean, Antiokia'ra joan ziran: eta ain ondore negargarriak izan zitzaiekan despita, *guzien gogora zapaldu zalako berria* zer poz eta atsegi-ekin ango Kristauak artu zuten esatea, erraz ez da. (Lard 510)
- (222) Ainbeste armadun *mendean zeuzkalako berria* Errege baten gogoa bete, eta biotza zabaltzeko adiña bazan; baña Dabid'ek etzuen poz andirik artu. (Lard 205)

Bi kasu hauetaz gain beste bat aipatu behar litzateke, orobat predikatu-egitura onartzen ez duena. Laugarren kasu honetan izena izenondoaz modifikaturik dago:

- (223) *Neure bekkhatua barkhatu zaitalako berri on bat* adiarazirik allegera nazazu, eta zure iuiamenduen beldurrez desegin zaiztanindarrak allegeratuko dira.(Harb 334)

- (224) Eta baziren orduan Poesia ere, izaki eta gizaki guztiak bezala, *legepean loturik zegoelako berri ona* barreiatzen zebiltzanak. (MIH 240)

*Berri* izenak hartzen dituen perpaus osagarrien deskribapena bukatzeko, har ditzagun ahotan egiturarik erabilienean (*berria...-eLA*) izenak eta perpaus osagarriak kokapenari buruz ageri dituzten zenbait ezaugarri. Alegia, batetik, izen “gobernatzaila” (*berri*) aditzaren eskuinean (225-236) zein ezkerrean (237-244) ager daiteke (beraz, ez darabilgu egitura zurruna zeinetan izena beti aditzezko atalaren aurre-aurrean jarri behar den); eta, bestetik, perpaus osagarria predikatu-egituraren (“izena + aditza” multzoaren) eskuinean kokatzen da gehienbat, haren ezkerrean (245-246) ere ager daiteke baina; ezkerreko gune horretan, ordea, —corpusean aurkitu ditugun adibide bakanetan— aditzezko atala perpausaren eta izenaren artean dago kokaturik (perpaus osagarria + aditza + izena).

Aditza + izena + perpaus osagarria:

- (225) Ordu berean, ehun gizonen aitzindari hark *izan zuen berria baren sebia osoki sendatu zela*. (Lg II 151)
- (226) Onetan zegoala, *eraman zioten berria, bost Erregeak Mazedá'ko leize-zulo batean gordeta arkitu zituztela*. (Lard 116)
- (227) Jadanik Familia Saindua atheratua ziteken Judeako erresumatik, norbeitrek *ereman zionean berria Herodesi, etzuela zeren egon gebiágo Errege Magoen begira, joanak zirela aspaldion etxerat*. (Jnn SBi 018)
- (228) Handik zenbeit egunen buruan, *ekharri zioten berria* Jesusi, haren Betaniako ikasle edo dizipulu maite bat, Lazaro, Maria Madalenaren eta Martaren anaia, *eri gaizki zela*. (Jnn SBi 025)
- (229) Jerusalemeko hirian ere *banatu zen berria* Salbatzaile Jauna *ethortzen zitzaio-tela*. (Jnn SBi 026)
- (230) Orai aipatzen ditugun fraidek *belarazi zioten jaun apezpikuari ere berria* *jerlak ermitaua nihork uste etzuen bezalako gizona zela*. (Jnn SBi 093)
- (231) Horrelako irakasenez eta zaraman bizitze sainduaz argitu zituen luzez ikasleak, eta aintzina ere hari zen lan berari, *jakin zuenean berria, erromako enperadoreak hari zirela esptoan atxeman zetzazketen giristino guzrien preso altxarazten eta hilarazten*. (Jnn SBi 127)
- (232) Eta hiri guzian *banatu zen berria, Sebastien kapitaina hila zela*. (Jnn SBi 133)
- (233) Biharamunak argitu zuenean, *hedatu zen laster berria apezpiku saindua eta haren bi diakreak preso altxatuak zirela*. (Jnn SBi 143)
- (234) Eta huna haren martirioaren ixtorioa: Egun batez banatu zen berria soldaduek bazituztela giristino aitzindari guzien preso altxatzeko manuak. (Jnn SBi 156)
- (235) Aingrvv bat argi handi batez vngvratvrik agertv zen, bere kabalen begira zavden Artzain eli bati, eta *eman zeien berria mndiaren salbazalia sorthv zela*. (CatS 097)
- (236) Bertze aldi batez *yinen zen berria hogoi mila, hogoi eta hamar mila gaixtagin geldu zirela bolako hirirat*. (Elsb Fram 070)

Izena + aditza + perpaus osagarria:

- (237) *Berria hedatua zen bazter guzietarat legeko doktorek eta sinagogako buruzagiek ezagutu zutela* azkenean Jesus, orduraino Jainkoaz egorria zen gizon saindu batentzat zadukatena, gezurti eta profeta faltso bat zela. (Lg II 268)

- (238) *Berria bedatu zen hiria largatua izaitera zobala soldadoen borondatera, arrobata izaitekotzat; ikhara kantoin guzietarat berduratu zen, etzen marraskarik eta deihadarik baizen aditzen.* (MarII 089)
- (239) *Berria ekarri zioten, erri hura artzen gaitz etzala, eta jende armadun guzia gabe ere, menderatuko zala.* (Lard 112)
- (240) *Zure ahotik hori nahi nuen entzun, iloba maitea; doidoia berria ukban dut frantses armada hurbiltzen ari dela* Kunde Lesperre aitzindari. (Laph 007)
- (241) *Berria barreiatu zenean preso zela, goiz arrats ez zen jendea haren presondegian aheritzen, eta guziak hunkituak itzultzen ziren haren saindutasunaz, Jainkoarentzat haren amodio khartsuaz, etsaientzat haren karitate miragarriaz.* (Laph 088)
- (242) *Berheala berria barreiatzen da, aita bandiaren hunkitzea aski dela, zer nahi gaitzetarik sendatua izaiteko.* (Laph 213)
- (243) *Jean IIa Abierako komentutik alagera badoa Lisbonarat, eta helvt denian bere palazioala, berria ekhartzen deioe, Charles VIIIa Ffranziako erregia, destorbuz bil izan dela; ez-zian hoge eta zazpi urthe baizik.* (Ip Hil 043)
- (244) *Beti izan dira bekaxti eta salazaliak: Gardak ari zirelarik Athoron Garaiko etxolaren ikertzen, berria helvt zen baien beharrietara bost kontrebandist igaran zirela Zaltzondoko ibarra gora.* (Const 031)

Perpau osagarria + aditza + izena:

- (245) *Estatua eri dela banatu du berria;* Bainan ezagutuz geroz gaitzaren iturria, Askiko da duda gabe, haren sendarazteko, Zenbait menbro pikatzea bertzen kontserbatzeko. (Monho 056)
- (246) *Untzirat igan eta ilhabetea gabe, Ternuako begietan galduak zirela etborri zen berria.* (Arb Igand 156)

Bestalde, —corpusean darabiltzagun datuei lotuz, jakina— *berri* izenarekin *-eLA* mederagailua erabiltzen da nagusiki adierazpeneko perpauzetan, eta *bihar etorriko den berria zabaldu da* gisakoak berriz salbuespen dira. Adierazi behar da, berebat, izen honek ez duela perpau osagarri jokatugaberik onartzen.

Egitura hauetaz gain, beste sei atzeman ditugu corpusean, lekukotasun urrikoak baina:

Zehargaldera *-eLAKO berri*

- (247) *Ez nuen nahi sinetsi bainan zorigaitzez da egia hemendik berriz ez jakin norat zoazilako berria;* iduritzen zaut bigarren aldiz uzten dutala herria. (Xa Odol 295)

*-eNEKO berri* (agerraldi bat)

- (248) *Itsasgizon urte batez ibili zaneke berri au,* etxeok ere gau artararte ez omen zekiten. (AArdi 112)

*Bailez* erako zehargaldera *-eNEKO berri* (bi agerraldi)

- (249) *Ostera, ziñoenez, osasundutzenago ete zaneke barriak jaso ebezan errian.* (Erkiag Arran 177)
- (250) *Egigurengo Martin, Juanaren legezko gizona, gaixorik ote zaneke berria jaso zuten Bergarako perietan.* (NETx LBB 054)

*Nola* lokailua (agerraldi bat)<sup>10</sup>

- (251) *Banatu zenean berria, nola gorriaraztera zaramazkaten hibaiak giristinoen odolez, san Julienek eta santa Bazilizak othoiztu zuten Jainko Jauna, edo eman zezola bakea Elizari, edo bederen hazkar zetzala, bere grazia sailduaz, gomendatu ziozkaten arimak. (Jnn SBi 098)*

Zatizko zehargaldera + *berri* (hiru agerraldi)

- (252) Gaiztoz dalarik, ain aundi baita itsasoaren barrena, *non ondatu dan berririk ez da*: galdu zan oiua arena. (Or *Eus* 206)
- (253) Aspaldi ontan *nola zeraden berririk ez det*. (Lasarte *Uzt Sas* 137)
- (254) Faraon, bere Gortekoak, serbitzariak, gerrariak, zeramazkiten gurdiak, zal-diak, osototo guzi-guzia itsasoan galdu zan, gizon bat bakarrik ere bere erri-tarrai, *zer igaro zan berria eramateko gelditu gabe*. (Lard 074)

Adierazpeneko perpausa *-eN berri* (agerraldi bakarra)

- (255) Moises'ek eunda ogei urte zituen, eta Aaron'ek iru geiago, *lur eskeñian sar-tuko etzivan berria artu zutenean*. (Lard 098)

Lehenengo hiru egiturak (247-250), *EGLU* Vek (1999) adieraziari jarraituz, okertzat jo behar dira, bi arrazoirengatik: batetik, badaezpadakoa delako zehargal-derek perpaus izenlagun gisa jardutea, eta bestetik, zehargalderek kasu-markarik hartzen ez dutelako. Laugarren egiturak (251), bestalde, "konplementatzailea" du bitxi, ez baita *-eLA, nola...-eN* baizik. Bosgarren egiturari dagokionez (252-254), haren sailkapenak dakarkigu zailtasuna, bi irizpideren arabera azter baitaitezke haren agerraldiak. Azterbide baten arabera zehargalderak *berri* izenaren izenlagun dira (esana denez, ordea, betekizun hori badaezpadakoa da zehargalderarentzat); bestearen arabera, berriz, *berririk ez da, berririk ez dut* eta *berria eraman* segidak predikatu-egiturak ditugu (halako predikatuak badira, izan ere), eta zehargalderak predikatu horien perpaus osagarriak; honako honetan, zehargalderak izen aurrean agertzea ez dateke idazlearen estilo-aukera besterik, lehenengo bi adibideetan (252-253) kasu,<sup>11</sup> edo, bestela, josturak berak "bortxaturik" dagoke, hirugarren adibidean (254) dugun bezala. Bukatzeko, "adierazpeneko perpausa *-eN berri* egitura" dugu, eta honek agertze-maiztasunaren urria du hain zuzen deigarri (agerraldi bat baizik ez); egitura honi buruz aipagarria da, orobat, kasu horretan bakarrean (255) baliatu dela idazlea (Lardizabal) *-eN* menderagailuaz adierazpene-ko perpaus osagarria eraikitzeke; gainerakoetan, izan ere, *-eLA* eta *-eLAKO* mende-ragailuak erabiliak ditu.

Sei egitura aztertu berri hauek, dena dela, bitxikeriatzat jo daitezke baldin eta atal honen hasieran aipaturikoekin (*-eLAKO berria, berria...-eLA*) alderatzen baditugu, oso banakak baitira corpusean.

(10) Ikus *EGLU* V (1999) 77. or.

(11) Honetaz den bezainbatean, esan behar da hurrenkera hori ageri ez duen segida bat aurkitu dugula corpusean:

*Non zer pasatzen den* nahi dio ekharri Dama arranoari *berri* (Gy 182)

## 2.10. Damu

## a) Perpaus osagarri izenlagunak

## 1. Adierazpenekoak:

## 1.1. Jokatuak:

-eLAKO *damu* %59,4 (22/37)

-eNEKO *damu* % 2,7 (1/37)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$ 2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

## b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:  $\emptyset$ 

## 1.2. Jokatugabeak

-t(z)eko + predikatua / predikatua + -t(z)eko %10,8 (4/37)

predikatua + partizipioa %10,8 (4/37)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

*Damu* izenak izenlagun gisa hartzen dituen perpaus osagarri jokatueta -eLAKO da menderagailu ia bakarra. Azpimarratzekoa da horrelako perpaus osagarri izenlagunek atxikitzen duten balio kausala: hots, halakoetan badirudi perpaus osagarri izenlagunen egitura eta balio kausala duten perpaus adjuntuena uztarturik ageri zaizkigula.<sup>12</sup> Honelako perpausak dira:

-eLAKO *damu* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa): %59,4

- (256) Egin onduan, sartu jakon *egin ebalako damu* ta pena gogorra; zerren ez zan beste asko legezkoa, bein, birritan, ta askotan eginda bere, bizi dirianak *damu* bago. (Mg CO 202)
- (257) Artara gaitezen, ekusi behar ditugu ez artaratzetik eta epelki ta nagiro Jan-goiko maitagarria serbitzetik datozen irur kalte; oriek dira: bekatariaren zerura uste uts galgarria, lenbizikoa; zerura *galdu duelako damu*-min eskerbagea, bigarrena; ta oharkabeen bezala galdurik gelditzea, irugarrena. (Mb IArg I 80)
- (258) Zeru ederra *galzen duelako damu* eskerbagea da bere ill-aldian alfer-epel-nagiak duen bigarren kaltea. (Mb IArg I 83)
- (259) Artu *pekatu egin dabelako kontriziñozko damu* egiazkoa, proposituagaz emendetako, ta konfesetako Elexa Ama Santiak eginduten dabenian. (CatLlo 68)
- (260) Baña etzan poztuten, bai zera, bide guztian aieneka etorri zan, axe pesetia alperrik *emon ebalako damuegaz*. (Kk Ab II 85)
- (261) *Huts egin nuelako damua* han esandakoen berri zehatz honek ez dit larritu besterik egin. (MEIG III 69)

(12 Beste hainbeste gertatzen da *poz* izenak hartzen dituen osagarri izenlagunetan: "(...) neke eta eramankizun guziak arintzen ziezten, noizbait ere atsegifietako lur gozo artan *sartuko ziralako pozak*." (Lard 98).



Perpau osagarri jokatuerei dagokienez, hurrengo “hutsuneak” azpimarratu nahi ditugu: ez dago *-eN damu* modukorik, ezta “subjuntiboa + *damu*” gisakorik ere. Aipagarria da, bestalde, *-eNEKO* markaren salbuespenezko izaera (okerra, *EGLU* Ven araberan), atzizki honen oso zale den Erkiaga idazlearengan baino ez baita azaltzen (Erkiaga *Arran* 125).

Bestalde, predikatu-egitura baten mendean forma jokatu-gabeak (*-t(z)eko* eta partizipioa) dira nagusi perpau osagarrian:

*-t(z)eko* + predikatua (osagarri “berezia”, adierazpenekoa eta jokatu-gabea): %10,8

(262) Uztazu hurrantzera, amore maite, orai *partitzeko damu ginate*. (E 197)

(263) *Hilzeco damu zira*, behar zira bizi, ehun urthez zure madamareki. (Balad 224)

Predikatua + partizipioa (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatu-gabea): %10,8

(264) Ta ala asi zan Poli: Zergatik galdetu didazu lenago *ez ote nuan damurik* txerpolariak *utzia?* (Anab *Poli* 135)

(265) Onek zipozkeriz bota zizkion itzak ikaratuxe utzi bazten aldi bareko, laister egin zen bere buruaren jabe eta sekula *etzun damurik izan* bere anaiaren alde *aterea*, bai’baitzekin bere jokabidea garbia ta zuzena izan zala. (Etxde *JJ* 31)

## 2.11. Duda

a) Perpau osagarri izenlagunak:  $\emptyset$

b) Perpau osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA* %46,9 (53/113)

*-eLA* + predikatua %15,9 (18/113)

*-enik* % 1,7 (2/113)

*-ena* % 2,6 (3/113)

1.2. Jokatu-gabeak

*-t(z)eko* %0,8 (1/113)

*-t(z)eaz* %4,2 (5/113)

*-t(z)era* %2,6 (3/113)

2. Zehargalderakoak:

predikatua + *-eN (-eNETZ...)* %22,1 (25/113)

*-eN* + predikatua % 1,7 (2/113)

*ba-* % 0,8 (1/113)

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Lehenengo eta behin, perpau osagarri izenlagunik eza da azpimarratu beharreko lehen emaitza: gure corpusean ez dago izenlagun jokaturik, ezta jokatu-gaberik ere. Batetik, gure corpusean ez dugu zehargalderako perpau izenlagunik, hots, ez dugu aurkitu *infernura joango (ote) den dudak bigatzen du gizarajoa* tankerakorik. Bestetik, ez dugu osagarri izenlagun jokatu-gaberik aurkitu: hots, *zerura joateko dudak bigatzen du gizarajoa* tankerakorik ez da gure corpusean.

Izenlagun-egitura barik, predikatu-egitura baten mendeko adierazpeneko osagarri jokatua (*dударик ez da ... -eLA*: %67,2) eta zehargalderakoa (*duda izan ... -eN/-eNETZ...* %23,9) aurkitu ohi ditugu maiztasun literaturo-tradizioan. Lehen egituraren (*dударик ez da ... -ela*) maiztasuna biziki garaia da iparraldean: adibideen %70 inguru iparraldeko euskalkietakoak (L, BN, Z) dira.

Bestalde, esan bezala, ez dugu *-eN* *duda* tankerako osagarri izenlagunik aurkitu, itxura hori dutenak predikatu-egitura baten mendean baitaude (*dudan egon...*) eta ez izen soilaren mendean. Hona hemen, adibide bat:

- (266) Zeruko glorian Jaungoikoaren edertasuna beti ikusi, ta gozatzeko ni izanik: ditxa ori *izango dedan, edo ez, dudan nago*. (Cb Eg II 017)

Hona hemen, egitura ohikoenen adibide zenbait:

Predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa, jokatua): %46,9

- (267) Eskaiñtzen dio saltsa bat satanentzat egiña, Orduetik senharrak *eztu dudarik xumeena*, Egoitzatzat *eztuela* ifernuko barrena. (Gy 103)  
 (268) hogoi urtheko muthil gazte batek bezain aise altxatzen zituen burua nola zangoak; eta Azkaindarrek, yakin balute Piarres Adame han iragaten zela, *ez da dudarik* segurki *ikbusi nabiko zutela*; beraz *behatuko zutela*. (Elzb Pad 31)  
 (269) Ezen, *ez da dudarik* hamaseigarren mende hastean, Xaberri eta Sanguesa aldean, eskuara *mintzatzen zutela* herritar guziek; orduko letra zombaitetarik hori ageri da, orduan bizi ziren jaun batzu aipatzen dituztenak. (Ardoy SFran 70)

*-eLA* + predikatua (osagarri berezia, adierazpenekoa, jokatua): %15,9

- (270) Komandante egiñik barriz milla kabo Gitxienez *dirala dudarik al dago?* (AB AmaE 256)  
 (271) Aita-amarekin *dela ez daite dudarik*. (Elzb Po 180)  
 (272) Anaia bat banuen haurra nitzalarik, Soldado joan zen eta nik ez dut berri-rik; Aita Amekin *dela ez dut ez dudarik*, Eni begira daude hirurak zerutik. (Arb Igand 137)

Predikatua + *-eN* (*-eNETZ...*) (osagarri berezia, zehargalderakoa): %22,1

- (273) Bai ordea, *bada duda*, eta duda ere handia, ea azken oren hartan, egiazko penitziarik, behar den urrikimendurik *izanen duenz* bekhatoreak. (Ax 134)  
 (274) Bai ta konfesa zaitte, *badozu duda egiazkorik* au edo beste desoneskeria *egin, edo konfesau dozunez*. (Añ4n EL<sup>1</sup> 136)

## 2.12. Entzuera

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

*-eLAKO* %50 (1/2)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

## b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak

## 1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %50 (1/2)1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$ 2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

Adibide bi besterik ez dugu eta zaila da agerraldi-kopuru urri horrekin ondorio-rik ateratzea.

*-eLAKO entzuera* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa, jokatuak): %50 (1/2)

(275) Zulo andi onetan lan asko *egin oi zalako entzuera* badegu, zer menasta mueta ateratzen zuten garbiri ez badakigu ere. (Izt C 66)

Predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatuak): %50 (1/2)

(276) Ordurako *bazukean* Arzelus jaunak *entzuera*, *bazala* beraren Errian mutila, Amilleta deitzen zaion etxe batean, basa-beiak ankatik eldu ta ardia bezala gelditurik, eznea edan oi ziena nai zeban guztian; bai ta ere, bestek ezin atzeman zituen nasi-bei ta idisko izuak, adarretatik oratu eta *menderatu oi zituela*. (Izt C 247)

2.13. Erabagi /erabaki (*iz.*)

## a) Perpaus osagarri izenlagunak

## 1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:  $\emptyset$ 

## 1.2. Jokatugabeak:

*-t(z)eko erabaki*: %86,6 (26/30)*-t(z)earen erabaki*: % 3,3 (1/30)2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

## b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak

## 1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %6,6 (2/30)

## 1.2. Jokatugabeak:

predikatua + *-t(z)ea*: %3,3 (1/30)2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

Adibide gehienak *-t(z)eko erabaki* tankerakoak dira (%86,6), hots, osagarri izenlagun jokatugabeak. Halako egituren aldean genitibo edutezkoaren aukera (*-t(z)earen erabaki*) erabat markatua da. Era berean, predikatu-egitura baten mendeko osagarriak ere nahiko bakanak dira.

Hona hemen, adibideak:

*-t(z)eko erabaki* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatu gabea): %86,6

(277) Obenik geiago bein be ez egiteko ta obenerako bide guztietatik *aldenduteko erabagi sendoa*, da asmoa. (KikV 97)

(278) Etxean eta etxeko lanetan zebillenean bere izerdiz soroak ezetzen orrela pentsatzen bazun, gabez, neskarengana, agindua urratuz, joaten zanean, biotzak agintzen zion eta bere itzari zintzo *eusteko erabakia* artu oi zun. (Etxde JJ 62)

*-t(z)earen erabaki* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatu gabea): %3,3

(279) Baserrian bethiko bizi nahi izatea ezta kokolokeria, eta baldin hunelako nekazaritzarik badago, nekazari *izatearen erabagia*, jakitun baten asmoa da. (Osk Kurl 92)

Predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatu): %6,6

(280) Azkenik bada, esan ta esan, arren ta arren, agindu ta eskeiñi, baserritar *giza-joak erabakia artu zuan*, arekin joan-ta ezkutaritzan *serbituko ziola*. (Berron Kijote 87)

Predikatua + *-t(z)ea* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatu gabea): %3,3

(281) Orretxegatik *erabakia artu zun*, etxekoak bere billa ez etortzekotan, berak arako biderik *ez artzea*. (Etxde JJ 273)

## 2.14. Errezelo

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

*-eLAKO errezelo*: %50 (1/2)

1.2. Jokatu gabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %50 (1/2)

1.2. Jokatu gabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*-eLAKO errezelo* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatu): %50

(282) Ollorik iñun gutxitzen zanik etzuen iñork esaten; geitzen zanik ere ez; baiño orduantxe ere, geitu baiño gutxitu obeki *egiten ziralako errezeloa...* baiño... bai zera! (Urruz Zer 71)

*-eLA* + predikatua (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatuak): %50

- (283) Baña nola *arkitzen baizan* bere semiak diru geiago *izan biar zuala errezeloz betia*, etzen ase aitaren biotza diru arrekin ta eraman zuan juezaren aurrera. (Bv *AsL* 47)

## 2.15. Esperantza

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

*-eLAKO esperantza*: %7,8 (11/140)

*-eN esperantza*: %1,4 (2/140)

1.2. Jokatu gabeak:

*-t(z)eko esperantza*: %29,2 (41/140)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %46,4 (65/140)

*-eLA* + predikatua: % 4,2 (6/140)

1.2. Jokatu gabeak:

*-t(z)eko* %7,1 (10/140)

(predik. + *-t(z)eko*=8 agerraldi)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak: %1,4 (2/140)

*Esperantza* izen soilak maizenik perpaus izenlagun jokatu gabeak hartu ohi ditu osagarritzat (*-t(z)eko esperantza*). Perpaus izenlagun jokatuak ere (*-eLAKO/-eN esperantza*) hartzen ditu, baina gutxiagotan, eta bi menderagailuen artean *-eLAKO* nagusitzen da. Hona hemen, adibide batzuk:

*-t(z)eko esperantza* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatu gabea): %29,2

- (284) Sinhets arazitzen deraku, ezkarela egun hillen, ezkarela bihar hillen, eta bihar bezain ephe luzerik ez, eta bihar arteiño *bizitzeko esperantza* eztuenik: eta halatan eta handik, nola ezpaitugu uste egun hillen garela eta ez bihar ere, bizitzen gara, segur baikina bezala, edo sekulan hillen ezkarela baikiniaki bezala. (Ax 42)

- (285) Geisuak erantzun eutsan: Nik Jangoikuagana juateko daukat enbarazu bat, ta da bitaartian daguan luurrezko orma bat, zeñi dan nire gorputz ustela; ikusirik bada zatika jausijaz doiala orma au, alegrau, konsolau, ta gozatuten nas, laster neure jaubiagana *igaroteko esperantziagaz*, eternidadeko gloriijeen herederu izatera. (JJMg *BasEsc* 282)

*-eLAKO esperantza* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatuak): %7,8

- (286) Eta guztien gaiñetik bethiere bizi zara, gaitza *arinduko zaitzulako esperantzan*, eta esperantza hark konsolamendu handia emaiten deratzu. (Ax 384)

- (287) Egun baten ginoiazala, arbola arteko kerizpe batetik, asi jatan esaten: eza-gututen dot neure semia, etxeko gustijok zabiltzala ni *osatuko nasalako esperantzetan* sartu nairik, baña deustazun amodijua gaitik dirautsut, ez zaitiala arren dendaru kendu nai izaten neure gogotik daukadan pensamenturik gozueena, zein dan eriotzia. (JJMg *BasEsc* 278)

-eN *esperantza* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %1,4

- (288) Laster logratu zuan Kardinal Jaunak Aita Santu Honorio irugarrenagandik eskatuzten zituzten paperak; ta gañera onek berak eman zitzen asko izkiribitu batarentzat eta bestiarentzat, zeñekin juan zitezkiean segur munduaren edozein bazterretara, *ongi artuak izango ziran esperantza osuarekin*. (Bv AsL 200)

Aitzitik, *esperantza* izena predikatua osatuz agertzen denean (*esperantza izan/eduki...*), alderantzizkoa izaten da joera: hots, halako predikatuek -eLA tankerako perpaus jokatua hartu ohi dute maizenik osagarri modura (%50,7), eta biziki gutxiagotan jokatugabea (-t(z)eko: %7,1). Dena dela, “predikatua + -eLA” egiturarako joera ipar-ekialdeko euskalkietakoa da gehienbat (adibideen %85 inguru iparraldekoak dira eta bereziki lapurterazkoak).

Ohartarazi behar da *esperantza* izenak eta haren gainean eraikitako predikatu konplexuek hartzen dituzten perpaus osagarri jokatuak (-eLAKO, -eN, -eLA) etorkizuneko markaz (-ko/-en) horniturik azaltzen zaizkigula: *osatuko naizelako esperantza, ongi hartuak izango ziren esperantza, esperantzetan natxiok ... alkar joko degula*, etab.

Hona hemen, adibide batzuk:

Predikatua + -eLA/-eLA + predik. (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %50,7

- (289) Bainan iharrosiren dut nere estalgi dorphea, xutituren naiz, eta emanen naiz zure bideari, *esperantzarekin* egun batez helduren naizela zeruko zure ospe dohatsura. (Dv *LEd* 18)
- (290) Motel, Amerikara joan bea'ukela ik, sentimentu aundi bat artutzen diat nik, bañan *esperantzetan natxiok* oraindik, *alkar joko degula* nundik edo andik. (Tx B 80)
- (291) Jauna, gure kokotza bizarrez betea gelditzeko asko da zuk nai izatea; *esperantza daukagu* etxera emendik *biurtuko gerala* bizarrez jantzirik. (It *Fab* 73)

Predikatua + -t(z)eko (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatugabea): %7,1

- (292) Nolatan *duzu esperantza salbatzeko?* (Ax 73)
- (293) Ene merezimenduei begiratzen badiozute: *ez duket esperantzarik plazatua izaiteko* Erresuma hartan, zeinetarat Apostoluek marthirek, eta Birjina Sainduak ezin ardietsi baitute heltzea, bethi sofrituz eta berthute girixtinozko guziak pratikan emanaz baizen. (Marll 56)

Predikatua + subjuntiboa (osagarri berezia, subjuntibokoa): %1,4

- (294) Hamar ezkuturen behar zarenean edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, *etzuzu esperantzarik*, prestuki bizitzen zarela eta bekhaturik egin gabe egoiten zarela, zeure premia eta eskastasuna *estal abal diazaizula* Iainkoak. (Ax 97)

(295) Gaixoak *sendo ditén esperantzán gaude*; Zuzen da izan dadin norbait heien alde. (Etcham 216)

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu bakanka baizik ez dela azaltzen subjuntiboa perpaus osagarrian eta ez dugula aurkitu subjuntiboko perpaus izenlagunik. Izan ere, goiko azken adibidean (295: *gaixoak sendo ditén esperantzán gaude*) beheko bi irakurketak (296a, 296b) egin badaitezke ere, badirudi —EGLU Veko analisisa geure eginenez—<sup>13</sup> bigarrena dela bidezkoena: hots, seguruenik ez gaude perpaus osagarri izenlagun baten aurrean (296a), osagarri berezi baten aurrean baizik (296b): *esperantzán gaude* dugu elementu gobernatzaile eta haren mendean geratzen da subjuntiboko perpaus osagarria. Azterketa honen arabera, berdin-berdin eman genezake perpausa ordena trukatu (*esperantzán gaude* [*gaixoak senda ditén*]).

- (296) a. [(*gaixoak sendo ditén*) *esperantzán*] gaude (Perp. osagarri izenlaguna; gobernatzaile: *esperantzán*)  
 b. [*gaixoak sendo ditén*] *esperantzán gaude* [Perpaus osagarria; gobernatzaile: *esperantzán gaude*]

## 2.16. Froga

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

-eLAKO *froga*: %20 (2/10)

##### 1.2. Jokatugabeak: ∅

#### 2. Zehargalderakoak: ∅

#### 3. Subjuntibokoak: ∅

### b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

predikatua + -eLA: %50 (5/10)

-eLA + predikatua: %20 (2/10)

##### 1.2. Jokatugabeak: ∅

#### 2. Zehargalderakoak:

predikatua + -eN: %10 (1/10)

#### 3. Subjuntibokoak: ∅

Adierazpeneko perpaus osagarri izenlaguna -eLAKO menderagailuarekin ageri zaigu. Baina beharbada emaitza hori baino adierazgarriagoa iruditzen zaigu predikatu-egitura erabiltzeko joera: hots, hamar adibidetik zortzi (%80) predikatu-egitura baten inguruan (*froga izan ... -eLA*) eraikiak dira.

Hona hemen, sail bakoitzeko adibide batzuk:

(13) EGLU V, 156-157 orr.

*-eLAKO* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %20

- (297) Gure burubei nahi diotzotegu gerizatu onesten ditugun hirriskuak: hek *onesten ditugulako froga*, da, hekien gordetzeko dugun atenezia. (Mih 25)  
 (298) Burtu ona zukela ezin ukatua, bainan nihun ez bezalakoa *zitakelako frogarik* ez dugu. (Ardoy SFran 299)

predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %50

- (299) *Froga baita* laster *abantziak zituela* Jainkoak eremuan igorri hainbertze eta hainbertze laguntza. (Zerb IxtS 039)  
 (300) Eta balitz norbait badakanik zerbait duda gauz orretan, bijua, ta bertan *artuko du froga*, au ez *dala* droga, baizikan egiya, ta egi garbiya. (Bil 093)

*-eLA* + predikatua (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %20

- (301) Bordelen eman ditutzu Jakin tugu zure berriak; Kopletan erranen tugu Pozoindatzaileak direla Bordelen xartus guziak Orotan *banatu duzula Badi-re froga garbiak*. (Monho 042)

predikatua + *-eN* (osagarri berezia, zehargalderakoa): %10

- (302) Oro egiak badira, hortaz duzun sofrikarioa marka eta *froga da* zonbat *maite nuzun*. (Ardoy SFran 119)

## 2.17. Galdera

- a) Perpaus osagarri izenlagunak:  $\emptyset$   
 b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile  
 1. Adierazpenekoak:  $\emptyset$   
 2. Zehargalderakoak:  
 predikatua + *-eN*: %100 (2)  
 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Azpimarratzeko modukoa iruditzen zaigu osagarri izenlagunik ez aurkitu izana, batik bat zehargalderako izenlagunik eza. Hots, *OEH*ri dagokion corpusean ez dugu aurkitu honelakorik: *Madriren zenbat aldiz izan naizen galdera ehun bider egin didate.*

*ote -eN* + predikatua (osagarri berezia, zehargalderakoa): %100 (2)

- (303) Nagusiarengana agertu eta bigarren mallako jantokira *aldarzen utziko ote zioten galdera egin zuenean*, zerbait ordaindu eta utzi zioten. (JAIRaz Bizia 021)  
 (304) Ontziko nagusia joan zitzaion bein leun leun ia zergatik *ateratzen ez zan galdera egiñaz*. (JAIRaz Bizia 108)

## 2.18. Ide(i)a

- a) Perpaus osagarri izenlagunak  
 1. Adierazpenekoak:  
 1.1. Jokatuak:  $\emptyset$   
 1.2. Jokatugabeak:  
*-t(z)eko idea*: %50 (1/2)



2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:  $\emptyset$

1.2. Jokatugabeak:

-*t(z)eko*: %50 (1/2)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Adibide bi besterik ez dugu eta zaila da agerraldi-kopuru urri horrekin ondorio-rik ateratzea.

-*t(z)eko idean* (osagarri izenlagun jokatugabea): 1/2

(305) Bein, kontra-maixuak, deitu ta esan zetsan: I, Erdo; juari Amaña sopletis-tiagana eta esaiok au: Biargiñak karu urtetzeskuela ta Brasildikan tximi-ñuak *ekartzeko idean gabizela*. (SM *Zirik* 112)

-*t(z)eko* + predikatua (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatugabea): 1/2

(306) Kulpa gabia *kastigatzeko* al *dabilkizu idea*? (Tx B I 33)

## 2.19. Iduripen / irudipen

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

-*eLAKO iduripen*: %25 (2/8)

-*eLAZKO iduripen*: %12,5 (1/8)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + -*eLA*: %12,5 (1/8)

-*eLA* + predikatua: %12,5 (1/8)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:

predikatua + -*eN*: %25 (2/8)

*ote -eN* + predikatua %12,5 (1/8)

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Hemen ere, ikus daitekeenez, perpaus osagarri izenlagunak erabiltzeko joera oso apala da. Badirudi joera perpaus osagarria predikatu-egitura baten mendean jartze-koa dela eta ez izen soil baten azpian. Beharbada, osagarri izenlagunak (-*eLAKO iri-tzia*) ez erabiltzeko joera horrek hizkuntza-mailarekin izan dezake zerikusia, baina oraingoz ustezko lotura hori frogatzeko dago.

*-eLAKO iduripen* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %25 (2/8)

- (307) Konparazionera, minzo banaiz gizon gazte edo neskato baten trebanziaren kontra, zeren sobera regel eta perillosegi den; O Iainkoa, Philothea, pizuak xuxen iduki behartut gauzaren ez emendatzeko izpi batez ere; iduripen arin bat baizen ezpada, eztut deus bertzerik erranen: ustegabetasun huts bat baizen ezpada, eztut erranen geiagorik; ustegabetasunik, edo *gaizkirik delako iduripen egiazkorik* ezpada, baina xoilki zenbait espiritu maliziosek handik hartu nahi badu gaizki erraiteko aitzakiarik, eztut erranen deus ere, edo hura bera erranen dut. (SP *Phil* 359)

predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %25 (2/8)

- (308) ... arras izen egokia izanzen zen latinez, bainan *iduripena dugu jada beretua duela* Arturo Campion batek, eta idazle batzueri laket bazaikote bertzerena hartzea, etzaiku laket eta ez dugu nahi: .... (Zerb *Azk* 5)

predikatua + *-eN* (osagarri berezia, zehargalderakoa): %32,5 (3/8)

- (309) *Ez duzia zerbait iduripen zertako Antonek egin duen krima hori?* (Larz *Senper* 78)

## 2.20. Iritzi

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

*-eLAKO iritzi:* %11,1 (1/9)

*-eLAKOAREN iritzi:* %11,1 (1/9)

##### 1.2. Jokatugabeak: $\emptyset$

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*: %66,6 (6/9)

*-eLA* + predikatua: %11,1 (1/9)

##### 1.2. Jokatugabeak: $\emptyset$

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

Hemen ere, perpaus osagarri izenlagunak erabiltzeko joera apala azpimarratu behar da. Badirudi joera perpaus osagarria predikatu-egitura baten mende jartzea dela.

*-eLAKO iritzi* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %11,1 (1/9)

- (310) Barreatua zegoen gainera hizkuntza nolanahi eraberritu, aldatu, ugaritu *eta murriztu zitekeelako iritzia*, ohitura eta tradizioaz batere konturik egin gabe. (MIH 347)

*-eLAKOAREN iritzi* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %11,1 (1/9)

- (311) Onen itzak eta zureak, Oidipu, leraz esanak *diralakoaren iritzia* dugu. (Zait Sof 68)

predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %66,6 (6/9)

- (312) Ez dago onetan gauz erabakirik, baña askoren *iritzia da* Mezaren asieratik Epistola bukatu artekoa *ez dala* gauz andia, eta era berean Apaizaren Komunioaz geroztikakoa. (AA II 47)
- (313) Nere *iritzia izan da* beti, *ezin agindu ditekela* mugarri oietako bakar bat ibiltari guzien deskantsu arriztat. (Ldi IL 82)

*-eLA* + predikatua (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %11,1 (1/9)

- (314) Itziartarrak bigarren aldiz lau bider jaso ta utzi, ogei ta bat eta amairu zeuden, nekatu zan eta utzi, dudarik gabe *galduko zuala egin zitzaion iritzi*. (EusJok 32)

## 2.21. Itaun

- a) Perpaus osagarri izenlagunak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak:  $\emptyset$
  2. Zehargalderakoak:
 

<i>ote -eN</i> + predikatua:	%100 (1)
------------------------------	----------
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*Galdera* izenaz esanikoak *itaun* izenari buruz ere errepika daitezke. Batetik, ez dugu perpaus izenlagunik aurkitu. Bestetik, aipagarria den adibide bakarria predikatu-egitura baten ganean eraikia da, alegia, predikatu batek zehargaldera hartzen du osagarritzat, hurrengo adibidean ikus daitekeenez:

- (315) Nikanor'ek lenengoz entzun ebanean, zurrumurru ori egia *izan ete zeitekean*, bere buruari *galde eta itaune ibilli zan*. (Erkiag BatB 083)

## 2.22. Itxaropen

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eN itxaropen:</i>	%31,4 (11/35)
<i>-eNEKO itxaropen:</i>	% 5,7 (2/35)
<i>-eNAREN itxaropen:</i>	% 2,8 (1/35)
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko itxaropen:</i>	%37,1 (13/35)
----------------------------	---------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

## b) Perpaus osagarri “berezia”: predikatu-egitura gobernatzaile

## 1. Adierazpenekoak

## 1.1. Jokatuak:

-eLA:	%5,7 (2/35)
-eN:	%2,8 (1/35)
-eNIK:	%2,8 (1/35)

## 1.2. Jokatugabeak:

-t(z)eko:	%8,5 (3/35)
-----------	-------------

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 

## 3. Subjuntibokoak (-en): %2,8 (1/35)

Izen honek, *esperantza* baliokideak ez bezala, perpaus osagarri izenlagunak hartzeko joera dauka: -t(z)eko *itxaropen* eta -eN *itxaropen* ditugu egitura erabilienak. Beraz, azpimarragarria da oraingoan ez dela osagarri jokatu gabeen aldeko joera nabarmenik, maiztasunari dagokionez parean baitaude bi egiturak, jokatuak eta jokatu gabeak.

*Esperantza* izenarekin gertatzen den moduan, *itxaropen...-eN* perpaus osagarri jokatuak (-eN markaduna bereziki, baina baita gainerakoak ere: -eLA, etab.) beti etorkizuneko markaz (-kol/-en) horniturik azaltzen zaigu, hots, -ko den/zen *itxaropen* itxurapean.

Bestalde, *esperantza* izena ez bezala, oso gutxitan azaltzen zaigu predikatu konplexuak osatuz, bereziki -eLA osagarria hartuz. Sinonimoak diren bi izen hauen (*esperantza* / *itxaropen*) egitura aldetiko desberdintasunaren arrazoia haien banaketa dialektalean bilatu behar dela uste dugu. Izan ere, *itxaropen* ez da bakanka baizik ageri iparraldeko testuetan, eta *esperantza*, aldiz, bai. Kontuan har bedi “*esperantza eduki... + -eLA*” tanterakoen maiztasun garaia iparraldeko euskalkien ezaugarria dela (%50 inguru).

-eN *itxaropen* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatuak): %31,4 (11/35)

- (316) Piarres, Gabon aurretik eldu zen Etxahuniara, Eguberri jai aiek etxeko berotasunean *igaroko zitun itxaropen eztiakin*. (Etxde JJ 248)
- (317) *Entzunen gaituzun itxaropena* al zaigu goxo? (Or Aitor 82)
- (318) Juan bear onek, samintasun aundia nere barranean sor-arazitzen du; bakarrik, *biurtuko naizen itxaropenak* poztasunezko errañu bat azaltzen dit. (Alz Ram 52)
- (319) Yoaterakoan ordea, nere aitari maitagarri *izango natzaion itxaropenak* elikatzen dituz; maitagarri zuri, ene ama ori! (Zait Sof 186)
- (320) Gero, oso bertso onak *jarriko nituan itxaropenik* ere ez neukan, eta nola asi? (Uzt Sas 20)
- (321) Olantxe joan jakoezen orduak, zerbait *artuko eben itxaropenez* beterik, eta arrañtuxuren bat eskuartearen ikusi ezkerro, pozarren, Napoleonek gudarik andiena irabazi ebanean baño pozago. (Ag Kr 142)

-t(z)eko *itxaropen* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatu gabeak): %37,1 (13/35)

- (322) Zerren baldin Jesukristo ill ezpalitza, ez ziran egijaz izango ein andijak zure pekatu ta gaiztakerijaak, baña pekatu egin orain bere odolagaz parkaziñoia

*jaristeko itxaropen eruagaz*, jarraitu pekatuari erijotzaraño uste bete onegaz baita bere egonik batzuk, oni gitxi eretxirik Jesusen odolari berari birao, arao, ta añenak ezarten deutsezanak, badago bijotzik au igaro leijanik? (Ur MarII 111)

- (323) Egian esan, Legarraldeak berak esanda, eta beste zenbaitek ere, banekien ez zuela iñoiz argia *ikusteko itxaropen andirik*,... (Mde Pr 197)
- (324) Eztabaidak eta eskatimak sortu ditezenean, lokarria *austeko itxaropena* baldin badago, jakite orrek berak ez ote ditu aserreak eta zauriak gaizkoatuko? (Vill Jaink 160)
- (325) Egun eder bat *igarotzeko itxaropenik* ez galdu, orretarako egun orretan Donostiara azaldu. (Uzt BZO 1)

predikatua + *-t(z)eko* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatugabea): %8,5 (3/35)

- (326) Alabaiña, *itxaropen aundirik etzuten* etxe baranoan *idorotzeko (arkitzeko)* kordegabe ainbeste denbora egotea zailla baitzan, bitartean otzitu ta gorputz gelditu ezpazan beintzat. (Etxde JJ 251)

predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %5,7 (2/35)

- (327) Jaungoikoak guri entzun dagigun, guk daukagun gurari beroa eta sutsua, eta guk eskatuten doguna, Jesukristoren irabazi azkenbagakgaitik *jaritxiko dogula daukagun uste edo itxaropena*. (Itz Azald 68)

## 2.23. Itxura

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

<i>-eLAKO itxura:</i>	%37,5 (6/16)
<i>ba- legezko itxura:</i>	%6,2 (1/16)
<i>-eN itxura:</i>	%6,2 (1/16)

##### 1.2. Jokatugabeak:

<i>-t(z)eko itxura:</i>	%43,5 (7/16)
-------------------------	--------------

#### 2. Zehargalderakoak: ∅

#### 3. Subjuntibokoak: ∅

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

<i>-eLA:</i>	%6,2 (1/16)
--------------	-------------

##### 1.2. Jokatugabeak: ∅

#### 2. Zehargalderakoak: ∅

#### 3. Subjuntibokoak: ∅

*Itxura* izenak, eta orobat haren gainean eraikitako predikatu konplexuek (*itxura egin...*) perpausak har ditzakete osagarrizat. Izenak —beti ere, *itxura(k) egin* esapi-dearen barruan— batez ere perpaus osagarri izenlagunak hartzen ditu, jokatuak (*-eLAKO/-eN*) nahiz jokatugabeak (*-t(z)eko*), eta biak antzeko maiztasunez gainera.

Hona hemen, egitura bakoitzaren adibide-sorta:

-eLAKO *itxura* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %37,5 (6/16)

- (328) Herodesek erakharri zituen magoak bere ganat: othoitztu zituen errateaz zein egunez agertu zitzaien izarra: egin zuen hekin deboziona *laudatzen zuelako itxura*: erran ere bazioten: zohazte Bethlemerat, han behar duenaz geroz sorthu igurikia den, eta bere populua libratu behar duen erregeak. (Lg II 113)
- (329) Ramuntxok ondo ez zaudela badaki; ta ondo *zaudelako itxura* egite arren, egiaz gaizkiago jartzea, milla aldiz okerrago izango litzake. (Alz Ram 67)
- (330) Zerbait egiten zela erantzun zitzaion edo zerbait *egiten zelako itxurak* egiten genituela. (MEIG III 155)

-eN *itxura* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %6,2 (1/16)

- (331) Anjelek eziban oindiño erabagi senartu bear eban edo ez, da ezer *erabagiko eban itxurarik* be ezegoan. (Ag Kr 77)

*balitz legezko itxura* (osagarri izenlaguna eta jokatua?): %6,2 (1/16)

- (332) Gero barriz, otu jako Tramanari bere eskuetan euki bear dabela, sartu dau bere beatz lodian, señora *balitz legezko itxura* ta ziñoak egiten ibilli jatzu ta, azkenean, eziñ inondik iñora biartzetik atara. (Ag Kr 193)

-t(z)eko *itxura* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %43,5 (7/16)

- (333) Gorputza *illobiratzeko itxurak* egin, biar goizerako elizkizunen eskea egin. (Etxde JJ 47)
- (334) Emakumeak, jantziai ikutuka, nolakoak ziran ta nola josiak zeuden begira zebiltzen; gizonetzkoak, beren beatz lodiak aizkora-itaien aotetan erabilliaz, atxurrez zelaia joaz edo laiakaz lurra *jasortzeko itxurak* egiñaz. (Ag G 51)
- (335) Ostikoz *jotzeko itxura* egin nion. (Anab Aprika 91)

predikatua + -eLA (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %6,2 (1/16)

- (336) Hainitzetan erraiten dugu ezgarela deus ere, miseria bera, eta munduko istilla garela, baina damu handi genduke nihork hitzean har baginitza, eta guzietan erran baleza gukurok diogun bezalakoak garela: Aitiztik, ihez eta gorde iduri egiten dugu, berzeek laster dagitentzat gure ondoan eta bilha gaitzaten gatik: *itxura egiten dugu nabi dugula* azkenik eta mahainaren lekuri beberenean iarri; baina horrela gaude mahain burura abantail geiago-ekin ikhaiteko. (SP Phil 206)

## 2.24. Kezka

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

-eLAKO *kezka*: %14,2 (6/42)

- |                             |              |
|-----------------------------|--------------|
| 1.2. Jokatugabeak:          |              |
| <i>-t(z)eko kezka:</i>      | %19 (8/42)   |
| partizipioa + <i>kezka:</i> | % 4,6 (2/42) |
| 2. Zehargalderakoak:        |              |
| <i>ote -eNEKO kezka:</i>    | % 2,3 (1/42) |
| 3. Subjuntibokoak:          | ∅            |
- b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile
- |                            |               |
|----------------------------|---------------|
| 1. Adierazpenekoak         |               |
| 1.1. Jokatuak:             |               |
| <i>-eLA:</i>               | %9,5 (4/42)   |
| 1.2. Jokatugabeak:         |               |
| <i>-t(z)eko:</i>           | %7,1 (3/42)   |
| 2. Zehargalderakoak:       |               |
| ( <i>ote</i> ) <i>-eN:</i> | %42,8 (18/42) |
| 3. Subjuntibokoak:         | ∅             |

*Kezka* izenak adierazpeneko perpaus izenlaguna har dezake osagarritzat; maizago jokatugabea (*-t(z)eko kezka:* %19), hala ere, jokatua (*-eLAKO kezka:* %14,2) baino. Are gehiago, *kezka*-k perpaus osagarri izenlaguna har badezake ere, joera, predikatu konplexua osatuz (*kezka izan...*) zehargalderako ((*ote*) *-eN*) perpaus osagarria hartzea izaten da (%43 inguru). Azken egitura honen barruan sailkatu ditugu hurrengoaren moduko egiturak, non laguntzailearen elipsia (*noiz gertatuko (den)*) gertatu dela pentsa daitekeen:

- (337) Kamioetan gabiltzan danok beti gaude arrixkutan, Oker txarren bat *noiz gertatuko beldurrez eta kezketan*. (Basarri 170)

Beheko adibidearen modukoetan zalantza dago perpaus osagarria izenlaguntzat —zehargaldera izenlaguntzat— hartu behar *ote* dugun (?[*izango ote zuen kezkek*] ala predikatu-egitura baten (*beldurrak eman*) mendeko zehargalderatzat jo behar dugun ([*izango ote zen*] *kezkek eman zion*, edo ordena aldatuz, *kezkek eman zion ... izango ote zen*). Gu geu —*EGLU* Veko irizpidea geure eginez—, gehienetan bigarren irakurketaren alde makurtzen gara: hots, ez dugu aurkitu *kezka* izenaren benetako zehargaldera izenlagunik.

- (338) Irabazi andi oiek ikusita, San Pablo'ri *eman zion*, Juduak aztoratuko ziran bildurrak, eta beste errietatik bezala, iges-egin bearra *izango ote zuen kezkek*: baña bildur eta kezka oietan zebillela, Jainkoak ametsetan esan zion, ez ikaratzeko: isildu gabe itzegin zezala: berak lagunduko ziola, eta iñork gaitzik egingo etziola. (Lard 515)

Hona hemen, egitura nagusien erakusgarri batzuk:

*-eLAKO kezka* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatua): %14,2 (6/42)

- (339) San Agustiñ'ek maita zuen oso beti Jainkoa; baña gutxi *nai ziolako kezka* samiñ batek utzitzen etzion pakean iñon ere. (Lar *SAgust* 14)
- (340) Neri begiratuta burrunzti bat *ikusten zenidalako kezka* zenuen. (Alz *Burr* 43)

-*t(z)eko kezka* (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatugabea): %19 (8/42)

- (341) Eta etxekoan gora-berak *agertzeko kezka* aundirik gabe, onela jarraitu zun: Alaba bat badik, aspaldian ez kondura ikusi nai lukena eta egiteko ori erabat antolatzekotan deitu ote nauen pentsatzen ari nauk. (Etxde JJ 53)
- (342) Baña ori txartzat dauken morroiok, askozaz be txarrago dana *egiteko kezkarik* eztauke. (Etxde JJ 053)

predikatua + *-eLA* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatua): %9,5 (4/42)

- (343) Garai baten gaztaña danetik gañezka, orain asia dago emendik igeska; *bukatuکو dirala bada naiko kezka*, juantxe da emengo gaztañaren pesta (Uzt Sas 93)

predikatua + (*ote*) *-eN* (osagarri berezia, zehargalderakoa): %42,8 (18/42)

- (344) Bere ori etxera isillik eraman, ta zer egin etzekien: non baño non obeto *gordeko ote zuen, kezka*, ta bildurra baizik *etzuen*: ta len pobre alegere zana, gero aberats triste egin zan. (Cb Eg III 349)
- (345) Zerua lekuz *aldatzen ari ote-dan, det kezka*. (NEtx LBB 228)
- (346) Ta barneko itzaropidea aulago danean, aundiago *du kezka*, oñazetan *zergatik ote dagon*. (Or QA 58)
- (347) Itxitik irtenda, joan ziran Lidia'ren etxera, non *arkitzen ziran* lagun guziak naigabe andiarekin, eta beren Maisuari *zer gertatuko ote zitzaion kezkatan*; baña ikusi, eta nola ibilli ziran aditu zutenean, txit poztu ziran. (Lard 513)
- (348) Orregatik esaten dizuet: *Ez egon kezketan* zuen biziagatik, *zer yan ta edango duzuen*; ezta zuen gorputzagatik, zertaz yantziko zeraten. (Ir YKBiz 132)

predikatua + *-t(z)eko* (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatugabea): %7,1 (3/42)

- (349) Langilleai jai-egunetan lan eragin dauksen edo beintzat lana laketu dauksen ugazabok, millaka ogerlekoak arrokeriz *jaurtiteko, ez kezkarik, ez lotsarik eztabe euki*: aen alogerak pizka bat *jasoteko, ostera, kezka* ta atxakirik asko. (Eguzk GizAuz 160)

## 2.25. Kontu

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

*-eLAKO kontu*: %3,7 (1/27)

*-eN kontu*: %3,7 (1/27)

##### 1.2. Jokatugabeak:

*-t(z)eko kontu*: %51,8 (14/27)

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

*-eLA*: %25,9 (7/27)



- 1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$   
 2. Zehargalderakoak:  
     (ote) -eN: %14,8 (4/27)  
 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*Kontu* izenak adierazpeneko perpaus jokatugabeak (-t(z)eko kontu) hartu ohi ditu izenlaguntzat, eta bakanago jokatuak (-eLAKO/-eN kontu). Bestalde, predikatu konplexua osatzen duenean (*kontuan eroriljausi*, *kontuan ipiniljarri*...) osagarri "ohikoa" hartu ohi du: -eLA adierazpen-perpausetan eta (ote) -eN zehargalderetan.

Hona hemen, zenbait adibide:

-eLAKO kontu (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatuak): %3,7 (1/27)

- (350) Batzuek diotenez, Herodek etzuen olako asmorik; Farisau gaizto aiek Yesu andik yoatea nai zuten, ta ari beldurra sartzeagatik asmatu zuten Herodek bizia kendu nai ziolako kontu ori. (Ir YKBiz 292)

-eN kontu (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatuak): %3,7 (1/27)

- (351) Ordea den guzia laburtzera, gure examena serratu behar dugu gure pasio-neak bilbatuko itugun kontuan; eta penarik badugu hain xeheroki konsideratzeaz erran dugun bezala, hunela examina gaitzke, nolakoak izan garen, eta nola bizi eta ibilli garen. (SP Phil 520)

-t(z)eko kontu (osagarri izenlaguna, adierazpenekoa eta jokatugabea): %51,8 (14/27)

- (352) Deritzat ez dala *aztutzeko kontua* Euskararen edertasuna, abere, ganadu, ta egaztien izenetan. (VMg 912)  
 (353) Pake santuan bizi giñan gu ogei ta lau bat urtian, eta pabrika egin ziguten gure ataiko atian, *aldegiteko kontua* esan ziguten egun batian, etzuten onik izan gu andik bialdu giñun artian. (Uzt Sas 251)  
 (354) Egia: bere nai, ta borondatean, bere iritzian, onra, eta puntuan, bengantzan, bizitza lasi-berdean, kutizian, ta beste gura larrietan itsuturik dagoana, ta gura berak *ukatzeke*, ta *ezitzeke konturik*, eta arretarik ez duana, arkitzen da bekatu askotan erorteko perill andi-urkoan, ta arkitzen da bere naiez, ta zabarkeriaz. (AA III 611)

predikatua + -eLA (osagarri berezia, adierazpenekoa eta jokatuak): %25,9 (7/27)

- (355) Laster *jautsi zan kontuan*, edo aingerun bat edo, gizon eriazen antz artan, Jesus *izango zala*. (Bv AsL 036)  
 (356) Biak *kontuan jarri zituan*, ollarrari *egingo ziela* nobedaderen bat leku aldartzek, eta illebetetxo batean *etzutela arrautzik egingo*, mika aldi *izango zutela*, baiña gero *izango zirala* egunak bi ere egingo zituztenak. (Urruz Zer 028)

predikatua + (ote) -eN (osagarri berezia, zehargalderakoa): %14,8 (4/27)

- (357) Badira etxeke jaun batzuk egunero etxian *zer kastetan dan kontu ze edo ziatza daruenak*; onenbeste diru atera nituban okelatako, ainbeste ardaia ekarteko. (Mg CO 034)

- (358) (...) diru asko bear, eta piñudi oietara begiak jo zuten; zenbait *bearko ote zan eta zenbait emango ote zuten kontuak ateratzen* buruak pixka bat berotu ondoren, emango zuala orrenbeste piñuak eta ekin zioten lanari, ta baita ekarri ere urak, eta ez nola nai, etxe guztietara; ... (Munita 115)

## 2.26. Kontzientzia

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

-eLAKO kontzientzia: 1 (agerraldi bakarra)

- (359) Bizia, izadiaren araura zabalduaz *goazelako kontzientzia* arrai ta pozkor ori gugan sumatzea. (Vill *Jaink*)

## 2.27. Min

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak: $\emptyset$

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak: $\emptyset$

##### 1.2. Jokatugabeak

*min* + aditz-izena %100 (16/16)

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

*Min* izenak *min izan* erako predikatu-egitura osatzen du, osagarri jokatugabeak hartzen dituena. Hona adibide batzuk:

- (360) Sarraski hartarik lekhora, israeldarrei *min zitzaien ikhustez* bere arteko tribu bat arras galdua. (Lg I 242)

- (361) *Min zitzaien entzutea* bere nausia bere heriotzeaz mintzatzen. (Lg II 211)

- (362) *Min dei* amaren arpegia *estali bearra* lurpeak. (NETx LBB 251)

- (363) *Min du* errekak *utzi-bearra* alako txoko maitea. (SMitx Aranz 027)

Osagarriko adizki jokatugabea aditz-izen modura ageri da nagusiki, absolutiboan (*uztea, iltzea, ikustea, entzutea, galtzea...*) baina baita kasu-marka soziatibo-instrumentalarekin ere (*ikustez, egitearekin*) edo partizipio modura (*betan erori izanaz*). Hamasei perpaus baino ez ditugu aurkitu gure corpusean, denak prosa erlijiosoko testuetakoak XVIII eta XX. mendeen artekoak.

Hona hemen datuok zehazkiago erakusten dituen taula. Bertan ikus daiteke, adibidez, Lardizabalek ia beti darabilela aditz-izena, baita Larreguyk ere (ikus egileen laburdurak OEHn).

Predikatu-egitura	Erregimena	Aditz-egitura	Egilea	agerraldi-kopurua
<i>'dolore min bat sentitu'</i>	NORK	partizipioa + <i>'izanaz'</i>	He	1
Min izan	NORI	aditz-izena + -z	Lg	1
Min izan	NORI	aditz-izena	Lg	3
Min izan	NORK	aditz-izena	Lard	4
Min izan	NORK	aditz-izena + <i>-rekin</i>	Lard	1
Min egin	NORI	aditz-izena + -z	Echt	1
Min izan	NORK	partizipioa + <i>'beharra'</i>	Or	1
Min izan	NORK NORI	partizipioa + <i>'beharrak'</i>	Or	1
Min izan	NORK	partizipioa + <i>'beharra'</i>	SMitx	1
Min izan	NORK	partizipioa + <i>'beharra'</i>	NEtx	1
Min izan	NORK	aditz-izena	NEtx	1

## 2.28. Poz

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

*-eLAKO poz* %22,2 (10/45)

*-eNEKO poz* %2,2 (1/45)

##### 1.2. Jokatugabeak:

*-t(z)eko + poz* %73,3 (33/45)

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak: $\emptyset$

##### 1.2. Jokatugabeak

aditz-izena + *poz* %2,2 (1/45)

#### 2. Zehargalderakoak: $\emptyset$

#### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

*Poz* izenak perpaus osagarria hartzen duenean jokatugabea hartzen du nagusiki, *-t(z)eko + poz* erakoa (*biltzeko, ezagutzeko, hartzeko, ikusteko, ezkontzeko... poz*). Hala-koetan, etorkizunari dagokio osagarriko aditzaren ekintza. Hartara, banaketa argia gertatzen da, [-etorkizun] erako osagarriak adierazpen-perpaus jokatuaren bidez gauzatzen baitira.

(364) Begira nola berriz *ikusi zaitudalako pozak* negar eragiten didan.  
(ikusi zaitut [-etorkizun])

(365) Esan zak egia, Anjel, aitortu zak, *Mikaela ikusteko pozak* eramaten auela egu-  
nero Etxe-alaira. (ikusiko duk [+etorkizun])

Tankera honetako perpausak XIX eta XX. mendeko era guztietako testuetan ageri dira, gipuzkeraz nahiz bizkaieraz. Hona adibide batzuk:

- (366) Eztozue au beingo barean irabaziko; baña bai denporaz; ezta gitxi, zeinbat lasterren onetara *elduteko poza*. (A@4n LoraS 088)
- (367) Bereala bata bestearen leian abiatu ziran, lenago arras lagatuak zeuden sorak ondeatu, zelaiak atxurtu, ondartzak itxitu, aldapak berdindu, sasiak erre, errollak garbitu, luberriak atera ta ongarritu, eta beste onelako lanbide ikusgarri eder asko egiñaz, laboretza andiak bildutzeaz gañera, abelgorriz bear bezala *jantzitzeke pozean*. (Izt C 180)
- (368) Ardiak ere tristetzen ditu neguko busti ta otzak, ori ezer ez balitz bezela gaiñera gastatu sosak, artzaiak berak uste baiño len zimurtzen dirade poltsak, egualdi ederrak datozenian mendira *juateko pozak*. (Uzt Sas 061)
- (369) *Arrapatu autelako pozez*, legu bat bidean nekatu gabe eramango iñuket bizkarrean. (NETx Antz 144)

Perpaus osagarria har ditzaketen beste izen batzuen antzera, *poz* izenak kasu-marka har dezake perpaus nagusian dagokion funtzio sintaktikoaren arabera: absolutiboa, ergatiboa, inesiboa, sozilatiboa eta instrumentala: *poza*, *pozak*, *poze(t)an*, *pozagaz*, *pozez*.

Bestalde, perpaus bakarra dago gure corpusean *poz* izenarekin osaturiko predikatu-egitura duena; aditz-izena du osagarri modura:

- (370) Ez-iakin ontaz alaitzen da anima gaixoa ta ortan arkitzen du zuribidea: osasunaren doia zer dan *ez agertea poz du*, osasun antzean irritsa itzalgaizteko. (Or *Aitor*k 281)

Baina ez dirudi atal honetan har daitekeenik gure corpusean maiz ageri den *bizi-poz* egitura, sintaxi egitura lexikalizatua dugulako.

## 2.29. Promes

### a) Perpaus osagarri izenlagunak

#### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

-eLAKO	%2,8 (1/36)
-eNEKO	%2,8 (1/36)

##### 1.2. Jokatugabeak:

-t(z)eko + <i>promes</i>	%33,3 (12/36)
<i>promes</i> + -t(z)ekoa	%2,8 (1/36)
-t(z)ekoaren + <i>promes</i>	%5,6 (2/36)
<i>promes</i> + -t(z)era	%2,8 (1/36)

#### 2. Zehargalderakoak: ø

#### 3. Subjuntibokoak: ø

### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

#### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

predikatua + -eLA	%38,9 (14/36)
-------------------	---------------

## 1.2. Jokatugabeak:

predikatua + *-t(z)eko* %11,1 (4/36)2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$ 3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$ 

*Promes* izenak hartzen dituen perpaus osagarriak *-t(z)eko promes(a)* erako izenlagun jokatugabeak dira ia beti. Bestelako adibideak oso bakanak dira. Jokatugabeetan *promes* izenak hainbat kasu-marka izan badezake ere (*bihurtzeko promesan lokartu*, *Erromara joateko promesarekin*, *sartzeko promesa utzirik*), egin aditzaren objektu modura ageri da gehienetan:

- (371) Leku artan baere aurtasunari etzegozkion erako gorputz-nekagarri eta penitziak egiten zituen, eta bere biotzaren jabe beste inõr egiñ etzediñ, bere bizi guzian garbitasun edo *kastidadea gordetzeko boto edo promesa egiñaz*, biotz au Jaungoikoari ofrendatu zion. (Arr May 199)
- (372) San Isidro kanonizatzeke zebiltzanean, orretarako *diru puska bat emateko promesa* Madridko andre aberats abetek egin zuen. (Cb Eg III 345)
- (373) Garen bada beldur gertha eztadin zuetarik zenbeit haren *reposean sartzeko promesa utzirik*, pribatua eriden eztadin. (L@8c 387)
- (374) 1a Jaungoikoa bera gure Aita guztiz poderosoa, eta guztiz ona izateak: 2a aren Seme bakar maitea, Jesu-Kristo gure Jauna, Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, gure Erredentore, eta gure bitarteko andia izateak: eta bere senidetzat, eta bere zati, edo mienbroztat arturik edukitzeak: eta aren izenean eskatzen degun *guzia emango digulako promesa andiak*. (Gco I 407)
- (375) Halaber zuri darotzut Iaun puxanta *promesa*, hemendik partitu gabe *entzutekoa meza*. (EZ Man II 116)

Ikusten denez, osagarria izenaren atzean ere joan daiteke aposizio modura. Bestalde, adlatibo markadun adizlaguna ere ager daiteke izenari atxikia, *Urkiolara (joateko) promesa*, lekuzko markadun argumentua eskatzen duten aditz-esapideetan bezala: *non/nora bide(a) egin*; *nora promes(a) egin*.

- (376) Ta ain zuzen, aita-amak agindu zuten bi meza ta *Arantzazura promesa*. (SMitx Aranz 209)

Jokatugabeen artean *-eLA* da menderagailu nagusia *promes(a) ukan/egin/eman* bezalako predikatuei lotua. Badira *promes egin* predikatuak *-t(z)eko* erako egitura jokatu-gabeen gobernatzaile.

- (377) Egun oroz orhoit zaite, goizerañõ konzerbatu nahi izan zaituen Jainkoak, *ez darotzula promes eman*, arratserano *konzerbatuko zaituela*: eta baldiñ aski ona izatu bada zu arratseraño bizi-arazteko, ez zaituela seguratzten, biharamun goiza ardietsiko duzula. (He Gudu 125)
- (378) *Promes egiozu* sekulakotz hura *laudatuko duzula* zure aldera egin dituen graziak gatik zure ekhartzeko zure inklinazionetarik oneramendu aphur hunetara. (SP Phil 522)
- (379) Bigaramon-goizian jeiki zan, eta bezperako mozkorrak alde egin zion, gogortzian zenbat kalte eta zenbat lotsari erakarri ziozkan bere denboran ardoak, *egin zion promesa* Santa Agerari urte bete osoan ez ardorik *edateko*. (Urruz Urz 028)

### 2.30. Segurantzza

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eLAKO segurantzza</i>	%22,2 (6/27)
<i>-eNEKO segurantzza</i>	%3,7 (1/27)
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko + segurantzza</i>	%22,2 (6/27)
-------------------------------	--------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eLA + predikatua</i>	%3,7 (1/27)
predikatua + <i>-eLA</i>	%33,3 (9/27)
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>segurantzza + -t(z)eko</i>	%7,4 (2/27)
<i>segurantzza + -t(z)ea</i>	%3,7 (1/27)
  2. Zehargalderakoak:
 

<i>-eN + predikatua</i>	%3,7 (1/27)
-------------------------	-------------
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*Segurantzza* izena gobernatzaile duten perpaus izenlagunak jokatuak (*-eLAKO* nagusiki) nahiz jokatugabeak (*-t(z)eko*) izan daitezke. Hona adibide batzuk:

- (380) Aita-semeak elkarturik egotea nahi du baserritarrek, eta galduan *geldituko ez direlako segurantziak* ematen zaizkie ondorengoei. (MIH 150)
- (381) Eta bazeneundeke, baldin iuramenturik egiten eztuzun egunean, hamar ezkuturen *irabazteko segurantzza* bazendu. (Ax 180)

Badira egitura batzuk predikatuzkotzat ere har daitezkeenak (“*aguro somatzeko badu segurantzza*”) perpaus izenlaguna aditzaren aurrean ageri delako.

Predikatu-egituretan *-eLA* da menderagailu nagusia, predikatu-egituraren atzetik jarria.

- (382) *Ahal dukegu esperantzza, fidantzza eta segurantzza bizitze luzea emanen derakula;* eta noiz nahi den, zahartzean, eta hare hiltzerakoan ere, geure bekhatu guztiak barkhatuko derauzkigula. (Ax 088)

### 2.31. Seinale

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:
 

<i>-eLAKO seinale</i>	%27,9 (12/43)
<i>-eN seinale</i>	%4,7 (2/43)

- 1.2. Jokatu gabeak:  
     *-t(z)eko seinale*                      %9,3 (4/43)  
     partizipioa + *seinale*                %2,3 (1/43)
2. Zehargalderakoak:  
     *zehargaldera* + *seinale*                %2,3 (1/43)
3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak
- 1.1. Jokatuak:  
     predikatua + *-eLA*                      %46,5 (20/43)  
     predikatua + *-eNA*                      %2,3 (1/43)
- 1.2. Jokatu gabeak:  $\emptyset$
2. Zehargalderakoak:  
     predikatua + *zehargaldera*            %4,7 (2/43)
3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

*Seinale* izenaren perpaus osagarri izenlagunen artean jokatuak dira nagusi, baina badira gure corpusean jokatu gabe batzuk, baita zehargalderako bat ere (adizki lagun-zailerik gabea: *nor zerurat helduko seinale*). Adierazpenekoenen artean *seinale* izena absolutiboan ageri da nagusiki. Hona adibideak:

- (383) Deus pairatzen eztuen eta pairatu nahi eztuen arima batek ikharatzeko du; *damnatzerat dohalako seinalea* dakharre. (Dh 233)
- (384) Apez handiak entzun zitueneko Salbatzaillaren hitzak, hautsi zituen bere soinekoak, hori zen blasfemia bat *entzun zuelako seinalea*, eta abiatu zen boza altxaturik erraten: blasfematu du: ez dugu bertze lekukotasun beharrik. (Lg II 262)
- (385) Hori izanen da, euskara beti *bizi delako seinalea*. (Xa Odol 053)
- (386) Edo nai dozu, zerubak *gorroto deutseen seinale batzuk* emon dagizuzan? (fB Olg 151)
- (387) Norbaiti bihotza flakatu zaionean, eta *bizitzeko seinalerik geiago* emaiten eztuenean, eskua emaiten zaio bihotzaren gainean, eta sentitzen bada den gutiena dabillala, iujeatzen da bizi dela, eta zenbait ur preziatuz edo bertze zenbait erremedio eginez, berriz erakhar dakidikeola indar eta sentimendua. (SP Phil 444)
- (388) Jainkoaren ama sakratuaren alderako debozioa hagitz gomendatua da elizan; eta Elizako aitak hartaz mintzo dire, *nor zerurat helduko seinale seguretari-rik batez bezala*. (Dh 260)

Predikatu-egiturak ere badira, bereziki *-eLA* menderagailua duten perpausen gobernatzaile. SPren testuetan aurkitu ditugu gure corpuseko esaldi gehienak. Badira zehargalderak ere Lg eta SPren testuetan. Hona adibideak:

- (389) Kontu geiago egiten dut zeren San Bernardok olio edan zuen, ura edo arnoa zelakotz, absinthiozko urik iakiara eta bere oldez edan balu baino, ezen *seinale zen etzuela* gogoan zer edaten zuen. (SP Phil 320)
- (390) Huna filistindarren arrazoinamendua: baldin behiak Israelgo biderei lohtzen bazaizko, hortik ageriko da Israelgo Jainkoak zehatu gaituela; ordean

behiek hartzen balin badute bertze biderik, hori *izanen da seinale bat gure gaitzak ez direla Israelgo Jainkoa ganik heldu*; bainan ethorri beharrak zirela, bertzenaz. (Lg I 258)

(391) Gizon horrek *seinale du behakotik norbait hil duela*. (Larz Senper 072)

(392) Examenaren puntu bakhoitzaren ondoan, *seinale eginen duzu zertan eskas zaren*, eta zertan bereziki sentitzen duzun errebelatua zarela, gero haren deklaratzekotzat, kondeillu hartzeko, erresoluzione berririk egiteko, eta espirituaren bortitzteko. (SP *Phil* 510)

### 2.32. Sentimendu

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

-eLAKO sentimendu %50 (1/2)

1.2. Jokatugabeak:

sentimendu -t(z)eko %50 (1/2)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile:  $\emptyset$

Bi agerpen baino ez ditugu corpusean, bata jokatua (-eLAKO) eta bestea perpaus jokatugabea (-t(z)eko). Perpaus izenlagun jokatu hori duen izena egitura koordinatua agertzen da beste perpaus izenlagun jokatua duen *susmoa* hitzarekin batera.

(393) Oh Jinko infinitoki hun zirena, eman ezadazv *egiazko sentimentu bat zvk nitarik desiratzen duzvaren egiteko* eta zuri kontrario zaizvaren ororen ebitatzeko zure grazia saintvtik ezin pribatu izaten ahal nizan maneria batez eta zure gloria saintvtik ezin separatv izaten ahal nizan bonvr infinito batez. (Mercy 003)

(394) Ba-dugu or barruan ordena baten azpian *geralako sentimentua* eta lege ori kunplitu bear delako *susmoa*. (Vill *Jaink* 163)

### 2.33. Sospetxa

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

-eLAKO sospetxa %33,3 (1/3)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + -eLA %66,7 (2/3)

1.2. Jokatugabeak:  $\emptyset$



2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Hiru esaldi baino ez ditugu corpusean: bat adierazpeneko osagarria (jokatu) eta bi predikatu-egituraren mendekoak (*sospetxa egin -eLA*). Denak dira bizkaierazkoak.

- (395) Eukitia, norbaitek gauza dongaren bat *egin izango dabelako sospetxia*, edo dudan geratutia, egin izan daben ala ez, ezta pekatu mortal, ezpada benial. (Astar II 176)
- (396) Guzion bat askotan bakarrik, bakarrean ta premiña bage andra bategaz egoteak emoten dau bidea besteak uste izateko ta *sospetxa egiteko euren artean bear eztan gauza txarren bat, maitetasun gaistoren bat edo zerbait dala*. (A@4n G Gero 272)

### 2.34. Susmoa

#### a) Perpaus izenlaguna

##### 1. Adierazpenekoak:

###### 1.1. Jokatuak:

-eLAKO <i>susmoa</i>	%26,3 (5/19)
-eLAREN <i>susmoa</i>	%5,3 (1/19)
-eN <i>susmoa</i>	%10,5 (2/19)

###### 1.2. Jokatugabeak: $\emptyset$

##### 2. Zehargalderakoak:

<i>ote -eLAKO susmoa</i>	%5,3 (1/19)
<i>ote -eN susmoa</i>	%15,8 (3/19)

##### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

#### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

##### 1. Adierazpenekoak

###### 1.1. Jokatuak:

-eLA + predikatua	%5,3 (1/19)
predikatua + -eLA	%10,5 (2/19)

###### 1.2. Jokatugabeak: $\emptyset$

##### 2. Zehargalderakoak:

predikatua + <i>ote -eN</i>	%21,0 (4/19)
-----------------------------	--------------

##### 3. Subjuntibokoak: $\emptyset$

*Susmo* izenaren adiera *sospetxa* edo *uste* izenen adieraren parekoa gertatzen da tesuinguru hauetan: erraz truka daitezke izenok esanahiaren aldaketa nabarmenik gabe, nahiz eta *susmo* izenak baduen bere ñabardura semantikoa. Bestalde, *susmo* eta *uste* izenek osatzen dituzten predikatu-egituretan ere aditz bera dugu nagusi (*susmo izan*, *uste izan*; edo *susmo/uste hartu*, eta abar). Guztira 19 perpaus aurkitu ditugu datu-basean. Perpaus izenlagunen artean, adierazpeneko perpaus jokatuak dira nagusi (ez dago jokatugaberik), eta predikatu-egitura gobernatzaile dutenak ere jokatuak dira, -eLA lotura-hizkiak baliatzen diren adierazpenekoak edo *ote* hizkia daramaten zehargalderak.

Bietara ageri da *susmo* izena gure datu-basean: izenlagunak hartzen dituen izen gisa edo predikatu-egituretako osagai modura. Baina bien arteko bereizketa zaila

gertatzen da: izan ere, izenlaguna hartzen duen *susmoa* hitza beti ageri da artikulua-rekin, izenondorik gabe eta predikatu-egituretan ageri den aditzetako bati lotua (*izan, hartu, jarri...*); horrela, perpaus izenlagun izan daitekeen hori izenaren ezkerrean agertzea eta *-eN* edo *-e(LA)KO* lotura-hizkiak izatea gertatzen dira sailkapenean batera edo bestera jokatzeko irizpide objektibo bakarrak. Are gehiago, perpaus izenlagunak *ote* hizkia daramanean. Hona adibide argigarri batzuk:

- (397) Ez dakit zergatik, dandara oriek azkenekoak *izango diran susmua* artzen dut. (Lab *SuEm*, 199)  
 (398) Hauetatik batzu, berak *asmatu ote zituelako susmoa* ere zabaldu da. (MIH, 251)  
 (399) Ara zer esaten deusutan, belarrira, iñon entzun eztaigun: gizon andiren bat *izango ete dan susmoa* daukat. (Ag *Kr*, 224)

Honako agerpen hauek denak dira XX. mendeko testuetakoak.

### 2.35. Uste (iz.)

a) Perpaus osagarri izenlagunak

1. Adierazpenekoak:

1.1. Jokatuak:

<i>-eLAKO ustea</i>	% 26,3 (108/411)
<i>bailitzeango ustea</i>	% 0,2 (1/411)
<i>-eLAKOAREN ustea</i>	% 0,2 (1/411)
<i>-eN ustea</i>	% 7,3 (30/411)
<i>-eLAREN ustea</i>	% 0,7 (3/411)
<i>uste -eLAKOAN</i>	% 0,2 (1/411)

1.2. Jokatugabeak:

<i>-t(z)eko ustea</i>	%52,3 (215/411)
partizipioa + <i>uste</i>	%8,0 (33/411)
aditzoina + <i>uste</i>	%0,5 (2/411)

2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$

3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

1. Adierazpenekoak

1.1. Jokatuak:

predikatua + <i>-eLA</i>	%3,4 (14/411)
--------------------------	---------------

1.2. Jokatugabeak:

predikatua + <i>-t(z)eko</i>	%0,2 (1/411)
------------------------------	--------------

2. Zehargalderakoak:

predikatua + <i>ote -eN</i>	%0,2 (1/411)
-----------------------------	--------------

3. Subjuntibokoak:

	%0,2 (1/411)
--	--------------

Bat datoz, formari dagokionez, *uste* izena (*ustez, ustean...*) eta *uste (izan)* aditzaren adizki jokatugabeak (*ustez, ustez eta, ustean...*) eta halakoetan testuinguruari kasu egini edo irizpide formaletan oinarriturik egin dugu bereizketa: *-eLA ustez* (aditza) eta

-eLAKO *ustez* (izena). Era berean, alde batera utzi ditugu gure azterketan *uste* (*izan*) aditzak hain maiz osatzen dituen *ustez* edo *ustez eta* erako egitura adberbialak (*ustez lotuak zituenean*), errazak ezagutzen *ustez* adizlaguna ezabatuta ere, perpausa bere hartan irakur eta uler daitekeelako.

Esanahia “zerbaiti buruz, itxura edo aztarnen arabera izaten den iritzia” (*Euskal Hiztegia*) dugu; hortaz, oso hurbil *susmo* hitzak duen esanahitik (“zerbaiti buruzko burutapena edo ustea, batez ere txarra, aztarna edo aieru hutsetan oinarritzen dena”) baina *susmo* hitzak maiz osatzen ditu *ote* hizkia darabilten predikatu-egiturak, *uste* hitzak ez bezala (%0,2tan); gainera, *seinale* (-eLA) hitzak ez bezala, nekez (%3,4tan) jokatzeko du *uste* izenak -eLA atzizkidun konpletiboen predikatu-egitura gobernatzaile gisa. Pentsa liteke, bada, ñabardura semantikoen arabera delako erabilera sintaktikoa.

Beste batzuetan, gainera, desberdina gertatzen da *uste* izenaren adiera, *asmo* hitza-  
ren antzekoa. Esate baterako:

- (400) Aitaren begiak *legortzeko ustian* esan zion: Bai, orrelakuak ez dira beti-beti  
uste bezain urrikarri izaten. (Bv *AsL* 154)

*Uste* izenak perpaus izenlagunak hartzen ditu maiz: halako 396 perpaus aurkitu  
ditugu gure corpusean. Denak dira adierazpenekoak eta hauetatik gehienak (215)  
perpaus jokatu gabeak dira.

- (401) Eta etorkizunekoak egin bear dira gauza onaz, malizia bago, engaño bago  
eta *kunplietako usteaz*, gogoaz, borondateaz, baldin kunplietaz kalteren  
batzuk, iñok len uste eztabenik, sortu ta agertuten ezpada, Herodesek jura-  
mentu egin ebanean agertu, jazo ta gerta zan legez. (A@4n *Ggero* 190)
- (402) Ain dago zabaldurik mundu guztitik esperanzia, ze eztozu aurkituko kris-  
tinaurik zerura *elduteko uste*, edo esperanzarik eztaukanik. (Astar II 019)
- (403) Orregatik ongi arzen du eriak hitz onak dituen adiskid-ekuslea, ta agitz  
obeki ekustera datorren aldiaren ekarzen badio aren gaitzari dagokan lurreko  
sendagai, edari, auts edo belar onen bat; eta ongi siñisturik aren gain esaten  
diona pozik eta *sendatzeko uste andian* arzen du luzanzik bage ta bere aldiaren.  
(Mb *Iarg* I 187)

Jokatuetan (144) bi dira menderagailuak: -eLAKO nagusiki (108) eta -eN (30).  
Hona adibide batzuk:

- (404) Zeren nola pinpirina, argia ikusirik, kurioski baitabilko helgaldaka inguruz  
inguru frogatzea gatik, ea eder den bezain ezti eta gozo ere denz, eta nola  
uste hartaz eramanik ezpaita gelditzen, non ezten galtzen lehen froga  
aldian: manera berean haragiaren pitzturetan *plazerik delako uste falsoak eta*  
*erboak* hainitzetan hala daramatza jende gazteak, non hainitz gogoratzeko  
kuriosen ondoan, azkenean baitoaz hetan bere buruaren galtzera. (SP *Phil*  
254)
- (405) Bai: mutil gaztia nintzarian ikasi neban arotzija, neure anaija nagusijaguak  
etxaguntza *au eruango ebalako ustiaz*. (Mg *Pab* 152)
- (406) Nahi ez nuelarik ere, *sartu bebar nuelako ustetan* abiatu nintzen. (MIH  
376)

Gainera, badirudi testu berriagoetan ageri dela *-eN* menderagailua, ez zaharrentan. Aldika aztertuz gero, mendez mende, hona emaitza argigarria:

- XVI: 3 agerpen (aditza + *uste*)  
 XVII: 15 agerpen (aditza + *uste* / *-t(z)eko uste* / *-eLAKO uste*)  
 XVIII: 37 agerpen (aditza + *uste* / *-t(z)eko uste* / *-eLAKO uste* / *ustez -eLA*)  
 XIX: 169 agerpen (aditza + *uste* / *-t(z)eko uste* / *-eLAKO uste* / *ustez -eLA* / *-eN uste*)

Hau da, XIX. mendetik aurrerakoak dira *-eN* menderagailua dutenak. Aurreko mendeetan bestelako egiturak aurkitu ditugu. Dena den, begi-bistan dago corpusaren urriak berak ez duela laguntzen datu honetatik ondorio erabatekorik proposatzen. Gainera, ez dirudi aditzaren aspektuak ere eraginik duenik menderagailuaren hautuan.

- (407) Pozezko loriaz ta urrezko igaliaz beterik zan zugatza, indartsu, aberatsa, etzan ain *gazterik galduko zan usterik*. (Enb 088)  
 (408) Eta gero etorri zan gizona, ume ori andreak *ekarri eban ustez*. (And *Auzta* 076)

Perpaua jokatuak dituzten bestelako menderagailuak oso bakanak gertatzen dira. Egile bakarra da (Anab) *-eLAREN* darabilena eta agerpen bakarra du *-eLAKOAREN* egiturak; eta aposizio erako *ustean -eLAKOAN* ere behin baino ez dugu aurkitu ("euren *ustietan* ondo kantatzen *ebelakuan...* SM *Zirik* 117") beste era batera errazago uler daitekeena, goian aipatu ditugun adizlagun gisako (*ustez*) egiturekin batera alegia.

- (409) Etorkizuneko zorion-iturri bakarra beraren irakatsietan soilik arkitu omen zitekean ezkerro, arresiz eta luebakiz babesten zuen berak esana, sofista, errirako kaltegarri *bailitzeango ustea* zabaldurik. (Zai *Plat* 117)

Aipatzekoa da ondorengo perpaua (Lardizabal), bertan ageri den *-eLAKO* hizkia kausazko menderagailua ere izan daitekeen arren, errazago pentsa daitekeelako (testuingurua kontuan hartuta) izenlaguna eta *uste* izena lotzen dituen hizkia dela. Bitxia gertatzen da, ordea, aditza izenlagunaren eta izenaren artean agertzea.

- (410) Amon'tarrak urteoro etorri oi zitzaiezen, nai zituzten laburtasun eta txar-keriak egitera; eta Jainkoak *lagunduko zielako* artu zuten *uste onarekin* pres-tatu ziran, arpegi emateko, lenagoko urteetan bezala, nai zutenik egiten, utzi gabe... (Lard 134)

Gure corpusean jokatu gabeak dira *uste* izenaren mendeko perpaua gehienak, eta hauen artean *-t(z)eko uste* gertatzen da nagusi. Baina badira hauen artean, aditz-par-tizipioa edo aditzoina *uste* izenari zuzenki lotua dutenak ere. Egitura hauek *uste* aditzak osa ditzakeenen parekoak dira (*orain jakin uste duguna*) baina *uste* izen gisa ager daiteke, gehieneran *-z* edo *-an* kasu-markekin, mugatuan edo mugagabeen.

- (411) Eta hura begira zain zorrozki, hetarik zerbait *rezebitu ustez*. (L@8 c 211)  
 (412) Ez, Philote maitea, gaizki erraiteko bekharuari *ihes egin ustean*, eztira ber-tzeak faboratu, lausengatu, edo mantenatu behar; aitzitik garbiki eta trebe-ki gaizkiaz gaizki erran behar da: eta on edo eder eztiren gauzak eztira laudatu behar: horrela eginez Iainkoaren loria aitzinatzen dugu baldin hari bagara erraitera noan kondizioneekin. (SP *Phil* 357)

- (413) Nolanahi ere den, gaurreguneko jakitearen edo *jakin-ustearen* arabera, badira hiru maila bederen, kideak kidekoekin horietako bakoitzean bil ditzagun (MEIG VI 131)
- (414) Zorionaren atetaraño *eldu ustetan*, ukaldi batez, erio luze ta neketsu baten atzaparretan erori zan. (Etxd *AlosT* 039)
- (415) Alere etzen aitzen itsu gaisoaren *ekus-ustea* ta S, Francisco Xavierren mila-groa bere baitan ekusi naia, ta urrengo eguna agertu horduko, joan zen irugarren aldiari S. Francisco Xavierren Eliz aldarera. (Mb *IArg II* 354)

Aztertzen ari garen egituretan ageri den *uste* izenak maiz du izenondoa, honakok hain zuzen:

*uste bandia*  
*uste irmoa*  
*uste faltsoak eta eroak*  
*uste guztia*  
*uste osoa*

Maizen ageri dena *uste osoa* da, honako eretan: *uste osoa*, *uste oso-osoa*, *uste oso betea*. Gehienetan inesiboan bada ere, beste kasu-markak ere izan ditzake: *uste osoa*, *uste osoan*, *uste osoarekin*... Maiztasunari begira, ia lexikalizatutzat jo dezakegun egitura hau maizago ageri da forma jokatueta ( $\%23$ tan, *-eLAKO uste oso*, *-eN uste oso*, *uste oso -eLA*) eta nekezago forma jokatugabeetan ( $\%2,8$  *-t(z)eko uste oso*).

Oro har, inesiboa da gehienetan hartzen duen kasu-marka (*ustean egon*...) baina besteak ere har ditzake: *uste*, *ustea*, *usteak*, *usteari*, *ustean*, *ustez*, *ustearekin*, *usteagaz*... (ikusi adibideak). Dena den inesiboa hartzen du corpus osoko  $\%37,8$  kasutan. Horietatik gehienak mugatu singularrean daude (*ustean*: 132 agerraldi) baina badira beste batzuk pluralean (*usteetan*: 7 agerraldi) edo mugagabeen (*ustetan*: 20 agerraldi).

- (416) Baldin gure kolerak gaua ardietsten badu, eta Iguzkias sartzen bada haren gainean, zein baira Apostoluak debekatzen duena, hura gaitzeristera itzuliz gero, ezta kasik biderik geiago haren khentzeko, zeren orduan milla zinets-te falsoz baskatzen da, egundaino gizon haserrerik ikusi eztenaz gero, zuzen gabe *baserretu delako uste izan duenik*. (SP *Phil* 232)
- (417) Nola ez eduki *barkatuko didazulako ustea*, nik bañore geiago zuk zerorrek neri barkatzeko gogoia daukazu-ta? (Argi *DL* 036)
- (418) Apaizaren eta karlistaren ondoan, bizia *garbiagoa izango zelako usteagatik* edo. (MIH 133)
- (419) Maite zaitu arek; baña *zuzetako laingoa ezalako usteak* ozten du. (Tag *Uzt* 301)
- (420) Atozea, etzera iñoiz bide orietan eraunzi *oira zuazelako ustean?* (AA III 377)
- (421) Bazkaria tokiaren gainean, askariaren iduriko, ez balin badute lagunik nehor; orduan, aberea haren eskuko utzirik, ostaturat baitoatzi, eta jan baino gehixago edanik, maiz dena ere ahal bezalakoa, *bazkaldu direlako uste-arekin* baitire atheratzen. (JE *Bur* 169)
- (422) Ezpairik gabe, aitor arrigarri ta unkiagarri onek indar aundia ematen dio Jainko *ba-delako usteari*; batez ere, aditzera ematen digu ba-dituela gure izateak lokarri autsi-eziñak siñeste onekin. (Vill *Jaink* 028)
- (423) Bada nola humiltasunak ezin paira baitezake bertzeak bainoago garelako, edo bertzeen gainean abantailla *bebar dugulako usterik* dugun; halaber... (SP *Phil* 221)

- (424) Guzien gainetik begira zaitezaren eskuaren era laguntzaren utsetik *geiago bilduren duzulako ustez*: zeren largatzen bazaitu eztuzu urratsik eginen lurre-ra sudurraz io gabe. (SP *Phil* 244)
- (425) Asmo onetan, baninoian lengo batean Aitz- barrenengo Elizara, arrentxo bat egin ondorean zeu nun ete zenbiltzan ango Eliz-gizonari *itauntzeko uste-agaz*. (Ag AL 044)

Beste askotan, berriz, sintagma koordinatuetako osagai dugu *uste* izena: *uste eta esperantza (eragabeko)*, *uste eta konfiantza*, *uste edo siniste*, *uste edo nabikari*, *uste edo irudipen...*

Oso bakanak gertatzen dira bestelako erabilerak. Bi adibide baino ez ditugu zehargaldera edo subjuntibokoak haien gobernatzailea *uste* izenak osatzen duen predikatu-egitura dela.

- (426) Asi ziran mar-mar, eta geienak txarrera jota, oi dan lez, ustia egin eben lapurretan edo *beregandu ez ete ebazan dirubok*. (Kk *Ab I* 076)
- (427) Begira bestela nola ematen digun Imazek aditzera *bere ustea eta nabia herriak desarma daitezten*: Kristaua iltzeko elementuak, obe ziraden galazi, etzan pasako orain pasatzen, ai dan ainbeste desgrazi, guraso onak seme ederrak, eztitu alperrik azi, geren bururik eztezagula, tamañ'orretan ikusi, gerr'one-nian baño obia da, pake txarrenian bizi Egituraren ederrez ez genituzke beharbada aintzakotzat hartuko bertso hoek, eta hoen antzera beste asko, euskal literaturaren lorategi batean, baina ezin uka adierazi nahi dutena argiro eta bortizki adierazten dutenik. (MEIG III 111)

### 2.36. Zalantza

#### a) Perpaus osagarri izenlagunak

##### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

*zalantza -eLAKOA*                      %4,2 (1/24)

##### 1.2. Jokatugabeak:

*-t(z)eko zalantza*                      %12,5 (3/24)

##### 2. Zehargalderakoak: ∅

##### 3. Subjuntibokoak: ∅

#### b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile

##### 1. Adierazpenekoak

##### 1.1. Jokatuak:

predikatua + *-eLA*                      %4,2 (1/24)

*-eN* + predikatua                      %4,2 (1/24)

##### 1.2. Jokatugabeak:

predikatua + *-t(z)eko*                      %4,2 (1/24)

##### 2. Zehargalderakoak:

zehargaldera + predikatua                      %45,8 (11/24)

predikatua + zehargaldera                      %25 (6/24)

##### 3. Subjuntibokoak: ∅

*Zalantza* izenak, ziur aski semantika-arrazoiak direla medio, nekezago hartzen ditu osagarri izenlagun adierazpenekoak. Gehienetan predikatu-egiturak osatzen ditu zehargalderen gobernatzaile:

- (428) Unkitu egin ninduen sakon bere negarrak, eta egia osoa *azaltzeko zalantzan* ibilli nintzan. (Txill *Let* 097)
- (429) Segur izan zaitetzke Irigaraiko jauna lurperatua izan zela, ohitura eta ohi-kundeari jarraikiz, eta ez nago *zalantzan* Gabrielak negar ugari *ixuri zuela* chortzeta egunean, itxurontzi gogaikarriak! (Mde *Pr* 178)
- (430) *Zalantzan bazaude zer sartu*, galdetu dakienari. (Munita 096)
- (431) Birjiña Birjiñ jaiotza Santu ordorean gelditu zala, ukatzen zuen oso mai-ruak; orduan alabaña Ignazio, asiberriaren jakiñezarekin, bai-ta ere ordea Kristau-zaldun mallazkoaren-gisan fedegabe hura birau argatik *illko zuen edo ez, zalantzan* egondu zan. (Aran *Sign* 019)
- (432) Adarra jotzen *ari ote zitzaizkidan zalantzan* jarri nintzan; besterik ez nuen bear. (Anab *Aprika* 071)
- (433) Ez zuan erantzuten, *ez ote zekian zalantzan egon nintzan*. (Anab *Aprika* 092)

Oso agerpen-kopuru txikia da ondorio garbiak zehazteko, baina ikus daitekeenez zehargaldera predikatu-egituraren aurretik nahiz atzetik ager daiteke, *ote* hizkiar balia daiteke, ‘den edo ez’ itxurako galdera izan dezake, edo galdegilea izan dezake. Bestalde, ez dago aditzaren aspektuaren marka garbirik halako esaldietan. Predikatu-egitura hauen artean *zalantzan egon* da maizena, eta horren ondoan *zalantzan aurkitu*, *ibili*, *egon*, *jarri*...

### 2.37. Zantzu

#### a) Perpaus osagarri izenlagunak

##### 1. Adierazpenekoak:

##### 1.1. Jokatuak:

-eLAKO zantzua	%10 (1/10)
-eNAREN zantzua	%10 (1/10)

##### 1.2. Jokatugabeak:

-t(z)eko zantzua	%50 (5/10)
-tako zantzua	%20 (2/10)

##### 2. Zehargalderakoak:

zehargaldera + zantzua	%10 (1/10)
------------------------	------------

##### 3. Subjuntibokoak: ø

#### b) Perpaus osagarri “bereziak”: predikatu-egitura gobernatzaile: ø

*Zantzu* izenak perpaus izenlagunak har ditzake, batez ere jokatugabeak (-t(z)eko zantzua erakoak). Bat dator erabilera hau semantikoki antzekoak diren izenen erabilerarekin (*señale*). Bestelako erabilerak oso kasu bakanetan agertzen dira eta bereziki zalantzazkoa da zehargaldera-itxurakoa, bertsoetako testua denez ez dagoelako esaterik bertsoak eragindako hitzen ordena aldaketarik gertatu den.

- (434) Ontzi nagusi den Suffren mutillak, Tolondik *aldegiteko zantzua* egin du; bos-teun seme goaz Provenzatik. (Or *Mi* 008)
- (435) Su-ziri bat izan zan apustua *asteko zantzua*. (Tag *Uzt* 230)
- (436) Azkenean, luzaro ibilli ondorean, Aralartik bi bider jetxita bezela, ikusi zuan toki bat zelai antzekoa eta an urre lanean *ibillitako zantzua*. (JAIRaz *Bizia* 081)
- (437) Darwin-ek idatzen zuen, munduak, bere osotasunean arturik, adimen orde-natzaille *batengandik datorrelako zantzua* edo susmoa uzten ziola; baiña gero, xeekei, elementu bakoitzari kasu egiterakoan, susmo ori suntsitu egiten zitzaiola. (Vill *Jaink* 053)
- (438) Ardiak urte-garai guztitan badauka bere lantxua, gutxinez ere iduki bear *nundik dabillen zantzua*; jetzi bearrrik ez dala izaten bistan da ardi antzua, artzaiarentzat iñoiz bada-ta oraintxen da deskantsua. (Uzt *Sas* 064)

### 2.38. Ziurtasun

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:  $\emptyset$
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko ziurtasun</i>	%100 (1/1)
---------------------------	------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak:  $\emptyset$
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$

Adibide bakarra dugu corpusean, jokatugabea:

- (439) Zerbait egiñenean, dirurik ez galtzeko, porrot *ez egiteko ziurtasunez* bear da (Ldi *IL* 079)

### 2.39. Zurrumurru

- a) Perpaus osagarri izenlagunak
1. Adierazpenekoak:
    - 1.1. Jokatuak:  $\emptyset$
    - 1.2. Jokatugabeak:
 

<i>-t(z)eko ziurtasun</i>	%100 (1/1)
---------------------------	------------
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$
- b) Perpaus osagarri "bereziak": predikatu-egitura gobernatzaile
1. Adierazpenekoak:  $\emptyset$
  2. Zehargalderakoak:  $\emptyset$
  3. Subjuntibokoak:  $\emptyset$  Adibide bakarra dugu corpusean, jokatugabea:

- (440) Ta ganera, Dorregarai santu-jalearen alabarik zaarrena, Letamendi alargu-nagaz ezkontzen *ete zaneke zurrumurrua*. (Erkiag *BatB* 105)



## Bibliografia

- Alberdi, X., Garcia, J.; Ugarteburu, I., 1997, "Izenen mendeko perpausak: XX. mendeko erabilera", *ASJU*, XXX-1, 149-210.
- Azkarate, M., *ms.*, "Perpaus Izen Lagunak", Euskaltzaindiko Gramatika Batzorderako prestatutako txosten argitaragabea.
- \_\_\_\_\_, 1995, "Hobekuntza Ikastaroa", Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle elebiduentzat prestatutako hobekuntza-ikastaroko material argitaragabea.
- Azkue, R.M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*, (ik. "eLAKO" sarrera) Bilbao. Berrarg. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1969.
- \_\_\_\_\_, 1925, *Morfología vasca*, (ik. §538-539), Bilbo. Berrarg. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1969.
- Egunkaria, 1995, *Estilo Liburua*, (ik. §109, 47. or.), Egunkaria, Andoain.
- Eguzkitza, A., 1993, "Adnominals in the Grammar of Basque", J.I. Hualde, Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, Philadelphia, 163-187.
- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Gramatika. Leben Urratsak-V (Mendeko Perpausak-1)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Goenaga, P., 1978, *Gramatika Bideetan*, (ik. 269-272. orr.), Berrarg. Erein, Donostia 1980.
- Gorostiza, A., 2000, "Oposizioak datozenaren zurrumurru Okerra", in Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE), *Administrazioa Euskaraz*, 28. zk., 16.or.
- Kintana, X. & Salaburu, P., 1984, *Euskara Hobe Hobe*, EHU, Leioa.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*, (ik. §763), Baiona. Berrarg. Elkar, Donostia 1979.
- Oihartzabal, B., 1986, "Erlatibakuntza: perpaus erlatiboen egitura: izen erlatibatuaren beta-kizuna haren barnean", in P. Salaburu (arg.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, EHUko Argitarapen Zerbitzua, 131-153.
- Zubiri, Y. & Zubiri, E., 1995, *Euskal Gramatika Osoa*, (ik. 645. or. eta hurrengoak), Didaktiker, Bilbo.



# Goñerriko hizkera (II)\*

## (Goñi Basque (II))

Camino, Iñaki

Euskal Herriko Unib.

Filologia eta Geografi-Historia Fak.

Indoeuropar eta Euskal Filologia Saila

Pedro de Asúa, z/g

01008 Vitoria-Gasteiz

---

*Ondoren, Goñerriko (Nafarroa) euskararen aditz morfologiaren eta sintaxiaren alderdi batzuk deskribatzen dituen gure lanaren bigarren atala aurkezten dugu. Orobat, inguruko ibarretako hizkerekin konparatzen da. Aurki lan honen hirugarren atala argitaratuko dugu eta horretan alderdi lexikoak aurkeztu eta Goñerriko hizkera eta gainerako begoaldeko aldaerak dialektologiaren ikuspegitik kokatzen saiatuko gara nafar euskalkiaren barnean.*

*Giltz-Hitzak: Aditz morfologia. Sintaxia. Analogia. Hego-Nafarrera.*

*Presentamos a continuación la segunda parte de nuestro trabajo en la cual se describen aspectos de morfología verbal y de sintaxis del vasco del valle de Goñi (Navarra), comparándolos con los de las hablas de los valles que lo circundan. Próximamente publicaremos el tercer capítulo del presente trabajo, que incluye aspectos léxicos y un intento de situar dialectológicamente al habla del valle de Goñi y a las demás variedades meridionales dentro de lo que se denomina dialecto navarro.*

*Palabras Clave: Morfología verbal. Sintaxis. Analogía. Dialecto navarro meridional.*

*Nous présentons ensuite la seconde partie de notre travail dans laquelle sont décrits des aspects de morphologie verbale et de syntaxe du basque de la vallée de Goñi (Navarre), les comparant avec ceux des parlers des vallées qui les entourent. Nous publierons prochainement le troisième chapitre de ce travail, qui comprend des aspects lexicaux et dans lequel on tente de situer dialectologiquement le parler de la vallée de Goñi et les autres variétés méridionales dans ce que l'on appelle le dialecte navarrais.*

*Mots Clés: Morphologie verbale. Syntaxe. Analogie. Dialecte navarrais méridional.*

(\*) Lan honen lehen atala 1999ko ASJU 33/1-en ageri da, 5-78. or., eta bertan dago bigarren honetako bibliografiaren erreferentzia.

Artikulu honen bigarren atal hau inprimategira ekarri aitzinetik baliatu ahal izan ditugun J. M. de Ibero idazle munarritzarraren testu gehiago argitaratu ditu F. Ondarra euskaltzainak ASJU aldizkarian; hona erreferentziak: "Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (I)", ASJU 30/2, 1996, 645-702 baretik eta "Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (II)", ASJU 32/1, 1998, 231-309, bestetik. Orain artean erabili dugun Sarrustegiren 1987ko *Euskal Testu Zabarrak I*-eko 91-111 orrietako zerbakiekin nahasteko arriskurik ez baitago, bi artikulu berri hauek orri zerbakiak emanez eginen dugu erreferentzia. Bestalde, Dikaztelun euskal idazki bat agertu da —"Dikazteluko sermoia", Pello Etxaniz Iturbe, *FLV* 82, 1999, 483-499— aski nafarrera hegoaldekoan idatzia; testu zaharren ildotik jarraituz, hego-nafarreraz idatzitako 1729ko prediku bat (Ondarra 1981, *FLV* 38, 147-173) eta Ero herrian agertutako beste bat (Sarrustegi 1987, 261-273) baliatu ditugula adierazi beharra dago. Artzibarko euskaraz denaz bezainbatean, XIX. mendeko bigarren erdiko Juan Cruz Elizalderen Urizko kristau ikasbidea ere erabili dugu. Esan dezagun, azkenik, Orreaga Ibarrenen *Erroibar-ko eta Esteribarko hizkera* lan argitaragabea (2000) ezagutzeko aukera baliaturik, bertako hainbat berri hona ekarri dugula eta J. L. Erdoziaren "Etxarri-Aranazko dotrina" lan argitaragabea ere ezagutu dugula lan honen bigarren atal hau bukatuxe genuela.

### 5.3. Aditzaren morfologia<sup>1</sup>

#### 5.3.1. Aditz nagusia

5.3.1.1. Aditzen hasierako morfeman *e-* zahar batek adibide ugaritan *i-* eman duela gauza ezaguna da: “ekusi”, “ebili”...; franko dira lekukotasun hauek euskararen aldaketan barrena denboran eta espazioan zehar. Beriainek eta Elizalde honelakorik ez badakarte ere, bada gure testuetan erabilera zaharraren adibide bat: *egorcen* (Pre III, 154); J. M. de Iberok ere badarabil: *salba deiçenagatic egorçen dizquioten nequeac* (695); *egungo egune becelacoarequi egorri cigu Espiritu Santi Jaune* (235).<sup>2</sup> Gainerateko testuetan eta Bonaparteren datuetan *ikus*i eta *igorri* ditugu eta *i-*ren erabilera nagusitzen da gure testu guztietan. Mendebalderago, Gesalazko XVIII. mendeko idazkietan *egorri* (390) eta *egorr*ico (383) ageri dira. Bestalde, Atetz ibarreko Zigandan *ebiltzen* bildu da (EABL, 192); ezagun du arkaismo kutsuko adibideak ditugula denak.

5.3.1.2. Aditz nagusietako partizipioko *-ki* / *-gi* atzizkiak, biak ageri dira gure eremuko adibideetan, are aditz batek idazki berean bi aldaerak agertzeraino, ikusiko denez:

1. *Idiqui* ‘ireki’ (Eb, Bon), *idequi* (Pre III) & *irequi* (Pre II) / *iregui* (Ib, Pre II).
2. *Iduqui* ‘eduki’ (Mar, Mur, Bon, Ib, Pre III eta IV) & *iruqui* (Pre I, Mur) / *irugui* (Pre I eta II), *idugui* (Ib), *iguiri* (Eb) & *irigui* (Eb).
3. *Ebaqui* (Ib, Pre IV) / *ebagui* (Ib).
4. *Jaiqui* (Pre IV) & *xeki* (Bon) / *ssegui* (Ib).

Bestalde, *issin* & *isiteco* ‘itxeki = biztu’ ditugu (Pre I), eta baita *ereki* ‘erein’ ere (Bon). Horrezaz gain, gure corpusean onartu ez ditugun idazkietan ere ageri dira iduriak: *isequi*, *irugucea* (Lan); *ereguicen* & *ereiten* ‘ereiten’, *irugui* (Tes VI-1); *idugui* (Tes VI-2); *isiguin* (Tes VI-3).

Aipagarria da Bonapartek inkesta bidez bildu aldaera *-ki* dela dakartzan lau adibideetan, baina testuek erakutsi dutenez, *-gi* ere bazen Goñerrian: J. M. de Ibero idazlearengan nabarmena da erabilera.<sup>3</sup> Andimendiaz beheiti etenik ez dago ezaugarri honetan; hona hemen Gesalazko adibide batzuk: *ideguico dire* ‘irekiko dira’ (374), *edegui* ‘ireki’ (379), *juntetu direla munduco su guciac eta isaico zaiola mundu guciari* (385). Baina bestalde, *iduki* dugu: *ia que eztugun iduqui veldurric* (383), eta *iruki* da Ollon ageri zaiguna ere, *xaiki* & *xeiki*-rekin batera (Erizk). Itzarreibarko Utergako dotrinan *irugui* ‘eduki’ dugu (216), baina baita *urigi* ere: *urigui zozu debocio ona* (218); *xagi* ere bazegoen: *guazetic saguicean* (212). Garesen *iruki* eta *itxigi* bildu zituen Bonapartek.

(1) Fonologiaren alderditik arazorik sortzen ez zen adibideetan, ulermenaren alde jokaturik, bereizi gabe loturik ageri ziren adizki nagusia eta laguntzailea bereizirik eman ditugu guk. Esaterako, *izulco du* edo *adi zace* eman ditugu <*izulcodu*> eta <*Adizace*>.

(2) Corpusetik kanpo utzi dugun idazki batean bada behin *ecusten* (Tes VI-1, 524), nahiz testu horretan usuenik *icusi* dugun.

(3) Behin etorkizuneko aldaera batean *iduco* ‘edukiko’ dakar J. M. de Iberoren eskuizkribuak (255); aldaera bera dago Dikazteluko idazkian ere: *condenatu guciac iduco luquete queja justoa* (Etxaniz 1999: 496). Hor pean “idugiko” ala “idukiko” ote dagoen jakitea ez da aise, Aezkoan egun ere entzuten baita bakan *iduko* ‘edukiko’, eta badakigu ibar honetan “idugiko” ezinezkoa dela.

Ekialderago Eguesibarko Elkanon *-ki* dugu: *yuki* 'eduki' (Ondarra 1982: 172). Lizarraga idazleak ere *-ki* zerabilen: *ebaki*, *edeki* 'kendu', *idiki* 'ireki', *iduki*, *urtiki(tu)* 'jaurtiki', *jaiqui* (Iraizoz 1978-79). Aspaldiago Beriainen testuetan *edequi*, *jayqui*, *yriqui* eta *yduqui* & *idduqui* ditugu.

Mendiaz bestaldera ere badira partizipioetako *-gi* saileko aditzen adibide batzuk. Burundan arras erabilia da atzizki hau: *goiz jagia*, *goiz gose* esaera Bakaikukoa dakar Ondarrak (1965: 404); Altsasun, berriz, *ebai*, *jagi*, *irei* bildu ziren (Izagirre 1967). Aranazko Arbizun *jagi* bildu da (EHHA). Ergoieneko Dorraon *ebagi* (EHHA) eta *irui* 'eduki' (I. Razkin) ditugu; Lizarragan *ebai*. Arakilen Uharteko inkestako *idugi* eta *jeki* ditugu (Erizk); Irañetan *ebagi* & *ebaki*, *udigi* 'eduki' edo *xegi* 'jaiki' aipa daitezke. Gastesi irañetarraren testuan *udiqui* & *yduqui* 'eduki' dugu (58). Arakamak dioenez (1994: 583), Sakanan barrena zenbat eta ekialderago jo, orduan eta *-ki*-dun aditz partizipio gehiago hauteman daiteke.

Iparralderago, Larraungo Allin *ebáki* bildu da (EAEL, 166) eta ekialderago Txulapaingo Usin *i(r)úki* ageri da (EAEL, 200); Nabazko datuetan *iduki* eta *xaiki* ditugu, eta Odietako Ziaurrizten *báki* 'ebaki' (EAEL, 201). Ezkabarteko Makirriango dotrinan *idduqui* (397) eta *idiqui* 'ireki' (401) ageri dira. Jakina denez, zenbatenaz Euskal Herriko mendebalderago jo, hainbatenaz erabiliago da *-gi* aldaera. Dena den, ekialdean *-gi* ez da gutzitz ezezaguna: *xagi* & *xaiki* 'jaiki' (Erronkari), *xegi* & *xeiki* (Aezkoa).

5.3.1.3. Partizipioko morfema *-i* duten aditzetan, aditz izena eratzean hizkera batzuetan *-t(z)e* izan beharrean *-itze* gertatzen da; biziki arrunta da hau aztertzen dihardugun inguruko hizkeretan. Hurrengo adibideak Goñerriko testuetarik hartuak ditugu: *uzicen*, *issuricen* (Eb); *azizen* (Mar); *egocizea*, *egocicen*, *icusiceco*, *icusicera* & *icusiceco*, *eroriceco*, *iquesicen*, *eracutisiceco*, *iculiceco*, *ecar(r)icen*, *acicias*, *ssarricen*, *ssanricen*, *acicen* (Ib); *orcicera*, *uticen*, *uticera* (Pre II); *asicen* (Pre III); *jancicera*, *jancicen*, *janciceco*, *asicen* (Pre IV); *jarricen*, *jaisicen*, *ezarrizen*, *icusizean*, *irebaciceco*, *azizen*, *ssaquin aracitcen* (Mur). Gesalatz bidelagun du Goñerriak honetan: *izulicen da ibillicera* (384), *eroricen denean* (372). Oltzan ere bada, Iberoko otoi-tza lekuko: *onetsicen* 'maitatzen' (146),<sup>4</sup> *ilcequi josicean* (149). Itzarreibarko Utergako dotrinan ere berdin: *eracusicen* (213), *uzizen* (209), *cusicia* 'ikustea' (206). Ekialdera Iruñetik goiti Ezkabarteko Makirriango dotrinan ere ageri da ezaugarri hau: *orzitzea* (382); egun Anotzen *ibillitzen* ageri zaigu (Artola 1985: 107). Ultzama alderdian ere erabiltzen da: *itzalitzen* & *itzaltzen* (Ibarra 1995b: 494). Testu zaharretan ere bada ezaugarri hau, Beriainen 1621eko *Tratado*-a lekuko: *assicen* (39, 40...), *jancicen* (10), *jarricen* (29); 1729. urteko prediku ezagunean ere badira adibideak: *uziceas* (172), *egozicea* (ibid.), *erdehichen* (ibid.) / *erdexten* (172)-rekin batean; Sakanan, ordea, ez da erabiltzen.<sup>5</sup> Elkanoko Lizarragak ez dakar adibiderik eta Aezkoan ere ez da ageri.

Bestalde, testu zaharretan ageri diren *-rten* aldaeren berri eman beharra dago: Beriainek gehien bat *etorceco*, *erorceco* eta *ezarceco* baldin badarabiltza ere, *erortera* dara-

(4) Adibide honetan geure interpretazioa da <ts> hori; testuan, gainean ikurra daraman <s> bat dago (146). Ezkabarteko dotrinan ere *onesi* dugu (395), baina baita *maitatzen* ere (398).

(5) J. L. Erdoziaren "Etxarri-Aranazko dotrina" lan argitaragabeak dakarrenez Etxarri alde horretan *asten*, *ixtén*, *ikusten* erakoak erabiltzen dira.

bil behin *Tratado*-an (94) eta behin baino gehiagotan dotrinan (84, 122); 1609ko Ioan de Eliçalderen olerkian ere *eçarten* ageri da (Kerejeta 1991: 166). Bidelagun dugu kontserbazio honetan mendebaldeko alderdi bat ere, Gesalazko testuetan *igortzen* (375) baitago. Muzkiko Elizalde, ordea, *ecarcea* (52, 68, 80, 91) eta *etorcen* (94) dakartza. Guk ez dugu Goñerriko idazkietan *-rien*-en adibiderik sumatu. Mendebaldera, Garcia de Albeniz araiarraren 1778ko idazki itzulian ere *etorten* aldaera dugu (Altuna 1995: 122).

Morfema *-tu* denean ere pleonasmoa ageri da Goñerrian, baina adibideak ez dira inondik ere hurbiltzen aitzineko saileko kopurura: *erresucitatuçeco* (Ib), *vistucen* (Pre I), *ostucen* (Mar, 231). *-n-z* bukatutakoan *galdinzen* ‘galdegiten’ dugu (Mur, 86 eta Ib, 663).<sup>6</sup> Gesalazten ere bada *-tutzen* —*gutitucen dutelaric numeroa* (388)— eta baita Itzarbeibarren ere Utergako idazkiaren lekukotasunean: *obratuzeco* (218).

Mendiaz bestaldera bizirik dugu joera hau egun ere; Burundan agertu da: *geldituzten* (Izagirre 1967: 74); baita Ergoienean ere: *piztuzten*, *nastutzeko* (Lizarraga); Arakilen Uharteko dotrinan dugu: *adityucen*, *errecibityucen* (Arakama 1994: 583), eta baita Urritzolan ere: *txeatuzten* (NEM I, 75). Txulapainen Beorburun *estütuzten* bildu du Artolak (1992: 215). Ultzaman ere bada: *urtuzten*, *biztuzten* (Ibarra 1995b: 494) eta Erroibarren idazki zahar batean adibide bat bederen bada: *galducera* ‘galtzera’ (Ibarra, argitarag.). Ekialdera Aezkoan ez da *-tutze* ageri eta Eguesibarko Elkanoko Lizarragak ere ez darabil honelakorik.

Goñerri ondoko Ergoieneraino iristen da mendebaldeko *-ketan* aldaera, Arabako *DLC* zaharrean eta Oñati-Leintz aldean entzuten dena: *asnéiketán ásten zaá* bildu zuen K. Seguroiak Dorraon (EHHA). Ez dago honelakorik Goñerriko datuetan.

5.3.1.4. Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan legez, partizipioko *-tu* atzizki pleonastikoa ezaguna da inguru honetako hizkeretan; Beriainen 1621eko *Tratado*-an ageri da: *iduquitu*, *egondu*, *ibildu*, *yzandu*, eta baita Leitzako 1626. urteko idazki batean ere: *yzandu* (Satrustegi 1987: 46). Baita beranduagoko Goñerrian ere: *iquendu*, *icendu* (Eb), *izandu*, *egondu* (Mar), *iquendu*, *icendu*, *ssaquindu* (Ib), *izendu*, *botatu* —baina Markotegik *bota* eta *botaco*— (Pre I), *jaquindu*, *izendu* (Pre III), *izandu* (Mur). Andimendiaz beheiti jarraipena du Oltzan gertakari honek Iberoko otoiitza lekuko: *izandu & icendu* (147), *iduquitu* (149) & *iduquitue* (147). Bonapartek, bestalde, *izendu* dakar Oltza eta Goñirako. Ollon ere bada: *ortzitu* ‘ezkutatu’ (Erizk), eta baita mendebaldera Gesalatz ibarrean ere: *vicitu* (372), *izandu* (373), *jaquindu* (381).

Andimendiaz bestaldean ere ageri da ezaugarri hau: Ergoieneko Dorraon *egondu*, *izandu* eta *jakindu* bildu ditu Isabel Razkin Lizarragak. Etxarrin *yoondu* ‘egon’ dugu eta Uharte Arakilgo dotrinan *izandu & bicendu* nahiz *mereciyu* (Arakama 1994: 583) eta baita Gastesi irañetarraren testuan ere. Baita goitiago Basaburuko Berueten ere: *eondu* (EHHA). Badira adibideak Ultzaman, Basaburura inguratzen garen ber ugalduz doazenak (Ibarra 1995b: 492-4). Ekialderat ezaugarria indarra galduz bezala doa: *egondu* eta *izendu* bildu ditu Esteribarren Ibarrek, eta *bizitu & bizi* daude Erroibarko

(6) Bada *echodoncen* ‘itxaroten’ Muruzabalgo 1751ko lehen predikuan ere (85).

Lintzoainen (argitarag.), baina Aezkoan ez dago *-tu* analogikorik. Beheiti, Elkanoko Lizarragaren idazkietan ageri dira: *izandu, etsitu, botatu, iraundu, vicitu, erchituco...*<sup>7</sup>

*-i* partizipioko atzizkiari dagokion kokagunean agertzea ere, Lapurdin eta Gipuzkoako alderdi batzuetan gertatzen den bezala, litekeena da Iruñerrian, eta aspalditik gainera: Beriainena da *ybildu & ibildu* (1621: 7, 54, 73 eta 126). Ollon *estaldu* eta *bigeldu* 'bidali' bildu ziren (Erizk), eta Arakil alderdi horretan ere ageri da: *ibilltu náiz* 'ibili naiz' Ihabarren (Artola 1992: 200). Joera honek jarraipena du ekialderago Basaburuan —*iillo* Berueten— baina baita mendebalderago Araba alde horretan ere: Landuchiorren 1562ko *Dictionarium Linguae Cantabrigae-n assitu, erabildu, viçitu* edota *yldu & iltu* 'hiltzea' ditugu. Portalek ere bazerabiltzan honelakoak: *egondu* (Kerejeta 1991: 176).

Euskal Herriko mendebaldean eta Gipuzkoako Goierrin nahiz Urola aldean *-adu* > *-au* kontsonante galera gertatzen da partizipioetan. Gaztelaniazko *-ido* partizipio-ko atzizkiak *-(d)u* eman du, bestalde, Euskal Herriko mendebaldean eta Gipuzkoako Urolaldean. Bi ezaugarri hauen hondarrak zenbait bederen bada aztertzen ari garen Goñerriko eremuaren ondoan. Burundan ezaguna da hau —bilakaeraren baldintzez eta eremuaz, cf. Zuazo (1994: 336)—. Ezker, Arabako Garcia de Albeniz idazle araiararren 1778ko itzulpenean ditugu ezaugarriok: *afligidu, encomendadu* (Altuna 1995: 121). Burundatik eskuin, Ergoieneko Dorraon ere ageri da, adibide bakar bat baizik ez bada ere; nagusi *-atu* sailekoak ditugu herri honetan, baina Koro Seguroiak *buéltau* bildu du EHHA-rako. Mendiaz bestaldera, Gesalatzen ere *-atu* sailekoak nagusi ziren XVIII. mendean, baina *-adu*-ren adibide pare bat bederen badugu: *moguiduco dire* (383), *botadu dezazquigun* (386). Ez da ageri honelakorik Goñerriko idazkietan.

5.3.1.5. Aditz sailen alorrean badira euskaraz hitzaren bukaeran *-n* edo *-o* morfema hartzen duten aldaerak; morfema bata dutenak geografia eremu batean kokaturik egon ohi dira eta bestea hartzen dutenak beste batean; inoizka, bi aldaerok eremu bakar batean egon daitezke, baina nekez gertatzen da hori. Gure eremuan bada bi erak batera ageri dituen hizkera zenbait:

*Igo*: Bonaparteren lekukotasunetan Goñi herrian bildua; Elkano eta Garesen *igan* ageri da eta Oltzan *io*. Goñerriko testuetan <*iguen*> ageri zaigu ordea: (Eb, Pre I, Elizk). Itzarbeibarko Utergako dotrinan ere <*iguen*> dugu (215). Ollon *Erizkizundi*-an *igo* bildu zen eta Gesalazko testuetan *igoceco* eta *igoco* aldaerak daude (378 eta 373). Goiti, ekialderago, Basaburuko Arraratsen *i(g)o* da aldaera: *góitti iðtzen* (EDEL, 189). Ekialderago, Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan *iyen* dugu (380, 387, 391), eta *i(y)éten* bildu du Artolak Anotzen 1981-2etan. *Erizkizundi*-rako Txulapaingo Nabatzen *ian* bildu zela dirudi.<sup>8</sup> Beriainek ere *ygan* darabil bere bi liburuetan eta Elizaldeak *igan*. Ekialderago *igan* dugu Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan eta *igen* Baztanen; Artzibarren *ian* dago. Andimendiaz bestaldera *iyó* eta lexikoki beste-lakoa den *itzo* ditugu Etxarrin (Karasatorre et alii), eta *OEH*-k dakarrenez *iyó* dago Larraunen eta Arakilen ere; *ijan* aldaera ere badakar Arakilerako *OEH*-k.

(7) Idazle honek *neurtu* nahiz *neurritu* darabiltza; azken hau *neurri* hitzean oinarritua dela dirudi; *gizon neurritua mintzatzean* partizipioko adibidea dakar Iraizotzek (1979: 143); bestalde, aditz adierarekiko adibide garbia dugu hurrengoa: *Orái ere dá preciso advertitza, ez neurritzécó Jangoicoan emén beítico guisará...* (1979: 121). Bonapartek Oltzan bildu datuetan ere *neurritu* ageri da.

(8) Ez da garbi bereizten *ion* ala *ian* den.

*Eramo*: Bonapartek Goñin bildua; gure inguruko testuetan J. M. de Iberok ere badarabil; *eramozen* jokatua, berriz, hurrengo testuetan dugu: (Ib, Pre II eta IV); *eramorik*: (Pre I); *eramoco*: (Mur). Goñerriko idazkietan hurrengoetan dugu *eraman*: (Eb, Mar, Pre II eta IV). Gesalatzan ere bi aldaerak ageri dira: *eramo cituena* (374) batetik, eta *nai zutela eraman* (382), <*eramazue*> (376) eta <*eramazuan*> (381), bestetik; Oltzan ere *eramo* bildu zuen Bonapartek eta Iberoko guruzpideko otoitzean *eramo* (147), *eramoteco* (150), *eramacera* (147), *eramazeco* (147) eta *eramatén* (147) aldaerak ageri dira. Ollon *guk eramozen dugu* bildu zen, ebakera frikariarekin (Erizk); horrela ebakitzen ote zuten Beriainek eta? Aspaldiagoko testuetan Beriainen *eramo* & *eramozen* aldaera dugu, hala dotrinan nola *Tratado*-an. Halaz ere *Tratado*-an, *Euscarasco capitivloen tabla*-n *eraman* ageri da, uste dugunez Beriainen *eraman* bakarra (Camino & Lakarra 1993: 1047). Elizalde Muzkikoak *eraman* / *eramate* darabiltza. Elkanoko Lizarragak *erman* nahiz *eraman* zerabiltzan; etorkizunerako *eramaco* aldaera dakar eguesibartarrak (1979: 248), baina baita *ermaco* ere—. <sup>9</sup> Mendiáz bestaldera *yaman* dugu Etxarrin (Maiz & Mundiñano 1998: 75).

Bestalde, ezaguna da *etzin* 'etzan' dela Nafarroako ekialdean erabiltzen den aldaera: Eguesibar, Erroibar, Baztan, Aezkoa, behe-nafarrera, Erronkari... *etzin* ageri zaigun eremuak ditugu. Andimendiaz bestaldera Ergoieneko Lizarragan ere *etzin* da partizipioaren aldaera, eta *OEH*-k dakarrenez Larraunen ere erabiltzen bide da. Gesalazko Muzkiko Elizaldek ere halaxe dakar dotrinan: *etciteracoan* (96). Zizurko Asteraingo toponimian "etzin" nahiz "etzan" ageri dira XVII. mendearen bukaerako idazkietan (Jimeno Jurío 1986: 142-3). Goñerriko aldaera ere "etzin" dela dirudi, hala baitakar J. M. de Ibero idazleak: *atredituco ciñeque, eçitera gauetes demonioat ondoan duzule?* (683).

5.3.1.6. Aditzetako beste txandaketa bat, morfologian agerpen urria duena —"ostendu", "gailendu"...—, *-tu* / *-e(a)ndu* & *-indu* dugu; gure eremuan badira adibide bakan batzuk: *arkindu* / *arkintzen* / *arkinduko* (Eb, Mur) dugu Goñerrian batetik, eta bestetik *arkitu* / *arkitzen* / *arkituko* (Mar, Ib, Pre I eta III, Mur). Elkanoko Lizarragak *aurkitu* aldaera zerabilen, baina *aurkintze* ere bada haren lanean. <sup>10</sup> Beriainek *baurquendu* (1621: 17, 98) & *aurquendu* dakar (111). Utergako dotrinan, berriz, *arquizen* dugu (212) eta Garesen ere *arkitu* bildu zen; Gesalazko testuetan ere *arquitu* (381) dugu, Oltza zendeako Iberoko kantuan bezala. Erroibarko kristau ikasbide batek ere *aurquitu* dakar (Saturstegi 1987: 264).

Hona beste adibide bat, arestikoak baino geografía hedadura zabalagoa duena: *atzendu* (Mar, Bon). Oltzan, Elkanon —Lizarraga barne— eta Garesen ere *atzendu* bildu zuen printzeak eta Utergako dotrinan ere <*azendu*> dugu (209); Ultzaman, Erroibarren eta Aezkoan ere *atzendu* dugu. Sakanan, berriz, *aztu* dugu Etxarrin.

Bestalde, *-tu* eta *-ndu* batera ageri zaizkigu Goñerriko hurrengo adibideetan: *ezautu* / *ezautzen* / *ezautuko* (Mar, Ib, Pre I eta III) batetik, eta *ezaundu* / *ezauntzen* / *ezautu-*

(9) ...*eguin bear zuéla lán gaichstoa, ermaco bazue ére Deábruac*: ikus Jesukristo, *Maria eta santuen bizitzak*, J. Apecechea eta F. Ondarra (arg.), Nafarroako Gobernua, Iruñea, 42. or. Lan berean *ermaco düt* dugu 58. orrialdean.

(10) *Celebratzen dá ochallarén bigarrenean: deitzen dá Ama Virginaren Purificacioa; baitaré Jesús onarén presentácioa témploan; baitaré Simeonen aurquintzea...* (Jesukristo, *Maria eta santuen bizitzak*, 1994, 28).



*ko* (Pre III) bestetik; azken aldaera hau ezaguna da ekialdera ere: *ezaundu* / *ezautu* dakartza Elkanoko Lizarragak; *zaundu* / *ezautu* ditugu Erroibarren eta *ezondu* / *ezoutu* Aezkoan, *izagundu* Zaraitzun eta *izaguntu* Erronkarin. Bonapartek *zautu* aferesiduna bildu zuen Oltzan eta Goñin eta *ezautu* Garesen. Mendiaz bestaldera *ezagutu* dugu Etxarrin (Karasatorre et alii).

5.3.1.7. Nafarroako hainbat lekutan bezala —eta baita Bizkaian ere (Holmer & Abrahamson 1968: 163)—, Goñerrian ere, 'aditz nagusia + adizki laguntzailea' egitura lotzean *-i* partizipioko morfema galtzea arrunta da. Goñin aurkitu Ebanjelioan bietarik adibide bana dugu: *etorri ce* (129) eta *etorce* (131). Gainerateko testuetan nagusi dira partizipioko morfema galtzen ez duten adibideak. Bonaparteren lekukotasunean ordea, galera nabarmena da: *ikuskot*, *ikusko du*, *ikuskogu*, *ikuskoze*, *ikuskote* (Ondarra 1982: 161). Sinkopa bera ageri da Eguesibarko Elkanon —Lizarraga idazleak ere baditu adibideak—, Garesen nahiz Oltzan Bonaparteren lanabesetan. Ollon ere bada: *ikus nue*, *tor zere*, *tor bear du* (Erizk), eta Gesalätzen ere ageri dira honelako adibideak: *izulco du* (375); Erroibarren (Ibarra 1995b: 133-5) eta Aezkoan ere ezaguna da aipatu bilakabidea.

Mendiaz bestaldean *ekar bittou*, *ekar dorue* eta *ikus ttue* adibideak bildu ditu Dorraon I. Razkinek; Etxarrikoak dira *etor neiz*, *ikes det*, *yos diau* eta *ibil da* (Karasatorre et alii 1991: 41), eta Uharteko dotrinan ere bada ezaugarri hau: *etorco*, *etor cenien*, *icus duzu* (Arakama 1994: 583).

5.3.1.8. Aditz nagusia eta laguntzailea lotzean kontsonante sudurkarian sortzen den metatesian zekusan Bonapartek desberdintasun bat Goñerriko hizkeratik Oltzarakora, Itzarreibarkora eta Elkanokora (cf. Ondarra 1996: 256-7): honela, *Le verbe-n xateunt* zekarren Elkanon, *jatont* Garesen eta *xataunt* Oltzan, edota *ikusteuntzu* Elkanon, *ikustontzu* Garesen eta *ikustauntzu* Oltzan, baina *ikusten duzu* Goñin (Ondarra 1982: 161) —halaz ere *xatonte* dakar Oltza eta Goñirako printzeak, hutsa ez baldin bada bederen (Ondarra 1982: 173)—. Goñerriko testuetan metatesi hori ez da kontsonante sudurkariarekin ageri, dardarkariarekin baizik: *beaurze* 'behar duzue' (Mur, 88), *beaurzu* (Ib, 99), *beaurt* (Ib, 255), *beirtuzu* (Ib, 699). Gesalazko testuetan sudurkariarekin gertatzen da, eta emaitza mota bat baino gehiagorekin gainera: *arrapa-ceintu* (373), *errateinzu* (380), *guardazeunt* (381); bestelakoa da *ofreciceizu* (380). Andimendiaz bestaldera ez dugu uste Sakana alderdi horretan sudurkariaren metatesia ezaguna denik. Ekialdera arrunta da bilakabidea: Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan, Artzibarren, Nafarroa Beherean eta Lapurdin honelako adibideak bildu dira (Camino 1997: 228). Iruñetik goiti, Olaibar ibarrean *n*-rik gabeko *ikusteaut* 'ikusten dut' bildu da Olaitzen, eta *leitzaut* 'irakurtzen dut' edo *yostaut* 'josten dut' adibideak Odietako Ziaurritzen (Yrizar 1992: 85); dena den, adizki laguntzaileak bi silaba baino gehiago dituen adibideetan ez dakigu bi ibar hauetan *-n*-rik ageri ote den; Ultzamako adibideetan ere ez dago sudurkariaren metatesirik (Ibarra 1995b: 432).

5.3.1.9. Etorkizuneko morfema *-en* da *-n*-z bukatzen diren aditzetan Goñerrian; Nafarroako beste leku batzuetan gertatzen den legez, ez dirudi bokal arteko *-n*- horri beti eusten zitzaiotik: Bonaparteren datuetan ez dago galeraren arrastorik, eta testuetan ere zinez bakan ageri da galera: *erranen & icenen* (Pre I), *egonen* (Pre II, 147), *icen-nen* (Pre II, 148), *eguiñen & erranen* (Pre III, 155), *joanen* (Pre V, 166), *izenen* (Mur, 88).

Ziurra da “Muruzabal 1751” testuko honako adibidea: *iquein direla guti escogituec* (88). Aldaera *n*-dunak nagusi dira maiztasunean J. M. de Iberoren lanean —*erranen, ique-  
nen, egonen, joanen*— baina *-n-* gabeko adibideak era badira noizbehinka: *joein* (253),  
*iquein* (250), *icein* (689), *egoín* (689), *emeiñ* (695).

Goñerri ondoko Oltzako zendeako Iberoko otoitzean ere lehen sudurkaria gabeko aldaerak ditugu: *izain dut* (Arraiza 1988: 148); baina baita sudurkaridunak ere: *eman-  
nen derela* (146). Ollon ageri dena sudurkaririk gabea da: *xain* ‘janen’. Goñerrikik beheiti Gesalatzan *-en* aurkitzen dugu, aditz nagusiko lehen sudurkaria galdurik: *izain  
da* (374), *juain dira* (ibid.), *egoín baita* (ibid.); inoiz, gainera, *-i* partizipioa duen aditz batekin: *etorriren* (383).<sup>11</sup> Itzarreibarko Utergako dotrinan *emanen* (210) eta *saquiñen* (212) aldaerekin batean, *izein* ‘izanen’ (209) ageri da, bokal arteko sudurkaria galdurik. Ordea, Garesko ezaugarritzat jo ohi den *-ko* saileko adibide zenbait bada Utergako testuan ere: *emanco* (207) & *manco* (205, 207). Garesen, ezaguna denez (Ondarra 1982b: 648), *janko* & *jain* edo *emanko* & *emain* pareak erabiltzen ziren. Eguesibarren ere badirudi bokal arteko sudurkaria galtzen zela: *xain dut* (Ondarra 1982: 172); Lizarraga idazlearen lanean, bestalde, ugari dira adibideak: *emain, izain, egoín...* (1990: 158, 170, 236). Aspaldiagoko Beriainen lanetan sudurkaria ez da galtzen ez *Tratado*-an ezta dotrinan ere: *joanen, egonen, emanen, izanen*, baina mende bete beranduagoko Gesalatz ibarreko Muzkiko Elizalderen testuan bada *-n-*aren galera, nahiz testuan nagusi diren galera gabeko adibideak: *emanen* (66), *izanen* (16), *egonen* (76) / *egoín* (75).

Mendiaz bestaldeko joera sudurkaria galtzea da, eta ezin atzendu da *-nko* saileko aldaerak ere erabiltzen direla hauekin batera. Areago, *-inko* pleonasma ezaguna da Bakaikun, *jainko* ‘janen + -ko’ aldaeran bederen (Ondarra 1982b: 649). Burundan sudurkaria galtzen da: *fain, esain, izein*; gainera, *fanko, inko, jakinko* sailekoekin lehian dago (Zuazo 1994: 337). Ergoieneko Dorraon ere bada galera: *izein, egoín* (EHHA); *-kol-go* atzizkia ere ageri da: *áu ezta ba izéngo zuméndurra?* (EHHA). Ondoko Lizarragan ere honelakoak erabiltzen dira: *izango, yonko* ‘egongo’, baina baita arestiko Gesalazko Muzkiko *etorriren* gogora dakarkigun hurrengo adibidea ere: *ibilen don* ‘ibiliko dun’ (NEM I, 39). Iduri luke hedatuxe zegoen ezaugarri hau hala Gesalatzek nola Ergoienak gorde dutela —mendebalderago Imozko Latasan ere agertu da adibide bat: *kúsiren’zu zuk aurkí* (EAEL, 191)—. Sakanan jarraiturik, Arbizun *eóngo* bildu da (EHHA). Etxarrin, berriz, bi sailetakoak ditugu: *einku et* & *einen det*. Ematen du, gainera, Etxarrin kontsonante sudurkaria ez dela erortzen: *einen, fanen, yaamanen, yoo-  
nen, esanen* (Karasatorre et alii, 1991: 42).

Arakilen, Irañetako mende hasierako datuetan sudurkariaren galera ageri da: *xaen*; baita Uhartan ere: *jaan* ‘janen’. Guk Ihabarren *jaen* bildu genuen 1982an. *-nko*-ren arrastoez denaz bezainbatean ekialdeko Arakilen ere ageri zaizkigula da aipatzekoa: *joánko* ageri da Ihabarren (Artola 1992: 198) eta *eónko* Urritzolan (EAEL). Iparralde-rago, Imozko Latasan ere honelakoxe aldaera bat ageri zaigu: *èonko* (EAEL, 191); Ultzaman eta Anuen *einko* edo *yanko* ereduko adibideak ere erabiltzen dira eta hauen arrastoak Basaburu eta Imotzeraino iristen dira (Ibarra 1995b: 502). Beheitixeago, bokal arteko sudurkaria galdu duten adibideak ditugu Txulapaingo Nabatzen: *xain*

(11) Juan de Amendux-en *baturen gara* ere aipagarria da; cf. Salaberri (1996b: 95).

*& yain*, eta berdin gertatzen da Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan ere: *main* 'emanen' (383). Erroibarren, Aezkoan eta Artzibarren bezala, kontsonantez bukatuetan *-en* erabiltzen da, baina Erroibarren entzuten dira inoizka *joanko & inko* (Gerendiain) edo *eramanko* (Mezkiritz) bezalako aldaera itxuraz berriak; bestalde, O. Ibarrek bokalez bukatuetan *-ren* duten bi adibide bildu ditu Erroibarren: *adituren* (Mezkiritz), *bilatoren* (Erro).

5.3.1.10. \**ezan* eta \**edin*-ekin osatzen ez diren baldintzako aditz egituretan etorkizuneko morfema erabili ohi da protasian hizkera anitzetan euskaraz; esaterako, gure eremuko mendiaz bestaldeko Ergoieneko Lizarragan bezala: *izango balitzeke beke-la* (Solís 1993: 112), *e eske tie dau intrankile ta fanko baziñeke Gertrudis zu tia ta bei ni fatie guai ezta komeni klaro* (119). Baina badira *-t(z)en* darabilten hizkerak ere; Goñerriko testuetan horrelakoak ditugu: *atracen baguinduque escrituric vecosquien* (Pre II, 146), *incertidumbre au tocacen balitzeque* (Pre II, 147), *visitecen baluquete* (Pre V, 165). Eguesibarren ere erabilia da era hau Lizarragaren lanetan: *ta galtzen baguinázque, orí izanen déla Jangoicoaren gracias Jesús onarén médos* [sic] (1984: 105); *galtzen bálitz au, gáldua dá cóncha ére* (145). Ezaugarri honek hedadura du: Ultzaman erabiltzen da — *geiego jaten banu* (Ibarra 1995b: 514)— eta Erroibarko idazki zaharretan ere bada: *ezpalu Jangoicoac zautcen becatue* (Satrustegi 1987: 271); Erroko idazki berean hizkera desberdinexa —literarioagoa agian?— ageri duen beste atal batean are \**ezan*-ekin dugu *-t(z)en*: *baldin ezauzen bazinduz* (Satrustegi 1987: 270). Ipar Euskal Herrian nahiz Bidasoa alderdian ere erabiltzen da *-t(z)en* baldintzako protasian.

5.3.1.11. Eduki dezakeen balio filologikoagatik besterik ez bada ere, adieraz dezagun Juan Martin de Ibero munarriztarraren testu anitzetan partizipioko atzizkia ez dela ageri indikatibokoak ez diren aldaeretan: *-(s)i / -(k)i* eta *-tu* bukaera duten aditzez dihardugu: *ycusece* (98), *yquesazu* (110), *iducece* (105) —baina *yduqui çece*—, *paga çogunegatic* (104), *orai ceite & orei ceite, errespeta çazquigule* (105), *sufri çatela* (108), *aguanza dezatela* (108), *ai çezquizu* (109); salbuespenak ditugu idazle honen *galdu deiçen* eta *manatu balezazquioque* adibideak (106 eta 107) edota *icusi baleza* nahiz *icusi bazenza* (661.ean biak); ohi denez, ezezkoetan aditzoina ez, infinitiboko aldaera ageri da maizenik: *es neitequela salbatu* (232), *eşaquerdeichi glorie* (233), *eşazule desconfietu* (241). Goñerriko beste idazki batzuetan ere baiezko perpausetan aditzoina dakusagu: *ar dezaquela condenacioco sentencie* (Pre III, 151). Halaz ere, badira Goñerrian partizipioko atzizkia ageri duten idazkiak: *icusi zazie* (Mar, 235), *condenatu ceisten* (Pre I, 142), *etorri deitequenean & contatu dezaquece* (Pre II, 147), *guelditu beitez* (Pre IV, 162); baina *considera balezate* (Pre IV, 163).

Oltzako zendeako Iberoko kantuan ere ez da falta honelako adibiderik: *iducazu misericordie nites* (146), *errecevi dezadan penitencieren gurutzea* (147). Itzarreibarko Garesen honelako adibideak ditugu Bonaparteren lekukotasunean: *ikus zala* (Ondarra 1982: 173). Utergako dotrinan ere bada: *encomenda ceit* 'enkomenda zaitetz' (218). Mende honen hasieran bizirik zegoen joera hau Ollon: *jar zaitte, xar zaitte, ken ortik* (Erizk); halaz ere aurkakoa ere bazen: *oraitu zaitte*. Txulapaingo Nabatzen *ken zaitte* bildu zen mende honen hasieran (Erizk). Gesalazko idazkietan ere *sar baledi* (378), *esca zagun* (378), *eror bazindaiz* (379-380) sailekoak ditugu, baina baita *sartu baledi* (378) edo *artu zagun* 'har dezagun' (389) bezalakoak ere. Eguesibarko Elkanon hona-

koa bildu zuen Bonapartek: *ikus zala* (Ondarra 1982: 172); halaz ere *-i* denean joera ez da betetzen Lizarragarengan: *ecarri gaizála, eramán, itzúli ta biúrr* (1984: 48); *alba-dezaquézu sínétsi, guciá dá possible* (79); ukapenezkoetan ere batzuetan ez da erregela zaharra betetzen: *ez dezáquet amátu* (110); aldiz, hurrengo adibideetan bai: *etzuquélaic logra* (1994: 113), *ezpaicíoquete erresisti* (64), *eztaiéla néca ta asarrátu* (121). Goiti Ezkabarteko 1828ko dotrinan *-tu* dutenetan erregela baiezko perpausetan gordetzen da —*santifica bedi, cumpli bedi* (379), *barca dechagule* (393)— baina ez partizipioko *-i* dutenetan: *torri bedi* (379), *eracusi dezaguzu* (380); espero zitekeenez ezezkoetan *-i* eta *-tu* atzizkiak ageri dira: *ezcachala utzi tentazioan erorzera* (394), *niori daus ebatsi eztezagule* (397), *progimo lagunen biziquirea guerendaco deseatu eztezagule* (397). Egungo mintzoari dagokio dakargun hondarreko adibide hau: *beño éztayéla oyálará... agarrátu* (Artola 1985: 105).

5.3.1.12. Nafarroa Beherean, Lapurdin, Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Nafarroa Garaiko hainbat bazterretan bezala, Eguesibarren, Ultzaman, Anuen, Esteribarren, Erroiabarren eta Aezkoan *-ki* aditz atzizkia ageri zaigu; hona Elkanoko Lizarragaren adibide bat: *ene Jauna izáqui ain ón amáblea beréz; ta berce álde ain nere amazále fña: eta alaére nic offendítu bere Magestadea?* (1984: 115); Aezkoako Abaurregainean bildua da hurrengoa: *nik erran fateko ta gonek guziak xakinki*. Hego-mendebaldeko geure hizkeretako idazkietan, bederen, ez da adibiderik ageri. Berebat, egungo mintzoan, inkestak egin diren Burundako Urdiainen, Arakilgo Arruazun, Imozko Goldaratzen nahiz Oskotzen eta Basaburuko Udaben ez da erabileraren arrastorik sumatzen (Iñigo, Salaberri & Zubiri 1995, *FLV* 69, 293).

5.3.1.13. Lekukotasuna zuzena izatera, aipatu ditugun ezaugarri guztietarik ‘-(z)en + ad. lag.’ loturan kontsonante sudurkariaren metatesirik ez egitea da Goñerriko berezitasun bakarra; egia esan, honelako huskeria bati ezin eman diogu garrantzi handirik.

Ekialdeko hizkeretan ez bezala, *-ki* eta *-gi* morfemak erabiltzen dira Goñerrian, ondoko Oltzan, hegoaldeko Gesalätzen eta Itzarbeibarren lege; iparretik Sakana du bidelagun. Arakilgo ekialdeko berri ez badugu ere, ezagun du Iruñetik goitiko hizkeretan, hots, gure eremuko ipar-ekialdekoetan, eta baita Eguesibarren ere, soilik *-ki* ageri dela, xvii. gizaldiko Beriain idazlearen lanean bezala. Aldiz, aditz nagusietako *-itzen* berrikuntzan bidelagun gehiago ditu Goñerriko hizkerak, ez baita atzendu behar Euskal Herriko erdialdeko anitz mintzotara hedatu dela: arestiko Gesalatz, Itzarbeibar eta Oltzaz gain, Beriain idazlea eta Iruñetik goitiko Ezkabarte nahiz Ultzama ibarrak gutienez, baina Sakana ez; *-tutzen* berrikuntza, berriz, Goñerrian, Gesalätzen, Itzarbeibarren, Burundan, Ergoienean, Arakilen eta Txulapainen gertatu da. Ekialdera ez dago aditz izenetan *-itzen* edo *-tutzen* berrikuntza Eguesibarren, Esteribarren, Erroiabarren ezta Aezkoan ere. Hona, orain, *-tu* pleonastikoa erabiltzea zein lekutan gertatu den: Goñerrian, Oltzan, Olloibarren, Gesalätzen —baina honetan Itzarbeibar badirudi kontserbatzaile dela, hango idazkietan ez baitzaigu adibiderik ageri—, Ergoienean eta Arakilen; Eguesibarren ere ageri da, Joakin Lizarragaren idazkietan hain zuzen. Beriain idazleak ere bazerabilen eta goitiko Basaburuan eta Odietan bederen bada egun; ez dago, ordea, Esteribarren, Erroiabarren edo Aezkoan.

Ekialderatekoa da *igan / igen / iyen* 'igo' aldaerak duen hedadura: Zuberoan, Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan, Baztanen, Eguesibarren, Itzarbeibarren, Iruñetik goitiko Ezkabarten eta Txulapainen gutienez ageri da, eta baita Goñerrian eta Beriain idazlearen lanean ere; aldiz, iparralderagoko Basaburuan eta Andimendiaz beheitiko Ollo herrian, Oltzan eta Gesalatzan *igo* dugu —baina Elizalde Muzkikoak *igan* dakar—, eta *iyó* Aranatzan, Arakilen eta Larraunen: Aranatzan eta Arakilen bada bestelako etorkia duen *itzo* ere. Arestiko elearen iduria da *atzendu*-ren hedadura: Goñerrian, Oltzan, Itzarbeibarko Garesen, Eguesibarren, Erroibarren eta Aezkoan erabiltzen da gutienez; *aztu* dugu Sakanan Etxarriko datuetan. Ekialdeko hizkerekin batzen du Goñerria *ezaundu* aditzaren erabilerak ere: Goñerrian, Eguesibarren, Ultzaman, Erroibarren eta Aezkoan *ezagutu / ezaundu* aukera dago; *izagundu* dugu Zaraitzun eta *izaguntu* Erronkarin. Aldiz, Oltzako zendea eta Itzarbeibarren *(e)za(g)utu* dugu, Sakanan bezala. Ekialderagoko Eguesibar eta Erroibarrekin nahiz Ultzamarekin batera doa Goñerria baldintza ez errealeko protasian *-i(z)en* atzizkia erabiltzeko aukeran ere; Andimendiaz bestaldera, *-ko*-ren adibideak ageri dira Ergoienean.

Desberdina da *eramo* aldaeraren hedadura, bilduagoa Goñerriaren inguruan: Oltzan, Ollaranen eta Gesalatzan ageri da, nahiz Elizalde Muzkikoak ez darabilen, baina bai Beriainek. Sakanan eta Eguesibarren ez da *eramo* erabiltzen, *yaman* batean eta *eraman* bestean baizik, ezta Eguesibartik ekialdera dauden hizkeretan ere. Bildua da *a(u)rkindu*-ren eremua ere: Goñerrian eta Beriainen lanean ageri zaigu, baina ez Oltzan, Gesalatzan edo Itzarbeibarren; Eguesibarren ere badirudi J. Lizarragaren lanean *aurkitu* dagoela.

Etorkizuneko atzizkien sailean berriz ere Gesalatz eta Ergoiena elkartzen dituen ezaugarri bat ageri zaigu; arkaismoa den arren '-i + -ren' egiturak mendebaldeko bi ibarrok bateratzen ditu. Bada, bestalde, partizipioko aldaeretan mendebaldeko ezaugarri bat, dirudienez Goñerriraino iristen ez dena, *-adu* atzizkiak dihardugu: Burundan sistematikoki ageri zaigu; egun Ergoienean eta Gesalazko XVIII. mendeko idazkietan *-atu*-k du erabateko nagusitasuna, nahiz *-adu*-ren honddar zenbait ageri den, Dorraon behin eta Muzkiko idazkian bi adibidetan; ibar hauetarik ekialdera ez da *-adu* ageri. Mendebaldean ageri zaigu aditz nagusiaren hasieran *e-* aurrizkia kontserbatze hori ere: *egorri* adibidea hala Gesalatzan nola Goñerrian bildu dugu eta ekialderaxeago Iruñetik goiti Atetzen *ebili*.

Partizipioko *-i* atzizkiaren sinkopak ez du inolako banaketarik finkatzen, gure eremuko hizkera guztietan gertatzen baita: Ergoienean, Aranatzan, Arakilen, Goñerrian, Gesalatzan, Olloibarren, Oltzan, Itzarbeibarren, Eguesibarren, Ultzaman eta Aezkoan bederen bada. Etorkizuna adierazteko atzizkian ere batasuna dago gure eremu guzti-guztitan: *-en* ibar guztietan ageri da *-n-z* bukatzen diren aditzetarako. Aditz nagusia eta laguntzailearen artean gertatzen den metatesiak ere hedadura zabaldu baina ez da gertatzen Sakana alderdian; ez dakigu, bestalde, Iruñetik goiti Odietan eta Olaibarren ageri den metatesi mota hegoaldekoago diren hizkeretan bezala *-n*-duna den ala gabea den. *-nko* bukaera itxuraz berriak ere hedadura handia du: Burundan, Ergoienean —baita *-ngo* ere hemen—, Aranatzan eta Arakilen dago eta iparralderago Imotzen berragertzen zaigu; irudi aski aleatorioa erakusten du,

halaz ere. Hegoaldeko Itzarbeibarko hizkerari ere izaera berezia ematen dio *-nko* honek, iparrerago dituen ibarretan ez baitzen erabiltzen.

*-ki* aditz atzizkia ekialdean dagoela ikusi dugu: Eguesibarren, Aezkoan eta Nafarroa Beherean ageri da, baina ez hego-mendebaldeko gure hizkeretan; ezaguna da Nafarroa Garaiko iparraldean aditz atzizki hau arras hedaturik dagoela.

### 5.3.2. Aditz laguntzailearen morfologia

Ohiko Euskal Dialektologian aditz laguntzailearen morfologiak bertoko eta kanpoko hainbat aztertzaileengan oro har eragin ohi duen mirespenaren ondorio zuzena da eremu hauetako hizkerak alderatzeko hona arteko beste sailetan izan dugun baino, arlo honetan lanabes ugariagoak eta sistematikoagoak izatea. Gauzak zertxobait argitzeko garrantzizkoa iruditzen zaigun bereizketa nagusi bat egin dugu aditz laguntzaileez jarduteko; lehenbiziko hogeita bost ezaugarriak morfologiak eragin bilakabideei dagozkie eta hondarreko hemeretziatan fonologiak adizkien forman eragin aldaketak aztertu ditugu.

#### Morfologiak eragin bilakabideak

5.3.2.1. Mendiaz bi alderdietako hizkerak banatzeko emankorra den ezaugarri bat pluraleko hirugarren pertsonaren egiletasuna adierazten duen *-te* morfema dugu. Ezaugarri hau Irañetatik eskuin ekialdeko Arakilen (Arakama 1994: 584) eta Andimendiaz hegoaldera dauden hizkera guztietan ageri da; aldiz, Ergoienetik Uharteraino bederen *-e* dugu morfema; Irurtzundik eskuin, Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten eta Ultzama inguruan ere *-te* dugu morfema, Eguesibarren, Artzibarren, Esteribarren, Erroibarren eta Aezkoan bezala.

Arestikoarekin loturik, ezaguna da datiboko morfema *-te-* dela pluraleko hirugarren pertsonan Nafarroako hainbat lekutan, besteak beste hegoaldeko goi nafarrera deitu izan den horretan: *diotet* 'diet' da, esaterako, Oltzan eta Goñerrian Bonaparte printzeak bildu aldaera eta *conveni zeio* 'komeni zaie' dakar Nor-Nori sailean J. M. Iberok (248). Gesalatzen ere honelakoak ditugu: *evogui zorko diotegula gure salvacioa* (377). Aspaldiago testuetan Elizalde ere badarabil: *ezconduey ematen diote gracia ongui viciceco* (78). Beriainek ere badakar bere *Tratado*-an: *ala manatu çuen erraten ciotela vere Apostoluey* (10). Beranduagoko testuetan Eguesibarko Elkanoko Lizarragak ere *-te-* darabil: *zayote, zekiote...* Garesen —*zayote, zekiote*— eta Utergako dotrinan ere badiugu: *nola guc barcazen diotegun gauren zordunegui* (Ondarra 1980: 217). Iparrera Gulibarren, Txulapainen, Odietan, Ezkabarten, Ultzama alderdian, Esteribarren eta Erroibarren ere *zaiote* 'zaie' saileko adizkiak ditugu; behin Aurizberri eta Aezkoara iristean *zae* & *zee* sailekoak dakuskigu.

Mendiaz bestaldera *-te-* morfema dugu Arakilgo Irañetan, Ihabarren eta Urritzolan, baina mendebaldera, morfema *-e* denez, adizkiak Andimendiaz hegoaldeko aldaeretik hein batez aldentzen dira: *dakio* 'zaio' / *dakiobe* 'zaie' ditugu Uhartan eta Arruazun, *daakiyo/daakiyube* Arbizun, *dakiyo* / *dakiyobie* Etxarrin eta *dakiyo/dakiyue* Ergoieneko hiru herrietan.

5.3.2.2. Nor-Nori saileko oraineko adizkietan *-ki-* artizkirik ez duten eta *za-* hasten diren adizkiak dituzten hizkeretan, lehen pertsona datiboko morfema *-da / -ra* edo *-de / -re* da: Gesalatz, Goñerria —baina ikus bedi 5.3.2.7.—, Olloibar, Oltza, Itzarbeibar, Eguesibar, Elortzibar, Gulibar, Txulapain, Odieta, Ezkabarte, Ultzama,<sup>12</sup> Atetz, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar eta Aezkoa batera doaz honetan. Ekialdeko Arakilen *-ki(d)e* eta *-de* —oraindik ere— ditugu: Urritzolan *zai*de eta *zai*kie bildu dira eta Satrustegin *zai*de; Ihabarren, berriz, *dakee* eta *dakie* erabiltzen ziren. Aldaketa mendebalderago gertatzen da, *-t* morfemarekin: Irañetan *dakee & dakie*, *dake* eta *dakit* ‘zait’ erabiltzen ziren. Arakilgo Uhartan berriz ere *dakie* dugu, baina Arruazun *dakit* dago. Arbizun (*d*)*aakit & dakitt* dago, eta baita Lakuntzan ere. Handik ezker Etxarrin *dakit* dugu eta Ergoieneko hiru herrietan ere *dakit & dakitt*. Baztanen eta Bertizaranan *zait* erabiltzen da.

5.3.2.3. Alokutibo maskulinoko aldaeretan ohiko *-k-* morfemaren ordain *-t-* dugu alderdi honetako hizkeretan hikako iraganeko adizkietan: honela, Goñin *nute* ‘ninduan’, *zezkideta* ‘zitzaizkidaan’ edo *niota* ‘nioan’ ageri dira. Oltzan gauzak antzera ziren eta baita Eguesibarren eta Itzarbeibarko Garesen ere. Gesalazko eta Olloibarko berririk ez dugu.

Iruñetik goiti gauzak desberdinak dira: Gulibarko Zian *niuken* ‘ninduan’, *zai*kieken ‘zitzaidaan’ edo *nioken* ‘nioan’ bildu dira, eta *-k-* bildu da Txulapaingo Beorburun ere. Odieta Latasen eta Gaskuen *nuken* ‘ninduan’, *zai*kieken ‘zitzaidaan’, *nioken* ditugu; datu guti dagoen arren Ezkabarten ere ematen du *-k-* zela morfema: *nuken* ‘ninduan’ (Anotz). Erroibarren bi sailtakoak ditugu, *zireta & zireteta* / *zireken & zireteken* aldaera bikoitzak lekuko. Iparreko Esteribarren, berriz, *-k-* dugu, ez *-t-* (Ibarra 1995: 306), baina hegoaldean *-t-*. Ekialderago Aezkoan ere *-t-* erabiltzen da; ditugun Artzibarko datuak ez dira aski deus adierazi ahal izateko.

Andimendiaz bestaldera ekialdeko Arakil Goñerriko ereduarekin batera doa: *nuten*, *zai*kieten, *nioten* (Urritzola); Ihabarren ere eredu bera zegoen. Aldiz, mendebaldeko Arakil ez doa *-t-* erabiltzen den hizkerekin batera: *nittuben* ‘ninduan’, *zai*kieben ‘zitzaidaan’, *nioben* ‘nioan’ (Uhart); Arbizu eta Lakuntza Uharteko sistema berekoak dira. Irañetan berriz, *-k-* erabiltzen zen: *niken* ‘ninduan’, *zai*kieken ‘zitzaidaan’, *nioken* ‘nioan’. Bestalde, Etxarrin eta Ergoieneko hiru herrietan ere *-t-*rekin zer ikustekorik ez duen beste sistema bat erabiltzen da.

5.3.2.4. Alokutiboko adizkietan maskulinoko morfema pleonastikoaren erabilek bereizten du Garesko euskara Eguesibar, Oltza eta Goñerrikotik; *diagu* (Elkano) eta *diegu* (Oltza, Goñi) ditugu batetik, baina *diaguk* Garesen. Femeninoan ere desberdina da egitura: *dinagu* (Elkano) eta *diñegu* (Oltza eta Goñi) alde batetik, baina *diagun* Garesen. Hirugarren pertsonakoak ere ez dira berdinak: *ditek* dugu Garesen maskulinoan, baina *die* Elkanon, Oltzan eta Goñin. Femeninoan *diñe* da Oltza eta Goñiko aldaera, baina *diten* Gareskoa; Elkanon, berriz, *diñen* pleonastikoa dago (Ondarra 1982: 192). Indikatiboaz landa ere antzera: *zaketagu* ‘zezakeagu’ dugu Elka-

(12) Imotzen eta Basaburuan *zaye* ‘zait’ da nagusia eta *zait* dago Etxalekun, Goldaratzen, Berueten eta Arraratsen (Ibarra 1995b: 423); Bonapartek *dit* bildu zuen Nor-Nori-Nork sailean Etxalekun, Goldaratzen eta Arraratsen, baina *dee* edo *dire* entzuten omen dira egun (445).

non eta Goñin eta *zaketegu* Oltzan, baina *zaketagus* Garesen; femeninoan ere berdin: *zakenagu* 'zezakenagu' dago Elkanon eta Goñin, eta *zakenegu* Oltzan, baina *zakenagun* Garesen.

Gainerateko ibar gehienetarako ere badira datu batzuk. Arakilen Ihabarren, Satrustegin eta Urritzolan, Gulibarren Zian, Txulapainen Beorburun, Ezkabarten Anotzen, Odietan Gaskuen eta Latasan eta Erroibarren Mezkititzen, Lintzoainen, Erron, Olondritzen eta Gurbizarren "diagu / dinagu" ereduko adizkiak bildu dira; halaz ere, Esteribarko Usetxin *diuk* 'diagu' erabiltzen omen da, nahiz ibar bereko Eugiko aldaera *diegu* arrunta den (Gaminde 1986: 200).

5.3.2.5. Ezaguna denez, iraganeko *-n* morfemaren agerpenik eza zen hizkera bat "hegoaldeko goi-nafarrera" izendatzen den euskalki horretan sartzeko ezaugarri garrantzizkoetarik bat Bonaparte printzearentzat. Beraren datuetan bederen, Goñerriko hizkeran ez da delako morfema hori ageri iraganeko adizkietan. Mendiaz haraindi, ordea, *-n* aurkitzen dugu ia salbuespenik gabe; *-n*-dunak dira Burundako, Ergoieneko, Aranazko eta Arakil guztiko —Ihabar eta Urritzola barne— aldaerak.<sup>13</sup> Berebat, *-n*-dunak dira Gulibarko, Txulapaingo,<sup>14</sup> Ezkabarteko, Odietako, Olaibarko, Ultzamako, Atezko, Anueko eta iparreko Esteribarko hizkerak; *-n*-rik gabeak dira Esteribarko alderdi bat eta Erroibar, eta Artzibarren ere *-n*-rik gabeko adizkiak erabiltzen ziren, Aezkoan bezala.

Morfema hau gabeko adizkiak ditugu Gesalazko, Oltzako, Itzarreibarko eta Eguesibarko hizkeretan. Idazleetan Beriainek nagusiki aldaera *n*-dunak zerabiltzan, baina baditu *-n* gabekoak ere; 1609ko Iruñeko olerki sarituetan, ordea, *-n* gabeko aldaerak dira nagusi; mende bete geroago, 1729ko predikuan, Elizalderen lanean nahiz Lizarragarenean *-n* gabeko adizkiak ditugu. Utergako dotrinan ere *-n* gabekoak dira adizki guztiak iraganean (Ondarra 1980: 177). Ordea, Oltza zendeako Ibero herriko guruzpideko otoitzean, bietarik daukagu: *ciñe* 'zinen' & *cizquiete* (147), *zindoaza* (149), baina *cioten* (147), *cen* & *cinducen* (149). Olloko mende honen hasierako lekukotasunean ere gabeak —nagusi— eta dunak ageri dira. Ohi denez, Goñerriko testuetan ere morfema hori gabeko adizkiak —gehienak— eta morfema hori dutenak ageri zaizkigu: esaterako, Ebanjelioan *cere* & *ceren* 'ziren' ditugu, eta lehen predikuan (Ondarra 1991) *zuen* & *ce*. Markotegik ere berdin: *zion* & *zio*. J. M. de Ibero idazleak *-n* gabeko adizkiak ditu denak.

Hain zuzen ere, ezaugarri honexek —inoizka *-n* agertzeak— eragin du Ollolibarko hizkera mendiaz bestaldeko Arakilgo aldaki dialektalean sartzeko Yrizarren jokabide monotetikoa. Gure arabera, ordea, —ikus bestalde Ludo Melis-en iritzia (1989: 72)—, hizkuntza batzuetan dialekto nagusiak bereizteko erabiltzen den arren, eta Kataluniako adibidea hurbil dugu, hizkera bat sailkatzeko sobera guti da ezaugarri bakar bat kontuan hartzea; jokabide honek arazo nabarmenak dakartza maiz askotan; hori, nolazpait, Bonaparteren garaiko ikuspegira itzultzea da, non ezaugarri baitezpadako —baina aldi berean nahikoa den— bat agertzeak, hizkera bat non kokatu edo

(13) Kasu bakan batzuetan Arakilen *-n* gabeko adibideak ditugu: Satrustegiko errotan *xan nu* 'jan nuen' eta *zunte* 'zuten' bildu ditu Artolak; ibar bereko Ekain *ezue entenditzen* ere bildu du (Yrizar 1992: 599).

(14) Nahiz eta adibide *-n*-dun ugariarekin batean *zé* dugun Beorburun (Artola 1992: 216).



non sailkatu erabakitzen duen. Guk, jakina, ezaugarri “baitezpadakoen” eta “ezin saihestuzkoen” argudioa baztertzeke eginahala egin eta ezaugarri multzoak kontuan hartuko ditugu.

5.3.2.6. Iraganeko adizki trinkoetako erroan ohiko *-e-z* gain *-a-* ageri zaigu batzuetan eremu honetako hizkeretan; aspaldiago aldaera *-e-*dunak zerabiltzan Beriainek: *cegon*, *cebillen*, *ceuden*; 1729ko predikuan ere, berdin: *zeizo*, *zeude*, *zeuca* (167). Gerora zail da ezaugarri honen arabera banaketak ezartzea, eremu anitzetan bi sailatarik baitago datuetan; adizki trinkoan *-a-* agertzeko arrazoia analogia morfologikoa ala asimilazio mekanikoa izan ote den da jakin beharko litzatekeena. Goñerrian, esaterako, aditz jokatu batzuetan *-e-* dugu Munarritzen sortu J. M. de Iberoren lanean: *cebille* (94), *cegó* (92), *nengo* (238), *cequien* (233), *ceriçon* (692); halaz ere, *zaude* ‘zeuden’ dakar (97), non morfologiaz landako *eu > au* aldaketa gertatu ahal izan den, alegiazko *laudequen* ‘leudekeen’ (671) adibideak erakusten duenez; *çozquelaric* ‘zeuzkalarik’ ere ageri da (93), non agian (*eu >*) *au > ou > o* egon daitekeen; antzera, *zoquen* ‘zeukan’ dakar beste prediku batek (Pre I, 140). “Ekarri” aditzean, ordea, *-a-*dunak ditugu, J. M. de Iberoren adibideak lekuko: *zacazquitela* ‘zekartzatela’ (243), *zacarra* ‘zekarren’ (243), *zacarte* ‘zekarten’ (243); pentsa ote daiteke analogiarekin zerikustekorik batere ez duen *e - a > a - a* asimilazio mekanikoa gertatu dela? Goñiko Ebanjelioan *-e-*dunak ageri dira: *cegolariquen* (129 eta 131). Markotegik *zauquen* ‘zeukan’ dakar (231) eta *zauden* ‘erlat. zeuden’ ageri da beste idazki batean (Elizk, 166), baina adibide hauetan ere *eu > au* gertatu ahal izan da; beste prediku batek *zeuden* dakar (Pre III, 155).

Gesalazko Muzkiko idazkietan ere antzera: *cego* (382) dugu batetik, baina baita *zauquen* ‘zeukan’ (384, 387) eta *zaude* ‘zeuden’ ere (382). Oltzako Iberoko gurutzebide kantuan ere, berdin: *zure penes zaucaten lastimagatic* (148), baina *cego*, *bada*, *beteric odoles aurpeiguia* (149). Elkanoko Lizarraga iduri du *-e-* duen eredu zaharragoari jarraitu zitzaiola: *zebilalác* (1984: 87), *cégo* (82), *etzeude* ‘ez zeuden’ (212), *zequiularic* (112), *néquie* (212), *zetórla* (141), *ceucáten* (erlat., 124), *ceucána* (134).

Goiti badira *-a-*dunak: *bazabillen*, *banakien* & *bazankuen* ‘bazeukan’ aldaerak dakartzate Txulapaingo Nabazko emaitzek eta hipotetikoan ere *balaki* dugu. P. Salaberrik dioskunez (ahozko lek.), Basaburuko Beramendi-Udaben ere badira adibideak: *nallen* ‘nenbilen’, *ziñakin* ‘zenekien’... Ezkabarteko dotrinan bietariko adibideak ditugu: *zeuden* (380) / *zauden* (382, 383); egungo mintzoan, *zábillela* bildu da Anotzen (Artola 1985: 107); Baztanen, esaterako, *-a-*dunak dira aldaerak, eta Ultzaman ere, nagusiki *-a-*dunak dira: *nakin* ‘nekien’, *zakin* ‘zekien’, *zagon*, *zabillen* —baina *zebilan* ‘zebilen’, *zeon* & *zion* ‘zegoen’—, *naukin* ‘neukan’, *zaukin* ‘zeukan’ (Ibarra 1995b). Erroibarren ere badira: *nagon*, *zauke*, *baldin bazabillen* (Ibarra, argitarag.), baina idazki zahar batean ageri diren aldaera gehienak *-e-*dunak dira: *baicequin*, *ceucan*, *cegon*, *cegonic*, *cebilzan*, *bacequien* (Satrustegi 1987: 264-6) / *zabilzan* (266). Aezkorian aditz batzuetara *-a-*dunak hedatu dira —*nákíe* ‘nekien’, *zakárre* ‘zekarren’—, baina ez Bidasoa alderdiko hizkeren mailaraino: *zéo* ‘zegoen’, *néngo* & *nindeo* ‘nengoen’.

Bestalde, Zuazok dioenez ekialdeko hizkerekin batera dator Sakana osoa Burunda barne iraganeko trinkoetako *-a-* horretan (1998: 220). *Erizkizundia*-k, esaterako, *banakien* dakar hala Arakilgo Uharten nola Irañetan.

5.3.2.7. Nor-Nori aditz saileko iraganeko nahiz oraineko adizkietako *-ki-* artizkia eremu honetako hizkeren ezaugarri nabarmena dugu. Ezinbestean garai oso desberdineko datuak baliatzen ari garenez, diatopia eta diakronia nahasten ahal zaizkigu, eta ondorio dialektologiko okerretara irits gaitzke. Dena den, hizkera guztietan XIX. mendean oraineko adizkietan ez agertzea aipagarria dela uste dugu.

Iraganeko aldaeretan mendiaz bi alderdietan dugu; hona mende honetako Andimendiaz bestaldeko adibide batzuk: *zaki(g)un* 'zitzaigun' (Lizarraga, Etxarri, Arruazu), *zakion* (Irañeta), *zakion* (Ihabar) eta *zaikion & zaion* 'zitzaion' (Urritzola).<sup>15</sup> Andimendiaz harat, berriz, XIX. mendeko bigarren erdialdeko Oltzako eta Goñiko *zekide & zekire* 'zitzaidan' nahiz Gesalazko Muzkiko XVIII. mende bukaerako *cer guertatu cequio* 'zitzaion' aipa ditzakegu (381). Eguesibarren eta Garesen ere *zekio* dakar Bonapartek. Erdialdetik Imozko Eraso eta Muskitzera,<sup>16</sup> Atezko Beuntzara, Ezkabarteko Anotzera, Odietara eta Anue ibarreko Egozkue eta Leazkuera hedatzen da eta ekialdetik Erroibar edo Artzibarreraino, baina ez Aezkoara.

Sakana alderdi horretan, ordea, oraineko adizkietan dugu ezaugarri hau: Aranazko eta Ergoieneko adibideez gain, *eztakie* 'ez zait' sailekoak ditugu Ihabarren, esaterako, edo Gamindek Uhartan bildu *dazkio* 'zaizkio' (1985). Burundan iraganekoetan baizik ez dira ageri *-ki-*dunak, baina *zizaidan*, *zizaizun* sailekoekin lehian, beti ere (Zuazo 1994: 333). Gogoan izan bedi Bonapartek Irurtzunen oraineko adizkietan bi sailtakoak bildu zituela, hala *zaide* nola *dakit* (Arakama 1994: 581); ondoko Gulibarko Larunben, ordea, *zaio* bildu du Artolak (EAEL), eta *zaide*, *zaizu*, *zayo* saila Zian. Imozko Etxalekun ere *dakio* erabili izan da orain artean, baina egun *zaio* entzuten da (Ibarra 1995b: 423-4).

Andimendiaz hegoaldeko eremuko hizkeren filologia ezagutzarako garrantzizkoa da adieraztea Goñerrian XVIII. mendeko idazkietan *-ki-* morfema agertzea hedatuago zegoela beranduagoko lekukotasunetan baino. J. M. de Ibero idazleak oraineko aldaeretan ere badarabil, egun Sakanan gertatzen den bezalaxe: *cerengatic atraco daquizquizu eingiruec* (93); *esçaquezu in gauce andiagoric eta zure arimeri iago valietuco daquionic, nola obedicea* (111); *belaurico ssarriçen daquizquio ceruen* (245). Baina bestelakoak ere badarabiltza: *arguitu ceio mundueri egun dichoso eta deseatu au* (96); *ematen ceigu enten-daçera* (241). Iraganerako ere badarabiltza aldaera *-ki-*dunak gure idazle munarriztarak, jakina: *convertitu cequizquiola gozo, eta alegrie andi betean* (97). Orainekoetan ageri zaigu "Muruzabal 1751" izeneko testuan ere: *escapacen daquio* (90). Hegoaldera Gesalaten ere oraineko aldaeretan ageri da artizki hau XVIII. mendeko testuetan: *cumplituco daquioite* (372), *nola atera beadaquio [sic] aungui negocioric?* (388), *gogorcen daquioite vioza* (389).<sup>17</sup> Baita Itzarreibarko Utergako dotrinan ere: *pertenecicen daquio & pertene-cicen daizquio* (204). Halaz ere, Garesko datuetan iraganean *-ki-* beharrean *zaiko* 'zitzaion' dakar Bonapartek (Ondarra 1982: 173), eta baita Oltza eta Goñirako ere

(15) Analogikoa ez bada, "\*edin"-i zor dakioke *-i-* hori, agian.

(16) Ultzaman egun ez omen da erabiltzen baina lehenago bazela dirudi (Ibarra 1995b: 425).

(17) Konpletiboko perpausaren osagarri gisa ere ageri da: *eztaiteque gertatu faltatu daquizun viarco egune* (380); *ezala permititu suceditu daquioten olaco desgracie* (390). "Na(h)i" aditzarekin ere ageri da Goñerrikotzar hartu dugun testu batean: *Jangoycoari nei dequiola* (Mur, 88).

(ibid.). Ordea, Elkanon, *zaiko* 'zaio' oraineko aldaera zen (Ondarra 1982: 172) eta iraganekoa, berriz, *zaikio*.

Aipagarria da, bestalde, itxuraz oinarria \**edin* duten adizki batzuk badirela lehen aldiko *-ki-* ereduari: J. M. de Iberok *aparecitu ceiquio demonio* 'zitzaion' (92) nahiz *etorri ceiquizquigu* 'zitzaizkigun' (235) dakartza; predikuetan ere badira honelako aldaerak: *ece antigoequi erran ceiquiotela* 'zitzaie' (141), *cer guertatu ceiquion ill ondoan juicioan* (152); ikus Salaberri (1994: 12, 10. oh.). Oltzako Iberoko kantuan ere berdin: *Emen minzatu ceiquioten Christoren Magestadea Jerusalemgo alabai* (150). Utergakoan bezala, Gesalazko testuetan oraineko adizkian ageri da: *deiquiote* 'zaie' (380).

5.3.2.8. "Joan" aditzaren oraineko aldaera trinkoetan ere aldea dago gure eremu-ko hizkeretan:<sup>18</sup> Goñerrian ez bezala *niyue*, *gue*, *diyue* saileko adizkiak ditugu Ergoie-nean. Ondoan *nue*, *gue*, *due* ditugu Lakuntzan eta Etxarrin, eta *nua*, *ua*, *dua* Arbizun. Arakilgo Arruazun eta handik ekialdera —Txulapainen, Odietan, Ultzaman, Anuen, Esteribarren, Erroibarren— *no(a)ye*, *go(a)ye*, *do(a)ye* sailekoak ageri zaizkigu. Goñerriko aldaerak ere sail honetakoak dira; hona testu zaharretako lekukotasun batzuk, erlatiboko edo konpletiboko atzizkia gora-behera: *noien* (Ib, 255), *noyen* (Pre IV, 161), *goye* (agint., Ib, 178), *doie* (Ib, 656), *duaie* (Mar, 236), *doiellaric* (Pre II, 147), *doiela* (Pre IV, 163).

Goñerrian *no(a)ie*, *go(a)ie* edo *doaie* berranalizatuak ditugun arren, hauen analogiaz sortu *goazi*, *zoazi*, *doazi* saileko pluralik ez dagoela aipatu behar da; pluraletan Beriainen —*noaye*, *obaye* baina *doacenac*— eta Elizalderen testuetako egoera bera aurkitzen dugu: *nola doacen gure egunec* (Pre IV, 161), baina *doiela S(a)n Francisco Guardianoaren gana* (Pre IV, 163); *zuas* (agint., Pre II, 156).<sup>19</sup> Bada Markotegiren agintezko aldaera berezi bat singularreko bigarren pertsonakoa, *-a* duena: *zoaza* (229); J. M. de Iberok ere badarabil *-a* hirugarren pertsonako pluralean, eta ez agintezkoan gainera: *eta beitoaza Glorieco descansu eternora* (253). Halaz ere, erlatiboko atzizkia dagoenean iduri luke J. M. de Iberok darabilen adizkia "doaz" zaharra dela: *infernure erorçera doacenac* (240), *anditus dacen becela* (673). Halaz guztiz ere, hemen arazoa diakroniakoa da gehiago dialektologikoa baino.

Gesalazten ere antzera gertatzen bide zen: *duei* 'doa' ageri zaigu singularrean (378), bokal epentetiko berria agerian duela, egituraren banaketa hau ohikoena ez izanik ere, eta baita *dueiela* (379) ere; bigarren pertsonan *zuacelaric* (379) dakar, analogiarik gabe, itxuraz. Eguesibarko J. Lizarraga ere egoera zaharrarekiko leiala da gehienik: *doaz* (1984: 123), *goaz* (144) eta *zoaz* (204) dakartza; halaz ere, bada haren lanean berrikuntzaren arrasto bat ere, hirugarren pertsonan hain zuzen: *Sanduaac, emendic doacínac Jangoicoaren fedean ta amórean* (145).

xx. mende hasierako Txulapaingo Nabazko emaitzetan *zoazi ortik* ageri da, pluraleko aldaeretara *-i* analogikoa iraganik (Erizk). Berriki Beorburun *goazi*, *zoazi* eta *doazi & dazi* bildu dira (Gaminde 1985) eta *-i* daramate pluraleko oraineko adizkiek

(18) Sakanako adizkiak Gaminderen lanetik hartu ditugu (1985) eta Goñerrikoak XVIII. mendeko testuetarik, ez baitzuen Bonapartek aditz trinkorik sistematikoki bildu.

(19) *Zuas*, *zuas madariquetue Infernuco su eterno artara* pasartean; lehen pertsonako pluralean *guazen* (agint., Mar, 236) & *guacen* (agint., Pre I, 139) ditugu.

baita Odietan, Ultzaman, Anuen, Esteribarren eta Erroibarren ere; Aezkoan *-a*-dunak hasten dira: *gaza*, *zaza* eta *daza*. Sakanan konplexua da kontua: Ergoienean *gu(e)ze* eta *du(e)ze* erabiltzen dira, baina baita *zuez* zaharragoa ere; funtsean hori bera da Etxarrin eta Lakuntzan gertatzen dena; aldiz, Arbizun *guez*, *zuez*, *duezte* dugu, eta Arruazun *goazte*, *zoaz* eta *doazte*; Uharten erregularragoa ageri da: *gazte*, *zazte* ‘zoaz’ eta *dazte*; Irañetakoa da hurrengo saila: *gaze*, *zaze*, *daza* & *dazte*.

5.3.2.9. “Ibili” aditzean Nafarroa Garaian berranalisiaren eraginez sortu ziren ‘dabil + bokala’ erako adizkiak Goñerrian ere ageri zaizkigu: *emen otsoa dabil*le dakar J. M. de Iberok (682) eta Markotegiren idazkietan ere bada adibide bat: *zain dabilla buelta ematen loi ziquiñan sarturic* (234). Eguesibarko J. Lizarragaren lanean ere bada: *dabilaláic* (1984: 124), non aukera bakarra ‘dabila-laik’ banatzea den. Beriainen eta Muzkiko Elizalderen lanetan ez dago aukerarik jakiteko, baina 1609ko Iruñeko olerki sariketara aurkeztu zen Ioan de Elicaldere idazkian *dabilla carriquetan* dakusagu (Kerejeta 1991: 165), berranalisi eta guzti. Egungo mintzoan erdialdean Ultzama eta Anue inguruan *nabille*, *dabille*, *gabiltze* eredukoak ditugu (Ibarra 1995b: 474), eta Esteribarren *na(b)ile*, *da(b)ile*, *ga(b)iltze* bildu ditu Gamindek (1986: 197). Ekialdera, egungo Aezkoako mintzo bizian *neila*, *yeila*, *deila* sail berritua erabiltzen da.

Andimendiaz bestaldera berranalisirik gabeko aldaerak ditugu Burundan —*nail*, *dail*, *gabiltza*— eta baita Etxarrin, Arbizun eta Lakuntzan ere; Ergoienean *na(a)ille*, *da(a)ille*, *ga(a)iltze* saila dago eta baita Arruazutik eskuin Uhartin eta Irañetan ere.

5.3.2.10. “Etorri” aditzeko aldaera trinkoak agintezko testuingururako gelditu dira Goñerrian Nafarroako beste leku anitzetan bezala eta “eldu izan” egitura ordezkatu ditu: *datozela socorrizera dauqueten necesidade andia* (Mar, 226); *zatoste Salvadorea-rengana, ece emanen dice medioac* (Pre V, 164); *zatoste bada confianza andierequi* (Ib, 678); *atoste niri contu ematera* (Ib, 246); *atoste, bada, erranen dicet* (Ib, 677).<sup>20</sup>

Puntukaritasuna honela adierazten da: *absolvi dezaque penitente damutassunarequi eldu denari edozain confessorac* (Mar, 240); *eta ni gaur Jangoicoaren celo ardiante batequin eldu naiz empenaturic arrancacera ene oyenten animoetatic descuido pernicioso au eriocearena* (Pre II, 145). Salbuespena dira egoera zaharragoaren lekuko diren hurranen bi adibideak: *Nórc pensatu ere bear du, datocela arren arimera Trinteteco iru personac?* (Ib, 237); *erran zadazu... nola bear bada erremedio bague negar eguiñen duzun datorren urtean!* (Pre IV, 158).

Olloibarren ere “eldu izan” egitura ageri da: *eldu den illerako; xeietik eldu dere* (Erizk). Gesalatzen ere “eldu izan” egitura erabiltzen zen: *icusico dute nube batean eldu dela Christo juzgacera potestade eta Magestade andi vatequi* (383). Aldaera zaharrak agintezkoetarako gelditu ziren Gesalatzen: *zatozte juzgaturic izatera* (385). Eguesibarko J. Lizarragak ere “eldu izan” zerabilen: *Jangoicoaren escutic, escu onetic eldu dá: artu óngui aláco escutic becala* (1984: 121); halaz ere, badira erabilera zaharraren adibideak Lizarragarengan: *cerén trabájuac, dirénac diréla, baitatózi Jangoicoaren escutic*

(20) Ohar bedi agintezko bigarren pertsona pluraleko aldaerotan *z-* galtzea edo disimilatzea litekeena dela J. M. de Iberoren idazkietan; Euskal Herriko erdialdeko hizkeretako aldaerara jo ote du idazleak? 1609. urteko Iruñeko olerki saritu batean *çatoste, çatoste, nay baduque jan* dugu (Kerejeta 1991: 165) eta *zatoste* dakar 1729ko predikua ere (168); egun *zato* eta *zatozte* erabiltzen dira agintezkoetan Erroibarren eta Aezkoan, esate baterako.

(1984: 118); ohart *-i* analogikoaz. Beriainek *nator*, *dator* saila zerabilen; *eldu* 'iristea' da haren lanean.

Burundan ordea, lege zaharrari jarraitu zaio eta aldaera trinkoak gorde dira. Gamindek Iturmendin bilduak dira *nator*, *dator*, *gatoz*, *zatoz*, *zatozai* & *zatozei* eta *datoz* (1985); Olatzagutian eta Altsasun ere bildu zituen sail honetakoak; Echaidek Burundako Ziordian *ónutsá datór* (1989: 321) dakar. Ez da honelakorik Ergoienean ezta Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte edo Irañetan ere: Unanun *onútz eldú uk* bildu zuen Echaidek eta guk geuk ere horrelakoak entzun ditugu herri horretan. Echaidek berak Lakuntzan *eldú die ónotz* bildu zuen; Murginduetan ez zen erantzunik bildu. Handik eskuin Txulapaingo Nabatzen *eldu den illebeterako* ageri da; Ezkabarten ere bildu dira adibideak: *Nik, básta... ezín bóta nión gañéra; eta gizon bát Make-rré(i)ngua, éldu zén kárro batéki... egurréki, t'esperátu nuén, gizon oré árará erdetsi ártio* (Artola 1985: 108); horrelakoak erabiltzen dira Odietan, Ultzaman, Anuen eta ekialderagoko ibarretan ere.

5.3.2.11. "Izan" aditzaren orainean Olloibar, Oltza, Goñerri eta Gesalazko *gada* & *zada* eta Elkanoko *gara* & *zara* ditugu alde batetik, baina Garesko *gare* & *zare* berranalizatuak bestetik (Ondarra 1982: 176); zaku berean sar dezakegu Elortzibarko Zabalegiko 1785eko predikuko *zare* ere (Yrizar 1992: 26). Bestaldera, goiti, *gara* eta *zara* ditugu beti Txulapaingo Nabatzen (Erizk), Ezkabarteko dotrinan, Odietan, Ultzaman —Imotz-Basaburuetan *gaa*, *zaa*—, Anuen, Esteribarren eta Erroibarren; ezaguna denez, Aezkoan *gira*, *zira* eredu analogikoa erabiltzen da. Andimendiaz bestaldera *gaa* & *zaa* ditugu Burundan —baina Olatzagutian *gada* & *zada*—, Ergoienean, Etxarrin, Arbizun, Lakuntzan, Arruazun, Uhartan eta Irañetan; Ekialdeko Arakilen ere *za(a)*, *gaa* bildu dira Ihabarren eta *gea* & *ze(r)a* Urritzolan. Dirudienez, beraz, soilik hegoaldean garatu ziren *gare*, *zare* ereduko aldaera berranalizatuak.

5.3.2.12. "Izan" aditzean Nor saileko pluraleko adizkietan *-de* morfema pleonastikoa eransten da inoiz Goñerriko idazkietan: *dirade* (Mar, 227; Pre III, 153 eta 155; Pre V, 165). Oltzako Iberoko otoitzak *ceiñ cruela zarade zu* dakar (151). Elortzibarko 1758ko Zabalegiko prediku batean ere ezaugarri hau ageri zaigu: *dirare*. Elkanoko Lizarragak ere bazerabiltzan honelakoak: *zarade*, *garade*, *dirade* (Yrizar 1992: 26-7 eta 474). Aipa dezagun *dirade* biziki nagusitzen dela Beriain utergarraren bi lanetan, baina ez dela honelako adizkirik ez XVIII. mendeko Utergako dotrinan ezta Garesko Bonaparteren XIX. mendeko datuetan ere. Gesalazten ere ez dago honelako adizkirik ez Elizalderen dotrinan ezta XVIII. mendeko Muzkiko predikuetan ere. Nafarroako erdialdean *dirade* & *dirare* txandaka ageri dira Ezkabarteko 1771ko udal agiri batean eta berriki, 1987an, Koldo Artolak *giñaden* aldaera bildu du Odietako Erripan (Yrizar 1992: 82), baina O. Ibarrek ez du Ultzaman honelakorik entzun (1995b: 417).

5.3.2.13. Nor-Nori-Nork sailean *\*-i-* erroa darabilte Andimendiaz hegoaldera dauden ibarretako hizkerek; iparreki aldera daudenek ere bai, Arakildik abiatuturik Esteribarreraino. Erroibarren *dakot* 'diot' sailekoak agertzen hasten dira, eta baita hegoaldetik Artzibarren ere; gauza jakina da Aezkoan *-ako-* erdua dagoela. Mendebaldean, Ergoiena eta Burunda alderdira hurbiltzen garen bezala, *\*eradun* oinarritik eratorritako adizkiak ditugu. Lizarragako eta Goñiko adibideak ezarri ditugu erakusgarri, baina oroitarazi behar da Etxarrin ere, esaterako, erabiltzen direla *doot*, *doo*,

*doogu*, *doobie* erako adizkiak (cf. Karasatorre et alii 1991 eta Maiz & Mundiñano 1998). Onddo-onddoan, Arbizun eta Lakuntzan, *dio*t saileko adizkiak erabiltzen dira.

Lizarraga: *doot* 'diot', *doozu* 'diozu', *doo* 'dio', *doogu* 'diogu', *doozie* 'diozue', *doore* 'diote', *dunt* 'dit', *duzu* 'dizu', *duugu* 'digu', *duzie* 'dizue' eta *doore* 'die' (Yrizar 1991: 416).

Goñi: *dio*t, *diozu*, *dio*, *diogu*, *dioze*, *diote*, *dere*, *dizu*, *digu*, *dize* eta *diote* (Yrizar 1992: 537).

5.3.2.14. Nor-Nori-Nork saileko adizkietan pluraleko *-zki-* zaharra edo *-it-* morfema analogikoa erabiltzen dira Nafarroan; hizkera batzuetan, gainera, biak ageri dira adizkietan; esaterako, Ergoieneko Lizarragan *-zki-* dakusagu batzuetan: *duuzkit* 'dizkit', *duzkizut* 'dizkizut', baina baita *-it-*ekin zerikusia izan dezakeen —ez baitezpada, hala ere— *tt-* ere: *dezu* 'didazu' baina *ttezu* 'dizkidazu' (Gaminde 1985). Oinarria \**eradun* duten Etxarriko Nor-Nori-Nork-eko adizki laguntzaileek *-zki-* nahiz *-tza-* morfema pluralgileak onartzen dituzte: *doozkiyot* & *dootzat*, *doozkiyok* & *dootzak*, *doozkiyobie* & *dootzabie* (Karasatorre et alii 1991: 48). Uhartre Arakilgo dotrinan *-it-* ageri zaigu: *dityidazule*, *dityizun*, *cityigun*, *tyiogun* (Arakama 1994: 581); ekialdeko Arakilgo datuetan ere *-it-* nagusi da: *ttizu* 'dizkizu', *zittizun* 'zizkizun' Urritzolan eta *ttizut* 'dizkizut', *nittizun* 'nizkizun' Ihabarren, esaterako. Eskuinera, Gulibarko Zian *ttio* 'dizkio' bustiduraduna dugu, baina Txulapaingo Nabatzen *tio* ageri da (Erizk), Odietako Latasan bezala; *ttio* bustia, berriz, Odietako Gaskuen. Ezkabarten *tigu* 'dizkigu' dugu dotrinan (381); *tiozu* eta *tiogu* ditugu Anozko egungo datuetan ere. Imotzen eta Basaburuan *-zki-* eta *tt-* erabiltzen dira, eta Ultzaman eta Atetzen *tt-*; Anuen busti gabeko *t-*dunak dira pluralak, Esteribarren bezala; Erroibarren *daizko* & *daizkio* saila hasten zaigu, baina badira bestelakoak ere: Mezkitzen *dizkio* / *zitio*, *nitio* bildu ditu O. Ibarrek (argitarag.); Artzibarren iduri luke ez direla *-it-* ereduak ageri; Aezkolan *dazkio*, *dazkit*, *zazkio*, *nizkio* saileko *-zki-*dunak erabiltzen dira.

Andimendiaz hegoaldera dauden ibarretan Bonaparteren garaian *-zki-* nahiz *-it-* morfemak erabiltzen zirela dirudi. Garesen orainean bi sistemak erabiltzen ziren, *dizkiot* eta *tizut* 'dizkizut' baititugu. Goñerriko testuetan denetarik dago: *tio*t edo *citio* Ebanjelioan, *dizquion* & *dition* Markotegiren lanean, baina soilik *dizquio* & *dizquit* & *dizquizut* saileko eredu zaharra J. M. de Iberoren idazkietan. Mende bete beranduago, Bonaparteren datuen arabera hala *-zki-*nola *-it-* erabiltzen dira bai Oltzan eta bai Goñerrian, zeharkako objektua zein den: esaterako, *nizkizu* / *nitio* bitasuna dugu bi ibarretan; gisa berean, *zizkizu* 'zizkizun' dugu Oltzan eta Goñin, baina baita *zitigu* 'zizkigun' ere. Arras hegoaldeko den Gesalatzek kontserbatzaileago dirudi, eta Martinez de Morentinen testuetan garbi ikusten da *-zki-* erabiltzen zela: *dizquiola* (386). Lehenagokoak diren Elizalderen dotrinako adizkietan ere *-zki-* dugu: *dizquio* (68), *dizquigute* (78), *dizquigu* (90). Mende bete lehenago idatzi zuen Beriainek ere *-zki-* sailekoak zerabiltzan hala *Tratado*-an —*dizquigun* (19)— nola dotrinan: *erraten dizquigun sentidoan* (85). 1729ko predikuan ere *dicquio* eta *dicquio*te dakuskigu, baina Joakin Lizarragaren testuetan eredu berritzailea dugu: *ditio* 'dizkio', *tida* 'dizkit', *tigu* 'dizkigu', *tio*t 'dizkiot'... Elkanon *tio*t, *tiozu*, *tio* eta abar bildu zituen Bonapartek.

5.3.2.15. “\*Ezan”-en pluralean *-zki-* morfemak ohiko *-it-* ordezkatu du geure eremuan XVIII. mendearen inguruan. Muzkiko Elizaldeak darabilen ohiko *balitz* ‘balitza’ aldaeraren ordain —*batec eraman baliz Sagrarioco Ostia guciac...* (75)—, Elkanoko J. Lizarragak ‘-za- + -zki-’ egitura berriko aldaerak dakartza: *ta firmeégo, ezi icus balézqui béguis* (1990: 178). 1729ko predikuan ere antzera gertatzen da ahaleran: *norc erran lezqui zure alabanzac dignoqui* (170); hurrengo ahaleko aldaera J. M. de Iberorena da: *erre, eta egosi beiguezazqui* ‘baikaitzake’ (668). Goñerrikotzat hartu dugun Muruzabalgo 1751ko predikuan aginteran ere pluraleko *-zki-* aldaera ageri da: *instruitu bezazqui ta mogui bezazqui... castigue bezazqui* (91). Bonapartek *bezki* dakar Elkano, Gares, Oltza eta Goñirako, ordea.

Goñerrian aldaera osoagoak ageri zaizkigu subjuntiboko adizkietan Nafarroako beste leku batzuetan baino: *dezazquigun* batek (Mur) edo *dezazquiela* batek (Mar, 232) nabarmen erakusten dute laburdurarik ez dela izan eta ‘-za- + zki’ oinarria osorik gorde dela.<sup>21</sup> Oltzako Iberoko gurutzebideko otoitzean ere aldaera osoak ditugu: *intencio chusenarequi eguin dezacquiden virtutearen obrac* (148). Beste leku batzuetan, *de-*ren ohiko galeraz gain, adizkiaren barreneko atal bat galtzen da, ekialderagoko Aezkoako *errezkiéla* ‘erre ditzala’ edo *ermazkitéla* ‘eraman ditzatela’ lekuko (Camino 1997: 444). Markotegiren *al dezazquien* ‘ahal ditzakeen’ adibidean ez bezala (231), Goñerriko hurrengootan *de-* galtzen da, baina ez da laburdurarik gertatzen adizkiaren barrenean: *iguiri zazquic* (Eb, 130), *errespeta çazquigule* (Ib, 105), *ai çezquizu... consejuac* (Ib, 109). Laburdura hori Eguesibarren gertatzen da, hurrengo agintezko adizkiak lekuko: *zkizu, zkik, zkin*; Garesen, Oltzan eta Goñin *zazkizu, zazkik* eta *zazkin* bildu zituen Bonapartek (Ondarra 1982: 217). Gesalatzan ere sinkoparik gabeko aldaerak ageri dira: *botatu dezazquigun* (386), *barcatu dezazquidala* (390), *confesa zazquigun* (389). Goñerritik eskuin, Ezkabarten *-zagabeko* aldaerak ageri dira pluralean: *barca dezquiguzu guri gueren zorrac* (379); Erroibarko dotrina batean sinkopa nabarmena dago: *ersquigun, segurazquigun* (Satrustegi 1987: 267). Artzibarren bietarik ditugu Urizko dotrinan, mailaka: *erranzquizu* (28) / *az dezquiten* (46).

Ipar Euskal Herrian ere bada *-zki-* pluralgilea aginte adizkietan subjektua bigarren pertsona denean bederen: berrikuntza hau Lapurdiko ekialdean eta Nafarroa Beherea gehienean betetzen da.

5.3.2.16. Euskal Herriko hainbat eta hainbat hizkeratan, esate batera Eguesibarren, pleonasmoa gertatzen da “edun” aditzeko “dituste” aldaeran subjektua eta osagarri zuzena hirugarren pertsonako pluralekoak direnean. Hegoaldera, Garesen (*di*)*tuzte* bildu zuen Bonapartek eta *dituste* dakar Utergako dotrinak ere; hori bera da hegoaldeko gure beste hizkeran, Gesalazkoan, nagusi ageri dena: *dituzte & dituste* (374, 384); halaz ere, behin *ditute* berria dugu: *cer pauso ibili dituten* (384). Goñerriko eta inguruko hizkeretan, ordea, ez da pluraleko *-z-*rik ageri, osagarri plurala adizkiko hasierako *t-*k markatzen du: *tute* ‘dituzte’ da Bonapartek Goñin eta Oltzan bildu zuena; halaz ere Oltzako Iberoko kantuan “dituste” zaharra ere ageri da: *conceditu ditusten indulgencie guciac* (146)—; Goñerriko J. M. de Ibero idazleak ere, aldaera zaha-

(21) “Edun” sailekoetan ere gerta liteke, J. M. de Iberoren *zinduzquite* ‘zintuzten’ (243) lekuko.

rrak zerabiltzan, *dituste* eta *tuste*, hain zuzen, ez *\*\*tute*. Beriainek ere *dituste* / *dituzte* sailekoak erabili zituen, eta (*di*)*tuste* da 1729ko predikuak dakarrena.

Arakilen bildu diren aldaerak txistukaririk gabekoak dira: ekialdeko Urritzolan *ttutelittute* eta Ihabarren eta Irañetan *ttute* erabiltzen ziren. Sakanan sistema aldatzen da: *tubei* dugu Burundan eta *ttubie* Etxarrin eta Arbizun; *ttue* Ergoieneko hiru herrietan erabiltzen da eta Lakuntzan,<sup>22</sup> Arruazun eta Uhartan *ttube*. Ekialdera, Gulibarko Zian eta Larunben eta Txulapaingo Beorburun ere *ttute* bildu da —eta iraganean *zittutén*, Larraunen bezala (Artola 1992: 216)—, baina ibar bereko Usin *tute*, bustidurarik gabe, Odietako Latasan bezala; Odietako Gaskuen bietarik dago, *ttute* eta *tuzte*; Ezkabarteko Anotzen, berriz, *tute* / *ditute*. Anuera orduko *tuzte* ageri zaigu Arizun, nahiz Ultzaman, oraino *ttute* / *zittuten* dugun (Ibarra 1995b: 435); Esteribarko mugan dagoen Egozkuen *tute* bildu da. Esteribarren *tute* dugu Iragin, *tute* & *tuzte* Eugin eta Erroibarko Zilbetin ere *tuzte* ageri da; Erron, berriz, *tute* eta *tuzte*, biak erabiltzen dira, Mezkitzen bezala, baina Lintzoainen *tuzte* dago soilik, Aezkoan bezala. Artzibarren *tute*-ren arrastoak badira, baina (*di*)*tuzte* edo *tuste* ez dira falta

5.3.2.17. Alderdi honetan ohi denez, iraganeko ahaleko adizkietan *-eza-* gabeko aldaerak zerabiltzan Nor-Nork sailean J. M. de Ibero munarriztarrak bere idazkietan: *esçuquela iñ* ‘ez zezakeela egin’ (110), *errespondatu cinduquie* ‘zenezakeen’ (101). Bigarren predikua izendatu dugun idazkian ere bada: *desafietu zuquia* (146). Bonapartek Oltza eta Goñirako honelakoak dakartza zerrendetan: *nik atzo xan nukkea* (Ondarra 1982: 174). Olloibarko inkestan ere bildu zen honelako adibide bat: *etzukia in*. Itzarbeibarko Garesko datuetan ere badira honelakoak: *nik atzo jan nukkea* & *Pedrok jan nukkea* (Ondarra 1982: 173). Eguesibarren ere erabiltzen ziren sail honetako aldaerak eta ekialderantz hedadura jarraia dute egungo Erroibarko mintzoan; Aezkoan baita oraineko aldaeretan ere (Camino 1997: 246 eta 445). Guk dakigula ez dago Andimenditik iparraldera honelako adizkirik ahaleko sailean. Etxarrin, esaterako, *mezaken* & *zezaken* sailekoak ditugu (Karasatorre et alii 1991: 53).<sup>23</sup>

5.3.2.18. Hala Goñerriko nola Oltzako hizkeretan, bigarren pertsona pluraleko aldaera *zindue*-ren analogiaz agian —*gindue*-eta tarteko direla— badirudi *indue* sortu dela singularrerako Nor-Nork sailean iraganean; hondarreko hau *yue* jatorrizkoarekin batera txandaketan ageri zaigu bi ibarroetan.<sup>24</sup> Eguesibarren eta Garesen ere *yue* / *indue* dugu. Ez dago honelako adizki analogikorik Burundan, Etxarri-Arbizun, Ergoienean, Lakuntzan, Arruazun, Uhartan edo Irañetan, ezta ekialdeko Arakilen ere: Urritzolan *yun* eta Ihabarren *yuen*. Gulibarko Zian eta Txulapaingo Beorburun ere ez dago: *yuen* erabili izan da. Antzera Odietan: Latasan *yuen* eta *yuenen* eta Gaskuen soilik *yuen*. Ezkabarteko Anotzen ere ez dago adizki berri hori, *yuen* baizik; Ultzaman, Atetzen, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan ere ez da ageri.

(22) Lakuntzan azken *-e* hori luzea da. Esan dezagun, bestalde, *cituten* dugula Lakuntzako hausterre eguneko prediku zahar batean (Satrustegi 1987: 234).

(23) Ez dakigu Gastesi irañetarrak darabilen *ecin ocultatu zuquien bere aurpeguico señalie* (58) adibideko “zukien” hori Arakilen arrunta izan ote den, baina Uharte-Arakilen honelako aldaerez galdezka ibili den Jose Luis Erdoziak ez du honelakoan arrastorik aurkitu.

(24) J. M. de Ibero *iñuen* ‘[eg]in + yue + -en erlat.’ dakar adibide batean (684).



5.3.2.19. Ekialderago dauden beste hizkera batzuetan ez bezala, ahaleko adizkietan ez da errepikatzen Goñerriko datuetan *-ke* aditz morfema: *zakegu*, *zakezu*, *zakeze* dirugu Goñin eta *zakegu*, *zakezu*, *zakezie* Oltzan (Ondarra 1982: 213). Gesalutzen ere, predikuak lekuko, ez da errepikatzen: *dezaquezu* (381), *eztezaquegu* (377).<sup>25</sup> Bestalde, Garesen bilakabide hau bazela esan den arren (Ibarra 1995: 301), ez dirudi erabili den erreferentzia —(Bonaparte 1990: 241)— egoki eman denik; Ondarrak argitaratu Bonaparteren adizki zerrendetan *zakezu* soila dugu Garesen, Eguesibarko Elkanon bezala (1982: 213). Goiti, Imotzen ez, baina Basaburuan eta batez ere Ultzaman ezaugarri hau badago (Ibarra 1995b: 439); Ezkabarteko Maki-riaingo dotrinan ere bada; hona adibide bat: *aparta baitechaqueguque* (384 eta 400). Mendebaldera Arakilen ere badago ezaugarri hau, Irañetako *zakeauke* —[sic], cf. Gaminde (1985: 87)— ‘dezaquegu’ eta *zakezuke* ‘dezakezu’ aldaerak lekuko. Ekialdetik dukeen hedadurarako Ibarren iritzia dugu orain (argitarag.): Gamindek Anueko Egozkuen, Esteribarko Eugin nahiz Erroibarko Mezkititzen *dezake(g)uke*, *dezakezuke*, *dezakezieke* sailekoak bildu zituen arren (1986: 190), O. Ibarrek Esteribar-Erroibarretan ez ditu inoiz entzun eta herrian ez direla erabiltzen jakin du Eugi-Iragi aldeko hitzun batengandik.

5.3.2.20. Goñi herrian Nor-Nori-Nork aditz sailean Bonapartek *zizute* ‘zizuten’ eta *dizute* aldaerak bildu zituen, baina morfemen gurutzatzea ageri da J. M. de Ibero idazlearen 1770. urteko prediku batean: *Arraciorequi deitu citezu Jesus...* (243); orainean ere badu adibide bat bederen: *egoçico ditezu beren maldicioa* (701). Berebat, Oltza zendeako Iberoko kantauak *zizkitezuz* ‘zizkizuten’ aldaera dakar: *tiracan eranci zizquitezumean ceure bestidure sagratuec* (151); Oltza herrian, ordea, *zizkizute* bildu zuen printzeak. Ez dago guztiz garbi, beraz, bilakabidea soilik Oltza alderdikoa den —eta Izun bereganatu zukeen J. M. de Ibero gure idazle munarriztarrak— edota Goñerrian ere erabiltzen ote zen.

5.3.2.21. Baldintzaren protasiko adizkiari *-ke* morfema txertatzea Euskal Herriko erdialdeko hizkera anitzetan gertatzen dena da; esaterako, Gipuzkoaz gain Goizueta aipa *dezaquegu* (Zubiri & Perurena 1998: 130). Bonapartek ez zuen honelakorik bildu ez Eguesibarren, ez Garesen, ezta Oltzan edo Goñin ere, baina Goñerriko idazkietan adibideak ageri dira: *acabatu bear baluque* (Pre II, 148), *eman baliguque* (Pre III, 152), *ezpaluquete vezela* (Pre III, 153), *ni banizeque confesorea* (Mar, 238), *eillegatu baciñeque becela* (Ib, 256), *eta artas landara libraçen bacinduzquique urquebeti* (681). Ollon ere *balitzeke* bildu zen (Erizk). Gesalutzen ez da berrikuntza honen adibiderik ageri eta iduri luke ez zela ibar hartaraino iritsi.<sup>26</sup>

Mendiaz bestaldera, Ergoieneko Lizarragan ere bada ezaugarri hau: *izango balitzeke bekela* (Solís 1993: 112); *fanko baziñeke Gertrudis* (119). Arbizun ere bildu du Echaidek *nai baluke* (EHHA). Arruazukoa da *dittek emán bali(u)ké díruá* (EAEL, 168). Handik eskuin Ultzama alderdian ere badira *banitzeke*, *bagiñeke*, *baziñeke* sailekoak,

(25) Halaz ere, bada adibide ambiguo bat, errepikatze hau adieraz lezakeena: *An escribicen citu vecarien culpac eta errausean escrivicearequi manifestatu cigu facilidade andierequi borratu dezazuquiquela* (376); hor dagoena ‘diezazkiguke’ baldin bada, ez dago pleonasmorik.

(26) Izan litekeen adibide batean ahaleko egitura dagoela dirudi eta ez baldintzako protasia: *bada, ezautu balezaque vecatarieq cer estado infelicen arquicen den, villatuco luque al instante remediue* (387).

*banitze* edo *balitze* sailekoak bezain erabiliak ez badira ere (Ibarra 1995b: 419); hona adibide bat \**ezan*-ekin: *al banezake inñen nuke* (439). Eskuinera ez da Aezkoan berrikuntza honen zantzurik ageri.

5.3.2.22. Behe-nafarreraz oraino gertatzen den bezala, Nor-Nori sailean *l-* alegiazkoa ageri zaigu aztertzen ari garen eremuko mendebaldean ipar nahiz hegoan; har bedi gogoan halaz ere, adibide batzuen eta besteen artean bi mendeko alde dagoela. Gesalazko Muzkiko testuetan *Ill balaquizu anaia bat* ageri da (382) eta honelakoxeak bildu ditu I. Razkinek Ergoieneko Dorraon 1989. urtean: *bala(z)kit*, *bala(z)kik/n*, *bala(z)kiyo*, *bala(z)kigu*, *bala(z)kizu*, *bala(z)kizie*, *bala(z)kiyorue*. Baita hurrengoak ere: *lakit*, *lakik/n*, *lakiyo*, *lakigu*, *lakizu*, *lakizie* eta *lakiyorue*, baina ez dakigu xuxen hondarreko hauek nola erabiltzen diren. Nor-Nori-Nork sailean XVII. mendeko Urdozko zinean ageri zaigu: *Eliza Sandu ontan escu egosten duenac Jaincoac valemoque castigu* (Saturstegi 1987: 53).

5.3.2.23. Goñerrian ez da batere arrunta zeharkako osagarriarekiko komunztadura hautazkoa izatea eta sintagma datiboaren marka adizkian ageri ohi da erabili ditugun idazkietan. Ebanjelioan adibide bat aurkitu dugu: *eman citue ostatarieri* (131). Aditz ez errealekin ere badira bi adibide; *nic contatu dezaquet zuegui nere Anayec Catalogo andi bet guizonena* (Pre I, 140); *disponitu zuen Jangoicoac bere obra alaco ordenarequin, bada desafietu zuquia siglo guciegui* (Pre II, 146).

Ezkabarteko Anotzen ere bildu da adibide bat egungo mintzoan: *Makerráingo eskólan, máten tzutén yatéra... aurréi, eskolára yoáten tzirénai* (Artola 1985: 108). Halaz ere ereduá bestea da, komunztadura gordetzen duena: *erráten tzién néri...: guayé!* (ibid.); izan ere, ezaguna dugu datibo komunztadurarik ez gertatzeko testuingururik egokiena hirugarren pertsona dela eta horrelakoa da Anozko adibidea ere (cf. Ortiz de Urbina 1994: 581). Erroibarren komunztadurarik gabeko franko adibidea bildu ditu O. Ibarrek eta guk ere bildu ditugu guti batzuk Aezkoan; Artzibarko adibidea dugu Urizko kristau ikasbideko hurrenena: *ori ez dezala niri galdein, ceren naicen, ignorantea* (17).

5.3.2.24. Egun Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan erabiltzen den ahaleko *-iro-* erroko adizkiak ezagunak dira Nafarroa Garaiko idazki zaharretan. Beriainek *diroque* zerabilen (1621: 43); adizki bera ageri da —*diro*-rekin batera— Miguel de Aldaz zeritzanak Iruñean 1609.ean egin olerkian ere (Kerejeta 1991: 163); 1729ko prediku ezagunean ere eredu hau dago: *guindiro* (168); Erroibarko dotrinan ere *diroque* dugu (271). Aezkoako idazkietan ere ageri dira, egun entzuten ez baldin badira ere: *ezpaitiro*, *eztiron* Loperena orbaizetarraren dotrinan edota *baiguirozque* Ariako dotrinan.

Bonapartek ez zuen honelako adizkirik bildu Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin egin inkestetan eta Goñerriko idazkietan ere ez dugu beren arrastorik sumatu. Iduri luke XVII. mendetik aitzinera galbidean gertatu den eredu hau Nafarroa Garaiko ekialdeko idazkietara mugatu dela; egun Zaraitzun entzun daitezke adizkiok erreinu zaharrea eta baita Ipar Euskal Herrian ere.

5.3.2.25. Arestiko ezaugarriari gertatu bezala, XVIII-XIX. mendeetako Goñerriko testuak idatzi zirenerako galdurik zeuden ahaleko, aginteko eta subjuntiboko *draz-*

ereduko aldaera laburdura jasanak, “\*ezan” eta *-ra-* batera dituztenak; Beriainen lanean edo 1609ko olerki sarituetan aurki ditzakegu *draçogun gatic* edo *draçaguzu* ereduko adizkiak,<sup>27</sup> baina ez dago honelakorik XVIII. mendean. 1729. urteko prediku ezagunean, Muzkiko Elizalderen edo J. Lizarragaren lanean, Gesalazko idazkietan edo Goñerriko J. M. de Iberoren lanean ez da honelako adizkirik ageri, ezta erabili ditugun ondoko gainerateko lanabesetan ere.

*Fonologiako bilakabideek adizkietan eragin forma aldaketak*

5.3.2.26. Bigarren pertsona pluraleko morfemak ere balio du gure eremuan hainbat banaketa ezartzeko: *-zie* palatalizatuaz gain *-ze* soildua ageri da Andimendiaz hegoaldeko hizkera berritzaile batzuetan, gure Goñerrian esaterako —Oltzarako *duzie* dakar Bonapartek—; oroit, bestalde, Elkanoko Joakin Lizarragak bi aldaerak erabiltzen zekiela, nahiz Bonapartek Elkanorako *-ze* baino ez dakarren. Aldiz, ez da atzendu behar, espero zitekeenez, eta 1609ko Iruñeko olerki saritu batean gertatzen den bezala, Beriain honetan kontserbatzaileago dela eta palatalizatu gabeko aldaerak darabiltzala (1621: 30): *...baycic erraten ciotela eguiçue eguiten duçuen, pensacen duçuela cer eguiten duçuen, zaudete gogos, eta pensamentus eguiten duçuen gauzan*. 1729ko predikuan, ordea, *-zie* ageri da adizkietan eta *zien* nahiz *zuen* aldaerak darabiltza genitiboko izenordainean.

Goñerritik beheiti *-ze* morfema ageri zaigu Gesalazten 1777ko predikuan: *adi zaze* (372); Muzkiko Elizalderen 1735eko dotrinan ez da ageri bigarren pertsona pluraleko adizkirik. Itzarbebarren, Utergako dotrinak *-zue* dakar: *zaizue* / *duzue*, baina *duze* da Garesko Bonaparteren inkestak dakarren aldaera; Elortzibarko Zabalegiko 1785eko idazkian ere *duze* dugu (Yrizar 1992: 31). Iparrekialdera *duzie* dugu Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Atetzen, Ultzaman, Anuen, Esteribarren, Erroibarren eta Aezkoan; *-zue* Baztanen dugu, *-ze*-rekin batean. Beste aldetik, Iruñe ondoko Guli-barren trantsizioa dago: Basaburu Handian, Imotzen eta ekialdeko Arakilen bezala, *duzte* dugu Zian eta Larunbeko Oraien auzoan, baina azken honetan *duzte*-rekin batean *duze*, *zute* eta *uzue* ageri dira; *-zte* hau, guri bederen, sinkopa jasan duen *-zute* dela iruditzen zaigu, non eta ez den *duze* eta *dute*-ren arteko gurutzaketa analogiko bat; *duzte* aldaera Arakilgo Satrustegin, Etxeberrin, Ekain eta Urritzolan ere bildu da; Egiarretan, berriz, (*d*)*uzue*.

Andimendiaz iparraldera Ergoienean baizik ez zaigu *-zie* ageri; ekialderantz, Sakanan *-zue* dugu, epentesiaren eraginez *-zube* bilakatu dena, Lakuntzan esaterako; Arbizun, berriz, *duzubié* bildu da hizketa geldian eta *duzuyé* erritmo arruntagoan (EHHA); Etxarrin *dezubie* dago.

Aipa bedi, bestalde, “zu”-ren izaera pluralaren arrastoak ditugula Gesalazten: *fingi zaze nai ducen sistema, forga zaze antojacen zaicen vizimodue, pretexta zaze eztuzula osasuneric, adin anizco duzula, eztizula permiticen zuen estadoac, edo villa zaze verce privilegiorem bat...* (377).

(27) Ikus orain gai honetaz G. Aldairen ekarria 1999ko *FLV* 81ean, 269-271.

5.3.2.27. Adizki laguntzaileetan *edun*-en oraineko aldaerek soilik ibar bat nabarmentzen dute aztertzeo hautatu dugun gure eremu guztian: Ergoiena, hain xuxen. Unanuko *dot, don, dok, dou & deu, dezu*, Dorraoko *dot, don, dok, dezu* edota Lizarragako *dot, don, dok, dau, dezu* adizkiek, Burundarekin lotzen dute Ergoiena eta ez Sakanarekin. Etxarrin ere *det, den, dek, dezu, dau & dou* sailekoak ditugu. Ordea, Arruazu, Uhartte, Irañeta, Ihabar, Urritzola eta Andimendiaz hegoaldeko lur sailtan adizki *-u*-dunak ageri dira, eta baita Arakildik eskuinaldera ere ekialdeko Erronkariraino; salbuespena Imozko eta Basaburuko *dot, dok/-n* eta *do*-k egiten dute (Ibarra 1995b: 431).

5.3.2.28. “Egon” aditzaren oraineko pluraleko aldaera trinkoen itxurak ere Sakanako alderdi baten eta Goñerriaren arteko banaketa ezartzeko aukera ematen digu.<sup>28</sup> Ergoiena eta Arakilgo Irañeta eta Uhartte aski desberdinak dira Goñerriko aldaeretik; aldiz, Arbizu bereziki, eta Arruazu eta Lakuntza ere, hurbilago dakuskigu Goñerriko aldaeretik. Hona hemen datuak: Ergoieneko hiru herrietan, *goi, zoi, zorie, doi* erakoak dira adizkiak;<sup>29</sup> Irañetan: *gue, zue, zuete, due*; Uharten: *gue, zue, zorie & zaurie, due*; Lakuntzan: *gauë, zauë, zaudie, dauë* —*a* eta *e* arteko hotsa adierazten du dieresi horrek—; Arruazun: *gode, zode, zooye, dode*; Arbizun: *gaude & gaure, zaude & zaure, zaudete & zaurete, daude & daure*.

Goñerrikoak, aldiz, honakoak dira: *goude, zoude, zeuste & zauste & zaute* —XVII. mendeko Urdozko zineko aginte adizkia azken hau—, *dode & deude*. Hegoaldera Garesko *Le Cantique*-n -zte plurala berragertzen zaigu: *ceruen gañean dauzten ur guciac*; Gesalaten ere ageri da (374): *gora zaite illic zaustenak* [sic]; ohart, gainera, egoera zaharraren lekuko dugula hor *zaite* adizkia pluralerako. Eskuinera goiti jorik *gaude, zaude, zauzte, daude* sailekoak ditugu Txulapainen, Ezkabarteko dotrinan, Odietan, Ultzaman,<sup>30</sup> Atetzen, Anuen eta Esteribarren gutienez. Fonologia bilakabideagatik, Goñerriko aldaeren antza hartzen dute Aezkoako adizkiek: *goude, zoude, zoute, doude*.

5.3.2.29. “Eduki” aditzaren aldaera trinkoetan erroko diptongoak jasaten dituen aldaketa eta monoptongazioen arabera ere ezar daiteke eremu banaketa zerbait. Iturmendin eta Bakaikun *dekat, dekatzat...* sailekoak ditugu (Zuazo 1994: 311); Altsasun *duka, dukaü* modukoak, baina *u/au* lehia dago Olatzagutian eta Ziordian. Ergoienean ere *-ak-* erako monoptongazioa dugu: Lizarragako *dakat, daka, zazkan* aipa daitezke. Etxarrin ere sail honetakoak ditugu: *dakat, dakazubie* (Karasatorre et alii 1991: 76); Arbizun, ordea, *dakat* eta *zakak*-ekin batera *daukat* bildu du Echaidek (EHHA). Arakileraino iristen da monoptongazioa: *dekat, deka, dekau* adizkiak ditugu Lakuntzan; beste monoptongazio mota da, ordea, Arruazukoa, bokal biribila eman duena: *dokit, doki, dokigu*. Uharten eta Irañetan diptongoa dugu: *douket, douke, douken* batean eta *dauket, dauke, dauken* bestean. Azken honen iduriak dira ekialdera hedatzen direnak, *dauket, dauke, daukegu* baitaude Txulapaingo Beorburun, Odietako Gaskuen eta Latasan, Ultzaman, Anueko Egozkuen eta Aritzun, eta Esteribarko Eugin.

(28) “Egon” aditzeko singularreko aldaeretan lehia sumatzen da Ergoienean: *no, do / nau, dau* pareak ditugu Dorraon eta Unanun. Arbizun eta ekialderago *nau, dau* sailekoak ditugu (Zuazo 1994: 311).

(29) Baina Ergoieneko Dorraon *daé* ere bildu da, Gipuzkoako Goierriko “dare” gogora dakarkiguna: *déna batién daé émen* (EHHA).

(30) Basaburuan eta Imotzen *gae, zae, dae / gai, zai, dai* saila ere bada (Ibarra 1995b: 486).

Goñerriko aldaerek diptongoari eusten diote gehienetan, honetan fonologiako bilakabideak izanik ere: *dauquegu* (Ib, 104), *dauzquinac* (Ib, 105); hurrengo honetan -oi- da diptongoa: *zoizquielaric* 'zeuzkalarik' (Ib, 177) —gogoan har bedi aldaera hau Ondarraren aldakikoa dela (1995), Satrustegirenean *çozquelaric* baitago (1987: 93)—. Iberorenak ez diren adibide batzuetan -eu- diptongoa dugu —ikus 5.1.1.14.—: *deuque* (Pre I, 137), *deuzquienac* (Pre I, 138), *deuquezelaric* (Pre III, 151), *deuzquien* (Pre IV, 157), *deuquet* (Pre IV, 158), *deuquegu* (Pre IV, 160); aldiz, monoptongaturik ageri dira hurrengoak: *estoquetelaric* —baina onddo-onddoan *deuquete*— (Pre I, 138), *zoquen* 'zeukan' (Pre I, 140), *estoquezu* (Pre II, 150), *estoquegu* (Pre IV, 160). Gesalitzen diptongodunak dira aldaerak: *dauqui* 'dauka' (382), *dauquegu* (376), *dauzquizu* (378), *zauquite* (381), *non zauquen* (384); Elkanoko Lizarragak ere diptongoari eusten dio bere lanean: *nauca* (1984: 171), *daucat* (121), *dauca* (147), *dauzquiéla* (191). Aspaldiago eredu berari jarraitu zitzaizkion Muzkiko Elizalde eta Beriain idazleak.

5.3.2.30. Goñerrian eta Oltzako zendea Nor saileko oraineko adizkietan bokal arteko -r- kontsonantea -d- bilakatu da —cf. 5.1.2.14.—: *zada*, *gada*; pluraleko bigarren pertsonan, ordea, bokal arteko kontsonantea galdu da: *zate*. Halaz ere, egoera zaharragoaren lekuko dirudien *etzadatela* 'ez zaretela' dugu Goñerriko prediku batean (Pre I, 143). Goñerriko testu zahar gehiagotan ere ageri da berrikuntza hau: *vicituco zada* (Eb, 130), *zaden* 'zaren' (Pre I, 139). Adierazgarria da J. M. de Ibero idazle munarritzarraren lekukotasuna: aldaera dardarkaridunak nagusi dira haren lanean —*zara* (93, 657), *zarate* (250)—, baina egoera berriaren lehen printza islatzen duen *zada* (656, 694) ere badakar bi adibidetan. J. M. de Iberorenak ez diren Goñerriko beste prediku batzuetan ere txandakera dago: *garenean & gaden* (Pre II, 146). Gesalitzen betetzen da berrikuntza hau: *cidan* 'ziren' (372), *ez zadate etorri* (372), *zidan & ciden* 'ziren' (374), *gadelaric* (376), *dide & dire* 'dira' (385 eta 383). Muzkiko Elizalderen dotrinan, ordea, *gara & zara* sail zaharreko adizkiak ageri dira beti. Olo herrian ere bazen ezaugarri hau mende honen hasieran: *gada & gavela & gadela...*

Eguesibarrek egoera zaharrari jarraitzen dio eta ez dago frikari horzkaririk adizki hauetan, *gara & garade* eta *zara & zarade* baizik. Itzarreibarko Utergako dotrinan *gada* (220) & *gadenean* (212) & *gadelaric* (211) ageri zaigu, eta baita *baitide* 'baitira' ere (214), goitiko hizkeretan legez. Garesen, itxuraz, ez dago ezaugarri hau: *zare*, *gare*, *zarate* eta *dire* adizkiak dakartza Bonapartek; aurkako norabidean, *zaida* eta honengandik datorren *zaira* 'zait' erabiltzen bide ziren Garesen.

Andimenditik iparraldera dauden herrietan soilik Olatzagutia da frikari horzkaririk dituen: *gada*, *zada*, *zadai*; Altsasun ez dago honelakorik eta ezta hortik eskuin ere: *gaa*, *zaa*, *zarie* (Etxarri, Lizarraga, Dorrao, Unanu, Uharte); *gaa*, *zaa*, *zaaye* (Arbizu, Lakuntza, Arruazu); *gaa*, *zaa*, *zaate* (Irañeta). Ekialdeko Arakilgo Ihabarren, Satrustegin, Zuhatzun, Ekain, Egiarretan, Etxeberrin, eta Urritzolan ere ez da adizki -d- dunik ageri (Yrizar 1992). Handik eskuin *gara* dugu Txulapaingo Nabatzen ere (Erizk). Datu berriagoetan *gara & zara* sailekoak ageri dira Gulibarko, Txulapaingo, Ezkabarteko, Odietako, Ultzamako, Atezko, Anueko, Esteribarko eta Erroibarko hizkeretan.

5.3.2.31. Nor-Nori-Nork sailean *dirazu* 'didazu' disimilazioa ageri da Garesen; Goñin ere, *derezu* (Bon) gisakoak ditugu, eta testuetan ere badira adibideak: *direte* (Pre II, 145). Bonapartek *Le verbe basque en tableaux...* lanean dakarrenez, Oltza, Goñi,

Gares eta Elkanon *didā* eta *dira* —maizago— erabiltzen dira ‘dit’ adierazteko; Muruzabalgo idazkian *dere* ‘dit’ dugu (88) eta J. M. de Iberoren lanean *dire* (665, 691).<sup>31</sup> Ez dirudi berrikuntza hau Gesalazten egiten zenik, Muzkiko testuetan *eztidazu erranen* ageri da (380); ez dugu Olloibarko daturik. Ezkabarteko dotrinan, esaterako, *diren* ‘didan’ eta *tirezule* ‘dizkidazula’ ditugu (403). Goiti Odietan ere *dire* ‘dit’ eta *direzu* ‘didazu’ sailekoak erabiltzen dira eta baita Ultzaman eta Anuen ere; Txulapainen ere *dire* & *direzu* ageri dira eta Gulibarko Zian *dere* ‘dit’ eta *derezu* ‘didazu’; Imotzen ere *dere* & *dee* ‘dit’ bildu du Ibarrek (1995b: 444). Ekialderago ere gertatzen da kontsonante disimilazio hau Esteribarren, Erroibarren eta Artzibarren (Ibarra 1995: 305); hona Urizko bi adibide: *diraten*, *dizquirala* (54). Aezkoan nagusi dira disimilazio gabeko *dada* ‘dit’ bezalakoak, nahiz aldi bakan *dara* ere entzun daitekeen.

Ekialdeko Arakilen bada *-d-* > *-r-* bilakabidea adizki hauetan: *dire* ‘dit’ dugu Urritzolan eta Satrustegin (Yrizar 1992: 597); Urritzolakoak dira ‘zidan’ adiera duten *zeen*, *ziren*, *ziden* eta *ziten* ere (588). Mendebaldera ‘didazu’ adizkian kontsonante ahula galdurik ageri da herri guztietan eta bigarren pertsonako morfema ez da beti *-da*, *-t* ere izan daiteke. Esaterako, Arbizun eta Lakuntzan *ditt* ‘dit’ eta *diezu* ‘didazu’ ditugu eta Arruazun *dit* eta *diezu*; Uhartan *die* eta *diezu* eta Irañetan *dee* eta *deezu*. Mendebalderago Ergoienean \**eradun* saileko laguntzaileak *-i-* errokoekin batera ageri dira: *duut* ‘dit’ eta *dezu* ‘didazu’ (Gaminde 1985).

5.3.2.32. “Izan” aditzean, iraganean nahiz orainean, Nor saileko hirugarren pertsona pluraleko adizkietan gibeleranzko bokal asimilazio berritzaile bat agertzeak ere banatzen ditu, bestalde, gure eremuko hizkerak —*dere* ‘dit’ gaia, ikus 5.3.2.2. azpiatanean—. Batetik Goñerria, Olloibar eta Oltza zendea ditugu, *dere* & *zere* ‘dira & ziren’ adizkiak erabiltzen diren ibarrak denak; Eguesibarko Elkanon ere aldaera horiexek bildu zituen Bonapartek iragan mendean, nahiz Lizarraga idazleak ez zerabiltzan hauek, *dire* & *dirade* zaharragoak baizik. Garesen *dire* & *zire* adizkiak erabiltzen ziren, eta horiexek ageri zaizkigu Utergako dotrinan ere; Goñerriaz behehitiko Gesalazko Muzkin eta Elortzibarko Zabalegin ez da ageri *dere* & *zere* saileko adizkirik.<sup>32</sup>

Asimilazio berri honen erabileran bidelagun ditu Goñerrikoak ekialdeko Arakilgo mintzoak ere, Irañeta —*zeen*, Gaminde 1985—, Ihabar —*zeñian* ‘zirenean’ (Artola 1992: 215)— eta Urritzolan ere bai baita ezaugarri hau. Iragan mendekoa izan daitekeen Lakuntzako predikuan ere *derela* ageri da (Satrustegi 1987: 231). Egun Andimendiaz iparraldeko Ergoiena eta Uhart bitarteko eremuan ez dugu honelako adizkirik, baina Altsasun *dee* dugu (Izagirre 1967: 73). Berriz honelako aldaerak aurkitzeko iparrerantz jo behar da. Gure eremuari hurbil, Gulibarren (Larunbe, Zia), Ezkabarten (Anotz), Odietan (Latasa, Gelbentzu) eta Olaibarren (Otsakain) ageri zaizkigu (Yrizar 1992 eta EAEL), baina ez Txulapaingo Nabatzen, *dire* baitakar *Erizkizundi*-ak; Ezkabarteko dotrinak ere *dire* dakar eta litekeena da, beraz, Ezkabarten *dire* > *dere* bilakabidea berriskoa izatea. Iparrerago, berriz, Larraungo Oderitzen ditugu *dere* motakoak eta ekialderago Basaburuan (Beramendi, Labaien) eta Zubietan

(31) “Eman” aditzaren aldaera trinkoetan ere berdin gertatzen da disimilaziorako aukera dagoenean: *Jangoicoac direla bere gracie* (Ib, 658); aldiz, bi horzkari ez daudelarik, ez da aldatzen: *idezu* (Ib, 659), *bide* ‘eman biezat’ (ibid.).

(32) Adibide batean *didila* ‘direla’ dugu Gesalazko Muzkiko testuetan (383).

(Gaminde 1985); O. Ibarak Imotzen nahiz Basaburuan bildu du *dee* (1995b: 416). Ekialderago, berriz ere *dere* asimilatua ageri zaigu Agoitzen nahiz Longidako Muge-tan (Yrizar 1992: 26), eta Artzibarko Urizko XIX. mendeko dotrinan ere hainbat adibe ageri da; Aezkoan *dira* zaharragoa dago.

XVII. mende Erdiko Goñerriko Urdozko zinean ez dago asimilazio honen arrastorik, *dire* baizik; beranduagoko asimilazioa ote den seinale? Ondorengo Goñerriko testuetan ere ez da beti ageri: *dire* 'dira' dugu (Mur) izendatu eta Goñerrikotzat hartu dugun idazkian, baina testu berean *dere* 'dit' dakar, gibelerantz asimilaturik; J. M. de Iberoren idazkietan ere, *dire* dago oraino. Beriainek ia beti *dirade* dakarren arren, bakanka *dira* ere badakar (1626: 98, 102, 121, 125 eta 172); 1621eko *Tratado*-an *diranen gatic* (70) du eta baita behin bederen *dirala* ere (55). Muzkiko Elizaldeek beti *dire* darabil.

5.3.2.33. Iraganeko Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork aditz sailetako *-nd-* kontsonante taldea bokal sabaikariaren ondoren bustitzea edo ez bustitzea diakroniaren arabera aztertu behar da gure eremuan. Andimendiaz hegoaldera dauden eremuetako lekukotasunetan oro har jatorrizko *-nd-* ageri zaigu, Goñiko *gindio* 'genion', *zindio* 'zenion' edo *gindue* 'genuen' lekuko; halaz ere, Oltzan Bonapartek Nor-Nork aditz sailean bildu adizkietan osagarri pluraleko *ziñitue* 'zenituen' eta *giñitue* 'genituen' bustidura-dunak ditugu; hauekin batera Nor-Nori-Nork saileko *zindio* 'zenion' edo *gindio* 'genion' adizki *-nd-*dunak erabiltzen ziren Oltzan eta baita Nor-Nork saileko *zindue* 'zenuen', *gindue* 'genuen' edo *zindute* 'zenuten' ere, arestiko bustiek ez bezala, osagarri zuzena singularrean dutenak. Garesko eta Eguesibarko Elkanoko adizkietan, Oltzakotan ez bezala, *-nd-* taldea erabiltzen zen Nor-Nork sailean osagarri pluralarekin: *zinditue* 'zenituen' & *ginditue* 'genituen' (Yrizar 1992: 625). Gesalatzan ere *-nd-* dago Nor-Nork-eko aldaeretan: *ofenditu cinduenean* (388), *guindue* (382), *ezindute* 'ez zenuten' (375), *esperatuco cinduque* (378), *alborotatuco cinduca* 'zenuke?' (379), *guinduque* (371); "egon" aditzarekin ere ez da bustidurarik gertatzen: *bacindaude* 'bazeunde' (382).

J. M. de Ibero munarriztarrak palatalizatu gabeko aldaerak zerabiltzan iraganeko adizkietan: *cindio* 'zenion', *cindue* 'zenuen', *cinditue* 'zenituen', *cinduque* 'zenezakeen'... Inoiz, salbuespen berritzailea ageri da, baina bakan biziki: *ofenditu ciñuenean Juan divino ore* (656), ondoan *cinduen*, *cinduela* nahiz *cindula* dakartzala (ibid.). Geure terminologiaren arabera "bigarren prediku"-a izendatu dugunean ere (*FLV* 57, Ondarra 1991) busti gabekoak ditugu: *guinduque* 'genuke' baldintzaren apodosian (146). Badira, halaz guztiz, aldaera bustiak bigarren prediku honetan, pluraleko bigarren pertsonan, esaterako: *ciñuquete* 'zenukete' (149), *baciñute* 'bazenute' (ibid.), *ciñutenean* 'zenutenean' (ibid.); aldiz, "eduki"-rekin baldintzako protasian busti gabeko aldaera dugu: *bacindu-quete* 'bazeneukete' (ibid.). Sorta honetako hirugarren predikuan Nor-Nork saileko adizki indikatibo arruntak ere bustirik ageri zaizkigu: *ciñuen* 'zenuen' (152), *ciñuten* 'zenuten' (154), *ciñuen* 'zenituen' (155). "Jakin" aditzaren trinkoen artean ere ageri da: *etcñequiela* (Pre III, 155), eta baita "izan" aditzean Nor saileko ahaleko aldaeretan ere: *salva guiñezquelaric* (Pre III, 156). Berdin laugarren predikuan: *guiñuen* 'genuen' (159), nahiz Bonapartek Goñin bildu adizkietan *gindue* ageri den.<sup>33</sup>

(33) "Langarika" izeneko testuan ere bietarik ditugu: *bacindoque* 'bazeneuka' (Satrustegi 1987: 142) eta *guinduque* (146), busti gabe, baina *ciñuque* (144), *ciñusten* 'zintuzten' (157) eta *guiñuen* 'genuen' (158), bustirik.

Ez dakigu xuxen arestiko adibide horietan guztietan zinez *-nd-* dagoen ala busti dena *i* ondoko sudurkari soila den. Esaterako, *gindue* ‘genuen’, *zindue* ‘zenuen’, *zindute* ‘zenuten’ ditugu Erroibarko Lintzoainen eta Mezkitritzen nahiz Aezkoako Garraldan, eta *giñuen*, *ziñuen*, *ziñuten* Anueko Egozkuen, baina *ginuen*, *zinuen*, *zinuten* Esteribarko Eugin eta *ginue*, *zinue*, *zinute* ibar bereko Urtasunen eta Userxin (Gaminde 1986: 188). Artzibarren ere *zindue*, *gindue* saileko busti gabeak ageri dira inkeste-tako emaitzetan eta Urizko dotrinan *ginduque* ‘genuke’ eredukoak ditugu (35).

Testu zaharrei erreparatuz gero nabarmena da bustidura berankorra dela. Berriak *-nd-* darabil beti: *Tratado-an bayquinduen* (17), *zor guinduen* (71) eta *cinduela* (57) ageri dira, esaterako; Dotrinan *cinduen* (100) eta *guinduen* (107). Gesalazko Muzkiko Elizaldek ere ez du bustiduraren adibiderik: *non erredimitu guinduzan* (23). Egun aldaeron txandaketa adibide nabarmenak bildu ditu O. Ibarrak: Ultzaman hedadura handia bide du *giñue-k*, eta apala *gindue-k* (1995b: 437); Erroibarren *gindekon & giñekon* ‘genion’ bildu ditu Mezkitritzen eta “eduki” aditzaren iraganeko aldaeren artean *ginduke & giñauke* ‘geneukan’ nahiz *zinduke & ziñauke* ‘zeneukan’ (argitarag.). Erroko dotrinan bada bustidura arrasto zenbait: *izan giñuen* (Satrustegi 1987: 271).

Andimendiaz iparraldera dauden hizkeretan, berriz, *-ñ-* dugu, zeina, esan dugunez, agian *-in-* soiletik datorren. Ergoieneko Lizarragan *giñuen* ‘genuen’ dago eta Nor-Nori-Nork sailean *giñon* ‘genion’; Arakilgo Irañetan *giñun* ‘genuen’ eta Ihabarren *giñuen*. Eskuinera, *ziñuen & giñuen* ditugu Gulibarko Zian, Txulapaingo Beorburun, Ezkabarteko dotrinan (386 eta 398), Anozko egungo datuetan, Odietako Latasan eta Gaskuen, eta baita Anueko Aritzun eta Egozkuen ere. Arestian adierazi legez, Esteribarko Eugira orduko *zinuen & ginuen* sailekoak ditugu, eta Erroibarren, arestian aipatu txandaketaz landa, Mezkitrizko *zindue & gindue* sailekoak.

5.3.2.34. Nor sailean ere bada *-nd-* kontsonante taldea gure eremuan pluraleko lehen eta bigarren pertsonetan: *ginda* ‘ginen’, *zinda* ‘zinen’, *zindate* ‘zineten’ ditugu Garesen batetik, eta *zinde* eta *ginde* Oltzan, bestetik. Goñin, *ziñe & giñe* bildu zituen printzeak. Halaz ere, Oltza zendeako Iberoko gurzpidetako otoitz itxuraz fidagarrian *ziñe* eta *ziña* aldaerak ageri zaizkigu. Bestalde, Bonaparteren beraren datuetan pluraleko bigarren pertsonan *ziñete* ageri da Goñin nahiz Oltzan, baina Oltzan *zindete* ere izatea litekeena da (Yrizar 1992: 512). Gesalatzen ez zegoen honelakorik: *ziñate* dugu batetik (375) eta *ciñaque* ‘zinateke’ bestetik baldintzaren ondorioan (378). Eguesibarren ere ez zegoen: *zina*, *gina*, *zinate*.

Mendiaz bestaldean Burundan berragertzen zaigu ezaugarri hau: *ginan & gindan* eta *zinan & zindan* pareak ditugu bertan, baina ez Etxarrin eta Arbizun, Ergoienean, Arakilen, Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Anuen ezta Esteribarren ere. Erroibarren *gine & ginden* bildu ditu O. Ibarrak Mezkitritzen (argitarag.). Delako *-nd-* talde hori despalatalizaziotzat hartu baldin bada ere (Irigoyen 1987: 28), aitor dezagun anitz leku gehiagotan ageri zaigula: Aezkoan, Zuberoan Larrañen eta Atharratze-Sorholüzén, Gipuzkoan Zegaman, Lapurdin Bardozen eta bestalde Erronkarin, non lehen pertsonan ere baden: *ninden*.

5.3.2.35. Nafarroako azken mendeotako idazkietan nahiz ibar batzuetako egungo bereko euskaran ezagun du denbora ez errealetako adizkietan *de-*ren laburdura gertatu dela; denbora errealetako *di-* atalarena ere galera ezaguna eta historikoa da, idaz-



kietan argi eta garbi sumatzen dena; *de-* galtzen da Goñerrian “dezake”-n edo “deza-ten”-en, esaterako: *ofendi çaquen demboran* (Ib, 657), *erresponda çaten* (Ib, 665); baina ez beti: *erdeichi dezaquete* (Ib, 233), *bota dezaquete* (Ib, 238).<sup>34</sup> Denbora errealetako adizkietan ere laburdura gertatzen zen, beti ez bazen ere: *nei tuste penitencia chiquiec* (Ib, 657), *conservaçen tu guretaco* (236) / *desamparaçen ditutenean* (654), *garbiçen ditustenean* (658). 1729ko prediku ezagunean aldaera laburtuak ageri dira: *eguiten tustela* (170).

Aipatu *di-* morfemaren galerak eragin duen *t-* horretan gertatu den bustidura erdialdeko edo erdialdearen ondoko hizkeretan ageri da, baina ez hegoaldekoetan. Egungo Esteribar-Erroibarretan, esaterako, *iten ttio* edo *saldu omen ttugu* nahiz *bi seme tu* ‘ditu’ edo *zautu tut* ‘ezagutu ditur’ aldaerak bildu ditu O. Ibarrek (argitarag.); Ultzaman ere jaso ditu *ttut* ‘ditur’ eredukoak, Anuen busti gabe *tut* dirautenak (1995b: 430).<sup>35</sup> Larraunen ere bustidura dago, Basaburu Handian bezala. Gesalatzan, Itzarbeibarren, Goñerrian, Oltzan, Eguesibarren, Artzibarren edo Aezkoan ez dago *tt-*rik.

Andimendiaz bestaldera Burundan izan ezik *tt-* dago Ergoienean, Aranatzan, Arakilgo Lakuntzan, Arruazun eta Uhartan, nahiz ekialdeko Urritzolan eta Ihabarren. Eskuin, Gulibarren eta Txulapainen ere bada; Odietan bada Gaskuen baina Latasan ez, eta ezta Ezkabarteko Anotzen ere.

5.3.2.36. “Izan” aditzean ahaleko Nor saileko adizkietan gertatu den laburdura arras hedaturik dago Nafarroako hegoaldeko hizkeretan: Bonapartek *naike, aike, daike gaizke* sistema laburra aurkitu zuen Eguesibarren, Itzarbeibarren, Oltzan eta Goñerrian; Goñerriko idazkietan bi ereduak ageri dira J. M. de Ibero idazleak emanak: *nei-reque* (Ib, 673), *deitezque* (700) / *deizquen* (247); 1729ko prediku ezagunean ez dago aldaera laburturik: *estaitzeque, leiteque* (172 eta 173). Ultzaman bizirik dira egun bi sistemok: *naike, yaike, daike* / *naittike, yaittike, daittike* (Ibarra 1995b: 420). Imotzen ez dago laburduririk, baina Muskitzen aldaera laburtuak nagusi direla dirudi; Basaburu Handiko Gartzaronen, esaterako, pluralekoetan dago laburdura, baina singularrekoetan ez: *naitteke, yaiteke, daiteke* / *gaizke, zaizke*; irudi luke, Azpilkueta eta Anizko datuak lekuko, Baztanen ere antzera daudela gauzak, baina Oronozen eta Almandozen singularrak ere laburrak dira. Anuen, Odietan, Txulapainen, Esteribarren, Erroibarren edo Aezkoan *-te-* gabeko aldaerak erabiltzen dira hala singularrean nola pluralean (Gaminde 1985 eta 1986); *daique* dugu Erroibarko dotrinan (Satrustegi 1987: 271).

Andimendiaz bestaldera aldaera osoak ditugu Aranatzan, Ergoienean eta Araki-len Irañetaraino bederen eta Larraunen ere osoak dira.

5.3.2.37. Ezaguna denez, “\*ezan” oinarriko pluraleko adizkietan *-itz-* morfemaren bustidura gertatzen da Ultzaman: *dixaket, dixakegu, dixakezie...* (Ibarra 1995b: 438). Aditz trinkoetako pluralgilean ere bustidura gertatzen da Ultzaman, Atetzen eta Anuen; azken ibarreko Egozkuekoak dira hurrengo adibideak: *damatxat, damatxa, damatxagu, damatxate* (Gaminde 1986: 199); Imotz eta Basaburu alderdian, ordea,

(34) Artzibarko Urizko dotrinan ere berdin: *ar dezaque* (30) / *tsinesta zaquegu* (39).

(35) Adizkiaren barrenean ere berdin gertatzen da: Basaburuan eta Imotzen *nittun*, Ultzaman *nittuen* eta Anuen *nituen* (Ibarra 1995b: 437).

*deamazkit* sailekoak erabiltzen dira (Ibarra 1995b: 490). Iruñeritik ez urrun nabarmena da “\*ezan” oinarriko pluraleko adizkietako *-itz-* morfemaren bustidura, esaterako Ezkabarten; Makirriaingo dotrinakoak dira hurrengo adibideok: *salba zachala* (360), *ezcachazule utzi* (380), *aparta baitechaqueguque* (384). Beriainek ez dakar honelakorik XVII. mende hasieran: *barca cizan* (1621: 71). Gure inguruan, Oltzako Iberoko otoitzean adibide bakar bat ageri zaigu: *errecivi dechadan* (150). Ez da ageri Goñerriko idazkietan honelakorik, ezta Gesalazkoetan ere, eta ezta Bonapartek Itzarbeibarko Garesen eta Eguesibarko Elkanon bildu adizkietan ere; horietan guztietan *-zki-* eredu berria dago pluralean.

Mendiaz bestaldean Arakilen Uharteko dotrinan berragertzen zaigu ezaugarri hau: *eraman gechala glorie artara* (Arakama 1994: 610). Lakuntzako 1838ko idazkikoa da *ezcachazula uzi tentacioan erortera* (Satrustegi 1987: 229). Arbizuko egungo euskaran ere bada ezaugarri hau: *eos txala* (EHHA).

5.3.2.38. Ezaguna da Nafarroako alderdi hedatuxe batean \**ezan* oinarria baliatuz sortu adizkietako apokopea. XVII. menderako nabarmen ageri zaigu Beriainen *Tratado*-an: *errambez vere baytan* (90), *eguin bez* (122), *utci biz* (122B). Mende bat berandua-gu pluralean *balitz* ‘balitza’ dakar Elizalde: *batec eraman baliz Sagrarioco Ostia guciac...* (75). J. Lizarraga Elkanokoak *gogotic imbéz oráció* dakar (Apecechea 1985: 299). Gesalazko idazkietan ere apokopea ageri da: *lei bez* (381), *balez* (378). Goñerrian ere halatsu zen: *bez* dakar Bonapartek Elkano, Gares, Oltza eta Goñirako (Ondarra 1982: 216). Goñin agertu Ebanjelioan ere halaxe ageri da: *iguiri bez misericordie, nere Jangoicoa* (129). Aldiz, Bonaparteren datuen arabera, *banez* eta *balez* Elkanokoak eta Gareskoak dira eta *baneza* eta *baleza* osoagoak Oltza eta Goñikoak. Goñerrikotzat hartu ditugun predikuetan ere bada apokope gabeko adibide bat: *errambeza verac cembat pesadumbre eman ditzquioden* (Pre III, 154). J. M. de Iberoren idazkietan *bez* nahiz *beza* ageri dira: *irugui bez* (697), *invoca bez* (244) / *erran beza* (244).<sup>36</sup>

Andimendiaz bestaldera Sakanako berri guti dugu; Lakuntzan, esan digutenez, ez da \**bez* erabiltzen, *beza* baizik, apokoperik gabe, baina iparrera joaz, Larraungo egungo mintzoan ezaguna da apokope hau; Oderizko adineko jendeari beroriketan egitean *bez* adizkia entzun diogu guk bederen. Ultzaman ere bada *bez* (Ibarra 1995b: 495) eta baita Erroibarren eta Aezkoan ere.

5.3.2.39. Beste apokope bat ere gertatzen da gure eremuko hegoaldean. Bonapartek dakarrenez Garesen *zait* ‘zaitze’ erabiltzen zen, baina *zaitte* Eguesibar, Oltza eta Goñerrian (Ondarra 1982: 179). Gesalazkoen ere *zait* & *zeit* ageri da: *desengañatu zait eztagola* (378); *bada desengañatu ceit ezpadiezu atendizen, imposible izain da sosegacea* (379). Aldaera hauek ez dira Yrizarrek dakarrenez (1992: 566) Nor-Nori saileko lehen pertsonako “zait”-en aldaerak, Nor saileko singularreko aginteko bigarrenekoak baizik. Utergako dotrinak ere hau bera frogatzen du: *Vrigui zozu debocio ona eta endomenda ceit egunoro* (218). Zernahi ere den, ezaugarri hau gure eremuko hegoaldeko hizkeren dagokie, Itzarbeibarkoari eta Gesalazkoari.

(36) Iduri du “\*edin”-ekin ere apokopea gerta zitekeela, Gesalazko Muzkiko predikuko bigarren pertsonako hurrengo adizkia lekuko: *eror bazindaiz buzuetea* (380); *balie bacindeiçe mies* dakar J. M. de Iberok (681).

5.3.2.40. Iraganean eta objektua singularreko hirugarren pertsona delarik Nor-Nork saileko *edun* adizki laguntzaileak jasaten duen soilketak ere banaketa zerbait irudikatzen du gure eremurako.<sup>37</sup> Itxuraz arras hegoaldeko bilakabidea da: Gesalazko Muzkin eta Itzarbeibarko Utergako dotrinan zu ‘zuen’ aldaera ageri zaigu, nahiz bietan *zue* ere baden: *cein profesatu baizu bautismoan* (211); *Norc erran zu aite guria* (216), Utergako kristau ikasbidekoak biak, nahiz baden *Norc erran zue Credo* a ere (Ondarra 1980: 213). Gesalazkoak dira beste hiru adibide hauek: *escribicen citu* (376), *ezu conseguitu* (389), *ezu errezacen* (390).<sup>38</sup> Halaz ere, badira Gesalazten galera-rik gabekoak ere: *atera zue* (389). Ez Garesen ezta Elortzibarko Zabalegin ere —bietan *zue*—, ez da honelako lekukotasunik aurkitu. Ez dakigu Etxauribarren honelakorik ba ote zegoen.<sup>39</sup>

Beti bezala, ordea, testuen lekukotasunaren aldetik gauzak ez daude horren garbi: Goñerrikoa izateko itxura duen testu batean —Tes IX-2 (Ondarra 1993c)— ezaugarri hau ageri zaigu: *eguin zitu, ezu eman —iduqui zue-rekin batean—* (308), *enjendratu zitu* (309) —*isuri zue-rekin batera—*; gai hau 4.11. azpiatalean ukitu da.

5.3.2.41. “Izan” aditzaren iraganean edo baldintzaren ondorioan txistukari bizkarkari igurzakaria erabiltzen zen Garesen Nor sailean Elkanon, Oltzan, Goñin eta Ollon ez bezala, hauetan afrikatua baitzegoen: *niza* ‘hintzen’, *iza* ‘hintzen’ eta *nizake* ‘nintzateke’ genituen Garesen; besteetan *nitza & itza & itzake* (Elkanon) eta *nitze & itze & nitzeke* (Oltzan eta Goñin).<sup>40</sup> Ollon *nitze* eta *nitzeke* dakartza *Erizkizundi*-ak. Andimendiaz bestaldera ere, Burundatik hasi eta Arakilgo Irañetaraino, Etxarri, Arbizu eta Ergoiena bitarte, aldaera afrikatudunak bildu dira.<sup>41</sup> Ekialdeko Arakilen aldaera afrikatudunak aurkitzen ditugu Egiarretan, Ekain, Etxeberrin eta Urritzolan, baina Satrustegin *nizen* ageri da. Bestaldera, Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Anuen, Esteribarko Urtasunen eta Eugin —baina Iragin *yitzen & izen* ditugu— eta Erroibarren *nitze(n) & yitze(n)* sailekoak bildu dira. Aezkoan *nintze*, *yintze* saila nagusi dago, nahiz *nitze*, *yitze* aldaerak ere entzuten diren.

5.3.2.42. Ageri denez gure inguruko hizkeretan *-a* morfemaz bukatutako adizkiak ere baziren Nor saileko “izan” aditzaren iraganeko aldaeretan lehen eta bigarren pertsonetan: *nitza & niza*, *zina*, *gina* ditugu Eguesibarren, baina *ze* eta *zire & zere*; J. Lizarraga idazleak baditu adibideak: *etzindála* ‘ez zinela’ (1979: 257); *ni naiz janári viciá jautsi nitzána cerutíc* (1984: 87). Garesen ere baziren honelakoak: *niza*, *zinda*, *ginda*, *zindate* (Bon) eta baita Oltzako zendeako Iberoko guruzpideko kantuan ere: *erresucitatu ciña illen artetic* (Arraiza 1988: 152); Bonapartek, ordea, *nitze & ze* sailekoak bildu zituen Oltza herrian. Gesalazko predikuetan ere bada: *noraco izan baizi-*

(37) Eta, beraz, Dikazteluko sermoian ageri den *uzibazu* ‘utzi bazuen’ ezaugarria da idazkia hegoaldeko barranean hegoaldekoa dela oharretako zantzu ziurra, argitaratzaileak beste iritzia baldin badu ere: “konparaketak eginagatik ez zigan argibiderik ematen inorako ere” (Etxaniz 1999: 484).

(38) Atzizkia dagoenean ere iduri luke badela murrizketa Gesalazten: *eguiten zitula asco vecatu mortale* (389); adibiderik hoberena ez bada ere, ez dugu itzalpean utzi nahi izan.

(39) Arakilgo Ihabarren *zún* ‘zuen’ aldaera bildu du Artolak (1992: 215), baina ez dezakegu ezaugarri hau arestikoarekin deusetarako lotu.

(40) Goñerrian nagusi *nitze* den arren —horixe bildu zuen Bonapartek ere—, inoiz *-n*-dun aldaera dakar J. M. de Iberok: *guelditu ninçela* (248).

(41) Salbuespen bakarra Olatzagutiko *nizan* da; bigarren pertsonan, ordea, *itzan* ‘hintzen’ bildu da.

*ñate sortuac* (386), *allegatu zida* 'iritsi ziren' (381); badira halaz guztiz ze 'zen' eta *zide* 'ziren' ere. Testu zaharragoetan ere ageri da *-a*: Gesalazko Muzkiko Elizalde *guina* dakar: *gu nola sartu guina becatuan?* (1735: 38). Beriainek berak ere badakartza: *ofrecituco ninza* du *Tratado*-an (70B) eta *guinanean* dakar 1626ko dotrinan: *vici guinanean* (116). Goñerrirako ez dakar honelakorik Bonapartek eta testuetan ere ez dugu hone-lako deus bildu: *assi ziñe gure arimen erredimiçen* (Ib, 243). Ezin atzendezkoa da ibar honetan goiko bokalek behekoari eragin asimilazioa zinez maila handikoa zela.<sup>42</sup> Olo herriko emaitzetan ere *-e(n)* dugu (Erizk).

Mendiaz bestaldera *-an* sailekoak ditugu beti Burundan; Aranatzan eta Ergoienean bi joerak batera ageri zaizkigu: *nitzen, itzen / zan, zian* Ergoienean eta *nitzen, zien / zan* Etxarrin. Arbizutik ekialdera *nitzen, zen, zien* ditugu Lakuntza eta Uharten; Arruazun *zuan* eta *zuen* bildu dira *edun*-i dagokionez (NEM II, 121). Irañetatik aitzin *nitzen, zen, zeen* dugu. Ihabar eta Urritzola ere *-en* erabiltzen den herriak ditugu eta berdin jarraitzen da Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten, Odietan, Ultzaman, Anuen eta Esteribarren barrena. Erroibarren, berriz, *-n*-rik gabeko *-e* morfema hasten da, baina ez Erroibarren ezta Aezkoan ere ez dago *-a*-rik adizkien bukaeran.

5.3.2.43. "Izan" aditzaren aldaera jokatuak erlatiboko edo konpletiboko atzizkia hartzen duten kasuetan nahiz iraganeko adizkietan bokaletan ageri den emaitzak erdiz erdi moztan du Euskal Herria eta geure eremuaren barrenean gertatzen da hau: *dan / den* emaitzen muga Arbizun dago (Arakama 1994: 571); handik ekialdera *den* dago eta mendebaldera *dan*: *nola dan* dugu Ergoieneko Lizarraga herrian (Solís 1993: 112) eta Dorraon *fán zan illa & fán dan illén* erlatibozkoak bildu dira (EHHA). Goñerrian, *-en / -ela* sailekoak ditugu.<sup>43</sup>

5.3.2.44. Ditugun idazkietako lekukotasunaren arabera, atzizki subordinatzailea eta *-a*, *-i* eta *-u* letran bukatzen den adizkia lotzen dituen *-e*- artizkia gehienetan ez da galtzen Goñerriko hizkeran, baina bai batzuetan: *duenac* (1687ko Urdozko zina), *duena* (Eb; Mar, 227), *barutu dayen* (Pre V, 165); ikus, ordea, galera duten J. M. de Iberoren adibide hauek: *consideracen dularic batec* (102); *cindula* 'zenuela' (651); beste testuetan ere bada: *induleta* 'egin duela eta' (Pre I, 142). Gesalatzan ere badira adibideak: *egosten dun maldecioates* (375), *eguiten zitula* (389). Itzarreibarko Utergako dotrinan *-o*-z bukatutako adizkian *dagola* dugu (204).

Andimendiaz bestaldean ere badira adibideak: Dorraon *daún* 'dagoen', *utzi on* 'utzi duen' eta *berázten dun garáyen* bildu dira (EHHA). *Erizkizundi*-ak aldaera osoak bildu zituen Irañetan *-u*-ren ondoren: *duena & duela*. Txulapaingo Nabatzen *dagon* eta *dagola* bildu ziren *-o*-ren ondoren, baina *duena* eta *duela* *-u*-ren ondoren. Ezkabarteko dotrinan ere *-e*- gabeko adibidea dugu *-o*-ren ondoren: *dagona* (385).

5.3.2.45. Ikusi denez adizki laguntzaileen azterketak aukera handia ematen du banaketak finkatzeko; izan ere, aztertu ahal izan ditugun ezaugarriak anitz dira, berrogeita lau hain zuzen. Aipaturik gelditu den bezala, tentagarria izan da aditzaren morfologia dialektologia lanetan jardun duten euskalariendako eta beste sailetan

(42) Literatura kutsua zuelakoan baztertu dugun Goñerrian aurkitutako testu batean bada *ninza* 'nintzen': *humillatu ninza guizon eguitera* (Tes VI-1, 528, Ondarra 1994).

(43) Gesalazko idazkietan ere nagusi da *divela* baina behin *divalaric* ageri zaigu (372).

baino argibide gehiago eta sistematikoagoak ditugu adizkien honetarako; eragin handia dute honetan guztian morfologiaren sistematikotasunak eta euskal aditzaren aberastasunak.

Nondipait hastekotan bazterrekoa derizkiogun hegoaldeko hizkera batetik has gaitzke, izan ere bai baita adizkien azterketaren ondoren halakoxea iruditu zaigun hizkera bat: Itzarbeibarko Gareskoa hain zuzen. Uste dugu iparrerago dauden hizkeretara bai, baina Gareskora iritsi ez ziren hainbat berrikuntza badirela: (*di*)*tuzte* > *tute*, *dira* > *dirade*, *balu* > *baluke*, *gara* > *gada*, *gindue* > *giñue*, *dire* > *dere* dira berrikuntzok. Alde honetatik, bazterrekoa izatea da hizkera honen ezaugarrietarik bat. Oroit gaitzen bestalde, Bonapartek hizkera honi halakoxe nortasun berezia aitortu ziola hegoaldeko goi-nafarreraren barreneko hiru azpieuskalkietarik bat Itzarbeibar-koa zela erabakitzean; “guztiz desberdina” zela ziotson gainera Etxenikeri 1866an.

Adizkiez egin dugun azterketak hein batez hizkera honen berezitasunaren berri eman du: *diaguk* & *diagun* ‘diagu & dinagu’ adizkietan alokutiboko morfemak duen kokagunea, *gare* & *zare* ‘gara & zara’ adizkietako azken *-e* berranalizatua —Elortzibarko Zabalegin bezala—, *niza* & *iza* ‘nintzen & hintzen’ adizkiko txistukari frikaria edo *zinda* & *ginda* ‘zinen & ginen’ adizkietako *-nd-* kontsonante taldea, Gareskoa inguruko hizkeretarik bereizten duten ezaugarri berritzaileak dira, *zinda*, *ginda* horiek ere berrikuntza direla horren argi ez badago ere. Hartara, Garesko euskararen berezitasuna nabarmen agertuko litzaiguke adizki laguntzaileen morfologian: batetik, inguruko hizkera erdialdekoagoek dituzten berrikuntza batzuk bertaraino iritsi ez direlako eta bestetik, bereziki berarenak diren beste berrikuntza batzuk garatu dituelako.

Itzarbeibarren berrikuntza gehiago aurkitu ditugu baina ez dira soilik hizkera horretakoak; gure eremutik begiraturik hegoaldekoak diren beste bi ezaugarri nabarmen ageri dira erabili ditugun datuetan: Nor saileko “izan” aditzaren aginte adizki batzuetako apokopea eta iraganeko “edun”-eko adizkietakoa: *zait* ‘zaitez’ dugu Garesen eta *zeit* & *zait* Gesalazko Muzkiko idazkietan; bigarrenik, *zu* ‘zuen’ laburtua ageri da Itzarbeibarko Utergako dotrinan eta *zu* bera dugu Gesalazko Muzkiko idazkietan ere. Ikusten dugunez, berrikuntzok hegoaldeko bi hizkera hauek aztertu ditugun gainerateko guztietarik bereizten dituzte.

Baina badira ezaugarri gehiago Gesalazko mintzoa inguruko besteetarik bereizten dutenak; egoera zaharragoaren lekukotasuna ematen digute eta goiti dauden hizkeretan bilakatuago dauden ezaugarriak dira. Esate baterako, eta fonologiako bilakabide baten haritik, Muzkiko *didazu*-k erakusten digu gure eremuko gainerateko hizkerek duten *dirazu* berrikuntza hori ez dela Gesalazten betetzen; gauza bera busti gabeko *cindunque*-k, edota “joan” aditzaren oraineko pluraleko adizki ez analogikoek —*zuacelaric* ageri da, ez *\*zoazi* edo *\*zoaza*—. Nor-Nori-Nork saileko adizkietako aldaeretan *-zki-* da beti pluralgilea Gesalazten, ez ondoko ibarretan ageri den *-it-* berriagoa; honetan, agian eragina du Gesalazko gure datuak XVIII. mendekoak izateak, beste ibarretako datuak berriagoak baitira. Kontserbazioen ildoan, *dire* dago Gesalazten eta ez *\*\*dere*; gisa berean, zaharra den berrikuntza bat, Beriainek bazerabilena baina beranduago Muzkiko Elizalde ez darabilena, Gesalazko idazkietan ageri ez den *\*\*dira* > *dirade* analogikoa da; honetan ere Garesko eta Gesalazko eus-

kara bazterrekoak eta kontserbatzaileak dira. Balirudike, ordea, *dituzte & dituste* sailleko adizkiak nagusi ziren arren, Muzkiko idazkietan behin ageri den *ditute* aldaerak -z- gabeko formetaranzko mudantza adieraz dezakeela, iparralderagoko eremuko beste hizkeretan egiten den *ditute / tute / ttute* ereduaren bide beretik, alegia; adibide bakarra denez, ez da guztiz garbi dagoen gauza.

Bada gure alderdian halako izaera berezia duen beste eremu bat, ipar-mendebaldera dagoen Burunda, hain zuzen. Nafarroa Garaiko ibar gehienetan ez bezala, “etorri” aditzaren aldaera trinkoei eutsi zaie Burundan; berranalizatu gabeko *nail, ail, dail* ‘nabil, habil, dabil’ aldaerak ere Burundan, Aranatzan eta Arakilgo mendebaldeko Lakuntzan ditugu; bestalde, “izan” aditzeko Nor saileko iraganeko *gindan & zindan* aldaera Burundakoak ere aipagarriak dira, ez baitira erabiltzen ondoko ibarretan behehitiko Gareseraino bitartean.

Ondoko Aranazko ezaugarri bat ere berezia da, ez baita gure eremuan beste inon ageri: Nor-Nori-Nork sailean -za- morfema pluralgilea daramaten *dootzat, dootzak, dootzabie* ereduko adizkiak erabiltzen dira Etxarrin. Eta hain zuzen ere, Nor-Nori-Nork saileko adizkietako \**eradun* oinarriari zor diote Burundako, Ergoieneko eta Aranazko hizkerak duten berezitasun horretatik pixka bat; orobat esan daiteke *edun* oinarritik eratortzen diren *dot* eta *det* gisako adizkiez ere, gainerateko ibarretako *duten* aldean nabarmen gelditzen dira; horrezaz gain, hiru ibarrotako hizkerok mendebalderago eta erdialdean iparralderago dauden hizkeretara hurbiltzen dituzte. Berebat, “izan” aditzeko iraganeko adizkietan Nor sailean ageri den -an bukaerak ere —*nitzan, zan, zian*— goitiagoko mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretara —eta Ameskoako eta Lanako toponimiako -*dana & -dirana* atzizkietako egoerara (Salaberri 1998: 77)— hurbiltzen du gure eremuko ipar-mendebaldean dagoen Burunda ibarra; Ergoienean —*zan, zian*— eta Etxarrin —*zan*— ere badira arrastoak, baina Arbizura ezkerreko -en dugu: *nitzen, zen giñen...*, Nafarroa Garaiko gainerateko hizkeretan legez. Era berean, “joan” aditzaren oraineko trinkoetako Ergoieneko *niyue, diyue*, Etxarriko *nue, due* eta Arbizuko *nua, dua* aldaerak ere Nafarroa Garaiko ohiko joeratik urrunsko gelditzen dira. Pluraleko aldaerez ere antzera esan daiteke: Ergoieneko eta Etxarriko *gu(e)ze* ‘goaz’, *du(e)ze* ‘doaz’ eredu berria ere ez da erabiltzen Nafarroa Garaiko gainerateko ibarretan.

Ingura gaitezen orain Goñerrira; badira hiru berrikuntza gutienez, Iruñetik goiti Nafarroa Garaiko erdigunean garatu direnak eta Goñerrira iritsi ez zirenak: *gatxazu* ‘gaitzazu’ sailekorik ez zen Goñerrian erabiltzen, -*zki*- pluraleko eredu berria baitzegoen, eta adizki trinkoetako *damatxat* edo *dakartxat* saileko pluralik ere ez zen erabiltzen. Ahaleko *dezakeguke* erako pleonasmorik ere ez zen erabiltzen; Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork aditz sailetako *di-* galdu ondoko *t-*ren bustidura ere ez zen Goñerrian egiten. Kontserbatze honetan batera doaz Andimenditik beheiti dauden ibarretako hizkera guztiak —Oltzako zendeako Ibero herriko gurutzebide kantuko *dechadan*-en salbuespena aipagarria da, halaz ere—; ezin baztertu dugu hurrengo gertaera, gainera: hegoaldeetik ekialderantz hizkera guztietara hedatzen da kontserbazio egoera hau, behehitiko Eguesibarrera nahiz Artzibarrera eta goitiko Aezkoara. Aipatzekoa da, bestalde, Andimendiaz bestaldeko Arakilen hiru ezaugarri berriok ageri zaizkigula.

Adizkien azterketatik ateratzen den beste ondorio bat Andimenditik beheiti dauden hizkerak duten batasuna da, ezaugarri anitzetan batera baitoaz; ezaugarri frankotan, gainera, bidelagun dituzte Eguesibartik eskuin ekialderat dauden beste hizkerak. Hona hemen ezaugarriok: *-n* gabeko iraganeko adizkiak, *-eza-* gabeko ahalako iraganekoak —*zuke* edo *zukea* motakoak—, alokutibo maskulinoko iraganeko *-t-* morfema; “edun”-en Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork aditz sailetan oro har busti ez den *-nd-* kontsonante taldeak ere hego-mendebaldeko, hego-erdialdeko eta ekialdeko hizkerak batzen ditu. Ere mu honetan sartzekoa da, Andimenditik beheitiko hizkeretan batetik, eta bestetik ekialdean Eguesibarren, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan nahiz ipar-erdialdeko Ezkabarten ageri zaigun *\*ezan* saileko (*de*)(*za*)*zkigun* aditz eredu analogiko *-zki-*dun berritzailea ere. Ez dirudi *beza* > *bez* laburdura sail honetan sartzekoa denik: nafarreraren hegoko hizkera guztietan baldin badago ere, guk dakigula, ezaugarri hau gutienez Larraunen eta Ultzaman ere ageri da, eta, beraz, hedaturaz ez da berdina. Antzera gertatzen da Nor aditz saileko “izan”-en *naike*, *daike* bezalako adizkietan; hego-mendebaldeko, hego-erdialdeko nahiz ekialdeko hizkera guztietan aldaera laburtu hauek ditugu; goitiagoko ibarretan badira *gaizke*, *daizke* bezalako aldaerak, baina ia beti singularreko osoagoekin batera —*naittike* & *naitteke*-rekin, alegia— erabiltzen dira; ezin esan daiteke, beraz, aldaera laburtuok soilik hegoaldekoak direnik, baina bai guztizko erabilera sistematikoa soilik hegoaldeko eta ekialdeko eremuetan betetzen dela.

Andimenditik hegora dauden hizkeretan *-e-* dago iraganeko adizki trinkoetako erroetan —analogiatik kanpo dakusagu *eu* > *au* aldaketa—, Beriainen garaiko egoe-ra zaharra oroitarazten digula; ipar-ekialdean, egungo mintzoan Erroibarren *-a-* dunak nagusi dira, baina idazki zaharretan *-e-* dunak ageri dira; Aezkoan egun *-e-* dunak nahiz *-a-* dunak ditugu. Goiti, Baztan-Bidasoa, Erroibar, Ultzama, Ezkabarte alderdia, *-a-* dun adizkiak nagusi diren gunek dira. Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan ere iraganeko adizki trinkoetan *-a-* dunak agertzea gauza arrunta da.

Galdutako ezaugarrien artean, Iruñe inguruan XVII. mendean, eta beranduago hego-ekialdeko eta ipar-ekialdeko hizkeretan agertu diren *-iro-* erroko adizkiak ditugu; ez dakigu, ordea, hego-mendebaldeko hizkeretan ere ba ote ziren; zernahi ere den, beste behin, *diroke* eta sail bereko aldaeren bitartez, nafarreraren hegoaldeko atala ekialdeari loturik dakusagu. Bestalde, “*\*erazan*” saileko *draçaguçu* bezalako adizkiak, badirudi nafarreraren hegoaldeko eremuetan erabili zirela baina XVIII. menderako galduak ziren eta ez dira Goñerriko gure idazkietan ageri; erabiltzen ote ziren hego-mendebaldeko hizkeretan XVII. mendean?

Ezaugarri batzuetan Goñerriko euskara ez da Iruñetik goiti eta ipar-ekialdera dauden hizkeretarik bereizten eta sortzen den eremua hedadura handikoa da, ezaugarria Eguesibartik ezker hegoaldean dauden ibarretara ere iristen denez; *didazu* > *dirazu* ezaugarria izan daiteke sail honetakoa: Andimenditik beheitiko ibarrak —Gesalatz salbuespen dela, agian— eta Arakil, Gulibar, Imotz, Txulapain, Ezkabarte, Odieta, Ultzama, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar eta beheitiagoko Eguesibar eta Itzarbeibar harrapatzen ditu; Nor-Nori aditz saileko iraganeko adizki *-ki-* dunak ere eremu honetakoak ditugu Sakana eransten baldin badiogu; guti goiti beheiti eremu bera biltzen du lehen pertsona datiboko *-da* morfemak —Sakana gabe,

baina Basaburu Handia eta Arakilgo ekialdea barne—; *zait* ez zaigu ageri Baztan-Bertizarana eta Sakana bitartean. Itzarbeibar eta Aezkoa eremu kontserbatzaileetara eta Eguesibar nahiz Gesalatzera iritsi ez baldin bada ere, eremu honetakotsua da (*di*)*tuzte* > *tute* berrikuntza ere, Larraun ibarrean ageri dena; badirudi denborarekin ekialderat joaz XX. mendean Artzibarreraino ere iritsi dela; XIX. mendeko idazkietan txistukaria ageri da bertan. Azken mendeetan gertatu berrikuntza bat ere bada, Nor saileko “izan” aditzeko *dire* > *dere*, hedadura iduria duena: Andimenditik hegora dauden hizkeretara hedatu da, baina Itzarbeibarrera eta Gesalatzera ez; beste alderditik Larrauneraino iristen da eta Arakilen eta Iruñetik goitiko ipar-mendebaldeko ibarretako hizkeretan ere ageri da: Basaburuan, Imotzen, Gulibarren, Odietan, Ezkabarten eta Olaiarren; hego-ekialdean ere bada: Eguesibarren nahiz eskuineko Longidan eta Artzibarren, baina ez Aezkoan.

Andimenditik beheiti nahiz ekialdera ageri zaigun *duzie* & *duze* ‘duzue’ eredu palatalizatu edo laburtua ere aski hedatu den berrikuntza da: *duze* esaterako, Baztanen dugu. Andimendiaz bestaldeko Ergoienean *duzie* aldaera dago, baina ez Aranzten ezta handik eskuin ere; Txulapaingo Beorburun eta Imozko Muskitzen berragertzen zaigu; Odietan, Ezkabarten, Ultzaman, Atetzen, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan eta Artzibarren ere *duzie* erabiltzen da.

XVIII. mendean abian da “edun” eta “-i-” oinarriari loturik dauden *di-* eta “\*ezan”-eko adizkietako *de-* atalen aferesia, baina aski bilakabide orokorrak dira eta guk uste ez dute eremu gardenik banatzen.

Badira ezaugarriak Andimenditik hegora dauden hizkeretan Gesalatzten, Itzarbeibarren, Goñerrian, Oltzan eta Olloibarren betetzen direnak baina Iruñetik goiti edo ekialderat hedatzen ez direnak: “izan” aditzaren Nor saileko *gara* > *gada* bilakabidez dihardugu; ezaugarri hau, gainera, ez da Garesko datuetan ageri, baina franko hegoaldera iristen da gure eremuan, Gesalatzera mendebaldetik; bestalde, Utergako dotrinan ageri da. Alderdi inpresionistatik bederen, Eguesibarren ere ageri ez den ezaugarri honek halako kutsu berezia ematen die hego-mendebaldeko hizkerari. Testuetan ageri diren datuen arabera eremu murrizta hartzen dute Nor-Nori saileko ‘\*edin + -ki-’ egiturako adizkiek: iraganeko aldaeretan Eguesibarren, Goñerrian, Oltzan eta Arakilgo Urritzolan ditugu; oraineko adizkietan, berriz, Gesalatzten eta Itzarbeibarren. Gure eremura mugatzen den ezaugarri gehiago ere bada: Itzarbeibarren, Oltzako, Goñerriko eta Eguesibarko bigarren pertsona singularreko *yue* & *indue* ‘huen’ adizki pareak aipa daiteke; gainerateko hizkeretan ez dago *indue* analogiko hori, *yue(n)* da dagoen bakarra. Nor saileko “izan”-en iraganeko *-a* ere gure ingurukoa da: Beriain eta Elizalde idazleek erabili zuten eta Eguesibarren, Garesen, Oltzan eta Gesalatzten ageri da. Hedadura biziki murrizta du Oltzan gertatzen zen *zizkitez*u ‘zizkizuten’ erako morfema gurutzaketak; J. M. de Iberoren *ditez*u, *zitez*u ‘dizute, zizuten’ pareak ezaugarri hau Goñerrikoa ere izan zitekeela iradokitzen du, baina ez dago guztizko ziurtasunik.

Nafarreraren barrenean “joera nagusi” dei ditzakegun ezaugarriak ere badira Goñerrian, jakina: ezaugarri hauetan, ekialdeko Arakilgo hizkera Goñerrikoarekin batera doa, eta gainera, bi ibarrotako berdintasunaren aurka, bestelakoa da Sakanako mendebaldeko hizkeren joera; ekialdeko Arakilgo eta Goñerriko eremu hau Iruñetik



eskuin ekialderat dauden hizkerekin eta Iruñetik goiti daudenekin batera frankotan doanez, nafarreraren joera nagusizat hartu ditugu; hauexek dira ezaugarri horiek: pluraleko hirugarren pertsonako ergatiboko nahiz datiboko *-te* morfema; “egon” aditzaren oraineko pluraleko aldaera trinkoak —Ergoienean *goi* ‘gaude’ edo *zoi* ‘zaude’ ditugu eta Uhartan *gue* ‘gaude’ edo *zue* ‘zaude’, baina Arruazun *gode*, *zode*, *dode*, Goñiko Ebanjelioko *dode* gogora dakarkigutenak—; zernahi ere den, Goñerriko *goude* aldaera diptongodunak Nafarroako *gaude* orokorretik hurbil daude; berdin gertatzen da “eduki” aditzaren oraineko aldaera trinkoetan ere: Sakanako mendebaldean *duka*, *daka* edo *deka* ereduko adizkiak ditugu, baina Uhartean eta Irañetako *douket* & *doke* ‘daukat & dauka’ parean J. M. de Ibero idazle munarritzarraren *zozque* ‘zeuzkan’-en iduria da; arestian bezala, aipa dezagun Goñerriko *zauke* ‘zeukan’ eredu diptongoduna Nafarroako aldaera nagusien pareko dela eta ez mendebaldeko Sakanakoen iduria.

Euskal Herriko ekialdean eta mendebaldean hedatu ez den berrikuntza bat bada, baldintzako protasiko *-ke*, erdialdean Gipuzkoan eta Nafarroan oso hedatu dena; Sakanan, Goizuetan eta Ultzaman bada, esaterako, eta Goñerrira eta Olloibarrera ere iritsi zen Euskal Herriko erdialdean gaindi, baina ez ekialdeko eta hegoaldeko hizkera kontserbatzaileetara: ez da ezaguna Aezkoan, Artzibarren, Eguesibarren, Itzarbeibarren edo Gesalätzen. Goñerriak erdialdeko hizkerekin izan dukeen hurbiltasun eta hartu-emanaz ohartzeko balio duen ezaugarria dela iruditzen zaigu.

Euskal Herriko ekialdeko eta bereziki Ipar Euskal Herriko ezaugarria da morfema datiboarekiko komunztadura hautazkoa izatea; Goñerrian adibide guti ageri da eta Ezkabarten ere bakan, egun Aezkoan bezala; Artzibarren ere ez dugu adibide bat baizik aurkitu; adibide gehienak Ipar Euskal Herriaren ondoko Erroibarkoak ditugu.<sup>44</sup>

Nafarroan eremu murriztagoan baina Andimendiaz bi alderdietan ageri diren arkaismoak badira gure datuen artean eta hauen berri eman behar dugu orain labur: Nor-Nori saileko oraineko adizki *-ki*-dunak Andimendiaz bi alderdietara ditugu: bizirik ditugu egun Aranätzen, Ergoienean eta Arakilen eta Irurtzunerraino ere hedatzen ziren Bonaparteren garaian; XVIII. mendean Gesalätzen, Itzarbeibarren eta Goñerrian *daquio* ‘zaio’ sailekoak erabiltzen ziren. Morfema datiboa duten adizkietako alegiazko *l*- ezaugarria ere bi alderdietan ageri da: XVII. mendeko Goñerriko Urdozko *valemoque* ez dago oraintsu Ergoienean bildu den *balakit*, *balakiyo* adizki sailetik guztiz urrun.

Arestiko hauetan bezala, beste ezaugarri batzuetan ere egokiago izan daiteke datuen arteko kronologia desberdintasunez mintzatzea eremuen arteko aldeez baino: “joan” aditzeko pluraleko aldaera trinkoetara *-i* analogikoa gauzatu aitzineko euskara darabilte Beriainek eta Elkanoko Lizarragak; horiek bezala, *-i* gabeko aldaerak erabiltzen dira XVIII. mendeko Goñerriko eta Gesalazko idazkietan, nahiz ezin ahantzi den J. M. de Iberok behin *beitoaza* badarabilela. Gainerateko ibarretan, Arbizuko *guez*, *zuez* ereduaz landa, gehien bat *-zi* edo *-zel*/*-zte* bukaera ageri zaigu Nafarroa Garai

(44) Antzera gertatzen da O. Ibarrek ibar honetako Mezkitritzen bildu dituen *atraiak* edo *botaia* bezalakoekin ere (argitarag.): funtsean, Ipar Euskal Herriko aldaerak dira; Aezkoan esaterako, *átraik* edo *botáruik* erabiltzen dira, baina ez arestiko aldaerak; Ultzaman ere, berdin: *botarik*, *átraik* (Ibarra 1995b: 496).

gehienean. Berdin gertatzen da XVIII. mendean gertatu bide zen *dizkio* > *ditio* aldaketa analogikoan ere: Beriain, Elizalde, 1729. urteko prediku ezaguna, J. M. de Ibero idazle munarriztarraren lana eta Gesalazko XVIII-ko idazkiak ez dira berrikuntzaren lekuko, baina bai ondorengo nafarreraren eremu biziki handi bat.

#### 5.4. Sintaxia

Dialektologiako lanetako "Errauskiñe" dugu sintaxiaren alorra eta gure saio honetan gauzak ez dira anitz aldatuko; areago, beste leku batzuetako hizkera azterketek sintaxiari eskaini ohi diotena baino gutiago eman dezakegu gure saio honetan, Bonaparteren 1869ko urtarrila eta martxo bitarteko Donibane-Lohizuneko inkestan (Arana Martija 1994: 440) ia ez baitzen Goñerriko sintaxiaren inguruko erantzunik bildu. Dugun apurra testuetarik atera dugu, eta gainera, idazkia Goñerriko benetako herri hizkeraren ordezkari leial gertatu delako zalantza guztiz uxatu ezinik geundela, inoizka.

Jakina da, bestalde, sintaxia izaten dela dialektologian eremu banaketak finkatzeko gune txiroenatarik bat; gurean bederen ez da morfologia, fonologia edo arlo lexikoa bezain emankorra gertatu. Sintaxiko ezaugarriek arestian aipatu hiru sail horietakoek baino hedadura zabalagoa dutenez Araba aldera ere jo dugu Fidel Altuna ikertzaileak aurkitu eta argitaratu Garcia de Albeniz araiarraren idazkian dagoena ezagutzera. Geure lanean orain artean muga aski finkoa gertatu da Goñerriko ezaugarriekiko Burunda alderdia edota Sakanako mendebaldea. Ameskoako eta Lanako euskara ere badakigu Gesalazkoaren iduria den Deierrikotik bereizten zela, eta beraz, Goñerrikoaz bestelakoa zela (cf. Salaberri 1998). R. M. Pagolaren 1992ko iradokizunean oinarriturik, zer gerta ere, sintaxiaren arloan bederen araiarraren hizkerari erreparatzea komenigarri iruditu zaigu; Goñerriko hizkera eta araiarrak darabilena guztiz bestelakoak direla ohartzeko aski da araiarraren testua behin irakurtzea, baina sintaxiaz denaz bezainbatean bederen balio du elkarrekin alderatzea.

5.4.1. Euskal Herriko ekialderagoko hainbat eremutan bezala, egoeraren edo ekintzaren indarra edo nolakoa areagotzeko gertatu ohi den errepikatzea jasaten duten aditzondoetan absolutiboko atzizkia ageri da bigarren osagaian Goñerriko testu batzuetan:

*Ta urteac Errosario bat errezatu bague: doi-doi enzuten dute jai egunean Meza bat* (Pre IV, 161).

*Erran dezaquegu, direla doi-doye Christioac, batayetuec direlaco* (Pre IV, 162).

*Joanen da aren Anime chusen-chusena Cerure* (Pre V, 166).

Susmagarria da, ordea, ditugun adibide guztiak, dakartzagun hirurak, testu bakar batekoak izatea eta beste idazkietan honelako adibiderik ez izatea. Halaz guztiz ere, Ergoienean ezaugarri hau agertzeak geure ustezko susmoak ibitzeko balio du hein batez bederen. Koro Seguiolak Dorraon bildu adibideak badu itxura bederen: *ta izeten dia arbolak goreño garbi-garbiya ta geo goitti paragos ttiki be bakarrik* 'paraguas ttiki bat bakarrik' (EHHA).

Lizarragan bildu hurrengoak nabarmenagoak dira (Solís 1993):

*...gio bes iruzkiten sekatu, luze-luzie jartzen giñuzkien legarretan larreñetan* (112).

*...nola etortzen dian madejetan ba aik bezelaxen, iguel-iguela eta gio lixutu* (ibid).

*Kontsixoni de ez, Kontsixoni dee eztiñogu esan ber, ta ezetz, ixixille etorri eta ixillik* (117).

Mendebaldeko Arakilgo Lakuntzan geuk bilduak dira hurrengoak: *etxá juan nez ta an geldittu e gorri-gorriye; maindirie utzi du kolgatute zabal-zabala*.<sup>45</sup> Ekialdera, berriz, mugatzailerik gabeko aldaerak bildu zituen Artolak 1980an Arakilgo Urritzolan (EAEL):<sup>46</sup>

*...bóta, ésneai, ta... lóitzen da, lódi-lódi jártzen da.*

*...urritze dá plánta (b)at, bai-ta... oé lértu erditík eta... mé-mée jarri ta, árrekin ittén (t)zittuen.*

*Nik júst... júxto-júxto ezáutu nittún eta; áundi oiek é...*

Aldiz, bada atzizkia Eguesibarko euskaran:

*Bada orrá oráció labúrtoa ta própia erratecó ichsíl ichsila zeure biótz bárnean* (Lizarraga 1984: 79).

*Orái gueldi zaitte erretiraturíc beraréqui zeure biótz bárnean ichsil ichsila gráciac emáten* (93).

Goiti, Ezkabarteko egungo emaitzetan ere bada: *Te suóndoan egón béro-béroa...* (Artola 1985: 108). Eskuin, Esteribarko Eugin honakoa bildu genuen 1982.ean: *orei ementxe bizi gara trankil-trankile*; egitura hau eskuin hedatzen da Nafarroa Beherera, Aezkoara, Zaraitzura eta Zuberoara bederen.

5.4.2. Erdialdeko hizkeretan *bi* zenbatzaile zehaztua beti izenaren ezkerretik doa idazkietan eta halaxe doa Goñerriko hizkeran ere; toponimian, ordea, Iruñerrian eskuinean kokaturik ageri zaigu Zizurko zendeako Asterainen: *Erreca biac pacen direnecoan* (Jimeno Jurío 1986: 87); ekialderago ere bada arrasto bat 1694. urteko idazki batean Ibargoitin: *Hurbien ertea* (Salaberri, 1996, *FLV* 72: 229). Mendebalderago ere izenaren eskuinean darabil Garcia de Albeniz araiarrak: *costa zan erreal bi terdi* (Altuna 1995: 124-5).

*Bi* zenbatzaile zehaztuak ondoan izenik ez daramanean, adberbioaren egitekoa betetzen duenean, ekialdeko hizkeretan ez bezala, ez du *biga & bida* edo antzeko aldarerik Goñerriko hizkeran. Halaz ere, Goñiko Ebanjelioan halako adibide bat ageri zaigu, baina izenaren aitzinean doa, ezkerrean hain zuzen ere; agian idatzi zuenarendako ezezaguna zatekeen eredu zenbaiti moldatu nahiak eraginik edo: *iguen cere bigue*

(45) Sintaxiko atal honetan ageri diren Lakuntzako datu guztiak Itziar Ruiz Razkin bertako alabari zor dizkiogu.

(46) Gogoraraztekoa da esaldiok eman zituen lekuko urritzolarraren ama larraundarra zela.

*guizon Templo, edo Elicera oracio eguitera* (129). Hortik goiti beti 'bi + izena' egitura aurkitu dugu; Bonapartek, gainera, ez dakar *biga* edo *bida* —*bige* edo *bide*, hobeki esan— bezalakorik bere lekukotasunen artean. Aldaera hori aurkitzeko eskuin jo behar da, Eguesibar aldera; Bonapartek *bi* dakar Gares, Oltza eta Goñirako eta *bida* & *bi* Elkanorako; goiti, Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan ere *bide* (389-390) daukagu: *Zemba naturalezaz tu Jesucristoc? Bide jaune*; ibar bereko Anotzen *bide* bildu da urteotan (Artola 1985: 104). O. Ibarrek dakarrenez (argitarag.), Esteribarren eta Erroibarren ere *bide* entzuten da; *bida* da Aezkoan egun entzuten dena.

5.4.3. "Guzi" eta "asko" zenbatzaileak: *guzi* zenbatzaile orokorra erakuslearen ondoren joan ohi da hainbat hizkeratan eta hori bera dirudi gertatzen dela Goñerriko testuetan ere; hona adibide zenbait: *defendacen du guizonegui ayetatic gucietic* (Pre I, 142), *gauce aubetan gucietan* (Pre I, 142), *ontas gucies gañera* (Pre III, 154), *pena ebetara guzitara* (Ib, 654), *ontan gucién ematen digu* (693). Ondoko Gesalazten ere berdin gertatzen da: *orrequi gucierequi* (373 eta 377). Baita Oltzako Iberoko kantuan ere: *misterio auben guciengatic* (152). Ezkabarteko Anozko egungo mintzoan ere antzera gertatzen da: *òye'kúzie'tiré Ezkabártekoa(k)* (Artola 1985: 104); Erroibarko testu zaharretan ere, berdin: *trabajú even gucién erdian*; *mundu gau gucia*; *onequi guciaiqui* (Satrustegi 1987). Bestaldera, mendebaldeko Arakilgo Lakuntzan ere ezaguna da egitura hau, *neskatu aik guziyek nahiz neskato guzi'yaik* entzun baitaiteke.

Halaz ere, Goñerrian *guzi* zenbatzailea erakuslearen aitzinean ageri den adibide bat bederen bildu dugu, jarraian ikus daitekeenez: *beicic joatea apartacen ocase gucie ayetatic, nondic facilmente hellegacen dire traspasacera mandamentu divinoac* (Pre I, 141).

Bestalde, zenbatzaile honen —edo zernahi izenen— aitzinetik nahiz ondotik erakuslea doan egitura ere aipa daiteke, Euskal Herriko mendebaldean nahiz ekialdean dakusaguna: *cerengatic au guciau arquizen da ostie consagratuen* (Ib, 101); *oni, Jesusen nombre oni, diot, belaurico ssarriçen daquizquio ceruen* (Ib, 245). Eguesibarren ere badira: *sines ten dút au guciáu sínés* (Lizarraga 1984: 92). 1729ko prediku ezagunean ere ageri da: *au guciau conformatus len ducien costumbrera* (171). Honelakoxeak dira Aezkoan bildu genituenak ere: *sierra gori guzi ori* 'mendi hori guzti hori'; *oek atriz goek* 'hauek, aktriz hauek'.

*Asko* zenbatzaile zehaztugabearen erabilera zaharraren adibide guti batzuk badira Goñerriko testuetan:

*Eta au asco exemplorequi prova leiteque* (Ib, 109).

*...berçe asco guisetan* (Ib, 698).

*Beguire zace, cer errespuesta ematen dize asco Caballeroren Seme, ta Alabac aciric delicadeza andierequin* (Pre IV, 158).

Gesalazten ere berdin gertatzen zen Muzkiko idazkietan: *eguiten zitula asco vecatu mortale* (389). Eguesibarren ere bazen egitura hau, Lizarragaren lana lekuko: *asco gaitz eldu zaigu ordic* (1984: 83). Ezaguna denez, behe-nafarreraz arrunta da ezaugarri hau baina Aezkoan ez da ageri.

5.4.4. Perpaus erlatiboen artean ohiko *-en* baliatuz eratzen diren egitura arruntak nagusi dira Goñerriko idazkietan; hona hemen Bonaparteren *Le Cantique*-ko adibide batzuk eta J. M. de Iberoren beste bi diogunaren erakusgarri:

*Ceruen gueiñen doden ur guciec*

*Lurrean ernatcen deren gauce guciec*

*Baleac eta uretan moguitcen deren gauce guciec*

*...purguetorioan padecitu bear ciren penen parte andi bet (Ib, 103).*

*Badaquit billeçen ducela Jesus Naçareno Crucifiquetue, emen orçi zutena (Ib, 98).*

Ez dirudi ekialderagoko *bai(t)* bidezko egitura ezaguna Goñerrian arrunta izan denik. Adibide bakan aurkitu dugu idazkietan: *Bule da privilegio generosoat, concedicen baitu Aite Sanduec Españeco Erreinu, eta Señorioegui (Pre V, 164); bai, Christio fielac, au de desgracieric, eta desdicheric andiena, mereji beitu negar itea odolesco lagrimequi (Ib, 676).*<sup>47</sup>

Gesalazten bada adibide zenbait *bai(t)* partikula ageri dena:

*Ondasun caduco eta aparente evec, aprisionacen bai zaituste! (372).*

*Aniz ipocrita, iduriarasten beizute emen, sanduenac cidala (375).*

*...apenas arquicen da inior ere, naiz dela zarrago eta naiz gaizquiago dagola, ezpaitu pensacen ciertoqui, vicitu vear duela aniz denboraz (373).*

Goñerritik ekialdera ezaguna da *bait* bidezko erlatiboko egitura; Beriainengan *-en* atzizkia ohikoa den arren (Ondarra 1985: 225) bada *bai(t)*-en adibide ugari: *...eta hau da meza, erran nay baytu ygorcea (1621: 18); sacerdoteac erraten du Kyrie eleyson, Christe eleyson, erran nay baytu, Iauna yducaçu misericordia, Christo yducaçu misericordia guzas (1621: 41). XIX. mende hasierako Ezkabarteko dotrianan ere bada: lembizico borzac dire necesidadezcoac zeñec gabe ezpaitaique salbatu cristioa uztembaitu desprezios erreziabitzeo (383). Peko alderdian Eguesibarren ere baziren, J. Lizarragak usu erabiltzen zituen: *...preservatzeas ta guardatzeas... baitaré erorcetíc berce ánitiz cúlpa ta becatuetán, erorico bainitza, ezpanindue guardátu (1979: 99). Artzibarren ere badira honelako adibideak Urizko dotrina lekuko: *dire eguiasco Socorro vazuc ematen vaitigu gure Jaunac (34A); badire verce vazuc deicen vaitire actualac (34A). 1729ko prediku ezagunean ere badira adibideak: marchoareen oguei eta borz garrenean, vaita eguna gure erredentorea guizon eguin cena (170).***

*Zein*-erlatiboak ere ageri dira, bestalde, Goñerriko testuetan; lau sailetan banatu ditugu: 1) *zein ere*; 2) *zañ ø*; 3) *zain -n*; 4) *cein beit*.<sup>48</sup> Lehen sailekoa dugu Goñiko Ebanjelioan hurrengo adibidean ikus daitekeenez: *erori ce ladronen escuetan ceñec ere bilustu zute...*(131). Bigarren ereduari dagokio Martin Joseph Markotegi goñitarraren hurrengoa: *datozela socorrizera dauqueten necesidade andia edateco iturri claro, eta eder batera: Omnes sitientes venite ad aquas: zañetan arquizen da erremedioa dauqueten necesidade andia socorrizeco (226-7). Adizkiari *-en* atzizkia erantsiz geginik ere badu Goñiko*

(47) Goñerrikoa izateko itxura duen baina ziurtasun osoa eskaintzen ez duen beste testu batean ere adibide bat bederen aurkitu dugu: *Cer eguin bear nue gueago guizonarendaco, eta expaitut eguin?* (Tes VI-1, 528). Erabat Goñerriko hizkera ez dakarren Goñerriko testuak (VIII)-n ere bada beste adibide bat: *Hicuzazue cer legue modua den graciascoa, baita guc orai dugun au* (Ondarra 1993b: 78).

(48) Baztertu dugun testu batean 'zain + bait' ageri zaigu balio azaltzailearekin: *alabaturic, ta estimaturic Jobec, (zaim baita paciencieco spillua); cf. Tes VI-2 (534).*

Markotegik, hirugarren ereduak, alegia: *diru, edo moneda, galduric dauquezuna, zain den Jangoicoaren gracia* (228). Beste testu batekoa da hurrengoa: *esta egunic ceñean guertatu esteiquenic gure vicieren fiñe* (Pre II, 147).

Mendebaldera egitura bera dugu Garcia de Albeniz araiarraren lanean: *edozain orduban ceñean becataria etorten dan zugana* (Altuna 1995: 122).

Azken ereduaren adibidea J. M. de Ibero munarriztarrak dakar: *erresucitetu beaurzu becatuen erioçetic, Jangoicoan graciera, ceimbeite arimen bicie* (99); eredu honetako adibideak ugari dira Beriainen lanean. Oltzako Iberoko kantuan ere ageri dira: *animaien sufragiotaco, ceñei justicies edo caridades baiteotet gueiago obligacio* (146); *malditoac ene maldadeac cañec ain gogorqui quendu baicizute vicia* (150). Andimendiaz bestaldera Uharteko dotrinan ere ageri zaigu: *Nic siñestacen dut Jangoyco Aita guztis poderoso, cerubaren eta lurreren criadorearen baiyen, arren seme bacar Jesu Christo gure Jaunaren baiyen, ceñi concebiyu baicen Espiritu Sanduberen obras eta virtutes* (Arakama 1994: 590). Ezkabarten ere bada Makirriaingo dotrinan: *Doctrine cristianaren lembizico prinzipioa. Zeiñ baite escribitue Juan Fran.co Goñiren escuz* (379); hurrengo adibidean bi ereduak ditugu, '-en + bait' batetik eta -en bestetik: *Da andre bat graziez, eta virtutez vetea, zeñi baite Jangoicoaren Ama Zeruetan dagona* (394).

Bestalde, -rik atzizkiaz bukatu aldaerak erlatiboan erabiltzean, -rikeko emaitza ezaguna aurkitzen dugu gure testuetan, Nafarroako beste hainbat lekutan bezala. Hona Juan Martin de Iberoren adibide bakan batzuk:

*Barcacen ditu sacramentu sandu onec, becatu confesaturiquequoengatic, mundu ontan, edo purgatorioan padecitu bear ciren penen parte andi bet* (103).

*...eta errecobraçea, becatuen medios, galduriquequo lenagoco obra on guçien merejimentuec* (ibid.).

*Ofreçizen diote Jaun Divino arrec vici luce eta diches beteriquecoa* (109).

Gesalutzen ez da honelakorik falta: *vecatutic e(n)gendraturiquecoa edo adulterinoa* (373). Ezta Itzarbebarren ere; Utergako dotrinan adibide pare bat aurkitu dugu: *Bateieturos [sic] iñiqueco becatuec barcaceco* (220); *pasaturiqueco bici gaistoan* (221). Ezkabarteko dotrinan ere ageri da atzizki hau: *iñiqueco becatuec* (398). Bestalde, Beriain idazlearenak aipa daitezke, eta baita egun Erroibarren, Garazin, Zugarramurdin edo Baztanen aurki daitezkeenak ere; Ultzamako idazki zaharretan ere bada ezaugarri hau: *iñiqueco becatuec* (Ibarra 1995b: 497).

Andimendiaz bestaldera ere ageri da ezaugarri hau mendebaldean, Ergoieneko Lizarragan bederen: *ta gue etxien piezak, eunek goxuec, eskuben inikekuec* (Solís 1993: 113). Ondoko Etxarrin ere bada: *ez giñuben opatu biziik, eta hilikekuec e gutxi ya* (NEM I, 17).

Aditzaren partizipioari loturikako beste era batzuk ere badira Andimendiaz bestaldera, -(r)iko eta -dako / -tako hain zuzen ere. Arruazuko adibidean -(r)iko ageri da: *len pasatuiko gauzek eta* (NEM II, 123). Ekialderago Erroibarko Mezkitritzen bildu du O. Ibarra adibide iduria: *bagoaikin eginiko ol zabala* (argitarag.).

Ergoieneko Dorraon -dako bildu du Koro Seguroiak: *lúrre bústiyá, beátza, lúrrekiñ indako masá bat* (EHHA). Aranatzan, Arbizon, hurrengo adibidea bildu du A. M. Echaidek (EHHA): *kúretuteko solumuá*.

Berezi xamarra deritzogu Izagirrek Altsasun bildu hurrengo adibideari: *Alsasun yonitako apaizá* (1967: 50). Adibide honen aldamenen hurrengo beste arruntago hau ere badator: *An zoon Alsasun yondako apaiza*.

Artolak ekialdeko Arakilgo Urritzolan 1980an bildutako hau ere berezixe da (EAEL): *góie... eztakít, sílle bát numbàitte báda, óla ín, iñékua estílo ártáá; eztákít non... eònko den...* Honen iduria da Ultzamako idazki zahar batean ageri zaiguna: *confesoriac maneco penitentziez gañera* (Ibarra 1995b: 497).

Atzizki bera ageri zaigu toponimian ere, baina kasu honetan badakigu aurkezten dugun egitura hau hedadura handikoa dela Nafarroa Garaian, ekialderantz Txulapain eta Eguesibar aldera bederen hedatzen baita (I. Segurola 1987: 272); Goñerriko idazkietan egitura honen adibide bakarra aurkitu dugu, J. M. de Iberoren lanean hain zuzen: *juan deneco zorçi, edo amar urtean* (685).<sup>49</sup> Hona orain Andimendiaz bestaldeko toponimiako bi adibide; lehena Unanukoa eta bigarrena Bakaikukoa (1713):

*A(h)untzak jeixten diraneko zelaia* (Nafarroako Gobernu 1992b, 65).

*Abadealsuaerorizaneozuloa* (Salaberry 1992: 640).

Unanuko hurrengo toponimoak egitura guztiz arrunta duela esan daiteke: *Gatza-ematendakiyonitturriya*.

Sakanan toponimiako aldaera *-dana-*dunak Arakileraino iristen dira (Salaberry 1998: 78). Olloibarren ere bada *-dena* morfema leku izenetan: *Arbeladena* Ollo herrian eta *Bagoaden* Senosiainen (Nafarroako Gobernu 1992: 89 eta 115); Olloibarko Anotzen *Zumiadenea* dugu (Salaberry 1992: 639). Itzako zendean ere bai: *Gurutzedena* eta *Illergidenekoa* ditugu Saratsan, eta *Artiadenekoa* nahiz *Zumeadenekoa* Leten (Jimeno Jurío 1990). Oltzako toponimoak dira *Aguadenekoa* Arazurin eta *Irassagarra denekoa* Izkuen (Jimeno Jurío 1989). Ekialderago, Erroibarren ere *-dena* & *-denea* saileko adibideak bildu ditu O. Ibarrak. Ekialdeko *-baita* atzizkiaz P. Salaberriren datuak ikus daitezke (1992: 640); orain badakigu, esaterako, 1634. urteko idazki batean Orbaibarko Leotz herriko toponimian ere ageri dela: *Elorriabayta* (1996, *FLV* 72: 226).

Ezagunak dira ekialdean, bestalde, aditz nagusia baizik ez darabilten egiturak; Aezkoan, esaterako, arruntak dira *—azken erman gura* ‘azkenik eramandako hura’—; Erroibarren egun ez da ageri honen arrastorik baina XIX. mendeko idazki batean badago adibide bat bederen: *Luciferrec engaiñatu bazuen Eva, Mariac abarricatuitiote buruac infernuco Lucifer guciei: zori onean jaio doncella ederra; dichosa, eta milla aldiz dichosa zara zu...* (Satrustegi 1987: 265). Ezkabarteko Anotzen ere bada egungo adibide bat bederen: *bezpéran iñ uré* (Artola 1985: 105). Goñerriko idazkietan ez dugu honelakorik ikusi.

5.4.5. Perpaua konpletiboetan esaldi nagusia ezezkoa denean *-enik* ageri zaigu menpeko perpausean Sakanan (Zuazo 1998: 221), eta baita Imotzen eta Basaburuan ere, baina *-ela* dago Ultzaman (Ibarra 1995b: 515), Esteribarren nahiz Erroibarren (Ibarra, argitarag.). Goñerriko idazkietan ez dugu aurkitu ezezko konpletiboen adibiderik eta ezin esan daiteke *-ela* ala *-enik* erabiltzen ote zen; aurkitu dugun adibide

(49) 1729ko prediku ezagunean *Zebedeo zeizolaco guizon baten andrea* dugu (169).

bakarra berezia da, 'ez da egia' egiturari darraikiona eta ez digu balio inolako ondoriorik ateratzeko: *esta eguie, beti villetu duzule laso, eta zabalena* (Pre IV, 159).

Nafarroa Garaiko ekialdeko hizkeretan —Aezkoa barne—, Baztanen nahiz Ipar Euskal Herriko mintzoetan "uste izan" aditz bereziak baiezko perpaus konpletiboetan *-en* atzizkia hartu ohi du; batzuetan ez da pertsonarik izaten perpaus nagusian, eta hauetan ere *ustes* hutsari *-en* duen konpletiboko perpausa jarraitzen zaio; honelakoa da Gesalatzan ageri den adibidea: *ustes guisa ontan illen cituen viec* (376). Ibarrek ere 'uste + -en' bildu du hainbat adibidetan Ultzaman, Esteribarren nahiz Erroibarren (argitarag.), baina badirudi Imozko eta Basaburuko aukera bakarra *-(e)la dela* (1995b: 515). Goñerriko idazkietan ez dugu 'uste(s) ...-en' egituraren adibiderik aurkitu.

5.4.6. Bonaparteren datuen arabera Goñerrian eta Oltzan kausazko perpausetan *kasos* eta *kauses* partikulak erabiltzen ziren eta Garesen eta Elkanon *kasos* eta *kausas*, baina ez zuen adibiderik eman (Ondarra 1982: 166). Aezkoan eta Erronkarin ere *kasos* edo *dela kaso* partikularen adibideak bildu dira eta O. Ibarrek Erroibarko Lintzoainen *{e}fontzen kartzélian ere ori dela kaso* adibidea bildu du (argitarag.).

Horiezaz gain, *zerengatik* partikula baliatuz egiten direnak ditugu Goñerrian:

*Ematen tiot nere Jangoicoo [sic] graciec, eta esquerrac, zeren-gatic [sic] ez neiz ni berce guizonac bezala* (Eb, 129).

*Assi ceiquio cargu item, cerengatic eszuen iñ arrec errana* (Ib, 180).

*Sartu cire andre piadosa aiec monumenture icusiçera, beñe esçute topatu Jesu Christoren gorpuçe, cerengatic, Eingueruec erran ciotem beçela, erresucitatu ce orduco* (Ib, 98).

Arestiko adibideak inolako konplementatzailerik gabekoak dira, baina partikula honi hala *-en* nola *bait-* txerta dakiok perpausaren barranean. Hona bi eretako adibideak, biak Juan Martin de Iberorenak:

*Cerengatic quadro arrec oreicen geituen Erregueren personas, cerengatic erreprentaçen digun quadro arrec Erregue bera* (104).

*Cerengati vicie gueistoa den* (253).

*Esçaquete icusi gure beiguiec, cerengatic beite espiritu purissima, edo espiritu utse...* (104).

*Eta ezarri ziote Jesus, nombre dulcissimo au, cerengatic ala beizauque Jangoicoac disponituric* (243).

Hurrengo hau prediku batetik aterea da, *beit* darabil ere, baina sarrerako partikula *zergatik* du:

*S(a)n Ambrosioc añadicen du, estela humanoa, guardacen duenac pureza, estela guizona, estela andrea, cergatic beite aiñguiruet* (Pre I, 138).

Oltzako Iberoko kantuan ere antzeko adibideak ditugu: *Nere Criadorea eta Erredentorea, cergatic zaren aiñ ona, eta cergatic onetsicen baizaitut gauce guciçc baño geago, nago damuturic eta urriquerituric* (146). Gesalazko hurrengo adibidean ez dago bigarren par-



tikularik: *au eztaquigu noiz izain den, cergatic ala dauque ordenaturic Jaun Soberano arrec* (373). Mendebaldera Garcia de Albeniz araiarraren lanean ere egitura hau dugu, atzizkiduna nahiz gabea, gainera: *cergatic, ezauturic neure culpac, ezcatcen deutzat barca-cioa biotz guztiti* (Altuna 1995: 122) atzizkirik gabe; atzizkidunak dira hurrengook: *cergatic amaiten zaitudan munduco gauza guztiac baña gueiago* (123); *zeregati zu zaran nere redemptorea* (122). Eskuin, Arakilen Uharteko dotrinan ere ageri zaigu: *cergati auec con-seguityuco dube* (Arakama 1994: 584). Eguesibarren ere berdin: *Bai. Cerengatic Jangoi-coarén glória ta sendagálla gloriósoa dá barcátzea* (1984: 163). Ezkabarteko dotrinan ere antzera: *onei main diotela seculoce glorie zergatic arren Mandamentu Sanduec guardatu baitzuzten* (383); *zergatic expainaiç christauba nere merezimentuz* (385). Egun ere egitura hau dago Anotzen: *eta soliatu niõn petrália, zèrgatik emáten tzutén básta* (Artola 1985: 108). O. Ibarrek ere *zer(en)gatic* sail honetako adibideak bildu ditu Esteribarren nahiz Erroibarren (argitarag.), eta Artzibarren ere erabiltzen ziren, Urizko kristau ikasbi-dea lekuko.

Andimendiaz bestaldera iraganik, esan dezagun kausazko *bait* partikula hau diru-dienez ez dela Burundan ezaguna baina bai Etxarrin, eta baita handik ekialdera ere (Zuazo 1994: 340).

Kausazkoetan behin baizik ez da ageri *-lako* atzizkia Goñerrian, bukaerako morfema txistukaririk gabe, gainera: *direla doi-doye Christioac, batayetuec direlaco* (Pre IV, 162). Oroitaraztekoa da ez Beriainek, ez Elizalde, ezta Elkanoko Lizarragak ere ez zerabiltela *-lako* atzizkia kausazkoetan. Mendiaz bestaldeko Sakanan, *-lakos* ezaguna da, eta baita *-lako* ere, Zuazok dioenez (1994: 340). Guk *-lakos*-en adibideak bildu ditugu: *zakielakos* (Lizarraga), *dielakos* (Etxarri), *ziolakos* 'zegoelako' (Arruazu). Mendebaldera Burundan ere bada *-lako*, eta baita Garcia de Albeniz araiarraren lanean ere: *zeralaco zerana* (Zuazo 1998c: 167). Eskuin, ekialdetik, Txulapain aldera jarraipena du atzizki honek Nabatzen: *bere aite ta ama il zuelakoz* (Etxebarria 1983: 216); egun, Imotzen eta Basaburuan erabiltzen da *-lakoz*, baina Ultzaman bakan, garai bateko kristau ikasbideetan baino gutiago (Ibarra 1995b: 511-2); Erroibarko Lintzoainen ere ageri da: *baña, ala ere ezta aufer egon naizelakoz* (Ibarra, argitarag.). Ekialderago, agerpen urria du *-lakos* atzizkiak Aezkoan, nahiz Nafarroa Beherean —Luzaide barne— *-lakotz*-en agerpena nabarmena izan. Goiti Bidasoaldean ere nabarmena da *-lakoz*.

Hauetzaz landa, Andimendiaz bestaldera balio azaltzailea duen *nolabait* dugu Ergoieneko Unanun Echaideren adibidean: *nolabáitt eztakín eztík esdán* 'ez baitaki ez du esanen' (1989: 393). Burundan ezaguna da egitura hau; Altsasun beste frankoren artean honakoa bildu zuen Izagirrek: *baya nolabait óitu in naun lanién fuerte, ni ezinaiz geldí yóon* (1967: 49). K. Zuazok dakarrenez egitura hau Burundan, Etxarrin, Arbizun eta Ergoienean franko erabilia da (1994: 339-340).

5.4.7. Xedezko perpausetan euskara zaharraren jarraitzaile ditugu Goñerriko tes-tuetan ageri zaizkigun egitura batzuk, *\*edin* edo *\*ezan* oinarria duen adizkiari *-(a)gatic* atzizkia loturik dutenak; Beriainengan ez dira ageri baina bai 1609ko olerki batean: *eta vici gayten gatic, dabil beti gure atçean* (Kerejeta 1991: 165); atzizkia lotu-rik ala bereiz idazteko ohitura gora-behera, *-(a)gatic* hautazkoa zela erakusten du Goñerriko hurrengo hiru adibideetarik lehenak:

*Pretendicen cue Christo gure Erredentoreac egoçi cezan alto artatic bere burue, eta geldì cedien miñic artu gabe, alaba cezaten icusten cuten gendec Sandue beque-la, desbanecitu cedien agatic, edo ensoberbiecetu cediengatic Christo (Ib, 93).*

*Permititu cizquìo, dio San Gregorioc, Christoren tentacioequi, eta vitoriequi garaitu guenzaguenagatic, guc, demonioa, gauren tentacioetan; eta logratu guenza-guenagatic aniç vitorie, demonioaganic (Ib, 94).*

*...eta guciec egorçen dizquigule Jangoicoac, emendatu gueiçenagatic (Ib, 695).*

Gesalutzen ere bada -gatic atzizkia aditzari loturik, baina hurrengo adibideak erakusten duenez adiera kausazkoa du: *arquicen dire infernuetan luce zutengatic* [sic] *veren conversioa verce egun bateraño* (381). Ezkabarteko Makirriaingo dotrina idatzi zen 1828. urtean ez dirudi xedezko eran erabiltzen zenik: *otoiz in zazu gure gatic Jangoicoaren Ama Santa izan gaitzen digno...* (380); kausazkoan, ordea, badirudi erabil zitekeela: *zu nor zaren gatic* (403). Eguesibarko Lizarragarengan Goñerrian bezala xedezko egitura ageri zaigu: *Jesus ónac passatu zué aimbérce guregatic, emánes exémpļu, segui dezagungatic* (1984: 116). Erroibarren —*gueiagoequin aprovecha dezanagatic zuen baitan zerbait* (Satrustegi 1987: 262)— eta Aezkoan ere honelako adibideak entzun daitezke; azken ibar honetako adibidea egungoa da: *atrutzen tugu tzuka ditengatic* 'lehor daitezen ateratzen ditugu'.

Nominalizatutako aditzari -gatic erantsirik xedezko balioa duen egitura, Euskal Herriko erdialdeko hizkera batzuetan segurik ezaguna dena, J. M. de Iberoren adibide batean bederen ageri zaigu: *aborrecitu guero becatuec, eta iñ, proposito firme bat, ez iago becaturic iteco, ez ofendiçea gatic, Jaun bet, eiñ ona* (247).

Nafarroa Beherean, ekialdeko testu zenbaitetan edo Aezkoan -t(z)ekotan atzizkiak xedezko adiera du eta Elkanoko Lizarragak ere badu honelako adibide zenbait: *viztu cé berriró guizón divinoa bére virtúte propios glorióso beticos, ez yá bérrix iltzecotán séculan* (1979: 37); honelakoan arrastorik ez dago Goñerriko hizkeran; bestalde, ohartzekoa da atzizki honek Ultzaman baldintzazko balioa duela: *gaizki itekotan* 'de hacerlo mal' (Ibarra 1995b: 515). Artzibarren, ordea, xedezkoa du balioa Urizko dotrian: *Nola vistu cen irurgarren egunean? Juntacen celaic aren gorpuzta eta arima veñere ez ilcecotan* (15B).

5.4.8. Erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan bezala, -nean atzizkia baliatzen da Goñerriko hizkeran denborazko perpausetan; -lariken / -larik atzizkia, berriz, moduzkoetarako: *eta Publicanoa cegolariquen urruti Elicetic ezue nei alchatu beguic Cerure beicic ericen zue bere pechoa, erraten zuelariquen iguiri bez misericordia, nere Jangoicoa ni becatorios* (Eb, 129); *eta eguinicen beridec escapatu (...) cere, uzicen zutelatic erdi viciric* (Eb, 131). Hona denborazkoen adibideak: *eta gueiego gastace(n) bauzu, nic izulcen neizenean, pagatuco dut gucie* (Eb, 131). Markotegi idazleak ere baditu -nean saileko adibideak: *Jangoico gure Jaunac mercheda* [sic] *eguín zizunean ezauceco galduric zindauquen joia andi ure* (228); baina bestetik, agian egin zituen irakurketei zor zaiokeen -larik ere ageri da haren lanean, denborazko perpausen kutsu zerbait baduena: *bada au estelatic eguiten izanen da zure confesioa gaistoa; eta eguiten duzularic conseguituco duzu arquizea diru, edo moneda, galduric dauquezuna, zain den Jangoicoaren gracia* (ibid.).

Mendebaldean *-la* da moduzkoetarako Garcia de Albeniz araiarrak darabilena, Sakanan bezala, ez *-larik* (Zuazo 1998c: 167). Sakana alderdian *-nian / -nien* ageri da denborazkoetan: *àusten zeénian & ta géo biltzén zuténea(n) úre* (Ihabar, Artola 1992: 215); *plume aubec solamente ibilcen cituen Cofradieco zerbait gauza esribitu biar zuenien* Gastesi irañetarrarena (Ulayar 1987: 58); *eta noizbette aburritzen giñenien lixutzes* (Lizarraga, Solís 1993: 112); *beya yá fórmátzen dánian déna* (Dorrao, EHHA); *-la* ere erabiltzen da denborazkoetan Sakanan, baina *-larik* ez (Zuazo 1998: 221).

Oltzako Iberoko otoitzean nabarmena da *-larik* atzizkiaren adiera moduzkoa dela:

*Erdeichi zadazu, Andrea, zure Seme Santissimoagatic izan dezaden nic podore emateco Zuri cervait alivio participacen ditudelaric zure penac sumiñac* (148).

*Ez cezute ez eman Cirinioa zuri lagun eguiteco zure penes zaucaten lastimagic baicic cumpliceagatic zure contra zaucaten ira gaistoa, deseacen zutelaric il cindaicen gueiago afrentarequi Gurucean* (ibid.).

Denborazkoetarako *-nean* dugu Iberoko otoitzean: *icusi cinduenean zure Seme onesie aiñ desfigureturic!* (148); *aimberce mella eguin zutenean zure Gorpuz Santissimoan* (ibid.). Antzera Itzarbebarren ere; Utergako dotrinan *-nean* ageri da: *cer erraten da juaten denean comecace...* [sic] (209). Gesalazko idazkietan ere *-nean* dugu: *eman cionean Jangoycoac noticie Isaias profetari* (371). Eguesibarren *-larik* dugu Lizarragaren lanean: *oroí bedi nitas, Jauna, doaieláic bere erreinurá* (1984: 125); *Lázaro póbrea llágas beteríc emén, il celaríc eraman zutéla Aingueruc paraisorá, dió Jesu Christoc evangelioan* (130). Aldiz, *-nean* da Beriainek darabilen atzizkia, edota bestela *-la*, baina ez darabil *-larik* (Ondarra 1985: 227).

Goiti, Gulibarko Larunben *-láik* agertu da Koldo Artolaren datuetan: *ta... gero... iltzen deláik...* (EAEL, 199). Txulapaingo Beorburun ere bai: *estútutzen delík*. Ibar bereko Nabatzen *iltzirelaik* adibidea dugu (Erizk). Goitixeago, Basaburuan, *-nean* sailekoak nagusi diren arren (Ibarra 1995b: 690), *-laiken* sailekoak ere baditugu, Ihabengo adibidea lekuko: *eta ni, bamabi urte nitulaiken joan nitzen...* (NEM II, 113); P. Salaberrik dioskunez (ahozk. lek.) Beramendin eta Udaben *-leiken* erabiltzen omen da. Ultzaman *-laik* erabiliagoa da *-nean* baino (Ibarra 1995b: 506). Odietan, Artolak dioenez, *-larik* morfema nagusi da, baina Ezkabarteko Anotzen, Iruñe alderago, beraz, Artolak *-nian* sailekoak bildu zituen: *gazitia nitzenian & egosten direnian & pasten tzenian* (Yrizar 1992: 53); 1828ko dotrinan ere *-nean* atzizkia dugu: *manatzen due-nean* (381), baina baita *-laik* ere: *Norz* [sic] *erran zuen Ave Marie? Aynguiru San Gabrielec torri zelaic Ama Virginen visitetzera* (394).

Gogoraztekoa da, bestalde, ekialdeko hizkeretan *-larik* atzizkia nagusi izan arren, inoizka ageri direla *-nean* morfemaren arrastoak ahozko mintzoan eta idatzizko testuetan, aspaldiago erabiltzen zela salatzen dutenak (Camino 1997: 495). P. Salaberrik dioskunez (ahozk. lek.) Luzaiden ere *-laik* da nagusi mende honetako gutun batzuetan, baina adibide batean bederen *-nean* atzizkia ageri da. Artzibarren ere gauza bera sumatu dugu; Urizko dotrinan *-laik* da denborazko perpausetako atzizkia beti, baina adibide batean bederen *-nean* ageri da: *Ave maria edo Salvea erraten duzunean norequi minzacen zara?* (20B)

5.4.9. Perpaua kontzesiboetan: *na(h)iz...* -*ela* egitura ageri zaigu \**ezan* eta \**edin* nahiz *izan* oinarria duten adizkien inguruan:

*Cerengatic da ain importante dolore au, zain faltaturic christauari, naiz bomita dezazquiela, edo confessatu bere becatu gustiac bere circunstancia gustiequi, esta izanen arren confesioa Jangoicoaren agradocoa* (Mar, 232).

*Naiz icen dadiela bat pobrea, edo abratsa, enfermoa, edo osasune duena, importacen du lazqui guti, baldin salvacen bada* (Pre IV, 157).

*...ece edoceñec, neiz dela necazarie, in çequela eternidadean consideracio au, modu ontan* (Ib, 255).

Hona beste adibide bat -*ela* baliaturik baina “izan” oinarririkako adizkia dugula: *absolvi dezaque penitente damutasunarequi eldu denari edozain confessoric naiz direla arquizen diraden fealdade eta ziquintasun andienecoac* (Mar, 240).

J. M. de Iberoren idazki batean *ba... ere* egitura duten esaldien adibide bat aurkitu dugu: *...eta aun, infernucoec ere, ecin berçeas badare, erreverencieçen, eta errespetaçen dutela Jesusen nombrea* (245).

Bestaldera, Gesalutzen ere badira *naiz* bidezko egiturak: *...apenas arquicen da inior ere, naiz dela zarrago eta naiz gaizquiago dagola, expaitu pensacen ciertoqui, vicitu vearduela aniz denboraz* (373).

*naiz...* -*agatik* egitura behin ageri zaigu Goñerrian: *erraten du Salvianoc, guezurre diozu, naiz erranagatic agoarequin, siñestacen duzule* (Pre III, 156).

Eguesibarren ere badira *naiz* bidezko perpaua kontzesiboak Elkanoko Lizarragaren lanean (Ondarra 1985: 234):

*Onéc consejatu ciò, naiz etzèien ezcondu, adorna zeieła gálas edér.*

*Sandu gucietaic daique átra vicitzaren exémpļu, naiz bérce estadotán vicitu ciren.*<sup>50</sup>

Ultzaman erabiltzen da *naiz* —Anuen *neiz*— (Ibarra 1995b: 512-3) eta baita Erroi-barren ere: *naiz karioago saltzen zuten* (Lintzoaingo adibidea, Ibarra, argitarag.). Baztanen eta behe-nafarreraz ere bada *naiz* kontzesiboa, baina ez da ageri ekialdera Aezkoa-Zaraitzuetan, ezta Artzibarko Urizko kristau ikasbidean ere; dotrina honetako adibideak dakartzagu: *contricione perfectotit vat confesatuic ez egonic ere, varcacen zaizquio vere becatuac* (38B); *eta guero vat edo verce confesioneac inic ere erorcen valimbada vecatu veretan* (39B).

Mendebaldera Andimendiaz iparrera berragertzen zaigu *neiz* Ergoieneko Dorraon Koro Seguroiak bildu adibide batean (EHHA): *or éon deittezké bí kláse, néiz izéna béra ón ‘nahiz izena bera eduki’.*<sup>51</sup> Uharteko dotrinan ere bada: *becatu mortala naiz icen jurementube gauce chiquityeren gainen* (Arakama 1994: 598). Mendebaldera Garcia de Albeniz araiarraren erabilera aipa daiteke: *bada amaduco zeinduquet naiz expalego Infernuric ceñegaz pecataria castigadu* (Altuna 1995: 123).

(50) Ikus J. Apececheak eta F. Ondarrak prestatu *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 174 eta 160. or.

(51) Arabako DLC-ko *eun* “edun” gogora dakarkigun *eon* bildu du Ergoieneko Dorraon K. Seguroiak eta Imozko Latasan ere ageri zaigu: *pues orrék edte(n) zittún, lau kótxe* (EAEL, 191).

5.4.10. Konparazio perpausetan erabiltzen diren partikulen artean honako adibi-deak bildu ditugu sistematikoa izateko helbururik ez duen hurrengo zerrenda honetara:

“-ago”: *izanen zara gutiago desdichetue, ta infelize, cergatic estucen pensatu?* (Pre IV, 160).

“Bekein” = “bezein”: *elurre bequein churi cen bestidure batequi* (Ib, 98); *Jan Goicioa beceñ gauce andiric* (655). Ez dugu aurkitu Goñerriko testuetan aditz iragankorretarako Eguesibarko Lizarragak zerabilen “diña” partikula: *eztá valio duén diña costa* (1984: 126). Badarabil J. M. de Iberok “ala”: *eciñ erran ala neque ta pena* (679).

“Bezela”, “bekela” & “bezala”: *zure burue bezela* (Eb, 130); *desvergonçatu den vezala* (Ur); *gueldi deçela ecin mogitus, arriec bequela* (Ib, 111). Ohar, bestalde, adibide batean bederen ekialdeko hizkeretan edota Bizkaialdekoetan —*ena legez hauetan*— ageri den *-ena bezela* dagoela J. M. de Iberoren idazki batean: *eta comecatu ondoan, esta atra bear berla Eliceti, aniç debocio baguecoec, eta desatentoec, edo errespeto baguecoec Jesu Xto errecibitu dutunari* [sic], *iten dutena becela* (102).

“X nola Y”: *Eta neiz parti dezatela mille particuletan, lomismo dago parteric chiquienean, nola andienean* (Ib, 101). Ekialdera, Aezkoan ere bildu da egitura hau Hiriberrin: *erdéras nola uskáras*.

“Ala nola”: *Vici gada ala nola gure burteac eternoac lirequen bezela?* (Pre II, 147). Egitura zaharra da eta 1609.ean Iruñean saritu olerki batean ere ageri da: *gure artean guel-ditu çe, ala nola çeruan* (Kerejeta 1991: 163). Gesalatzten ere ageri da: *ala izaten da aien eriocea nola izan cen aien vicie* (385). Aezkoan ere *igual nola* egitura arras erabilia da: *arrepak igual nola maztekiek ‘gonak emaztekiek bezala’* (Hiriberri).

“Eiñ nola”: *...divertiçen direla, irri iten dutela, chanceaçen direla, eta alegaçen direla, eiñ, nola ezpalauquete becuric, batere?* (Ib, 686). 1729ko nafarrerazko prediku ezagunean ere bada egitura hau: *predicuac vear tucie artu deseo andi batequi izan daitecen zuen provechutan, ainola bapedraren vailerduca predicazaleac* (168); ekialdera Aezkoan ere bada egitura hau: Abauregainean *ainola bea* ‘hain nola behia’ bildu dugu.

5.4.11. Baldintza perpausetan “(baldin) ba-” bidezko ohiko egiturak dakuskigu Goñerriko hizkeran:

*Nauronec erran niñe, ezala cer joan Erregueren cortera ece joaten bainçe galduco inçela* (Ib, 96).

*Jan Goicoaren Semea baimezara, egoçi çezu ortic Zaure buru ori* (Ib, 93).

“Baldin” indargarri hau Garesen, Eguesibarren eta Oltzan ere erabiltzen zen (Ondarra 1982: 163), baina ez da ohikoa mendebaldeko hizkeretako idazkietan, nahiz Garcia de Albeniz araiarrak badarabilen: *baldin zuc erregutcen badiozu*; Arabako gainerateko idazle zaharrek ez dakarte (Zuazo 1998c: 168).

Hau ezaz landa *non ta* bidezkoa ere baliatzen da Goñerriko hizkeran: *edo Confesioric bague, non ta il dayen contrito, edo urriqueturic bere becatues, eta non ta estayen icendu Perezoso, edo negligente confesacean...* (Pre V, 166).

Ezaguna da egitura hau Eguesibarren: *non ta humillatzen gáren, ematuco dú golpea* (Lizarraga 1984: 127). Bestalde, ekialdera, Aezkoan eta Nafarroa Beherean ere erabiltzen da.

Egitura bat bada ekialdera —Eguesibarren, Aezkoan, Erronkarin— baldintza perpausetan erabiltzen dena, *-t(z)ekos* atzizkiaren bidezkoa hain zuzen —Nafarroa Beherean *-t(z)ekotz*—; hona Elkanoko Lizarragaren adibide pare bat:

*Baña onéc ere icustecós, bear dú Jangoicoaren árguia, edo argui dezón Jangoicoac* (1979: 55).

*Alá guc ére diógun, onic izatecós, norengána joain gára, ezpáda orrengána?* (1984: 79).

Goñerriko idazkietan ez dugu honelako adibiderik aurkitu, ezta Beriainen edota Elizalderen lanean ere; O. Ibarrek ez dakar honelako erabilerarik Ultzama alderdian ezta Esteribar-Erroibarretan ere.

5.4.12. Aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren aitzinetik joan daitezke “na(h)i” eta “be(h)ar” aditz bereziak Goñerriko hizkeran: ‘na(h)i = be(h)ar + aditz laguntzailea + aditz partizipioa’ da sortzen den egitura. Adibideak anitz dira eta guk hona sorta bat dakargu:

*Eta no obstante aiñ egui andie, nai dute leitu comedietaco liburuetan* (Pre I, 139).

*Nai duzu proseguitu trato desonesto, eta ocasio peligrasoetan* (Pre I, 143).

*Eta icusi zute gaste galardoat, nei du erran Eiñgueruet* (Ib, 98).

*Baru naturalen comecatu bear dela, naut erran, ece gauesco amabietatic aurrera* (Ib, 102).

Dena den, badira aurkako adibideak:

*Nic confesatu bear dut nere fragilidada propioac* (Pre I, 139).

*Anizec sartu neico dutela* (Mur, 91).

*Orei galdiñ neico dire zuetatic norbeitac* (Ib, 665).

Tankera bera aurkitzen dugu Oltzako Iberoko kantuan ere: *biar da eguiñ Ofrecimentue, endrezaceco obrac Jangoicoaren honrrari* (146). Antzekoa da Elkanoko Lizarragaren erabilera: *naut egón gurúcean* (1984: 112); *nauzu sendátu?* (1984: 86). Gesalazko idazkietan “be(h)ar”-en adibide bat bederen bada: *cembat gueiago vear guindunque gu asustetu egungo egunean?* (371) —baina aurkako joera dakusagu hurrengo adibidean: *escatu vear digula contu erchi bat* (372)—. Ezkabarteko dotrinan ere arestiko egitura dugu: *ssaquitea cer bear dugun siñestatu; ssaquitea cer bear dugun escatu* (387) & *cembat gauze bear dire ssaquin?* (399); *Zer nai du erran Sanduen Comunioac?* (391) —baina baita bestelakoak ere: *Zer erran nai du Jesucristoc?* (390)—. Egungo mintzoan hondarreko eredu honetako bi adibide bildu dira Anotz herrian: *ta ándik... pasátu... biár giñuén; énuén... yoán nai* (Artola 1985: 108). Erroibarko idazki zaharretan ere badira ‘na(h)i = be(h)ar + aditz laguntzailea + aditz partizipioa’ ereduko egiturak: *beagu in* (272); Artzibarren ere ageri dira, Urizko kristau ikasbideko adibideak lekuko: *eta orduan veaute ilec resucitatu?* (16A); *eta nola veaute enzun?* (29A).

Andimendiaz bestaldera entzuten dira honelako egiturak Arakilgo Lakuntzan: *Biyer nei dut juatie Iruñé* ‘bihar Iruñera joan nahi dut’.

5.4.13. Aditza galdegai denean *egin* ageri zaigu perpausuan Euskal Herriko erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan. Goñerriko testuetan ez dago honen arrastorik eta Eguesibarko idazle Joakin Lizarragak ere ez zerabilen. Itxaron zitekeenez, Andimendiaz bestaldera ageri da ezaugarri hau; Burundan badugu: *il in dia danak* (Izagirre 1967: 67). Ergoienerako Lizarragan ere bada: *zek eztezie ezantu, beia egosi itten zian lixuek* (Solís 1993: 112). Ondoko Dorraon bildu dira hurrengo hauek: *sékatu ín da; sepáratu ittén dagiyo* (EHHA). Aranazko Arbizukoa da Echaidek bildu duen hau: *ori eitentzen eosi* (EHHA). Arakilen Uharteko 1925eko inkestan ere ageri da: *erori egin naiz. Erizkizundi*-ak erantzun hau bera dakar Irañetan ere. Artolak bildu ditu adibideak Arakilgo Ihabarren: *itzéli in du; estáli in du* (1992: 199-200). Ekialderago, Irurtzun ondoko Izurdiagako *aztuen dakit* ‘se me ha olvidado’ dugu, non *aztuen* hori ‘aztu e(gi)n’ ulertu behar dugun (Idoy 1981b: 207). Aski hurbil, Imozko Goldaritzen *eman in duzu* ‘eraman egin duzu’ eta *ekarri itten balin badu* ‘ekarri egiten baldin badu’ bildu dira berriki.<sup>52</sup> Ekialderago, O. Ibarrek Esteribarren nahiz Erroibarko Lintzoainen “egin”-en adibide indargarriak aurkitu ditu oraintsu: *arek despreziatu iten zue; paratu in dute etxetara; konprenitu iñen du dena, baña ezut aitu* (argitarag).

5.4.14. Ere partikula daramaten perpausetan indartzen den osagaia aditza baldin bada, egitura bereziak sortzen dira Nafarroa Garaiko ekialdeko hizkera batzuetan. Urdazubiko idazki batean edota Aezkoan baditugu adibideak, esaterako, eta baita, jakina, Ipar Euskal Herrian ere (Camino 1997: 508-510); sail honetakoa da Oltza zendeako Iberoko otoitzean ageri den egitura aipagarri hau: *bi ladronen ertean Jesus imincen dute; zaticacen ere dute ilcequi josicean* (Arraiza 1988: 149). Ezin atzendu da Elkanoko Lizarragak ere bazerabiltzala tankera honetako perpausak:

*Doácin becála acabátus, ássi ére cire nondicháit: lembicicotic assi cire* (1979: 56).

*Izén gañécoa dú Christo, nai baitu errán Ungítua edo consagrátua errégue eta sacerdote etérnoa becála. Deitzen ere dá Emanuel, nai baitu errán guréqui Jangoicoa* (1979: 133).

Goñerriko testuetan bada egitura honen adibide bat J. M. de Iberorena:

*Eta ez sollic, arrie beño gogorragoco becatoreac berasten, eta convertiçen dire Christoren Passio santissimoa ongui consideraçarequi; beicic, convertiçen ere ditu becatoreac, Eingueruetan, Christo gure Erredentorean Pasio sandue, ongui consideraçeac* (242).

Ez dirudi Ultzama alderdian ezta Esteribar-Erroibarretan ere honelako egiturarik erabiltzen denik (O. Ibarra, 1995b eta argitarag.).

5.4.15. Nafarroako beste hainbat lekutan are egungo mintzoan gertatzen den bezala, *ezin* partikula bidezko perpausetan aditz nagusiaren ondoan doa “\*edin”/“\*ezan” saileko adizki laguntzailea nahiz bestelakoetakoa. Hona adibide

(52) Ikus P. Iñigo, P. Salaberri eta J. J. Zubiriren “-ki aditz atzikiaren gainean”, 1995, *FLV* 69, 285. or., 257. oinoh.

batzuk. Lehena Juan Martin de Iberoren testu bateko pasarte da: *in dut aleguiñe, beñe eciñ expliquetu dut obequi lance tierno au...* (97); *sartu neico dutela eta ecin sartuco direla* (Mur, 91). Hirugarrena prediku batekoa da eta bertan [+ ahal] ezaugarria duen adizkia dugu: *ala ecin erran dezaquegu, noiz, eta non izenen den Juicio au* (Pre III, 151).

Mendiaz bestalderako 1925eko Arakilgo Uharteko datua balia dezakegu: *ezin erori naiz*; adibide hau bera ageri da Irañetako *Erizkizundi*-ko erantzunetan ere, eta 1850eko Gastesi irañetarraren testuan ere antzera gertatzen da: *ecin ocultatu zuquien bere aurpeguico señalie* (Ulyar 1987: 58). Eskuinera berdin dira gauzak Txulapaingo Nabatzen ere: *ezin bota naiz* 'ezin naiz erori', *ezin txausi naiz* 'ezin naiz jaitsi' (Erizk). Imotz eta Ultzama alderdian ere ezaguna da egitura hau, eta baita Erroibarren ere (Ibarra, argitarag.): *nagusiak ezin atera ditu* (Lintzoain); *ezin ukitu dela* (Mezkiritz). Aezkoan ere erabiltzen dira (Camino 1997: 505): *ezin igantzen goiti* (Orbara).

5.4.16. Euskara zaharrea badira hainbat perpaus ondoren *ezi* edo *eze* daramatenak: menpeko perpausen ingurunean ageri dira partikulok, ondoriozko adieraren inguruan, azalpenarenean edo konpletiboko esaldienean. Berrianeke *ece* perpaus konpletiboetan zerabilen besteak beste: *gauza ciertoa da ece... ongui bear duela jaquin* (1621: 6). Goñerriko testuetan agertzen dira inoizka honelakoak. XVII. mende bukaerako Urdozko testuan *ezi* dugu, azalpenaren edo ondoriozko perpausaren testuinguruan: *çaute ysilican eci escu libertatundaco Jaingoicoac badauzqui castigoac* (Satrustegi 1987: 53). J. M. de Iberorena da hurrengo hau, azalpen edo ondorio kutsua duena: *eman cio errebes bat, eta erran cio gezurre dion, ece ni naun demonioa, eta nauronec erran niñe...* (96). Idazle honen beraren hurrengo adibide hauetan, berriz, *eze* perpaus konpletiboaren testuinguruan ageri zaigu: *emen eracusten digu Christo gure Erredentoreac ece sufritu bear tugule gaurogui iten daquizquigun agrabioac* (94); *orai ceite, ece Aite eta Amengatic ece escinela ssaioaco* (105). Beste hau Muruzabalgo idazkian agertua da: *Sto. Thomas de Aquinoc dio, ece Xsto gure erredentorea manifestatu ceiquiotela* (86). Prediku batean hala ondoriozko testuinguruan nola konpletibokoan ageri zaigu:

*Da aiñ andie virtute au, ece estaquit expliquecen bere alteza* (Pre I, 137).

*...ponderatu zutelatic lenago, ece impureza dela becatu lazqui aborreciblea...*  
(ibid.).

Konparazio perpausen artean ere badira adibideak: *cierto dela direla gutiego salbacen direnac, ece c(on)denacen direnac* (Mur, 88). Aldaerari dagokionez, esan dezagun zeze ere ageri dela Muruzabalgo idazkian konpletiboetan nahiz ondoriozkoetan: *erraten digu Sn J{ua}n Evangelistec cece icusi zuela eimb(e)rre b{ie}naventuretu, cece eszeiquiela c(on)tatu iorc* (88).

Gesalutzen bi ingurunetan ageri zaigu bederen, konpletibokoan eta ondoriozkoan: *erraten digu guri ece iaqueta etorri vear duen Christoren Magestadea...* (383); hona hemen ondoriozkoa: *alteratuco da Ysaso amberce gradotan ece gende gucien [sic] egonen dire veldurturic* (383). Ez dago honelakorik Ezkabarteko dotrinan: *da gauze bat aiñ escelentea, ta aiñ admirablea eziñ erran eta ezin pensa daitequena* (388); aldiz, 'baizik'-en adiera duen adibide honetan bada: *Noiz izembear du juizio onec? Niorc etaqui Ayte Eternoac, ezi berzec* (392). Eguesibarren, Elkanoko Lizarragak ere bazerabiltzan honelakoak; idazle honen jardunean *ezi* lau ingurunetan ageri da bederen: konpletiboan,



konparatiboan, baldintzakoan eta erdal *puesto qué*-ren parekoan; Artzibarko Urizko dotrinan konparazio perpausetan aurkitu dugu: *nayago munduco gauza guciac galdu eci Jangoicoa ofenditu* (22A).

Andimendiaz bestaldera eze ageri zaigu konparazio perpaus batean Uharteko dotrinan: *lenago nai icetie mundu gucie galdu ece Jaungoycua ofendiyu* (Arakama 1994: 585); halaz ere, ingurune honetan *baño* da partikularik erabiliena.

5.4.17. Aurkaritzako juntagailuen artean *baizik* / *beizik* ageri zaizkigu Goñerriko testuetan, baina baita *baiz* edo *beizi* aldaerak ere. Markotegik, esaterako, *baiz* eta *baizic* dakartza, baina azken hau gehiagotan. Hona hemen ageri diren bi *baiz* horiek: *estizudela penitencia gueiago ematen, baiz iru aldis errezazea Pater noster* (231); *cerengatic ezin duce gustis uzi becatuac, baiz guero proseguizeco* (236). Hona orain *baizik*-en agerraldi bat: *cer pensatu bear du baizic estela possible orlacoac izatea...* (232). Juan Martin de Iberoren lanean *beizik* dugu: *cerengatic esta asqui Jangoicoa amaçea, eta honrraçea, bera sollic, beicic amatu, eta honrratu bear dugu bere imagen bici abetan, cein beitre Aite, eta Amac* (105). *Esta gizona oguierequi sollic bici... beicic Jan Goicoaren icerequi, eta doctrinerequi bici de arime* (92). Muruzabalgo 1751ko testuan berriz, *beizi* ageri zaigu: *bada cer da beici glorie verdaderos azenduric vizizea, aizea, cembeit temerarioc edo desalmatuec erraten dutena descaroatequi?* (87); *...cer significacen du, Xstio fielac, beicic descuido andi bet s{a}lvacione queñean icusicea* (89-90).

Andimendiaz bestaldean *ezpada* juntagailu mendebaldekoa ageri zaigu Uharteko dotrinan: *bada ascotan eztre ezpada venialac* (Arakama 1994: 585); *baizik* partikula ere ageri da dotrina honetan.

Mendebaldeko ohiturari jarraikiz, beste hizkera batzuek *ordea* lokailua darabilten gune berean —perpausaren bukaeran— *baya* erabiltzen da Burundan eta Ergoienean:

*Seriyoa izan dai, serioa bizimodua gue aurreko jendiak, eta geuk e bastante, orai ondo gaude baia* (Urdiain, NEM I, 47).

*Goien malkorrien ataatzan da utsa, izugarritziko utsa ataatzan da, oain gutxi etorko da beia* (Unanu, Zuazo 1994: 341).

Gesalazko, Goñerriko eta Eguesibarko idazkietan ez dago honelako egiturarik eta Ultzama alderdian, Esteribar-Erroibarretan edo Aezkoan ere ez da honelako adibiderik bildu.

5.4.18. Euskal Herriko hainbat lekutan eta testu zahar frankotan, osagarri zuzenaren egitekoa betetzen duen sintagma genitiboan jokaturik joan daiteke. Joera honen iraupena gehienik ekialdean nabarmentzen da; Goñerriko testuetan ere badi-ra adibideak. Agian gure inguruko lehen agerpena Urdozko 1687ko testukoa dugu: *gure Jangoicoac badauzqui castiguac escu libertatuen vere eche sanduen castigaceo* (Satrustegi 1987: 53), nahiz testu horretan bestelakoak nagusi diren: *escu libertatuac badaqui Jangoicoac castigacen* (ibid.). Juan Martin de Iberoren adibideak ziurragoak dira:

*Legue sandue, lendabissico iru mandamentuetan escaçen digu viotz gucie, beraren amaçeco, escaçen dizquigu gauren mie, eta itz guciec, beran alabaçeco, eta escaçen dizquigu gauren obra guciec, Jaun Divinoaren adoraçeco, eta erreberencieçeco...* (105).

*Demonioari culpen egoñicen* (96).

*Gizona escoa bat escuen artu, eta echan chauñen!* (110).

Baita beste hurrengo hauetan ere:

*Eta au gucie: p[ro]pter retributionem, cosecha onan bilzeco esperanzarequi* (Mur, 86).

*Penitenciaren medios becatuaren aborreciceco videac* (ibid.).

*Arracio ce cindoacen zu Jaun Divino onen errecibizera* (Elizk, 166).

Osagarri zuzena absolutiboan ageri den adibideak ere badira, jakina:

*Eta argatic aubetan arquicen diren gaucec icusteco, preciso da arguia isequicea, eta artas valiecea* (Pre III, 155).

Oltzako Iberoko otoitzean ere ageri zaigu aipatu egitura genitiboduna:

*Lagun eguin cezon Gurucen eramaten* (148).

*Eta ez cindue mocadoreric zeure izardi andi aien chucazeco* (149).

Beheti Itzarreibarko Utergako XVIII. mendeko kristau ikasbidean ere badira honelako egiturak:

*Siñestacea etorrigo dela juicioco egunean onen eta gaistuen juzguecere* [sic], (205).

*Sinestacea pasatu zuela pasio eta orioze* [sic] *mundu gucien salbaceagat(ic)* (204).

Bestelakoak ere badira, ordea:

*Lenbiscue eriec vistecea... Laugarrena cautiboac rescatacea. Borzgarrena villusiec besticia* (205).

Estellerriko euskara zaharrean ere bazen ezaugarri hau; Elizalde apezaren dotrina argitaratuan ugariago, haatik, Muzkiko eskuizkribuetan baino (Salaberri 1994: 11). Ikus ditzagun Muzkiko adibideak:

*...bada examicea* [sic] *conciencie ezta verceric solo pensaceo eta discuticeo edo memoriera ecarriceo vecatu cometitu dituen gucien azqueneco confesionetic presentecoraño* (384).

*...eta guisa ontan arrapacen ditu erioceac derrepente eman bague demboraric disponiceo eta justifiquececo veren animen gauzen eta ala izaten da aien eriocea nola izan cen aien vicio* (385).

Andimendiaz bestaldera ez da egitura genitibodunik Uharteko dotrinan (Arakama 1994: 585). Eskuin, ordea, Ezkabarteko Anozko egungo datuetan ageri zaigu: *fálta zituén ardí betzuk, eta... billettéza, ayén billátzera* (Artola 1985: 107); XIX. mende hasierako Makirriango dotrinan ere badira adibideak: *onen eta gaisstoen juzguetzera* (380); *asten garenean obra on baten iten* (386); Ultzaman osagarri zuzena genitiboan erabiltzea

gero eta gutiago betetzen da, eta baita Erroibarren ere, baina azken ibar honetan oraino adibide ugari entzuten da (Ibarra, argitarag.). Urizko dotrinan ageri denez, Artzi-barko euskaran arrunta zen jokabide hau eta egun usu entzun daiteke Aezkoan ere.

Berezitasun bat bada inguru honetarako aipatu beharra dena: osagarri zuzena genitiboan joate hori ez da beti-beti *-t(z)e* nominalizatzailearekin zertan agertu; J. M. de Iberoren adibidea gardena da: *bada ezpalique Jangoicoan gracie gatic, berçe guises, iquenen niçequé ni, Jesu Christoren enemigo andi bet, eta christio fielen perseguizaleric andiena, Jangoicoan Gracien errecibitu beño len, niçen becela* (660); ohar bedi *gracien* genitiboan jokatu dela eta ez inesiboan.<sup>53</sup>

5.4.19. Adiera kopulatiboa duen sozietiboko atzizkiaren adibideak bildu ditu K. Zuazok gure ingurutik bestaldera: *Joxepakin biyok garbittu diau kotxie* Etxarrin; *aizpaaki biyok prestatu duu afaaiya* Arbizun eta *ellaatu giñuskiyaan Adrianookin biyok* Dorraon (1994: 340). Mendebaldeko Arakilgo Lakuntzan ere ezaguna eta erabilia da egun egitura kopulatibo hau, are gazteen artean. Goitixeago ekialdera adibide egokia da Ultzamako Larraintzarko hurranen toponimoa, puntuaketa anarkikoa gora-behera: *Garayco larrearequin; goyco berroen vitarte*a (Salaberri 1996, *FLV* 72: 225). Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan honelako adibideak ugari dira testu zaharretan; cf. Lakarra (1983).

5.4.20. Nafarroako beste hainbat lekutan bezala, *utzi* aditzak adlatiboko atzizkia eskatzen du gobernatzen duen menpeko perpausean. Hona Juan Martin de Iberoren adibide bat: *au guci au da preciso ssaquitea, eta ez uçi acençera...* (102). Hurrengoa prediku batekoa da: *eta erioceac berac ematen diote argui, icusi dezaten infernuco videa, eta acençera ustea au, da causa, icen dadien aiberce itsu mundu ontan...* (Pre II, 145).

Gauza bera gertatzen da *atrebitu* maileguarekin ere: *bada atrebicen naiz erratera, asqui izenen litcequela* (Pre III, 151); *bada ni esniteeque atrevituco pronuncieçera, ezpalique bere agocoa* (Pre I, 139).

Oltzako Iberoko kantuan ere berdin gertatzen da: *zaurorrec nai cinduelaric uci ciñe salcera, preso arrepacera eta eramacera* (147). Eguesibarren ere berdin erabiltzen zen: *eztú ez utzico galtzera costa zaióna aimbérce* (Lizarraga 1984: 113); horrezaz gain “prest egon” dugu Elkanokoaren lanean: *prest nágo errecibitzerá orrén azóteac* (122); *asteco prestátzen iltzerá lendaníc* (64); Erroibarko dotrinan ere, berdin: *prest dagola barcacera* (Satrustegi 1987: 270).

Ezkabarteko dotrinan ere “utzi”-k adlatiboa dakar: *ezcachazule utzi tentazioan erorerera* (380). “Jatera/edatera eman” dugu, bestalde, dotrina honetan: *goseac dagonai sateramatea & egarriec dagonai edatera matea* (382); egungo mintzoan ere berdin: *máten tzutén yatéra* (Artola 1985: 108). Ultzaman eta Aretzen ere “utzi”-k adlatiboko atzizkia eskatzen du, baina absolutibokoa Imotzen eta Basaburuan (Ibarra 1995b: 517); ekialdera, adlatiboa dago egitura hauetan Aezkoa ibarrean.

(53) Dikaztelun agertu berri den euskal idazkian (Etxaniz 1999) perpaus bateko pluraleko subjektua genitiboan doa, non eta adibidean *<-n>* hori ez den *<-c>* baten ordain dagoen hurs daktilografikoa: *Jangoicoaren vorondatea dela gucion salba gaizen* (496); iduria den beste adibide batean hurs daktilografikoa dagoela dirudi, ez baitago genitiboan doanaren eta adizkiaren arteko numero komunzadura egokirik: *Jangoicoren vorondatearen gañan gizonan salba deizen* (495); testu berean ikusten denez, genitiboko plurala *guizonen* da (495).

Mendiaz bestalderako Ergoieneko Dorraoko lekukotasuna dugu batetik, bikoitza dena, adlatibokoaz landa inesiboko atzizkia ere ageri baita “eman” aditzean: *játen emátékó & ematekó jatiá*; baita *jatia eman* ere (EHHA). Bi joerak ageri dira “utzi” aditzean Arakilgo Uharteko dotrinan ere: *ez gatchazule uci tentaci(o)an erortcera* baina baita *utci... ez erorcen eta ez consenticen* inesiboduna ere (Arakama 1994: 584).

5.4.21. Deus adierazi baino lehen, errepikatu beharrekoa da syntaxiko ezaugarriak aztertzeke ez dugula nahi bezainbat baliabide; hartara, ezaugarri zenbait idazki batean ageri ez direnez, hizkera horretan erabiltzen ez zirela pentsatzeko tentaldian eror gaitzkeela guztiz jabeturik egon behar dugu eta aitortu, bestalde, atera ditzakegun ondorioak errealitateari hurbiltzeko saio bat direla; geroztik, dakarguna gehiago da ikuspegi zatitu bat errealitatearen argazki on eta zehatza baino.

Oro har, ezagun du fonologiak edo morfologiak eremuak banatzeko ematen ziguten bezainbat aukera ez dagoela syntaxiaz diharduen atal honetan. Horren lekuko dira aztertu dugun eremu gehienez ageri zaizkigun hainbat ezaugarri edo egitura: *guzi* zenbatzaile zehaztugabea erakuslearen giblean agertzeko aukera orokorra da, *-(r)ikako* erlatiboko atzizkiaren hedadura ere zabala da, *zergatik & zerengatik* bidezko kausazko perpausena bezala, eta baita baldintza perpausen eredia ere. Hedadura handia du ‘be(h)ar = na(h)i + ad. lag. + ad. nag.’ egiturak; berebat, orokorra dirudi ‘ezin + ad. nag. + ad. lag.’ egiturak. Testu zaharretan eremu hauetako hizkera gehienetan ageri dira *eze* edo *ezi* partikulak balio bat baino gehiagorekin, eta nekeza da ezaugarri honen arabera eremuak banatzea. Aipatu hauekin guztiekin batera badago beste ezaugarri bat, aditzondo indartuek hartzen duten mugatzaileko atzizkiari dagokiona hain zuzen: Goñerriko idazki batean dugun *doi-doi*-ren sailekoak erabiltzen dira geure eremu guztian, salbu ekialdeko Arakilen, baina ez daki-gu xuxen horrek zer adierazten duen, ez dagoela, edota besterik gabe, badagoen —edota bazegoen— zerbait ez dela ageri eskuztatu ditugun lanabesetan.

Iduria da hurrengo ezaugarriak hartzen duen eremu hedadura, baina oraingoan Burunda kanpo gelditzen da eta, beraz, bertatik ekialdera dauden ibarretako ezaugarria da: kausazko perpausetako *bai(i)* aurrizkiak dihardugu.

Geure eremuaren mendebaldera mugatzen diren hizkuntza ezaugarriak aurkeztuko ditugu orain: mendebaldekoa den eta geure eremuan soilik XIX. mendeko kristau ikasbide batean ageri den ezaugarri bat bada, *ezpada* aurkaritzako partikula, Uharteko dotrinan duguna. Adiera kopulatiboa duen soziatiboko atzizkia ere Sakanako mendebaldeko arkaismoa da. Perpaus bukaerako *baya* lokailu kontzesiboa ere Burundan eta Ergoienean erabiltzen da. Antzera gertatzen da *nolabait* ageri den egitura azaltzailearekin: Burundan, Aranatzan eta Ergoienean bildu da. Eremu iduria hartzen du erlatiboko *-tako* atzizkiak (Altsasu, Arbizu eta Dorrao), zeina guk uste, oro har ez baita ageri ekialderagoko ibarretako mintzoan.

Ezezko konpletiboetako menpeko perpausuan ageri den *-enik* atzizkia ere, Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan ezaguna dena, Andimendiaz iparrera eta Imotz eta Basaburua aldean ageri zaigu, baina hortik ekialdera ez.

Aditza hanpaturik gertatzen denean Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan ageri den *egin* ere ezaguna da Burundan, Aranatzan, Ergoienean eta Arakil guztian, ekial-

deko Izurdiaga herria barne; ez dago, ordea, ez XVIII-XIX. mendeetako Goñerrian ezta Elkanoko Lizarraga idazlearen lanean ere, baina egungo mintzoan Nafarroa Garaiko erdialdean dagoen Imotzen eta ekialderagoko Esteribarren nahiz Erroibarren erabiltzen dela erakutsi da oraintsu.

Ikusi ditugun hauez guztiez landa, “ekialdeko” dei ditzakegun ezaugarriak ditugu, Goñerrian ageri ez direnak: aditzondoaren egitekoa duen *bidalbide* zenbatzaile zehaztua, Eguesibarren, Ezkabarten, Erroibarren, Aezkoa alderdian eta Ipar Euskal Herriko alderdi gehienez dagoena. Aditz hutsaz eratu erlatiboko perpausak, Ezkabarten, Erroibarren, Aezkoan eta Ipar Euskal Herrian dakuskigunak. Denborazko perpausetako *-larik* atzizkia, Basaburuan, Odieta, Gulibarren, Txulapainen, Ezkabarten, Eguesibarren, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan dagoena; esan dezagun, bestalde, erdialdeko hizkeretan bezala, *-nean* dagoela Gesalatzen, Goñerrian, Oltzan, Itzarbeibarren, Beriain idazlearen lanean, Basaburuan eta Ezkabarten; Sakanan *-nien* dago eta baita *-la* ere; hondarreko aldaera hau Beriainen lanean ere badago. Ekialdeko ezaugarrien atalean, baldintzako *-t(z)ekos* atzizkia ere aipa daiteke, Eguesibarren, Aezkoan, Erronkarin eta Nafarroa Beherean duguna.

Beste ezaugarri batzuetan Goñerriko hizkera ekialdekoekin batera doa; adibideotan hegoaldeko hizkerak dira, gainera, ekialdekoekin batera doazenak, Bonapartek izendatu zuen hegoaldeko goi-nafarrera sailaren errealitatea gauzaturik. Aipatzen ditugun adibideok arkaismoak izateko itxura dute eta adierazgarria da hori: *au guzi'au* tankerako izen sintagmak Goñerrian, Eguesibarren eta Aezkoan bildu ditugu, nahiz Bizkaian ere erabiltzen direla jabetzen garen. *Bai(t)* erlatiboaren kasuan Goñerrian adibide bakan bildu dugu; Gesalatzen ageri da eta Beriainek ere bazerabilen; Eguesibarren, Ezkabarten, Artzibarren eta Aezkoan ere badaukagu, Zaraitzun, Erronkarin edo Ipar Euskal Herrian bezala; ez dakigu Ultzaman eta Esteribar-Eroibar alderdian erabiltzen ote diren. Izenaren aitzinetik doan *asko* zenbatzaile zehaztugabearen adibideak —*asco vecatu* tankerakoak—, Ipar Euskal Herrian horren ezagunak direnak, Lizarra ondoko Gesalatzen, Goñerrian eta Eguesibarko Lizarragaren lanean bildu ditugu, baina ez dira Aezkoako egungo mintzoan erabiltzen. Itxuraz ekialdera lerratzen da xedezko edo motibatiboko perpausetako *zedingatik / zedienagatik* erako ezaugarri arkaikoa ere; Beriainek ez dakar honelako ale bat bera ere, baina Gesalatzen, Goñerrian, Eguesibarren, Ezkabarten eta Aezkoan —are egungo mintzoan— ageri zaigu. Osagarri zuzena genitiboan jokatzen duten egiturak ere, aspaldian Euskal Herriko eremu gehiagotara hedaturik zeudenak eta egun ekialdean dakuskigunak badira geure eremuan: Gesalatzen, Goñerrian, Oltzan, Itzarbeibarren, Ezkabarten, Eguesibarren, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Aezkoan eta oro har Euskal Herriko ekialdean ageri dira, baina ez Arakilgo Uharteko dotrinan, esaterako.

Hurrengo sailera dakartzagunak ere ekialderako isuria duten adibideak dira, Goñerrian ageri direnak, baina ez dirudi arkaismoak direnik. Aditzaren ekintza hantatu nahi delarik erabiltzen den ‘ad. nag. + ere + ad. lag.’ egitura, oro har ekialdeko hizkeretan erabiltzen da, baina Goñerriko idazkietan eta Oltzako otoitzean adibide bana bildu dugu; Eguesibarren, Aezkoan, Ipar Euskal Herrian eta Urdazubiko mintzoan ere ageri da. Bigarrenik, *kasos* partikula edo *dela kaso* kausazko egitura aipa dai-

teke: Goñerrian, Oltzan, Eguesibarren, Erroibarren eta dakigunez bederen, Aezkoan nahiz Erronkarin baliatu da. *Utzi* edo *atrebitu* aditzek adlatiboko atzizkia daramate Goñerrian; Eguesibarren *utzi*-ri *prest izan* erants dakioko; Oltzan, Ezkabarten, Ultzama alderdian eta Aezkoan ere adlatiboa erabiltzen da *utzi*-rekin. Aldiz, hautazkoa da inesibokoa edo adlatiboko atzizkia *eman*-ekin Ergoienean, eta Uharteko dotrinan, *utzi*-ri adlatiboa nahiz inesiboa jarrai dakioko; Imotzen eta Basaburuan, ordea, absolutiboarekin erabiltzen da *utzi*. *Non ta...* erako baldintza egiturak ere, Euskal Herriko leku gehiagotan entzuten direnak, Goñerrian eta Eguesibarren bederen ageri dira geure datuetan, eta erabiltzen dira ekialderago Aezkoan eta Nafarroa Beherean ere. Goñerriko idazkietan ageri diren konparazio perpausetako *eiñ nola* eta “X nola Y” egiturak ere ekialdera errepikatzen zaizkigu, Aezkoan hain zuzen.

Berezixkoa ageri zaigu Goñerria aurkaritzako *baiz* eta *beizi* partikuletan, baina baliteke hori beste lekuetako berri guti dugulako izatea, besterik gabe; ohart, gainera, *baiz* darabilen Markotegi idazlea ez dela Goñerrian dugun lekukotasun fidagarrienetarik.

Berezia da *-lako* atzizkiaren eremu banaketa: adibide bakarra bildu dugu Goñerriko idazkietan, eta ez dakigu bakar bat noraino den fidagarria: Bonapartek *kasos* eta *kauses* bildu zituen Goñiko inkestan. Beriain eta Elizalderen lanean ere ez da ageri *-lako*, ezta Elkanoko Lizarragarenean ere; balirudike Iruñerrian ez dela ageri. Aldiz, mendebaldean bada *-lako*, Garcia de Albeniz araiarraren lanean nahiz Burundan; Sakanan ere *-lako(s)* dago, eta *-lakoz* Txulapainen, goiti Bidasoaldean bezala; Imotzen, Basaburuan, Ultzaman eta Erroibarren non gehiago non gutiago ageri da. Ekialdean Aezkoan dugu *-lakos*, baina agerpen urria du biziki; Luzaide eta Nafarroa Beherean *-lakotz* dago, Aezkoan baino erabilera handiagoarekin.

# Literatura konparatuaren saioak (I). Olerkariak 1930-1936\*

(Attempts at compared literature (I). The poets  
1930-1936)

Kortazar, Jon  
Euskal Herriko Unib.  
Filologia, Geografia eta Historia Fak.  
Unibertsitateen pasealekua, 6  
01005 Vitoria-Gasteiz

---

*Literatura konparatuaren saioak (I) Olerkariak. 1930-1936 izenburupean aurkeztzen lan honek Jose Maria Agirre, "Lizardi", eta Esteban Urkiaga, "Lauaxeta" olerkarien lanen azterketa egin nahi du, literatura konparatuaren bidetik. Horrela bere lanetan agertzen diren aipamenak eta influentziak adierazten dira, pentsakizunaren eta literaturaren aldetik gertatzen direnak agertuaz. Ez du lanak, bada, soilik lotura formalak aztertzen, batez ere, ideia estetikoaren aldetik diren eraginak hartu ditu kontutan.*

*Giltz-Hitzak: Literatura konparatua. Euskal literaturaren historia. Poesiaren azterketa.*

*Bajo el epígrafe Literatura konparatuaren saioak (I) Olerkariak. 1930-1936, el presente trabajo pretende analizar los trabajos de los poetas José María Agirre, "Lizardi" y Esteban Urkiaga, "Lauaxeta", mediante la literatura comparada. De este modo, se dan a conocer las citas e influencias que aparecen en sus obras, mostrando aquellas que tienen que ver con el pensamiento y la literatura. Así pues, en el presente trabajo no se analizan únicamente las relaciones formales, sino que, principalmente, se han tenido en cuenta las influencias que existen desde el punto de vista de las ideas estéticas.*

*Palabras Clave: Literatura comparada. Historia de la literatura vasca. Análisis de la poesía.*

*Sous l'épigraphie Literature konparatuaren saioak (I) Olerkariak. 1930-1936, ce travail tente d'analyser les travaux des poètes José María Agirre, "Lizardi" et Esteban Urkiaga, "Lauaxeta", au moyen de la littérature comparée. De cette façon on fait connaître les citations et les influences qui apparaissent dans ses œuvres, en indiquant celles qui ont un rapport avec la pensée et la littérature. Ainsi donc, dans ce travail on analyse non seulement les relations formelles, mais on a surtout tenu compte des influences qui existent du point de vue des idées esthétiques.*

*Mots Clés: Littérature comparée. Histoire de la littérature basque. Analyse de la poésie.*

\* Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako HB 26/97 ikerketa proiektuari luzaturiko laguntzari esker moldatu da.

Begirada bidaltzen badugu gure aurrekoek esandakora, bat-batean aurkituko dugu banaketa. Lizardik bere lana bere barne-muinetan hausnartuz egin du, denari bere eskuaren berotasuna emanaz. Orixek, bihotz-begietan zituen klasikoak eta haiei eutsiz idatzi zuen bere poesia eta *Euskaldunak* osoa. Lauaxetak, aldiz, lau-haizetara zuen burua eta bere lanean, hango, hemengo eta horko idazleen oihartzunak nabari ditugu. Momentua da jakiteko iritzi horrek beste iritzi berri bati aurre egiteko modurik duen, gaur ditugun irakurketa eta datuekin ea gai garen eskema nagusi horri bere ezipalak ateratzen.

*Olerkariak*, izen orokorra hartzekotan, deituriko taldearen barruan badira aldeak, beste nonbaiten adierazi dudanez (Kortazar 1991: 1189; 1995). Aitzolek bultzaturiko eta eraturiko taldean poeta talde hauek ikus ditzakegu:

- 1) Orixek poetika berezia du, aldakorra eta aldagaitza, era berean, urterik urte modu desberdinetan adierazten duena. Orixek garapen luzea du poesian, eta itzal klasikoa ez bada inoiz desagertzen bere lanetik oso forma desberdinak hartzen ditu garaia aurrera joan diren neurrian.
- 2) Lizardik eta Lauaxetak, bestaldetik, euskal postsinbolismoaren gunerik garbiena agertu dute. Metaforaren erabileran, musikari eskainitako garrantzian, heriotzari izandako beldurrean haien lanean utzitako arrastoengatik sinbolismoa ezagutu zutela, bakoitza bere joerarekin, garbi esan dezakegu.
- 3) Maisu nagusi hauen ostean etorri zirenek, Zaitegik, Tapia Perurenak, Ezkiagak, Onaindiak, Loramendik haien formak landu zituzten, hainbaten aurrera eramanez eta beste zenbaitetan atzera eginez.

Kontua ez da bakarrik berrizaleak eta zaharzialeak direla poesian, talde bakoitzaren barnean ere, joera estetiko —eta linguistiko— desberdinak direla eta, neurri batean, bakoitzak bere eskola jarraitzen duela.

Hezkuntza eta heziketa klasikoa, handia edo txikia, normala denez, poeta guztiok zuten, oinarri honen gainean, baina, idazleak bere bidea egin du, han eta hemen irakurritakoa bere idazteko moldea indartuz eta oratuz.

*Olerkariak* deituriko taldean desberdintasun estetikoak direla ezin da eztabaidatu, hala uste dut, behintzat, eta talde bakarraren orde hobe genuke poeta aldra hori jardura poetiko desberdin gisa ulertzea eta onartzea. Desberdintasunak badira ere, ez da zalantzarik joera komunak ere badirela.

Literatura konparatuaren aldetik bat da nagusia eta ezin dena alde batera utzi. Guztiok ez badira, gehienek eta garrantzitsuenek jesuitetan ikasi dute literatura eta haien ikasgeletan ikasitakoak garrantzi handia izango du literatura eta poesia zer diren eta nola landu behar diren erabakitzeke orduan. Aitzol, Orixe, Lauaxeta, Zaitegi... jesuitetan ikasiak dira eta moldapen horren hainbat berri eta urrats desberdin eman dute bere liburuetan.

Zer ikasten zuten jesuitek eratzen zituzten literatura eskoletan? Ahora datorren lehen hitza “klasikoak” da. Zein klasiko, ordea? Greziakoak ala latinoak? Bietarik ikasketan, baina, Erromako klasizismoak indar gehiago zuela pentsa dezakegu Orixeren lana begiratzuz, idilioa landu den ugaritasuna irakurritz. Greziak, eta tragediak



indar handiz irarriko dute Lauaxetaren poesia. Zaitegik, baina, Loiolako urteetan ikasitakoaz mezu ederra utzi du:

Gainera, irakasle ona izaki, Eladeko eta Erroma zaarreko idazle, olerkari eta izlariak ongi ezagunak izan genituen: Errandoneak Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide-ta irakatsi zizkigun: gainera Shakespeare... Erdal-izlariak, berriz, Luis de Granada, Luis de Leon, eta itz lauzko erlijio idazleak barrena Necedalenganaino irakatsi zizkigun Juanjo Goikoetxeak. (1974: 8)

Zaitegiren oroimen horretan bada zer baitaipatu beharrekoa: erretorikak aipu osoan duen pisua; testuak, bere osotasunean, behin eta berriro hitz egiten baitu hizlariez.

Giro hori haustera etorri zen Lauaxetaren literatur-zuzendari bihurtuko zen Aita Estefania agertu zenean:

Estefania-k Bergili-ren Eneida, Orati, Tibul, Propertzi-ta. Orobat erderazko elertia, inglesa, frantzes, italiarra, alemana, portuguesa, katalanerazkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari. (1974: 8)

Goian jarri dugun aipu honetan olertiaz hitz egiten du Zaitegik. Garbi dago Estefaniaren lanak berpiztu egin zuela neurri batean, Loiolan zegoen literatur-giroa, eta klasikotasunetik at, munduan ziren mugimendu berrien gaiak ere irakasten zituela.

Dena dela, egia bada ere, Estefaniak gaia berritu zuela, eta bera ere, poeta izaki, joera berezia hazi zuela ikasle haien ariman, hiru ohar datozkit burura giroa guztiz ulertzeko jartzen ditudanak.

- a) Orobat giro tradizionalista batek inguratzen ditu bai Estefania, haren ikasleak eta denek irakurtzen zituzten liburuak. Bestalde, Basterra eta Iturribarria poetak ziren Estefaniaren adiskide eta nolabaiteko eredu bere ikasketen hasieran. Beste aldetik, Estefaniak oso gogoko zituen eternitateaz eta mugagabetasunaz hitz egiten zuten idazleak: Maragall edo Leopardiren antzekoak.
- b) Berezi beharko litzateke batetik programak agintzen zuena eta programaren barnean Estefaniak egiten eta irakurtzen zituenak.
- c) Ez da zalantzarik Estefaniak poeta atzerritar asko irakurtzen zizkiela ikasleei eskolan, baina, beti ere, testu aukeratuak ziren, eta behin baino gehiagotan testiguen azpimarratzen dute idazlearen katolikotasuna irizpide zehatza zela, eta honek guztiak ez du ezer arrarorik, idazleaz zuen iritzia osatzeko orduan. Pentsabide da, Estefaniak idazleen (eta zerrenda harrigarria da modernotasunagatik) testu aukeratuak (eta zerrenda aipagarria da joera kristauagatik) irakurtzen zizkiela ikasleei eta, noizbait, berak itzulitako pasarteak eta poemak.

Patxi Altunak (1990) maisuki adierazi du Jose M. Estefaniaren biografia eta izaera, haren nortasunari eta lanari buruz hainbat testigantza josiz.

Liburu honetan bada testigantza luze bezain aipagarria, hona agertu den moduan dakarguna.

Leopardi lo leía mucho, sobre todo sus poesías líricas, pese al pesimismo que destilan. Heine lo leía bastante y le profesaba gran afecto como lírico, no como prosista por irreligioso. De Baudelaire, por poco casto y poco respetuoso con Dios, leía sólo algunas cosas comentándolas y analizándolas. De Verlaine leía más, por

ser creyente, y le apreciaba mucho. Mallarmé también y le gustaba mucho, como todo lo parnasiano. A Rimbaud le profesaba poca devoción por desordenado y no quería que nos aficionáramos a él y a otros. De Sully-Prudhomme mucho... nos hacía aprender de memoria "El búcaro roto". Carducci también mucho. Mistral era de sus autores preferidos. Machado, leía de los dos hermanos y le encantaban los sonetos de Manuel. Maeterlinck no le gustaba... Valery, bastante, pero su lirismo le parecía exagerado. De Maragall era muy devoto... De García Lorca poco, por crudamente sensual. Alberti sólo el de los primeros años, pero con aborrecimiento; leía "los ángeles" pero con chacota, por sensual. (Altuna 1990: 21)

Testigantzak nahiko garbi agertzen du irizpide estetikoaren gainetik idazlearen moralak pisu handia duela Estefaniaren aukeran. Orobat zerrenda horrek, kontatzaileak ez badu joera aldatu, behintzat, Estefania uste genuen bezain aurrerakoi ez du erakusten. Noski, giro hartan aurrerakoia zen, baina, azkenean, Verlaine "sinesduna" maite du, eta abanguardiarene ate den Rimbaud alde batera uzten du.

Estefaniak kristautasun, sinesmen edo fedeagatik zuen arduraren beste frogatxo bat ere badago Orixeren *Barne Muinetan* liburuaren hitzaurre gisa jarritako hitzetan, nahiz eta kasu honetan kristautasunari buruz hitz egitea harira datorren eta guztiz egokitzen zaion gaiari:

Sus poesías son poesías religiosas de nuevo cuño. Las colecciones de Droste-Hülshoffs, de Verlaine, de Manzoni, de Verdaguer, de Gabriel y Galán... no tienen con esta de Ormaechea nada de común, fuera de ser, como ella, católicas. (1934: 21)

Gozagoko testigantza hartan bazegoen ordaindu ezineko datua; Sully-Prudhomeren "Lorontzi hautsia" itzuli arazi ziola Estefaniak esaten duenean, hain zuzen ere, itzulpen berbera egin baitzuen Lauaxetak ("Lorontzi ausia", 1985: 247). Idazleen zerrendak, egia esateko, ezin besteko gida dugu zein idazleren testuak (eta ez idazlearen liburuak) irakurtzen zituzten jakiteko. Hor dira ondoren Lauaxetak itzuliko dituen idazleen aipamenak. Hor Zaitegik agertuko duen itzulpenen gida.

Jose Maria Estefaniak bere eskoletan ematen zuen programaren ildo nagusiak ditugun arren, falta da zehaztapen zuzenagoa, eta alde honetatik interesgarria da Estefaniak, Lauaxetak eta Zaitegik egindako itzulpenen konparaketa.

Jakina da Estefaniak alemaniera ondo zekiela eta poeta alemanak atsegin zitzaizkiola. Horienak dira gehien itzultzen dituen poemak: Eichendorff, Schneider, Heine, Uhland, Novalis... erromantiko alemaniarrek begi bistan denez.

Estefaniak egiten ditu beste aipamen batzuk: Iturribarria, noski, Joan Maragall, inoiz Basterraren aipamen bat. Ez dakit zein neurritan izango den egia, baina, baieztata dezakegu itzulpen hauen izenetan aurkitzen dela Estefaniaren poetikaren oinarria: Alemaniako poeta erromantikoak, "Lied" egileak (*Cants* deitzen da Maragallen liburu ezaguna) eta gero estetika sentimental, alegoriko eta mende bukaerakoa. Ez da zalantzarik gehiago irakurtzen zuela, baina, eta bere poemak irakurtzea besterik ez dago garbi ikusteko, berak bere poesia egin nahi zuenean, gune horretara biltzen zela, hortxe zegoela bere pentsakizun poetikoa.

Bestela jokatu zuten bere ikasle biek. Hauengan nabarmena da Estefaniaren eragina. Zaitegiren itzulpen lanetan aro garbi bi daude; lehena, Oñan datatua, eta biga-

rrena, El Salvadorren egina. Oñako garaian itzultitako autoreak hartuko ditugu aipagai Estefaniaren irakaskuntza oinarri zela egin zirelako itzulpen horiek, nahiz haren gaia Loiolan jarraitu zuen Zaitetik. Hona hemen idazleen zerrenda: Longfellowen "Excelsior" (aipagarria da izena, zeren Estefaniak eskola apunte batzuetan poema hori aztergai jarri zuen), Vendaguer, Musset, Sully-Prudhomme (eta nola ez?, honen "Lorontzi ausia"), Gautier, Baudelaire.

Lauaxetak Verdaguer, Sully-Prudhomme eta Baudelairez gain, Verlaine, Tennyson, Carducci, Francis Jammes itzuli zituen.

Irakurketak eta testuen aukerak, batez ere, ez dute arazoa desbideratzen: poeten alderik parnasianoena, deskriptiboena, nolabait esateko, maite dute. Mende bukaerako joera bat adierazten da: poemak narratiboak maite dituzte, sentimendu puntu batez josiak; gai batzuk errepikatu egiten dira; hara Excelsior gaia hiru aldiz; bitan Zaitegiren itzulpenetan, batean Lauaxetarenean; gorantza joateko indar hori idealismoaren modurik gorena da, sinbolorik maitatuena.

Gora igotzeak, azken batean, zerura igotzea adierazten du, Lizardiren poesian ezkututzen den sinbolorik nagusia da. "Axis mendi"ren, mendiaren ardatza, beste mundu bat nahi izatearen adierazle da gorantz joateko nahikunde hori. Inork baino hobeto adierazi du sinboloa Zaitetik bere poematxo batean:

"Ni ere artzai nauzu,  
artaldeak bai-dut;  
neronen oldozpenak,  
xuxen, zuri ta zut...  
mendiak gora doaz,  
ibar lizunak ut,  
jaungoiko-argitan  
larratzean ditut."

(*Goldaketan*, 126)

Goian ideala dago, behean lizunkeria. Mendia, azken batean, poeta garbi eta Jaungoikoaren bitartekaria da. Estefaniak ere mendi gailurraren gainetik begiratzen du harana:

"Un monte se yergue ardiendo  
al vivo fuego del alba,  
y en su cumbre, sobre el valle,  
extiende un pino sus ramas.  
Desde ellas, en lo más alto,  
yo revuelvo la mirada,  
y ¡oh valle! ¡entre tantas flores  
apenas a verte alcanza!"

(Alruna 1990: 59)

Hiltzen den hurraren gaiak badu tratamendurik euskal poeten artean. Giroa Estefaniak hasten du Eichendorff poetaren poema bat itzuliz: "En la muerte de un niño" deitzen da. Gaiak joera melodramatikoa du, eta joera hori agertzen da Lauaxetaren "Señal abestu", eta Lizardiren "Xabiartxoren eriotza"n, nahiz eta horrek beste

joera batzuk hartu. Lauaxetak, gainera, Verdaguer-en gai bereko "Ikaslearen eriotza" itzuli zuen.

Noiz edo noiz, Zaitegiren eta Lauaxetaren itzulpenak kontuan hartzen badira, bada-go larra aldeko animalia umilenganako joera berezia. Francis Jammesen poema itzuliz, Lauaxetak zekorraren heriotza gogorra adieraziko du "Mingarria" deituriko poeman:

"Ene Jauna! Txekorrak miñik il-aurrean  
Ez dagila nabaitu burnia sartzean"  
(1985: 273)

Tankera berekoa da Carducciren "Jolia" (1985: 233):

"Idi on oi, maite aut; kemen ta bakezko  
Biozkada barrura samur dariostak"  
(1985: 233)

itzuliko ditu Lauaxetak poema horren lehen bertsoak. Landa aldeko pertsonaiak sorturiko joera berberaz itzuli zuen Orixek Maragall poetaren "Una vaca cega", "Bei itsua" izenburupean.

Idiaren gaia zabal bazebilen euskal poeten artean, nola ez ekarri gogora Estefaniaren bertso hauek?:

"Y la yunta mugiendo, perezosa  
por el camino desigual arrastra  
la carreta chillona, tambaleante,  
henchida y rebosando la fragancia  
de la hierba del campo. El campo brilla  
con el vivo color de la esmeralda."  
(Altuna 1990: 64)

Jakin badakigu ere Estefaniak ez zuela poema hau argitaratu, baina nola ez ekarri gogora Lauaxetaren "Burtzaña", lehen argitarazioan "Arrats Beran" deitu izan zuen poema?

Ez gabilta buruz-buruzko, bertsoetik bertsoarako konparazioa egin nahian, ez dugu esaten, ezta esan nahi ere poema batek ekarri zuela bestea. Ez, ez da hori. Motibo mailan ari gara. Ziur gaude Estefaniak bere ikasleei ez ziela soilik idazleen testuak ikasteko agindu; zenbait testu jakin eta zenbait motibo ere landu zituen haiekin batera, eta Zaitegiren eta Lauaxetaren itzulpenetan gertatzen diren kointzidentziak horren froga garbi dira.

Altunak (1990: 93-94) Estefaniaren eskola bateko gidoia argitaratu du eta hona hemen bere transkripzioa:

"Ejemplos de un mismo tema desarrollado  
con distinta imagen:  
Lo Pi de Formentor *Aspiración a lo infinito*.  
Excelsior (y L' Oda infinita?) *M. Costa*  
Excelsior *Maragall*  
Ansia eterna. Rima. (Bécquer) *Longfellow*  
*Bécquer*

Excelsior biak Zaitegik itzuli dituela kontuan hartuz, Estefaniaren eraginaren berria bat-batean izango dugu begi aurrean.

Mintzaldi luze honen helburua bakarra izan da: Estefaniaren estetika non kokatzen den argitzea. Beste hitzekin esateko, saiatu gara zehazten zenbat zor zion poetika erromantiko eta deskriptibo bati; Mendearen bukaeran giro tradizionalistetan erroturik zegoen estetika bat zen berea. Ez zen Estefania, Lauaxeta heldu zen estetika heldu, García Lorca onartzera, Alberti estimatzera, Altunak jaso duen testigantza gogo betez sinesten badugu, behintzat, nahiz eta ez zaion, bestaldetik, meriturik kendu behar, eta onartu behar den asko egin zuela literaturan sentsibilitate berria ereiten bere ikasleen artean.

Estefaniak zabalduriko giro hori oso kontuan hartu behar bada ere, nik uste, ez genuke ahaztu behar beste arazo bat: nolakoa zen jesuitetan jasotzen zen sentiberatasun poetikoa.

Klasikotasunak zerikusi handia zuen, zalantzarik ez dago horretan. Baina, idazle batzuegan (Lauaxetak, erakusten ditu argien joera guztiak) utzitako aztarnak kontuan izaki, uste dugu ahal dela adieraztea beste eragin ildo nagusi bat.

Hain zuzen ere, arreta jartzen badugu Frantziako sinbolismoan eta Alemaniako Erromantizismoan, begiradatik kanpo geratu da beste joera bat, hain zuzen Espainiako poesiaren eragina.

Badira jesuitetan izandakoek tratatzen dituzten beste gai batzuk oso nabariak euren poesia liburuetan. Adibidez, poesia pietista. Ez soilik erlijio poesia, baizik eta erritoarekin loturiko poesia. Bada, bestaldetik, beste poesia mota bat, melodramatismoaren inguruan eratuak: norbaiten ezbeharraren edo heriotzaren inguruan eratuak eta moldatuak: "Xabiartxoren eriotza" bera (nahiz eta kasu honetan ez den ahaztu behar indar autobiografikoa, eta gertaera bera iturri gisa), edo Lauaxetaren "Señai abestu".

Poema mota honen iturria edo ildoak non aurki dezakegu? Estefaniak aipaturiko izen batean arreta jarriz gero, laster ikusiko dugu bere eragina euskal poeten artean. Verdaguer-en lanaren eragina, zalantzarik gabe, oso presente dago euskal poetengan. Katalanaren antzera hauek ere saiatu ziren herri kutsuko poema erlijiosoak ehuntzen eta josten. Lauaxeta da berriro eragina nabarmen agertzen duena: "Miren neskutxaren baselexa" bezalako poemak Verdaguer-ek herriaren zentzu erlijioso batzeko zuen eskuera berbera jaso nahi du. Kontuan hartzen badugu, gainera, zenbat aldiz itzuli zen garai hartan Verdaguer euskarara, haren eraginaren berri zabalagoa har dezakegu.

Bestaldetik, sentiberatasun melodramatikoa lantzeko joera ere badago euskal poeten artean: baldintza latzetan gertatzen diren heriotza giroak lantzeko joera ere nabaria da. Lehenago ikusi dugu haurren heriotzak nola hunkitzen dituen Estefania eta haren ikasleen lumak. Joera negarti eta melodramatiko hori erromantizismo antzu batetik badator ere, kontuan hartzekoa da Gabriel y Galán gisako poeten eragina giro honetan.

Gorago Estefaniaren lana ulertzeko orduan, bere lana giroan kokatu beharra zegoela esaten genuen. Apaiztegi eta komentuetan nagusi dirudien giro erromantiko eta melodramatikoak, Verdaguer eta Gabriel y Galán moduko poeten eraginak garai har-

tako hainbat idazle gazteren lanak ziprztindu zituela esan genezake. Horixe zen giro haietako eskoletan zabaltzen eta ikasten zena. Horixe da programetan orokorki irakasten zena eta bultzatzen zena, eta horixe zen giro nagusia garai hartako jesuita izan ez ziren beste idazle batzuegan (On Manuel Lekuonarengan, adibidez) ikusten dena.

Orain arteko laburbilduz, bada, kontuan hartu beharko genuke zein zen giro orokorra: klasikoak, batez ere erromatarrak, horien artean Virgilio, eta Horazio; eta gero XIX. mendeko Espainiako literatura zenbait erromantiko, poesia erlijiosoaren langileak, Verdaguer eta poesia narratibo negarzialea, Gabriel y Galán-en inguruan sortua.

Giro nagusi horretan Estefania gisako irakasle eta idazleek lan handia egin zuten, atek zabaltzen idazketa berritzaile bati.

Kontuak horrela zirela agertzeko bada intertestualitatearen alorra aztertzeko beste datu bat: garaiko itzulpenena. Liburu bi dira aipagarriak Joseba Arregik egindako Heineren poemen itzulpena eta Jose Altunak prestaturiko Oscar Wilde-ren ipuinen itzulpena.

Liburu biok azalean agertzen duten irudietan arreta jarriz, konturatuko gara nolako sentsibilitateak agintzen zuen garaiotan. Oscar Wilde-ren lanari jarritako irudiak erromantizismoaren topikoak jartzen ditu agerian: gaua, gaztelua, ilargia, pertsonaia galdua. Eta itzulpenaren tonuak ere horretara jo du, Wilde-ren dekadentzia molde erromantikotara ekarriz.

Heine-ren poemen libururako bestelako estetika gorde da; modernistagoa; neska-toaren irudiak garbi azaltzen du garbitasuna adierazi nahi dela, garbia den moduan irudiaren marra. Dekoraziorako erabilitako loreek ere modernismoaren tonua adierazten dute.

Erromantizismoan eta modernismoan zuten muga gure idazleek (klasizismoa ahaztu gabe, baina) eta hortik abiatu ziren lur berri bila, liburu berrien altxorren bila.

Hemendik aurrera hiru olerkarien intertestualitatea jasotzen eta marrazten saiatuko gara. Lan horretarako gardenen jokatu duena Lauaxeta da, bere intertestualitatea ongi aztertu da jada, adibide asko emanez, gainera (Kortazar 1996, 1997). Hala ere, lan horiek merezi dute kritikatzeko bat, literatur klasikoaren eragina alde batera utzi zutelako.

Arlo honetan, 1988. urtean Jon Gotzon Etxebarriak, ohi zuen apaltasunez, baino zehaztasunez, Lauaxetaren iturri klasiko zenbait agertu zituen berak argitaratzen zuen lantxo batean.

Han azterketa bi eman zituen ezagutzera. Batean Lauaxetaren “Bijotzean” poema eta Katuloren “LXX”.na testuen arteko konparaketa egin du. Poema biok antzeko gai bat darabilte: emakumearen maitasun-hitzaren sendotasunik eza da biek trarazten dutena. Emakumearen hitza haizeak darama, ur lasterretan idatzirik dago, esan digu Katulok. Hona hemen Etxebarriaren itzulpena:

“emakumeak Maitaleari  
esaten dion dena  
haizetan eta ur lasterretan  
ipini behar da idatzirik”  
(1988: 28)

Idazle biek erabili duten topikoa berdina bada ere, Lauaxetak hedapen zabalagoa eman dio testuari, agian, eredu neoklasikoak jarraituz, edo, beharbada, Heine gogoa izanik.

Garbiagoa da, ez da zalantzarik, Lauaxetaren “Neguko gaba” poema eta Horatius-en “Ad thaliarchum” poemaren artean dagoen lotura. Lauaxetaren lanaren intertestualitatea nabaritzea erraza da, testu hauen artean gertatzen den bezala, bizkaitarrak arrasto ederrak uzten dituelako jarraitzen duen poetaren lana hitzez hitz jarraitzen duelako. Horrela, konparatibismoaren lehen maila; testu paraleloen maila oso erraza da ikusten, ikerlearen pozerako. Horatius-en:

“Vides ut altâ stet nive candidum  
 Soracte, nec jam sustineat onus  
 Silvae laborantes, geluque  
 Flumina constiterint acuto?”  
 Honela eman du Lauaxetak:  
 “Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak,  
 eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.”  
 (1985: 41)

Etxebarriaren lanak astiro-astiro eta zehatz-zehatz eman ditu poema biren arteko paralelotasunak: esaldietan, ideietan, irudietan. Horatius-en garrantzia jesuiten heziketan handia izan behar zuen Zaitetik ere bere *Goldaketa* lanean toki zabala eskaini baitzion Horatius-en itzulpen-lanari.

Lauaxetari eskainitako bere tesian Josu Penades-ek lotura horren historia azaldu du. Testu bion arteko lotura Orixek ikusi zuen 1930. urtean. Josu Penades-ek (1996: 204-205) testu biak kopiatzen ditu, eta, gainera, bion arteko paralelotasunak maila bitan azaldu ditu. Batetik, ideien mailan kokatu du paralelotasuna:

Horatius-en poemaren buruan, izenburuaren azpian hain zuzen, agertzen den lema (“Hyeme indulgendum voluptati”, hau da neguaroa alaikiro iragan behar da) hartzen zuela Lauaxetak N[eguko] G[aba]ko argudio-harizat. (205)

Ez zaizkio begietatik joan, baina, Lauaxetak poemaren agerturiko aldaketa-puntuak, nahiz eta zehatz aztertu dituen poemaren arteko loturak eta Etxebarriaren irizkiaren azterketa.

Lauaxetaren iturriari buruz ari dela, bide berriak, neurri batean, zabaldu ditu Penades-ek. “Ziniste bakuaren” poema Nuñez de Arceren poema batekin lotzen du. Esanguratsua da testua Menéndez Pelayoren: *Las cien mejores poesías (liricas) de la lengua castellana* liburuan agertzea, jakina baita liburu hori Lizardiren iturritzat ere emana dela. Bestalde, datu horrekin Mikel Zaratek ikusitako Espainiako poesiararen eragina Lauaxetarengan indartua geratuko litzateke.

Alferrik da lan honetan Lauaxetaren esaldiz-esaldiko paralelotasunak agertzea, hainbeste izaki ez dugulako horretarako ez tokirik, ez betarik. Lan hori egina dago, bestalde, gorago adierazi denez.

Lauaxetaren lan poetikoan beste bide bat probetxugarria da. Bere poesian agertzen diren tradizioez hitz egingo bagenu, *Bide Barrijak* liburukoak eta *Arrats Berangoak* desberdinak direla ikusiko dugu.

*Bide Barrijaken* hainbat arlo desberdin daude. Batetik, poema erlijiosoak, edo pietateari lotutakoak ditugu, Verdaguer-en tankeran osaturikoa: “Gurutze-aldera”, “Artzai ona” edo “Miren’i otoya” bezalakoak. Verdaguer da eredu poema narratibo eta luzeetan: “Arotz bi” edo “Señai abestu” bezalakoetan.

Alemaniko poeta erromantikoen eragina dugu ondoren. Arlo honetan Lauaxeta-ren poesian banandu beharko genituzke molde handiko eta molde txikiko poemak. Molde nagusian ideia sakonagoak darabiltza gure poetak, eta, orduan, Novalisen eragina da nagusia: “Bere Illobijan” bezala, edo “Gabeko irrintzija” poeman.

Poema molde txikiko, laburra, maitasunaren gozo mikatzez edo poz-samínez gaien inguruan eraturikoetan, Lauaxetak Heine du eredu. Aztarren ugari daude horrelakorik adierazteko: “Lied” izenburua, adibidez, argi mintzo da bere etorreraz. Estefaniak berak ere “Lied” izenburuaz itzuli eta idatzi zituen bere poemak.

Heine-ren teknikaz baliatu zen Lauaxeta bere maitasun-poemak lantzeko: “Itauna”, “Erantzuna”, “Mao gorrija”, “Abaua”, “Iluntzeko-izarra”, eta horren antzekoetan, Heinek bezala, Lauaxetak paralelismoak lantzen ditu, poemaren bukaeran ironia batekin, espero ez zitekeen bukaera tristea eta indar emaillearekin bukatzeko.

Heine da, Patxi Altunaren lekukoak esan bezala, Estefaniak horrenbeste maite zuena: “le profesaba gran afecto como lírico”, baina, Lauaxetak ezagutzen duen Heine gerra aurrean Arregik itzulitakoa ere bada.

Lauaxetak bere hizkera poetikoa eratzen duenean, garbi dago oso kontuan izan zuela garbizaletasuna, beste izen batez, hiperbizkaiera deitu izana: bizkaiera horren eraketan EAJren inguruko talde kulturalak garai horretan erabiltzen zuten euskararen araua hartu behar dugu kontuan, Sabino Aranaren arauen berrirakurketan oinarritua; fonetika, ortografia eta aditzaren moldapenean, adibidez. Hiztegi aldetik, Lauaxetak, batez ere *Arrats Beran* sortzeko orduan Azkue izan zuen kontuan, honen *Diccionario de Bolsillo* garbizalea, eta ez “Trilingüe”a. Alderdi gramatikala ez da nahiko, baina, hizkera poetikoa sortzeko: poetak barnean duena azaltzeko orduan. Hizkeraren aukera egiteko orduan, Arregik erakutsi zion nondik jo behar zuen. Horrenak dira hizkera mailen nahasketa (“noski” bat, edertasunaren erdian), esaldiaren zehaztasun falta, zenbait izenlagun aukeraketa, “ori”ren ordez, “oi” zehaztua erabiltzeko joera e.a.

Hona hemen Arregiren itzulpena:

“Ez zin-esan, maiteoi,  
Pa- eidazu, bakarrik,  
Emakumien ziña  
Ziñezten ez dot-eta.  
Gozo-gozoak dira  
Zure itzak baña, egin  
Dantzadazan mosuak  
Gozoagoak, noski.  
Ta zure gorputz leuna  
Altzoan daukadala,  
Uskeriak neretzat  
Ludiko itz guztiak.”

(1927: 37)



Ahapaldi labur honen irakurketak nahiko garbi uzten du non dagoen Lauaxeta-ren hizkeraren iturri nagusia: Joseba Arregik Heine-ren olerkiak itzultzeko sorturiko euskara poetikoan.

Lauaxetak *Bide Barrijan* liburuan landuriko intertestualitatearekin jarraituz, mende bukaerako idazle parnasianoekin egingo dugu topo: Sully Prudhomme-ren poema batek bultzatzen du "Maitale Kutuna". Aspaldikoa da idazle biren arteko loturaren berria, Aitzolek aipatu baitzuen *Eusko Olerkiak 1930* liburuko hitzaurrean, nahiz eta ohar horretan Aitzolek Lauaxetak *Euzkadin* agerturiko itzulitako poemen egileak aipatzen dituen. Testu bien arteko konparaketak garbi uzten du zein izan zen bien arteko lotura:

"L'épouse, la compagne à mon coeur destinée  
Je ne le connais pas"

hasiko du testua frantziarrak, eta honela jarraitu bizkaitarrak:

"Inoiz ikusi bako maitale kuttuna"  
Testu paralelo gehiago aurki ditzakegu bien artean, hala nola:  
"Mon âme solitaire  
Confie au Dieu qui sait unir  
Par les souffles du ciel les plantes sur la terre  
Notre union dans l'avenir."  
"Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro  
berak axian bidez lilitxu gustijak  
udaberri aldijan dalkartuz emaro.  
Berak lotuko ditu maitasun lokijak."

"Maitale kutuna" k testu paraleloz gain, beste arazo bat ere sortzen du, zeren, ezezagunaren maitemintze hori, maitasunaren izpiritualtasuna adierazteko asmoz, sinbolismoan presente zegoen topikoa baitugu. Idazle sinbolistekin Lauaxetak berebiziko harremana izan du. Ezagutzen ditu Baudelaire-ren eta Verlaine-ren testuak, eta José María Estefaniak bilatzen zuen: "Aspiración hacia el infinito" hura bilatuz, sinbolismoaren zutabeak aipatuko ditu. Noiz edo noiz, Mallarmé-ren edo Rimbaud-en oihartzunen bat jasoko du, baina, badirudi Lauaxetak alde gotorra, parnasianoa, maite zuela, eta horrela adierazi zuen lehen liburu honetan. Oraindik, sinbolismoaren alde sotila ez da osotasunean agertzen: erromantizismoak eta mende bukaerako poetek eragin handiagoa dute.

Baudelaire-k, ostean, "Itxasora" n, *Bide Barrijak* liburuko azken poeman, eragina izango du, berrikuntzaren maitasunez osaturiko poema egiterakoan.

Une batez, testu paraleloan bilaketa uzten badugu, sinbolismoaren pentsakizunaren barnean kokatuko dugu Lauaxetaren poesia, haren hiru oinarriak garbi agertzen direlako bere lanean:

- a) Metaforaren nagusitasuna eta zeharkako adierazpidea, hala ere, garbiago bigarren liburuan, non testua beste adierazkizun baten esanahia dela esaten baitzaigu.
- b) Musikaren garrantzia.
- c) Heriotza gaiaren presentzia, denboraren jarioak, sortzen duen larriduraren tratamendua.

Heriotzaren gaia oso presente dago *Bide Barriak* liburuko azken aldean, baina, ikuspuntua eta hizkera ez dira sinbolistak: "Jaungoikotija", "Itxarrik", "Artxanda ganian", "Jaunagan atsedena" eta "Ezilkortasun" poemetan. Lauaxetak sentipen-poesiatik "hausnarketa" poesiara egin du salto. Aitzolek bat-batean lotu zuen poesia mota honi olerti-hutsarekin:

Maite minkuntasun basoak lagata, adi zelaietara datorkigu olerkaria. Ara bere goitar indarrak noruntz daramakin, "olerti-uts" arantara.

France'n, batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso bearrean dago. Olerkariak, buruz-buru, era berriak sumatzen ari dira, olertiak goratu eta edertzekotan Bremond, Valery, Claudel eta Souza "poési pure", "olerti uts" bidexurretatik jo ta, poesi osertza zabaltzearren leiatsu dabilta.

Lauaxetak hartzen duen bideak zerikusi handia du barne-hausnarketarekin, adimen jokoarekin eta azterketarekin. Planteamendu kristaua beti argi uzten du, berak dioen moduan "zadorra"ren (misterioaren) esanahia bilatu nahi badu ere. "Zadorra"ren bilakaera heriotzaren senari buruzko galdeketa da, denboraren joanaldi eten ezinari buruz hausnarketa.

Joera Unamunoren existentzialismoa ez dago urruti, haren tonu agonikoa, haren fede zalantza (bigundua), haren bizi-nahi oihua.

Poemek erakusten duten joera kristaua kontuan harturik, batez ere, Brémond-ekin egin da loturarik nagusiena. Baina, zertaz ari zen jakiteko betarik bazuen ere Aitzolek, bideak ez du ondorio handiegirik eman. Bai, badirudi "olerti hutsa"ren bidetik, baino areago, adimen poesia lantzen duela, eta hausnarketa bidean aurkitzen duela poetak bere lanaren oinarria.

Gauzak bestera izango dira *Arrats Beran* liburuan. Idazkera errazaren eta zailaren inguruko eztabaidak direla-eta, Lauaxetak alde batera utziko du poema luzeen bidea, nahiz eta gutxi batzuk argitaratuko dituen garaiko aldizkarietan, eta Aitzolek eraturiko bide herrikoizaletik, neopopularistatik abiatuko da, bere kutsua eta irakurketa eginez, baina. Adimenaren bidea albo batera utziko du, sentipenaren eta deskripzioaren aldeak indartsuago landuz.

*Arrats Beran*, baina, lau-bost praktika poetiko desberdin biltzen dira.

Modernista izango litzateke lehena. Manuel Machadoren eraginez, Lauaxetak gaurkoaren atsegina eta gaztaroa goraipatzen ditu bere lanean. Hizkera modernistak, baina, beste eragin garbiagoa utzi du Cocteauren testu baten berregiketa egin duenean Lauaxetak "Kiñuba" poeman.

Lauaxetak, ondoren ikusiko dugunez, sinonimotzat erabiltzen ditu modernismo eta erotismo joerak ziurrenik Rubén Daríoren irakaskuntza kontuan izanik. Exotismoaren eta orientalismoaren adibide izango litzateke poema hau:

"Ixaño erriko asele oztiña!  
Bakalgayak loraz baitaukaz baratzak.  
Mítxeleta iduri  
Dabil atsegiña."  
(1985: 145)

Poemako hizkera osoak modernismoaren hizkera gehiegikeriak erakusten ditu: “Ixaño erri”, “bakalgaya”, “baratza”, “Izpiñe”, “ostruak”, “oztiña”, hiztegi erreferentzia guztiak joera modernistaren agerbide dira, eta Altunak Wilde-ren ipuinekaz egindako bertsoia gogora ekartzen dute.

Exotismo puntu bat mantendu zuen Lauaxetak *Arrats Beranen* argitara zituen sonetoetan. Hauetan ere, testuak mantentzen du joera dekorazio joko garbia, baina, erreferentziak ez daude Ekialdean, europarrak dira guztiz eta zuzenak: “Sevres’ko murkua”, “Abeslari bati”, “Oraingo maitarijak” poemak sortu dituzte.

Modernismoaren eraginez, bada, Lauaxetak bide bi aukeratu ditu: bohemiarren oihartzuna duen poesia eta exotismoarena. Biek osatzen dute joera modernistaren alde ezagun biak. Inoiz aipatu denez, Lauaxetaren pentsakizun literarioa garbiago agertzen da *Arrats Beran* liburuari lagungarri gisa jarritako itzulpenean. Hortxe dugu garbi zein literatura maite zuen Lauaxetak. Baina, ez da zuzena pentsatzea, hor modernismoa besterik ez dagoenik, ez; itzulpen horietan Juan Ramón Jiménezen hizkera literarioaren aztarna nabaria da, eta onartzekotan ere hizkera modernista dela, modernismo findu, gehiegikeriaz garbitua dela onartu beharko genuke.

Garbi dago, baina, modernismoa ez dela eragin nagusia liburu horretan, herri literaturan eraginak indar handiagoa du.

Ildo honetan ere, materialak desberdinak dira: badira alegiak (Lauaxetak *Euzkadi* egunkarian hasieran haurrentzako idatzitako sail baten puzzleak), Espainiako Góngora poeta gogora ekartzen duten letrilak, beste izenez, Izkiñuak, gehiago landuriko erromantzeak eta baladak. Desberdinak dira, era berean, iturriak.

Lehen-lehenik, Aitzolek nahi zuen moduan, euskal aho-literaturaren eragina ikusi behar dugu testuetan. Euskal aho poema askok utzi dute bere joera poema hauetan. Denetarik hartu du Lauaxetak aho literaturatik.

\* Gaiak: “Egun bereko alarguntsa” poema ezagunak “Ezkonta goxa” poema bideratu du; “Brodutzen ari nintzen” baladako kantaria agertarazi du “Izlapurra” poemak, eta alaba salduaren gaia “Etxeko alabea” testuan agertzen da.

\* Motiboak: herri lirikan askotan agertzen diren pasarte txikiak dira motiboak, eta horrek “Berreterretxeren kantorian”n dugun konparaketa famatua agertu du “Burtzaña” poeman:

“Lerdijak ez bijotzik  
ezta arratsak samiñik.”

Asko dira horrelakoak, Lauaxetaren lanean, eta hemen batzuk aipatu besterik ez ditugu egingo: esaldi paraleloak, zenbaki magikoak, errepikazioak:

“Urrun zara, urrun mendija  
borda ori, urrunago”  
“Saspi arratsez ardiak  
ekin eutsen negarrari.”  
“Sugarra dira basuak,  
Sugarra dira basuak eta  
Zidar argija itxasuak”

\* Kopla zaharraren teknikaren erabilpena: oso ezaguna denez, kopla zaharretan, lehen aldean, irudi poetikoa agertzen da eta bigarrenean errealitate baten deskripzioa. Irudi poetikoan interes handia agertu zuenez Lauaxetak, behin eta berriro erabili zue-larik teknika:

“Goiz-goiz erdija dogu,  
enarak ba-duaz.  
;Itxasua dan urdin  
makalak egon-ezin!”

\* Beste genero batzuk ere erabili zituen Lauaxetak bere poemak ontzeko orduan: herri lirika, errefracuak, hots-hitzak, esaera zaharrak, sineskerak, guztiak euskal mundu baten ikuskera sortu nahiez eta bere poemak herri jakiturian errotu nahiez.

Baina, euskal aho literatura ez zen Lauaxetarentzat bide bakarra. Espainiako erro-mantzeez ere utzi zuten bere arnasa bizkaitarraren lanean.

Herri poesiaren erabilpena egiten zuenean, Lauaxetak izan zuen gogoan Aitzolek esana. 1933. urtean Jautarkolek irabazi zuen Tolosako Santa Agedako kopla txapel-leta komentatuz, honela idatzi zuen Aitzolek ahapaldi haiei buruz:

Alako erri kutsua daramate ez kopla bakoitzak olerki osoak baizik. Irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dana da. Eta onelako olerkiak eta onelako idaz-lanak bear ditugu. (*El Día*, 05-02-33)

Lauaxetak kasu egin zion, bai, baina, ez bere ziria sartu gabe, bere nortasunaren berri eman gabe: “Axia baño meiaguak” ziren Izkiñuak, Letrillak, idatzi zituen, eta sujerentzia zela bere helburua adierazi zuen. Hau da, ez zirela poema errazak, baten baino gehiagotan irakurtzekoak baino.

Honetan ere, modernismoa zuen buruan, edo garbiago, Juan Ramón Jiménez egin nahi zuen hura: herriaren maila unibertsalera igo, eta horretarako, folklokeria alde batera utzi behar zuela uste zuen, eta herri literaturaren alderik aristokratikoarena erabili eta landu. Helburu berbera zuen Lauaxetak herri literatura erabiltzen zuenean.

Baina, Lauaxetaren neopopularismoa aztertzeko orduan, kontuan hartu beharko genuke, bizkaitarrak inguruan, batez ere, Espainian egiten zena oso begiko izan zuela. Espainian neopopularismoak baizuen ildo sendoa egina Juan Ramón Jiménezen *Baladas de primavera*ekin hasi, García Lorcaren *Canciones* y *Romancero Gitano* lane-kin gailurra hartuz eta Albertiren *Marinero en tierra* lanarekin bukatuz. Lauaxetak hiruron eragina agertuko du bere lanetan.

Juan Ramón-en *Baladas de Primavera* liburuan agertzen den “Balada de mañana en la Cruz” poemak argumentu aldetiko loturak ditu Lauaxetaren “Mayatzeko gurutz” deituriko testuarekin.

Idazleren batek utzi badu aztarnarik Lauaxetaren lanean horixe izan da García Lorca. Gaia hainbat bider jorratu da gure artean, baina, agian, merezi du zerbait azpi-marratzea.

Hiru izan ziren Lauaxetaren irakurketak : *Poema del Cante Jondo*, *Canciones* eta *Romancero Gitano*.

Testu paraleloak ugariak dira: “La canción del jinete”k “Artzain baten eriyotzean” eragina du:

“En la luna negra  
de los bandoleros  
cantan las espuelas.”

Lorcarenak garbi du erantzuna euskaraz:

“Lapur-gaba baltz onetan  
zaldi zurixka arin dua.”

“Begien omenez” poemaren hasierak badu zerikusirik Lorcaren “Galán” poemarekin, baina, adibiderik garbiena “Langille eraildu bati” deituriko poema dugu non *Romancero Gitanoko* hiru poema biltzen baitira. “Prendimiento de Antoñito el Camborio”tik giroa eta pertsonaiaren deskripzioa hartu dira; “La Muerte de Antoñito el Camborio”tik langileraren heriotza; eta “Romance de la Guardia Civil Española”tik fusilaketaren eskema.

Ildo berean zegoen Albertiren *Marinero en tierra* testuak “Txo moskortuba” testuaren sorketan eragin handia izan zuen. Lauaxetaren iturriak lantzerakoan badago bigarren huts larrik: barne-testualitatea ez dugu garbi azaldu. Olerkari bizkaitarren lanean idazle bik eragina izan zuten. Arresek eta *Arrats Beran* argitaratzen denarako zendua zen Lizardik utzitakoa ezin da alde batera utzi.

Adibidez, Lauaxetaren irudi honek:

“Eta irustatzak, apez-antzo,  
buruban daukez purpresentak (“Mayatzeko kantea”)

bat-batean dakar burura Lizardik irustekin egindako jokua:

“Dantzari talde, bacotiarak,  
naaspil zoroan zuti baldarrak,  
esku goituan ontzia ardo.”

Lizardiren kasua desberdina balitz bezala azaldu da. Eta neurri baten desberdina da. Lizardik askoz ere idazketa pertsonalagoa egiten duelako, kontzeptismoaren indarrez eta euskal senera hondoratuz, Lizardik idazketa poetiko bat asmatzen du, berea, beste inor gogoratzen ez duena, edo, beste era batera adieraziz, bere lana gogoratzen duena ez beste inorena.

Mitxelenak idatzitako esaldi hark pisu handia izan du Lizardiz idatzi duten guztiengan:

Es extraño que su poesía sea personal hasta el punto de que resulte difícil señalar influencias en su obra: bien es verdad que falta un estudio crítico detenido de ella. (1960: 147)

Eta neurri batean egia da Koldo Mitxelenak esaldi horretan, beti bezain zuhur, idatzitakoa. Lizardik ez du Lauaxetaren moduan lan egiten. Orain arte ia alferrikakoa izan da esaldirik esaldi ibiltzea Lizardiren lanean, bere testu bat eta kanpoko beste

bat konparatuz. Garbi dago Lizardiren lanean esaldia ez dela gunea, ez dela pentsakizun puntu nagusia; gaiak eta gaiaren trataerak askoz ere garrantzi handiagoa hartu dute bere olerkigintzaren tratamenduan. Baina, haatik, Mitxelenak ez dio eraginik ez dagoenik, ofaindik ez direla aurkitu baino.

Eta, beharbada, horrela izan da, Mitxelenaren garaian lanik ez zegoelako, edo, ikuspegi zuzena erabili ez dugulako.

Literatura konparatuan pentsatzen denean, eta horixe da gertatu zaiguna, lehen-lehenik esaldien arteko eraginetan pentsa ohi da eta Lizardirekin lan egiteko formularik onena ez da hori.

Sarreran aipatu dugunez, konparazioa maila desberdinetan erabili behar dugu. Bigarren maila begiraturuz gero, motiboen maila, adibidez, askoz ere garbiagoa da arazoa. Eta zer esanik ez, kontzeptu literario abstraktuez hitz egiten dugunean. Ikuspegi lausotzen duen beste joera bat ere badago gure artean. Lizardiren *Biotz begietan* (1933) berez material oso desberdinez osatua den lana dugu, ia-ia Lauaxetak *Arrats Beran* egin zuen moduan: jite desberdineko, eskola aldakor eta garai zaharrak eta berriak biltzen dituen liburua dugu. Lizardiren eraginei buruz hitz egiten dugunean, susmoa besterik ez dut, azken-aldeko poemez hitz egiten dugula iruditzen zait: hain zuzen ere, idazkera pertsonala lortu duenekoetaz, eta ahaztuxeagoak geratzen dira hasiera garaikoak, literaturan hasten zegoeneko testuak. Gai horretaz badago datu nahikorik, Mari Jose Kerexetak (1984), adibidez, Lizardiren lehen olerkiak argitaratu zituen, baina, ez naiz haietaz ari, *Biotz begietan* liburuko lehen orrialdeetan azaldukoen baino. Begi bistakoa da horietan garbiagoa dela eraginen lana, testuaren azken aldean, baino.

Agian, konparazio-lanetan hasi aurretik, komenigarria litzateke kronologia arazoa agertzea; zurrta baita liburuan alde bi agertzen direla 1930. urtearen inguruan "Urte giroak ene begian" idatzi aurretik eta ostean. Jakin badakit Lizardiren lana ikertu duten zenbaitek gurago dutela, beharbada, positibisten jarrera muturreraino eramanez, esaldiz esaldiko frogan eztabaida ezineko horretan jarraitu, eta iturrien bidera jo.

Nire aldetik gurago dut "ideien polenean" sinestu, Faulknerrek esan zuen moduan. Behin galdetu omen zioten, nobelagile bien arteko antzekotasunak kontuan harturik zer hartu zion Joyce-ri. Faulknerrek ez zuela irakurri aitortu zuen, baina, jarraitu zuen esanaz airean bazela ideien polena, eta landareen hazi hori bien lanetan batera jausi zela. Horrela da garai bateko kulturak ereineko haziarekin gertatzen dena. Kultura da haizea eta haize horrek mugitzen ditu haziak. Kultura bateko galdera nagusiak han eta hemen agertzen badira, normala da idazle adituek, eta nabaria da Lizardi idazle aditua dela, garaiko galdera nagusiak moldatzen dituen horietakoa, erantzun komunak ematea galdera horiei, eta gai batzuk, hausnarketa batzuk eta irtenbide batzuk berdinak izatea literatur lan desberdinetan. Hori guztia kontutan hartuz, uste dut Lizardiren lanean literatura konparatuak lan handiagoa duela eta fruitu umatuagoa aterako duela ikuspegi orokor horretatik landuz eta lehen poemetara aplikatua eta ez horrenbeste —nahiz eta ez den guztiz alboratu behar— azken aldekoetan, bere sen propioa azaltzen duten horietan.

Dena dela, ikerketak historia luzea du gure artean, eta gora-behera handiak izan ditu gaur arte. Lehenengoetatik hasita, Anjel Lertxundik, ez zegoen urruti, sinbolisten eragina bilatu zion eta Baudelaireren korrespondentziarekin lotu zuen Lizardiren metaforaren erabilpena. Ez zuen ahaztu, hala ere, Lizardik barrokiismoari zor diona:

Atal honen hasieran Lizardiren barroko-tankera aipatu dugu, baina, haren jostura harrigarriak, ezin laburragoak, indar berezia ematen dio barrokitasun hori. Ez du, adibidez, Góngora eta tankerakoen antzik, ez gara galtzen. Ez bait da alferrikoa izan Erromantizismoa. (Lertxundi 1974: 112)

Atzealdean, antzerkietan dekoratua ohi den moduan, 27ko Belaunaldikoen gatazka zegoen eta 1927. urtean ospaturiko Góngoraren urteurrena. Gaur egun, Lizardiren poetika deskribatu nahi denean Lizardiren lanen ikerlari trebe den Lourdes Otaegik ere "gongorino" hitza aukeratu du haren sena aipatzeko. Lertxundiren baieztapena, paradoxa badirudi ere, onartuz (Lizardik badu zerbait barrokitik), eta uxatuz ("ez du Góngora eta tankerakoen antzik" baieztapenez).

Ondoren, trenaren gaia dator. Honela mintzo da Lertxundi.

Verlaine izan zan treneko ibilaldi batetaz lehen poema osatu zuen gizona. Geroago, Antonio Machado eta Juan Ramón Jiménez espainiarrek ere esperientzi berdina sakondu dute. (1974: 125)

Trenaren gaiarekin jarraituz, Mikel Zaratek (1978) motibo bera hartu zuen Lizardiren iturrietan kala txikia egiteko. Eta konparazioarekin jarraituz, Anjel Lertxundiren deskribzioa nondik aterea den aipatzen du: Martín de Riquer eta José María Valverderen *Historia de la literatura universal* aipatuz: "Verlaine es el primero que hace la poesía del viaje en tren, que tendrá tan buenas muestras en Antonio Machado, Juan Ramón Jiménez...". Mikel Zaratek, gainera, Ramón de Campoamor jartzen du trenari buruzko poeten ildoan, eta baita Azorín ere.

Ikusten dugunez idazle bion lana ez zen izan iturri zehatzak bilatzea, baizik eta Lizardi giro jakin batean kokatzea. Honela adierazi zuen Mikel Zaratek giro hori:

Aldian aldeko izanik, Frantziako sinbolisten eraginez, Nikaraguako Rubén Darío-ren modernismo giroan eta Espainiako 27.eko belaunaldiarekin batean,... Lizardi... ta gainerako olerkarien gogoak bizkortu eta erdiminetan jarri ziren. (1978: 10)

Oharra guztiz orokorra bada ere, puntu batean, Rubén Daríoren eraginean, hain zuzen ere, ez dabil artez, baina, kokatzen du, behintzat Lizardiren estetika.

Geroagokoak dira testu paraleloen azterketa.

Anjel Lertxundik Gerardo de Diegoren poesia batean aurkitu zuen Lizardik erabilitako irudi bat.

Nire aldetik, Verlaine-ren poema baten eta Lizardiren "Asaba zaarren baratza"ren arteko konparaketa egin nuen.

Adibide honek, eta agian Mikel Zaratek dakarren Juan Ramón Jiménez-en "Gupúzcoa" eta "Oi lur"en artean daudenak hausnarketarako bide dira.

Har dezagun, lehenik, Juan Ramón-en testua:

“El techo del vagón tiene un albor (¿de dónde?),  
y los turbios cristales, desvanecidos, lloran...  
Fuera, entre claridades que van y vienen, hay  
una conjuración de montaña de sombra”

Mikel Zarete ez badu aipatzen ere badira hemen elementu bi: argia mehea; eta laño xumeak estalia, Lizardiren poema gogora dakartenak. Baina, irudi biok, abiapuntu biok, aipatuak badaude ere, aldatuak daude:

“oro laño  
mee batek estalia,  
urrez oro  
eguzkiak yantzia”.

Agian “nekazari, gizandi”ak ere badu oroimenik bertso honetan:

“Y las rocas (¿enormes?)”

baina, horixe besterik ez dira: oroimenak. Lizardik integratu egin ditu. Non integratu? Trenaren higiduraz sortu duen erritmoan:

“Oi, lur, oi, lur!  
Oi, ene lur nere...!”

erritmo horretan sortu duen esanahian. Verlaine-ren testutik ere abiapuntua hartu du, jarraipena, amama zaharraren agerpena baratzaren erdian. Baina, Lizardiren testuak beste esanahia du, literatur testuaren barne-indarrei kasu egin dielako, eta ez duelako arreta handiz begiratzen eredia. Lauaxetak eredia bere hartan sartzen duen artean bere lanean, Lizardik integratu egin du, bere egin ostean esaten du. Horregatik, ez dira ikusten.

Lizardiren iturriei buruzko lanik luzeena Luis Mari Muxikak (1983) egin du. Muxikak literatura klasikoaren eragina ezartzen dio Lizardiri: “Gure ustez, funtsean, Lizardirengan (Lauaxetarengan bezala) ez dago poesia modernoaren funtsezko eraginik, klasikoarena bai, ordea” (1983: 40).

Muxikak Orixeren aitortpena dakarkigu bere hipotesia indartzeko, eta mitologiako aipamenak, eta berak honela izendaturiko elementuak zerrendatzen ditu; sinbolismo ninfatiko eta nuptziala, sinbolismo bukolikoa, mitologiko-maiestatikoa, jauregia, ederkiak, eliza eta habeak, geziak, Bako, Ikarro,...

Azpian, eta hemen ez zaio arrazoirik falta, Muxikak Rubén Daríoren eraginik ez dagoela baieztatu nahi du, eta, era berean, 27koen aztarnarik ez. Muxikak Lizardi logizismoari lotua ikusten du eta ez surrealismoari etzana, alegia. Eta kontzeptu joerari nahasia agertzen bada ere, sakonean arrazoia du, klasizismoa idazle guztion oinarrian baitzegoen. Kontua, baina, beste bat da. Oinarri horretatik harago joateko gai izan ziren edo ez.

Juan Kruz Igerabidek, zoritxarrez argitaragabe dagoen lan batean, Lizardik herri literaturatik hartu duena aztertu du, eta uste izan dena baino askoz gehiago duela frogatu.

Karlos Otegik bere tesian ekarpen garrantzitsu bi egin zituen. Lehena: L. De Besse, Lizardik aipatzen zuen poetaren izaera eta nortasuna agertu zituen: guztion



(edo, behintzat, nire) harridurarako ez zen poeta sinbolista garrantzitsua. Inprobisadorea zen, bertsolaria, eta haren bertsoetan joera erromantiko-melodramatikoa nagusia zen. Aurreko orrialdeetan ikusi dugu zein indar zuen joera erromantiko zaharrak Lauaxetarengan. Ez da dudarik hain pertsonala zen Lizardirengan ere, aspaldi zaharra zen joera horrek eragina izan zuela.

Bestetik, eta hau guztion (edo, behintzat, nire) harridurarako Antonio Machadoren *Campos de Castilla* aipatzen zuen Lizardiren iturri gisa. Eta datuak uste dugun baino garrantzi handiagoa du, zeren honela puzzle batean bezala, piezak bere onera datoz.

Baina, “onera etorri”k ez du esan gura Machado iturri zuzena denik. Ez horratino. Horrek beste ikuspegi batzuk zabaltzen ditu gure ibilbidean. Ikusi dugu, lehen ere, trenaren gaia aipatzerakoan nola erabiltzen zen Machado denen ahotan, baina, ez du inork aipatu 98ko belaunaldia: Muxikak, beste guztien artean, Lizardiren moderotasun falta aipatzen zuen, besterik ez.

Honetan guztian Lauaxetak giltza badu. Lizardi hil ostean, Tolosan egiten den ospakizunean hitz argiak —guretzat argiak— aipatzen ditu Lauaxetak:

La fantasía del vasco no gusta de divagar sino de dar forma real a la idea con algún término conocido, las perlas de Ormuz, las princesas orientales, los ensueños de los morfinómanos no tienen campo en Euzkadi. Porque el artista vasco no ha visto esas fabulosidades y no gusta de hablar y escribir acerca de términos desconocidos.

Lizardiren modernismoa ukatzen duen unean, Lauaxetak kontzeptu bi nahasten ditu: modernismoa eta exotismoa. Arrazoia du Lauaxetak Lizardi ez da exotismo zale bat: Ormuzeko perlak aipatuz Rubén Darío aipatzen zen zita horretan eta bere kritika egiten. Ez, ez dira exotismo zaleak Aitzolek eta, ondoren, Muxikak ikusi dutenez. Baina, bestaldetik, denok dakigu Modernismoa ez dela exotismoan bukatzen, eta gaurko literatur ikerketari begiratur, 98ko belaunaldiaren eta modernismoaren arteko mugak bildu egiten direla esan dezakegu, sinbolismoaren argitan.

Machadoren lanak ikuspegi honetan hartzen du erliebea. Hau ere ez da exotismo zalea, horrek ere sinboloak hurbiletik hartzen ditu. Espainiako lirikak egin zuen moduan. Lauaxetaren deskribapeneko hitzak gogoratur:

Ormuzko perlak edo Chinako lorak ez ditut ezagutzen, leen bezain illun nago. Gizonaren sudurrak Txindoki irudi esan badidazute, ederki ulertuko, edo pago baten antzekoa zen. Pago asko ikusi baitut ene bizian.

Deskribapen horrek Lizardi modernismotik kanpo uzten duela dirudi, baina, berez, exotismotik kanpo uzten du. Ez da Rubén Daríoren jarraitzailea. Baina, Espainiako Modernismo ere, ez zen exotismo zalea, hain zuzen ere, herri literatura jarraitzen zuelako eta eremu horretan aurkitu behar zuen sinbologia. Ez ote da hori Lizardik jarraituriko bidea? Ez ote da hori “ideien polenak” Lizardirengan utzitako arrastoa?

Baietz uste dut, eta baietza irmoagoa da Lizardiren liburuaren izenburua garaiaren ziren joerekin konparatur gero. Hain zuzen ere, *Biotz-begietan* barnè-mundua da.

Ortegak egin nahi zuen filosofiaren ikuspegiarekin lotura handiegia dute aldi biek, inguruak Lizardirengan eraginik izan ez zuela pentsatzeko. Honela, deskribatu du filosofoaren pentsakizuna Juan Ramón Jiménez-en poesiaren ikerle den Javier Blascok:

Sobre el objetivismo de Ortega se sustenta un concepto de *realidad* que será altamente operante en la estética de todo el grupo del 14. Surge este tema, en la filosofía de Ortega, de un intento de superar los caminos sin salida en que habían desembocado, durante el siglo XIX, tanto las teorías *subjetivistas*, como las *objetivistas* de raíz positiva. Se trata de responder a la de ¿qué es lo real?... Ortega piensa que es posible una solución por el arte de en la creación artística un valioso instrumento marginal a la lógica, para superar las dicotomías existentes... Frente a las teorías objetivistas y subjetivistas, Ortega ofrece una “concepción vitalista” de lo real. La solución propuesta niega que la realidad auténtica está en el sujeto o en el objeto; está, por el contrario, en la mutua relación, relación que es *creación* del arte... El arte restaura la comunicación entre naturaleza —objetos— y espíritu —estados—, dos “provincias que la ciencia ha separado.

Paralelismoa harrigarriegia da loturarik ez ikusteko. Haatik, beste gai bat da jakitea nola heldu zen Lizardi pentsakizun horretara. Ortega zuzenean irakurriz? Poesiaz uste zenaz hausnarketa eginez? Sintesi pertsonal baten bidetik?

Giroan —literatur giro jakin batean, sinbolisten artean— zegoen pentsakizuna zen hori: artearen funtsa, literaturaren funtsa zein ote zen jakitea. *Biotz-begietan* idatziz, Lizardik inguruan poesiaz zegoen elementu baten berri eman zuen. Eta izen hori jarri zion liburuari, eta ez beste.

Paralelismoan gehiago jarraitzea balego, ez litzateke ahaztu behar sujetuaren krisialdia agertzen duela, behin baino gehiagotan, Lizardik:

“lurraren azala urdindua da.  
ala dut odola begietara?”

Galdera ez da galdera erretorikoa, zentzuz beterik dagoen itauna baino: Zein da errealitatea? Den bezalakoa edo ikusten dudana? Bien arteko jauzi hori ezin du artistak erabaki: nortasunaren krisialdiaren garaia ere bada eta poetak poesian kokatuko du, bihotz eta begien arteko lanean, errealitatearen sormena.

Lauaxetak adierazi zuenez; Novalis jarraituz: “Poesia da benetako errealitatea.”

Beste alde batetik, Lizardiren joera sinbolista (zeharkako adierazpidea, musika, heriotzak sorturiko larridura) Mitxelenak 1960. urtean deskribatuak dira:

Porque en sus poesías vive siempre, cercana o lejana, la tremenda certidumbre de la caducidad de las cosas terrenas —“Yo no quisiera que el día se volviese noche”—, el sabor a ceniza que hace más preciosa la percepción fugaz de cualquier belleza.” (Mitxelena 1960: 147)

Hala ere, Lizardiren poemak irakurtzen baditugu, aipa genitzake bere lanean literatur mugimendu desberdinek utzitako arrastoak.

Daturik garrantzitsuena L. de Besse-ren olerkia litzateke. L. de Besse-k inguruko gai zabalduen inguruan bat-bateko poemak egiten zituen eta haren batean oinarriturik idazten du Lizardik. Hona hemen Karlos Otegiren iritzia Lizardiren iturriez:

Honako baieztapen hau egin dezakegu: “Zeru azpia” eta “Euzko-bidaztiarena”z aparte, ez da Lizardiren poemekin harreman garbi eta zuhurra duen testurik aurkitu. Poetak berak ere, hain zehatza izanik bere lanetan, ez digu honetaz erreferentzia argirik utzi, aipatutako bi poema horietakoa izan ezik. “Zeru-azpia”ren kasuan, Lizardik berak itzulpen libre bat dela esaten digu, Besse de L. poetaren testu frantses batetik egina; testu hori “L’envers du ciel” da, eta poeta, inprobisatzaile iaio bat berez, Alfred Besse de Larzes, Marseille-n, 1848an jaioa. “Euzko bidaztiarena”[n]... Lizardik Etxepare aipatzen du...

Ez dugu beste zenbait kritikok aipaturiko harremanak egiazkoak izatearen posibilitatea ukatzen, baina, gure iritziz, datu gehiago beharko lirateke, harreman konkritu eta zehatzak bermatzeko.

Dena den, Lizardiren poemak ez dira ingurune literario eta sozio-kulturaletik isolatuta sortu. (1994: XLIII)

Ingurune literario eta sozio-kulturez arestian mintzatu gara. Lotura zehatz-zehatzez ere mintzatzeko modua badago.

Ez dago zalantzarik, adibidez, “Aldakari” poemak baduela zer ikusirik Oscar Wilde-ren “Bakaldungai zorijontsuba” ipuin ezagunarekin, nahiz eta Lizardik bere erara eratu duen testua.

Altunak egindako Oscar Wilde-ren ipuinen itzulpenaz eta Lauaxetarengan izan zuen eraginez, gorago mintzo izan gara, eta, beraz, hemen argudioaren paralelotasuna azpimarra beharko genuke, aldaketak garbiak direlarik.

Maitasun bategatik, bere bidaia jarraitzen ez duen eta Neguak hiltzen duen txoriaren motiboa oso ezaguna zen, nire ikasketa garaietan, behintzat. Hemen, datu konkritu eta zehatza dagoela, uste dugu. Baina, hala ere, beti onartu beharko da, Lizardik bere erara ematen dituela gaiak, landu ostean, moldatuz, alegia, eta zaila dela, paralelotasunak aurkitzea.

Baina, “Zeru-Azpiz” beste datu batzuk emango lituzke. Besse de L. bat-batean idatzia izan arren, badu tresneria kulturala nahiko zabaldua dena.

Ama eta haurraren arteko elkarrizketa, haurraren heriotza, egoera trajikoa, hain zuzen, poemaren tonu sentikorra, oso hedatuak ziren kulturaren eta bat-batera dator oroimenera Lauaxetaren “Señal abestu”, eta, beste egoera batez, elementu berdintsuak ditugu “Xabiartxoren eriotza”n ere, nahiz eta hor elkarrizketa aita-amen artean gertatzen den, eta beste aldetik, joera autobiografikoak eta kanpotik errondan datozen haurren koroak sakontasun handiagoa ematen dioten testuari. Baina, zenbait ekintza, berdintsu gertatzen dira testu biotan. “Zeru azpian” aingeruek eskatzen diote lagun berria Jainkoari eta “Xabiartxoren eriotza”n Jainkoak aingeruei; “Xabiartxoren eriotza”n egiten den deskripzioan ere tonu berdinak usna ditzakegu.

“Neskatx Urdin yantzia”k, bere aldetik, emakumeen deskripzio modernistak dakartza gogora, eta iruditeriak badu zerikusirik prerrafaelitek zabalduko pinturakin, eta zehatzago, “Art nouveau”k eraturiko moldeekin. Nola ez pentsatu Mucha pintorearengan deskripzioaren agerbidean?

Beste motibo batzuk ere aipa daitezke, orokorrakoak, beharbada, baina, erromanizismotik hasi eta poesia pertsonala idatziz bukatzen duen poetaren lana irakurtzeko

orduan. Paralelismoak, noski, garbiagoak dira lehen poemetan, eta landuagoak dirudite azken aldekoak. Adibide gisa, Lizardik argitaratzen duen lehen poema, Bilintxen “Behin batian Loiolan” bertso-sortaren jarraipena dela ikus dezake edonork.

Orixeren iturriak aipatzen baditugu, Jesuiten eskolak literaturaren aldetik hiru arlo nagusi landu zituela aipatu beharko genuke lehenik.

Batetik, elizako gurasoen bidetik joan eta hizlari famatuen lanez gain, klasikotasunean oinarriak jartzen zituen. Orobat, literatura klasikoaren bideak ziren honenak.

Bigarren adar bat, XVIII eta XIX. mendeko idazleen irakurketek sorturikoa litzateke, nolabaiteko literatura munduan zaharkitua zegoen korronte baten jarraipena zen berau. Espainiako neoklasiko batzuk (ikusi ditugu Nuñez de Arce, eta Meléndez Valdes-en eragina Lauaxetaren poemetan), erromantiko batzuk osatuko lukete bigarren *kanon* hau.

Hirugarren irakurketa zerrenda Aita Estefaniaren inguruan sorturikoa litzateke. Erromantizismoaren joera sinbolikoa gutxietsi eta bere oharretan agertzen den bezala, “Aspiración a lo infinito” bilatzen du. Horrela sinbolismoarekin lotuz, eta Leopardiren eta Maragall-en *L’Oda Infinita* eredu gisa jarriz. Estefaniaren bidea berria da aurrekoarekin konparatuz gero, baina, garaiko giroarekin atzeratua dago, joera ideologiko eta moralak baduelako pisurik —nola ez?— bere aukera estetikoan.

Hirugarren honen jarraitzaile-eredu gisa har dezakegu Lauaxeta. Bigarrenak badu zerikusirik Lizardiren lanarekin, nahiz eta ez den ahaztu behar Lizardi ez zela jesuitetan ibili, eta eragina nabarmenagoa dela lehen aldean eta ez bigarrenean. Lehena-  
ren irudi dugu Orixeren lana.

Orixeren lan poetikoa, dena dela, oso zabala da, eta behintzat, lau arlo desberdin ikusi beharko lirerateke, literatura konparatuaren aldetik lan eginez gero: lehen-lehenik, bere *Euskaldunak* poema epikoa (gerora idiliora etorria dena) legoke; *Barne-Muinetan* poema aszetikoa ondoren; hirugarrenez, gerra aurretik egindako poesia lirikoa, eta gerra ostekoa, batez ere, Ameriketara sortua, gero.

Lau alde desberdinok aztertzen hasi aurretik on da esatea Orixeren heziketaz Paulo Iztuetak ikerketa sakona eman duela. Jesuiten Ratio Studiorum ikasketa arautegia jarraituz, lan handia egin du haren pentsakizun integrista eta tradizionalista zehazten eta aztertzen, nahiz eta pentsakizun aldeari, literatura aldeari baino toki handiago eman dion. Oro har, Iztueta Orixeren tradizioa klasikoa eta humanistaren bideetatik saihesten da.

*Euskaldunak* poema dela-eta Iztuetak ongi marraztu ditu poemaren nondik-norakoak:

Esan behar da euskal poema mamitzea ez zela izan Orixeren kapritxo hutsa. Garaiko hainbat euskaltzaleren gogoan zegoen epos nazional baten ametsa. Beste herrietan gertatu zenaren antzera, poema hori izango zen Eusko Pizkundera ondoren sinbolizatuko zuena. Nazio bakoitzak dauka bere hizkuntza mundu literaturaren aurrean ohorezko mailan jarri duen poeta nazionala [...] [Iztuetak jarritako *poeten* zerrendan Cervantes azaltzen da] Eta Euskal Herriak ere, salbaruko bazen, bere literatura goi-mailara jaso beste biderik ez zeukan. (740)

Ereduak ere kontuan hartzen ditu ikerlari horrek:

Poemak nolakoa izan behar zuen edukinaren aldetik? Arestian aurreratu dut zerbait. Pieza folklorikoa. Eredua emana zetorkion Mistral-en *Mireio*-rekin eta Lönnrot-en *Kalevala*-rekin.(741)

Iztuetak berak lan eskergarrian bildu du Orixara joan aurretik eta bere proiektua kontatuz, Orixek agertu zuen “Temor y aliento” artikulua. Iztuetaren ikerketaren arabera epos nazionalak honelako ezaugarriak izan behar zituen:

Euskalduna, euskal tradizioa bizirik gordetzen duen herria jasoko da [...] Herritarra [...] Errealista [...] beraz, osoki objektiboa izango da. Unibertsala. Hots, kizunari dagokionez, herrian urtean zehar zikloka gauzatuz doan bizimodua kantatuko da. (1075)

Honetaz ohartxo bi: objektibo hitzaren ordez, hobe legoke, deskriptiboa, behar-bada, eta, egia esan, unibertsaltasunaren joeraren azalpena ez dut nik garbi ikusten, baina, *Euzkadin* agerturiko artikulua hori ez dut aurkitzen *Idazlan Guztiak* izenean agerturiko III. alean.

Iturrietara berriro joaz arreta Mistral-en *Mireion* eta Lönnrot-en *Kalevalan* jarriz gero, eragina era desberdinetakoa dela ikus dezakegu.

*Kalevalak*, agian, lanaren moldapena irakatsi zion, Mireiok tonua, giroa, eta agian, idazkeraren joera.

Ezaguna denez, *Kalevala* ez da Lönnrot-ek onduriko lana, baturikoa bai, ordea, eta “batu” hitza erabiliz zentzu bi ematen zaizkio eginkizunari. *Kalevala* poemaren zati asko eta asko herri kantu narratiboak dira, herriak sortu eta herrian zabalduak, idazleak sortu ez zituenak, alegia.

Lönnrot-en lana bikoitza izan zen. Kantu horiek bildu egin zituen, batu; eta bata-suna eman zien hari bakar baten inguruan moldatuz. Baina, kanta horiek ziren-zirenean utzi zituen.

Antzeko lana egin du Orixek. Kantuak, bertsoak, koplak ziren moduan ekarri bere lanera. Baina, bistan da materialearen, batasun falta, genero oso desberdinekoak izaki eta, beraz, idazlearen lana, harira ekar behar horretan zabalagoa eta handiagoa da.

*Mireiok* eman zion bere idilio joeraz batasun-haria neska-mutil gazte batzuen maitasun kontuaren inguruan sortzeko modua. Beste alde batetik, Iztuetak, agian ez izen oso egokiz, folklorikoa deitu duen tonua ere *Mireioren* jarraipena da, edo, Mistralekin batera “baserriren poesia” sortu zutenena, Francis Jammes eta Samainena, alegia.

Mistralek egin zion eraginez, luze idatzi du Joxe Azurmendik (1991) bien arteko loturak ongi erakutsiz.

*Barne-Muinetan* poema aszetikoak badu Orixek filosofia “católica” deitu duenaren joerarik. Orain Iztueta hartuko dugu gidari. Iztuetak idatzi duenez:

Eliza katolikoa izan da autore klasikoen kutxa ondoen zaindu eta landu duena eta berari dagokio, ez Erreformen oinarritutako humanismo liberalari haien defentsa egitea. Elizaren tradizio klasikoan, autore klasiko aipagarrien artean hauek

izendatzen ditu: Krisostomo, Agustin, Ambrosio, Zipriano, Jeronimo, Luis Leongoa, Quevedo.(631)

Lanaren tradizioaren ulermenerako ezinbestekoa da *Quiton arrebarekin* lanari buruz Iztuetak egindako ikerketa, eta han erakusten duen pentsakizun katolikoaren moldapena eta, beste alde batetik, Gazteluren *Musika ixilla* liburuaren hitzaurrean jarritako Fray Luis Leongoa eta Done Juan Gurutzekoaren arteko konparaketa.

Hala ere, hausnarketa egiteko saioa eta hausnarketa poetizatzeko ahaleginak badu zer ikusirik gogo-jardunekin, eta literatur-pentsakizun gisa Horatius-en poetikaren jarraibidearekin. Honela mintzatu zitzaion Lauaxetari:

En nuestra época decadente se ha llegado a considerar como poetas a ciertos versificadores, ingeniosos a veces, a veces excéntricos, que no reúnen las cualidades que Horacio señaló en su código del arte poético, siempre en vigor mientras haya algo bello que producir. ("Bide Barrijak" *Euzkadi*, 1931-XI-29)

Gerra aurreko poema lirikoetan, ahotsaren bila dabilen poeta gaztearen joera hartzen du Orixek eta sailez-sail aldaketak nabari dira bere poesian.

Paulo Iztuetak berak ere, lau arlo ikusten ditu Orixeren jokabidean:

- . Poesia bukolikoak
- . Poesia idilikoak
- . Joku-poesiak
- . Poesia erlijiosoak

Gaien aldetik egindako banaketa honek ez du askorik balio ikuspuntu konparazale batentzat.

Orixeren arestiko poesian, aldizkarietan agerturikoan, bere liburu nagusien aurrekoan, badira bide hauek:

- 1) Hasierako poemak. Amaren gaiaren ingurukoak, erromantizismoaren tonuetan oinarritua.
- 2) Bigarren aro batean, Orixek Lauaxetari eragotziko dion bide frantsesetik dabil. Olerki meheak dira, maitasunari buruzkoak, kutsu modernista ere badutenak dira.

Ez da bazterrera utzi behar gai hori dela-eta, Orixek Lauaxetari eragotzi ziola, eta gaztigatu esanez, bide frantsesak berak ere korrituak zituela eta ez zirela batere onak euskal poesiarentzat.

- 3) Pindaroren eraginpean, idazlea aipatuz, gainera:

"Nik basetxeak goستن ditudala?  
Gurdien autsetatik, nola igo zan Pindar  
ekanduna deitzen emai zerutarra,  
neurtitz iraunkorrez goraltzera?"

Orixek kirolaren inguruko hainbat poema idazten ditu. Poemok ez dute helburu nagusi gisa, kirola, baizik eta kirolaren bidez, aitzinakoen gorazarrea egin nahi du.

- 4) *Euskaldunak* poema idazten ari dela bertsoz eginiko poema batzuk idatzi zituen Orixek, Lizardirekin izan zuen adiskidetasuna gorai patuz. Agian, poemaren lanketak utzi zion aztarna da aukeraturiko molde herrikoia, agian, inguruko neopopulismoak eskaini zion bidea.

Gerra ostean Ameriketara idatzitako poemetan, Orixek bere ahots propioa lortzen duela esan genezake. Agian. Uitziarren poemarik ederrenak, nire aburuz, behintzat, Ameriketara ondu zituen artean daude.

Zail zaigu testu hauetan iturriak aipatzea. Ohartxo bi besterik ez ditugu egingo.

- 1) Poesiaren alorretik kanpo geratzen bada ere, Iztuetak *Quiton arrebarekin* Danterekin erkatzen du.
- 2) Ezaguna da Orixek bere loraldi honetako poemak idazteko metrika berezia ondu zuela, sei silabatako oinetan poemak —lerroa onduz. Itxura baten jokamoldeak badu hexametroarekin zerikusirik, eta hausnarketa poesia honen bidez berriro itzuliko litzateke Orixe bere jarrera klasikora.

## Bibliografia

- Aitzol, 1930, "Hitzaurrea" in *Eusko Olerkiak 1930*. Euskaltzaleak, pp. 5-25, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1931, "Hitzaurrea" in LAUAXETA: *Bide barridak*. Verdes, Bilbao.
- Altuna, P., 1990, *José M Estefanía Zabala, S.J. (1889-1942). Maestro de vascos*. Mensajero, Bilbao.
- Azurmendi, J., 1991, "Orixeren ereduak. (Mistral eta Orixe)" in *Hitzaldiak*. Etor, pp. 343-355.
- Elkar Lanean, 1991, *Orixe mendeurrena (1888-1988)*. Hitzaldiak, Donostia.
- Estefanía, J.M., 1934, "Crítica del libro" in ORIXE: *Barne-muinetan*. Itxaropena, pp. 18-27, Zarautz.
- Etxebarria, J.G., 1988, *Lauaxeta dela-eta*. Autorea editore, Bilbao.
- Iztueta, P., 1991, *Orixe eta bere garaia*. Etor, Donostia.
- Kortazar, J., 1991, "Los debates literarios en la poesía del País Vasco. 1930-1935" in Lakarra eta Ruiz Arzallus (arg.) *Memoria L. Mitxelena Magistri Sacrum*, GFA, Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1994, "Lecturas poéticas de Esteban Urkiaga, Lauaxeta", *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta Literatura*. 12, pp. 279-353.
- \_\_\_\_\_, 1995, "Lauaxetaren iturriak literatura gonbaratuaren azterketa baterako", *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta Literatura*. pp. 13, 9-34.
- \_\_\_\_\_, 1995, *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*. Labayru-Zornotzako Udala, Bilbao.
- Lauaxeta, 1985, *Olerkiak*, Erein, Donostia.
- Lete, Zelaieta, Lertxundi, 1974, *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Jakin, Arantzazu.
- Lizardi, 1994, *Olerkiak*. Karlos Otegiaren edizioa, EEE.
- Mitxelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid.
- Muxika, L.M., 1983, *Lizardiren lirika bideak*. Haranburu Altuna, Donostia.
- Otaegi, L., 1994, *Lizardiren poetika*. Erein, Donostia.
- Otegi, K., 1990, *Lectura semiótica de Biotz Begietan*. ASJU, Donostia.
- Perales, J., 1996, *Lauaxeta, historian bezurmamituriko sinesmena*. Destuko Unibertsitatea, Bilbao.
- Zaitegi, 1946, *Goldaketan*. Pizkunde, Mexiko.
- Zaitegi, J., 1974, "Urkiaga eta biok" in Lauaxeta: *Olerkiak*. Etor, Bilbao, pp. 5-9.
- Zarate, M., 1978, *Euskal Literatura II*. Leopoldo Zugaza, Durango.





# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIV, 1, 1-225, 2000  
ISSN: 0582 - 6152

## Analytic Summary

Copying of the summary pages is authorised

**Alberdi, Xabier** (Euskal Herriko Unib. Euskara Institutua. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa); **García, Julio** (Euskal Herriko Unib. Zientzi Fak. Euskal Filologia Saila. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa); **Ugarteburu, Iñaki** (Euskal Herriko Unib. Medikuntza eta Odontologi Fak. Euskara Teknikoa Saila. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa): *Xgabe* tankerako hitz elkartuak (Compound words of the *Xgabe* type) (Orig. eu)

In: *An. Semin. Filol. Vasca “Julio Urquijo”*. XXXIV,1, 5-64

**Abstract:** One of the means that the Basque language has to signify “lack of” is the use the affix “gabe”. Although it could be considered as a suffix of derivation, it seems that in most cases it acts as a second component of composed words. The Basque language continually produces new words of this type; it is, therefore, a productive and living resource. The author provides a precise list of such words in common Basque, together with the phonetic and dialectal variants of the mentioned affix. On the other hand, a study is carried out of these compound words, their current use and the concrete limits of the composition, together with the imprecise limits between their composition and syntactic structure.

**Key Words:** *Gabe*. Post-position. Compound words. Writing norm. Elaboration of Dictionaries. Lexicon. Lexicology.

**Alberdi, Xabier** (Euskal Herriko Unib. Euskara Institutua. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa); **García, Julio** (Euskal Herriko Unib. Zientzi Fak. Euskal Filologia Saila. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa); **Ugarteburu Gastañares, Iñaki** (Euskal Herriko Unib. Medikuntza eta Odontologi Fak. Euskara Teknikoa Saila. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa): Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I) (Adnominal phrases: the tradition (I)) (Orig. eu)

In: *An. Semin. Filol. Vasca "Julio Urquijo". XXXIV,1, 65-135*

Abstract: This article is the first part -"Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)" - of a wider study on the use of adnominal sentences throughout the Basque literary tradition (data obtained from the spoliation of the corpus of the Basque General Dictionary - Orotariko Euskal Hiztegia). The first chapter of this article summarises the classification and presentation of completive adnominal Basque sentences, such as has been exposed by the Academy of the Basque Language in its grammar manual (Euskal Gramatika: Lehen Urratsak - V. Mendeko Perpausak-1, also known as EGLU V). Then the second chapter offers an exhaustive description, as well as abundant examples of the structures that have been used in written tradition with 39 substantives susceptible of phrase complementation (agindu, damu, doubt, entzuer, erabaki, errezelo, esperantza, froga, galdera, ideia, etab.).

Key Words: Syntax. Completive phrases. Adnominal phrases. Literary tradition.

**Camino, Iñaki** (Euskal Herriko Unib. Filologia eta Geografi-Historia Fak. Indoeuropar eta Euskal Filologia Saila. Pedro de Asúa, z/g. 01008 Vitoria-Gasteiz): Goñerriko hizkera (II) (Goñi Basque (II)) (Orig. eu)

In: *An. Semin. Filol. Vasca "Julio Urquijo". XXXIV,1, 137-196*

Abstract: We introduce the second part of our work on Goñi Valley Basque. Here we deal with some verb morphology and syntax aspects and compare them to varieties in surrounding valleys. A forthcoming third part of this work will include lexical aspects and an attempt to place dialectologically the Goñi Valley variety and other southern varieties within what is currently known as Navarrese dialect.

Key Words: Verbal morphology. Syntax. Analogy. Meridional Navarran dialect.

**Kortazar, Jon** (Euskal Herriko Unib. Filologia, Geografia eta Historia Fak. Unibertsitateen pasealekua, 6. 01005 Vitoria-Gasteiz): *Literatura konparatuaren saioak (I). Olerkariak 1930-1936* (Attempts at compared literature (I). The poets 1930-1936) (Orig. eu)

In: *An. Semin. Filol. Vasca "Julio Urquijo"*. XXXIV,1, 221-245

Abstract: Under the caption *Literatura konparatuaren saioak (I) Olerkariak*. 1930s - 1936, the purpose of the present article is to analyze the work of the poets Jose Maria Agirre, "Lizardi" and Esteban Urkiaga, "Lauaxeta", by means of comparative literature. In this way, the quotations and influences that appear in their works are revealed, showing those that have to do with philosophy and literature. Thus, in the present work not only are formal relationships analysed, but also the influences that exist in terms of aesthetic ideas.

Key Words: Comparative literature. History of Basque literature. Analysis of poetry.

ASJU-REN AZKEN ALEETAKO AURKIBIDEAK  
ÍNDICES DE LOS ÚLTIMOS NÚMEROS DEL ASJU  
INDEX OF LATEST ISSUES OF ASJU

XXVIII-1, 1994: 1-338. J. A. LAKARRA, Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741). J. A. CID, El cantar de *Mosiur Chanfarron*; circunstancia y sentido (comentarios a una página de Garibay). E. TORREGO, On the natura of clitic doubling. A. BARREÑA, Funtzio-kategorien jabeakuntza-garapenez. J. FRANCO, On the absence of Spanish past participial object clitic agreement: the AGRO parameter in Romance. M. AGUD. - † A. TOVAR, Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca (XIX). J. A. MUJKA, Partikula modalez berriro.

XXVIII-2, 1994: 339-682. X. ARTIAGOITIA, Verbal projections in Basque and minimal structure. J. A. CID, Tradición apócrifa y tradición hipercrítica en la balada tradicional vasca: I. Las falsificaciones de cantos populares en Europa; ensayo de tipología. I. ZABALA - J. C. ODRIOZOLA, Adjektiboen eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza. R. CIERBIDE, Toponimia alavesa: Apeo de Vitoria y su jurisdicción de 1481-1486. J. M. ARAKAMA, Uharte-Arakilgo dotrina. J. R. PRIETO, Versiones melusinianas en la tradición oral contemporánea del País Vasco. M. AGUD - † A. TOVAR, Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca (XX).

XXVIII-3, 1994: 683-1044. M. J. OLAZIREGI, Bernardo Atxagaren harrera literarioa: proposamen bar. J. FRANCO, The Morphological, Syntactic and Semantic Agreement Status of Spanish Object Clitics. J. K. ABAITUA, Dependencias locales y anáforas vacías en euskara. J. A. LAKARRA, Euskal hiztegi-gintzaren historiarako: II Gogoetak Urteren hiztegi-gintzaz. J. A. LAKARRA, Euskal hiztegi-gintzaren historiarako: III Urteren Gramatikako hiztegia. M. AGUD - † A. TOVAR, Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca (XXI). J. DIAZ NOCI, Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak. R. MANJON - C. DEL OLMO - J. GORDO, Fray Bartolomeuren - na koupletikoa: arazo linguistiko eta estilistikoak. I. RUIZ ARZALLUZ, Antzinateko eta, oro har, latin bitartekotzako izen berezien euskal ordainaz. *Liburu Berriak / Reseñas / Reviews.*

XXIX-1, 1995: 1-354. J. A. LAKARRA, Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi-gintzaren historiaz. R. P. G. DE RIJK, Busque manner adverbs and their genesis. F. ALTUNA, *Acto contrivocoo eriotzaco ordubaco*. Garcia de Albeniz araiararren araberazko eskuizkribua (1778). A. OLARREA, Notes on the Optionality of Agreement. I. GAMINDE, - J. I. HUALDE, Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa. J. FRANCO - A. LANDA, An analysis of AGRO projections for Spanish causatives. F. ALTUNA, Pleonasm baten historiaz: *debea* 'dute' bezalako adizkien inguruan. E. DE MIGUEL, An Aspectual Restriction on Spanish Nominal Infinitives. O. IBARRA, "Cispamplonés" hizkeraren inguruan. J. I. HUALDE, Análisis del sistema acentual de Ondarroa. A. GARCIA CALVO, *Tomar, Loco y Usted.*

XXIX-2/3, 1995: 355-742. X. ARTIAGOITIA, *Gavri* atzikiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maingarria bezain mingarria. E. AMORRORTU, Retention and accommodation in the Basque of Elko, Nevada. A. AZKORBEBEITIA, Bernardo Atxagaren testu-ereduaren hurbilpen bar. Harrera-Teoriaren eskutik. J. I. HUALDE, Sobre el acento roncalés. F. ALTUNA - P. MIRANDA, Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721). M<sup>a</sup> M. CARREIRA, Iberian Spirantization as a Syllable Contact Process. P. SALABERRI, Nafarroako herri-izenen inguruan. M<sup>a</sup> L. GARCIA LECUMBERRI, Perception of Accentual Focus by Basque L2 Learners of English. X. ARRAZOLA - F. MÍGURA, Diskurtuaren analisisiaz. F. ALTUNA, Loiolako Dotrina (XVIII. mendea). C. ISASI, *il - ill* en documentos vizcainos medievales: ¿Alternancia gráfica o palatalización vasca? I. RUIZ ARZALLUZ, Virgilio Txerribuztangoerrekan (I. *Bukoliken* eta *Georgiben* euskal itzulpenak). J. A. FDEZ. DE LARREA, Lucha de bandos y guerra a sangre y fuego. J. M. DE LACHAGA, Remarques de G. Guillaume sur la langue basque dans l'elaboration d'une theorie du langage humain. J. L. UGARTE, *Donde murió el oso*. M. ZÉLIKOV, Las fases principales de la vascológia rusa. *Liburu Berriak / Reseñas / Revie=ws.*

XXX-1, 1996: 1-382. J. A. LAKARRA, Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del Protovasco. J. ARRIOLABENGOA, Erdi Aroko kanta ezezagunak Ibarguen-Cachopin kronikan (1570-1620). Butroeko Andreamen Eresiaren bertsiio ezezaguna; Salinasko Kontearen Kantua; Errodrigo Zaratekoaren Kantu Epikoa. I. IGARTUA, Sobre el factor de la casualidad en la comparación lingüística. G. AURREKOETXEA, Hizkerak banatzeko ezaugarriez. R. P. G. DE RIJK, On the origin of the partitive determiner. Tx. SAGARZAZU, Urteren azentuaz. L. SILVA-VILLAR, The diachronic syntax of expletive creation. I. GÓMEZ TXURRUKA, Euskararen zatiketa informazionalaren eredu baterantz. M. MUGICA, Notas de fonética histórica y toponimia. 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos. G. BILBAO, Jean Mekol Garindañekoren *Edipa* pastorela (1793). M<sup>a</sup> C. IRIBARREN, Connotaciones vascas en los vocablos en -rr- del gascón. M. URKIA, Morfología konputazionala eta euskal morfologia.

XXX-2, 1996: 385-453. MERCEDES QUILIS, La F- inicial latina en los orígenes de la lengua española (I). GOTZON AURREKOETXEA, Hizkuntza datuen formalizazio numerikorantz. RICARDO ÉTXEPARE, O Null Complementizers in Spanish. ANE LOIDI, Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu. JAVIER GUTIÉRREZ-REXACH, Notes on the Thematic Properties of Manner and Subject-Oriented Adverbs. J. M. ARRIOLA, X. ARTOLA, A. SOROA, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*-ren analisi erdiautomatikoa. FRAIDE IBARRETXE, Semantic extensions in the sense of smell. FRANTZISKO ONDARRA, Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (I). KEN HALE, El causativo misumalpa (mis-itu, sumu). AGURTZANE ELORDUI, Hegomendebaldeko bizkaiararen aditz egituraren aldaketa-bilakabidea eta hizkuntz desagertzea. *Liburu Berriak / Reseñas / Reviews*.

XXXI-1, 1997: 1-360. JOSEBA A. LAKARRA, Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque* (~1620). MERCEDES QUILIS, La F- inicial latina en los orígenes de la lengua española (II). XABIER ALBERDI, JULIO GARCÍA, IÑAKI UGARTEBURU, Izenen mendeko perpausak: XX. mendeko erabilera. JOSÉ I. HUALDE, IÑAKI GAMINDE, Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. GIDOR BILBAO, De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak. I. *Doctrina christinaubarena*. JOAN OTAEGI, Adjektiboa euskal poesian.

XXXI-2, 1997: 363-685. RICARDO GÓMEZ, Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz. RICARDO GÓMEZ, Euskalaritzaren historiaren ikerketa-norabideak: zenbait proposamendu. JOSÉ IGNACIO HUALDE, Aitzineuskararen leherkariak. JOSÉ IGNACIO HUALDE, Zerbait gehiago euskal azen-tubideen historiaz. JOSEBA A. LAKARRA, Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. JOSEBA A. LAKARRA, Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa. IBON SARA-SOLA, Euskal hitz altxorraz. BLANCA URGELL, Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca.

XXXII-1, 1998: 1-309. PELLO AGIRRE, Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Evangelium populo legendus. ANTXON OLARREA, On the Position of Subjects in Spanish. BLANCA URGELL, *Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuz (I): oinarrizko ezaugarri zenbait. GIDOR BILBAO, De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II). FRANTZISKO ONDARRA, Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (II).

XXXII-2, 1998: 313-648. PELLO AGIRRE, Belapeirez. BLANCA URGELL, *Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuz (II): sarreraren edukia. JAVIER ORMAZABAL, JUAN ROMERO, On the Syntactic Nature of the me-lui and the Person-Case Constraint. IÑAKI ALDEKOA, Gabriel Arestjiren Maldan Behera. GORKA ELORDIETA, Intonation in a pitch accent variety of Basque. RICARDO GÓMEZ, *ASJU* (1987-1997). Aurkibideak / Índices / Index.

XXXIII-1, 1999: 1-308. IÑAKI KAMINO, Goñerriko hizkera (I). VERONIQUE INCHAUSPE, À propos de la construction historique de la pastorale souletine. PATXI SALABERRI MUÑO, Axularren eta haren obraren harreraz (Iritziak, ikerketak eta beste). ELENA TORREGARAI, IÑAKI VILLOSLADA, J.A. Mogelen "Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos": antzinatearen erabilpena euskararen apologiaren auzian. BLANCA URGELL, *Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuz (III): Gaztelania. PATRI URKIZU, Monjongo DASSANÇAREN *Laborarien abissua* (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre CHABALGOITYK idatzia (XVIII. m.) eta Bertrand GOYENET-CHEREN *Marechalaren liburia* (1831). Aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia.

XXXIII-2, 1999: 309-604 FERMIN ARKOTXA, Contribution à la connaissance de l'oeuvre journalistique d'Augustin Chaho: *L'Ariel* du 6 octobre 1844 à janvier 1846. VICTOR HIDALGO, Hitz ordenaren estatistikak euskaraz. IVÁN IGARTUA, Eusk. *gorosti*, sardinierazko *golosri*, eta errusiar *xvorost*. Ohar etimologikoa. MARY CARMEN IRIBARREN, Un caso de contacto vasco-castellano-gallego. JOSEBA A. LAKARRA, L'Interprète on traduction du français, espagnol & basque (~1620): II. Elkarrizketak. ALAZNE LANDA, JON FRANCO, Converging and diverging grammars. ELENA TORREGARAI, IÑAKI VILLOSLADA, Tradizio klasikoaren transmisioa XVIII. mendeko euskal sermoigintzan: Aita Mendibururen adibidea.

«Julio de Urkixo» *Euskal Filologia Mintegiaren Aldizkariaren Gebigarriak*  
 Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»  
*Publications of «Julio de Urquijo» Seminar of Basque Philology*

- I. *El Seminario «Julio de Urquijo». Antecedentes y constitución*, 1955. Agotado.
- II. JOSÉ MARÍA LACARRA, *Vasconia medieval. Historia y filología*, 1957. Agotado.
- III. MANUEL AGUD – LUIS MICHELENA, *N. Landuccio, Dictionarium Linguae Cantabrigae* (1562), 1958. Agotado.
- IV. LUIS MICHELENA, *Fonética histórica vasca*, 1961, 1977, 1985, 1990. 2.500 pta. (2.000).
- V. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1964, 1991. 2.000 pta. (1.600).
- VI. LUIS VILLASANTE, *Fr. Pedro A. de Añibarro, Gramática vascongada*, 1970. 1.000 pta. (800).
- VII. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes. (Índice inverso de Gerardo Markuleta)*, 2ª. ed. 1994. 2.000 pta. (1.600).
- VIII. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972, 1974*. 1.200 pta. (1.000).
- IX. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 3.000 pta. (2.500).
- X. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. 2 vols. Agotado.
- XI. LUIS MICHELENA – IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 2.000 pta. (1.500).
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*. 1989. 1.000 pta. (800).
- XIII. MANUEL AGUD – † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 6.000 pta. (5.000)
- XV. RICARDO GÓMEZ – JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendeak*, 1992. 2.500 pta. (2.000).
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de «Charlemagne»*, 1990. 2.500 pta. (2.000).
- XVII. RICARDO GÓMEZ – JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendeak*. Prestatzen.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatitako hiztegiak (1741)*, 1994. 1.500 pta. (1.200).
- XIX. MANUEL AGUD – † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco II, Arduin-Beuden*, 1990, 1993. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1963, 1986, 1990, 1.000 pta. (800).
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. (Semiótica de la representación)*, 1991. 2.000 pta. (1.600).
- XXII. LASZLÓ K. MARÁCZ, *Asymmetries in Hungarian*, 1991. 2.500 pta. (2.000).
- XXIII. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 1.500 pta. (1.200).

- XXIV. MANUEL AGUD – ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, III. *Beule-Egileor, Babarraso-Bazur*, 1991. Agotado.
- XXV. JOSÉ M<sup>a</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 2.500 pta. (2.000).
- XXVI. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, IV. *Egiluma-Galanga*, 1991. Agotado.
- XXVII. JOSEBA A. LAKARRA – JON ORTIZ DE URBINA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 3.000 pta. (2.500).
- XXVIII. RICARDO GÓMEZ – JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, 1994. 3.500 pta. (3.000).
- XXIX. JOSÉ I. HUALDE – XABIER BILBAO, *A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo*, 1992. 1.000 pta. (800).
- XXX. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, V. *Galani-Iloza*, 1992. 1.000 pta. (800).
- XXXI. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de Biotz-begietan*, 1993. 3.000 pta. (2.500).
- XXXII. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans Maldan bebera de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 1.500 pta. (1.200).
- XXXIII. MANUEL AGUD – † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, VI. *Ilpiztu-Korotz*, 1993. 1.000 pta. (800).
- XXXIV. JOSÉ I. HUALDE – GORKA ELORDIETA – ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 3.000 pta (2.500).
- XXXV. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 3.000 pta. (2.500).
- XXXVI. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 2.000 pta. (1.600).
- XXXVII. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, VII. *Korpa-Orloi* 1994. 1.000 pta. (800).
- XXXVIII. PATXI GOENAGA (ed.). *De grammatica generativa*, 1995. 3.000 pta. (2.500).
- XXXIX. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca (literatura, historia, significado)*, 1997. En preparación.
- XL. AMAYA MENDIKOETXEA – MYRIAM URIBEETXEBARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 3.500 pta. (3.000).
- XLI. BERNARD HURCH – MARIA JOSE KEREJETA, *Hugo Schuchardt – Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 3.500 pta. (3.000).
- XLII. JOSE I. HUALDE, *Euskararen azentuerak*, 1997. 2.500 pta. (2.000).

## EGILEENTZAKO OHARRAK

*ASJU*-n nazioarteko zientzi elkarteetan ohiko diren hizkuntzetan idatziriko euskal linguistika eta filologiako lanak (edo eremu ezberdin edo zabalago bati atxikiak izanik ere euskalaritzarako interesgarri izan daitezkeenak) onartzen dira. Orijinalak bidal: *ASJU*, Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz.

*ASJU*-ra igorritako artikulua bi aztertzailei (gutxienez) emango zaizkio, ondoren haien iruzkinak konbentzitu izanik atera edo ez erabakitzen delarik; erabakia ahalik eta azkarrenik gaztigitako zaie egileei. Artikulua argitaratzeko onartzekotan, aurkitutako oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda ere emango zaie. Egileek beren lanen lehendabiziko inprenta frogak jasoko dituzte berriz bihurtu behar duten orijinalarekin; ahalik eta zehazkienez zuzendu beharko dituzte, honetarako lau egunetako epea dutelarik eskuratzen dituztenetik. Argitaratutako lanen egileei *ASJU*-ko zerbakiaren ale bana eta beren lanen 25 separata (10 liburu iruzkinak badira) emango zaizkie, gehiago nahi izanez gero kostu prezioan agin ditzaketelarik.

Ez da inongo murrizketarik orijinalen luzeraz, baina ez dute izango berez behar baino gehiagokoa; lanek zehatzak eta argiak beharko dute izan. Berariazko abegia egingo zaie ohar laburrei, batez ere dagoeneko argitaratu beste lanen bat kritikatzeko edo garatzeko dutenean.

Orijinalen hasieran egilearen/egileen zuzenbide eta telefonoa ezarriko da eta biko espazioan, orrialde bakarrean, eta zeinahi argitasun edo zuzenketarako albu guztietan zuriune zabalekin idatzirik aurkeztuko dira lanak. Orrialdeak eta lanaren amaieran ezarriko diren oin-oharrak segidako zerrendan zenbatuko dira. Lanaren hiru kopia aurkeztuko dira, eta haiekin batera 80 hitz baino gutxiagoko laburpena. Aurkeztu baino lehen zuzen bide ahalik eta hobekien orijinala, inprenta hutsak gutxitzeko; orobat, fotografia, karta, grafikoa, taula, irudi, etab., eman ez gero, izan bidez kalitate handienekoak gardentasunik gal ez dezaten. Oro zenbatuko da eta ezagutzeko oin-perpau laburra erantsiko zaie, testuan ere non jarri behar diren argiro markatuz. Adibideak zenbatu egingo dira: (1), (2)a, (2)b, etab.; testuan aipatzerakoan egin bedi era honetan: (2a), (2b), (2a, b), (4d-h), etab. Inprentan ohiko ez den zeinahi zeinu, letra edo diakritikoren azalpen argia ezarriko da lehendabiziko agerraldiaren testu aldameneko zuriunean.

Testua honako arauok beteaz aurkeztuko da: aipu luzeak ahalik berezian joango dira, sartuta, hasiera eta amaiera komatxorik gabe, letra borobilean; aipu laburrak, borobilean halaber, testuan bertan eta komatxo bikoitzaren artean (" " edo « »). Komatxo bakunak ( ' ' ) adierak edo hitz solteen itzulpenak emateko baliatuko dira. Metalinguistikoki erabilitako edota artikulua idazteko erabili den hizkuntzaz landako hitzak letra etzanean ezarriko dira.

Liburu eta aldizkariaren izenei letra etzana (azpimarra orijinallean) dagokie, eta komatxoak artikulueni. Aldizkariaren zenbaki, urte eta orrialdeak eta liburuen argitaletxe eta edizio (ez inprimatze) tokia emango dira. Hala agintzen denean zehaztuko da berrinprimaketa, berrargitalpena edo itzulpena den. Aipuetarako erabil bedi, ahal den neurrian, urte-egile sistema, urte bereko egile baten lan bat baino gehiago aipatu bada a, b... hurrenkeran bereizten direla: adib. (Vinson 1897a: 35-38), (ikus Lacombe 1924, Azkue 1923-25, Uhlenbeck 1947). Amaierako bibliografiarik ez bada, eman bidez bibliografia zehaztasunak oro soilik lehendabiziko agerraldian, ondorengoetan bakarrik egilearen deitura eta titulu laburtua, *op. cit.* eta *ibidem*-ak saihostuaz: adib. Guerra, *Cantares*, 22-24. Bibliografia ere biko espazioan idatziko da, formato honi atxikiaz:

Mitxelena, K., 1950b, "La aspiración intervocálica", *BAP* 6, 443-449. Berrarg. bere *Sobre historia de la lengua vasca*, *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia 1988, I, 191-202.

—, 1981a, "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* 15, 291-313. Berrarg. bere *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz 1987, pp. 35-55.

Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

de Rijk, R. P., 1985, "Un verbe méconnu", In J. L. Melena (ed), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz, II, 921-935.

Sarasola, I., 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* 20: 1, 203-216.

Bibliografi laburduretarako erabil bedi *ASJU* 22 (3), 1988an argitaratu "Laburduren zerrenda"; beste filologiaren batekoak direnean lor bekizkie egileak haietan haizu direnei. Beharrezko izanik egileak bestelakorik ere erabili ahaliko du, beren balioa lehendabiziko agerraldian azalduaz.

Ordenagailu programa konpatibleak erabil bidez (Word-Sart, Word-Perfect, McWrite edo Word) nahiz PC nahiz Mac-erako; disketarekin batera goian aipatutako baldintzak betetzen dituzten hiru kopia paperez-tatu bidaliko dituzte.



## INFORMATION FOR AUTHORS

Papers on Basque linguistics and philology, and more general fields related with or of interest to Basque studies will be accepted, provided they are written in the languages most used by the international scientific community. Originals should be sent to: *ASJU*, Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria- Gasteiz.

Papers received by *ASJU* will be submitted to at least two reviewers, decision on the publication will be made available to the author(s) within the shortest possible time. Should a paper be accepted, a list of objections or changes deemed necessary will be sent to the author(s). The authors will receive the first proofs of their work which should be returned together with the original and will have a period of no more than four days for proofreading. The authors will receive a copy of the *ASJU* volume in which their article appears and 25 offprints of their papers (10 in the case of reviews). Further additional offprints can be ordered, and paid at cost price.

There is no restriction as to the maximum length of the originals, but they should not be longer than necessary; the authors must be concise and clear. Preference will be given to short notes, especially when they refer to, criticizing or elaborating on, previously published papers.

The originals, at the beginning of which the address and telephone number(s) of the authors(s) must be stated, will be typed and double-spaced throughout on one side of the sheet only –this also applies to the notes. Wide margins for possible corrections or clarifications are required. The pages will be numbered serially as well as the notes which should begin on a new page after the main text. Manuscripts will be submitted in three copies and will be accompanied by an abstract less than 80 words. It is recommended that the paper be carefully corrected before presentation to avoid possible errors, and that photographs, pictures, maps, graphs, tables, figures, etc. be of the best possible quality to avoid loss in detail in reproduction; they should be all numbered and have a short footnote or key for identification; likewise, their approximate situation in the text should also be indicated. The examples should be consecutively numbered and enclosed in parenthesis: (1), (2b), (2a, b), (4d-h), etc. Also use such parenthesized numbers when referring to them in the body of the text. A clear description of any unusual symbols, characters or diacritics should be provided in the margin on their first occurrence.

The text will be presented in accordance with the following rules: long quotations will be indented, without inverted commas at the beginning and end of the text, in rounded print; short quotations, also in rounded print, will be presented between double inverted commas (“ ” or « »). Single quotation marks (‘ ’) will be used to denote translations of isolated terms. Terms used metalinguistically or in a language different to that of the text will be in italics (underlined in the original).

The titles of books and journals will be in italics and those of papers between inverted commas. The no., year and corresponding pages of the journals and publisher's name and place of edition of the books will be given; where relevant, state whether the quotation is from a reprint, reedition or translation. Where possible use the author-year system for quotation, e.g. (Lafitte 1976a: 35-38), (see Schuchardt 1900, Azkue 1923-25, 1935). Where this is not possible, the complete bibliographical data will be given only on the first occurrence, limiting any subsequent reference to noting the surname of the author and the abbreviated title avoiding notations such as *op cit.* and *ibidem*: For instance, Altuna, *Versificación*, pp. 43-57. The bibliography will also be double-spaced, with the following format:

Mitxelena, K., 1950b, “La aspiración intervocálica”, *BAP* 6, 443-449. Reed in *Sobre historia de la lengua vasca*, Supplements of *ASJU* N° 10, Donostia 1988, I, 191-202.

—, 1981a, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15, 291-313. Reed in *Palabras y Textos*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz 1987, pp. 35-55.

Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

de Rijk, R. P., 1985, “Un verbe méconnu”, In J. L. Melena (ed), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz, II, 921-935.

Sarasola, I., 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20: 1, 203-216.

For abbreviations of secondary sources the “Abbreviation Index” published in *ASJU* 22(3), 1988, must be used; when the acronyms correspond to other philologies the authors should honour the norms existing in the field. Should it be necessary the author(s) will use other abbreviations whose meanings will be explained in their first occurrence.

The authors will have to use compatible programs for PC or Mac (such as Word-Star, Word-Perfect, McWrite or Word. Contributors to *ASJU* should submit three typed copies of the paper along with a diskette abiding by the above-mentioned conditions.

## INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES

Se admitirán artículos sobre lingüística y filología vasca y campos más generales relacionados o de interés para la vasculogía, escritos en los idiomas utilizados por la comunidad científica internacional. Los originales se enviarán a: *ASJU*, Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz.

Los artículos recibidos en *ASJU* se someten al menos a dos revisores, decidiéndose su aceptación o no para la publicación en función del informe de los mismos; se comunicará tal decisión a los autores en el plazo de tiempo más breve posible. En caso de aceptarse el artículo, se enviará a los autores la lista de objeciones o cambios necesarios. Los autores recibirán las primeras pruebas de sus trabajos (que deberán devolver conjuntamente con el original) para cuya corrección dispondrán de un plazo no superior a cuatro días desde su recepción. Los autores recibirán un ejemplar del *ASJU* y 25 separatas de sus artículos (10 en caso de reseñas), pudiendo encargar otras adicionales que les serán facturadas a precio de coste.

No existe ninguna restricción sobre la longitud máxima de los originales pero éstos no deben ser más largos de lo necesario; los autores han de ser concisos y claros. Se dará preferencia a notas breves, particularmente cuando hagan referencia, criticándolos o elaborándolos, a artículos publicados con anterioridad.

Los originales, al comienzo de los cuales se hará constar la dirección y teléfono del(os) autor(es), se presentarán escritos a doble espacio y por una sola cara —incluidas notas—, con márgenes amplios para posibles correcciones y aclaraciones. Las páginas irán numeradas correlativamente, así como las notas, las cuales irán en hojas aparte al final del artículo. Los manuscritos se presentarán por triplicado e irán acompañados de un resumen inferior a 80 palabras. Se recomienda que el original sea minuciosamente corregido antes de su presentación para evitar en lo posible las erratas, y que fotografías, cuadros, mapas, gráficos, tablas, figuras, etc., sean de la mejor calidad posible para evitar pérdidas de detalle en la reproducción; todos ellos irán numerados y llevarán un breve pie o leyenda para su identificación; se indicará asimismo el lugar aproximado de colocación en el texto. Los ejemplos irán numerados: (1), (2)a, (2)b, etc.; al referirse a los mismos en el texto se usará el formato (2a), (2b), (2,a b), (4d-h), etc. Se dará una clara descripción de cualquier símbolo, carácter, o marca diacrítica poco usual en un margen en su primera aparición.

El texto se presentará de acuerdo con las siguientes normas: las citas largas irán en texto sangrado, sin comillas a su inicio y final, en letra redonda; las citas breves, también en redonda, irán entre comillas dobles (" " o « »). Se utilizarán los ápicos ( ' ) para denotar acepciones o traducciones de términos aislados. Los términos utilizados metalingüísticamente o en lengua distinta a aquella en la cual está redactado el texto irán en cursiva (subrayados en el original).

Los títulos de libros y revistas irán en cursiva (subrayados en el original) y los de los artículos, entre comillas. Se indicará el n.º, año y páginas correspondientes de las revistas, y editorial y lugar de edición de los libros; en su caso se indicará si se cita de una reimpresión, reedición o traducción. Usese en la medida de lo posible el sistema autor-año para las citas, p.e. (Lafitte 1967a: 35-38), (véase Schuchardt 1900, Azkue 1923- 25, 1935). En su defecto, se darán datos bibliográficos completos sólo en la primera ocasión, limitándose en las siguientes a señalar el apellido del autor y el título abreviado, evitando *op. cit.* e *ibidem*: Altuna, *Versificación*, pp. 43-57. La bibliografía irá también a doble espacio, ajustándose al siguiente formato:

Mitxelena, K., 1950b, "La aspiración intervocálica", *BAP* 6, 443-449. Reproducido en su *Sobre historia de la lengua vasca*, Anejos *ASJU* N.º 10, Donostia 1988, I, 191 -202.

—, 1981a, "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* 15, 291-313. Reproducido en su *Palabras y Textos*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz 1987, pp. 35-55.


Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some parameters in the grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

de Rijk, R. P., 1985, "Un verba méconnu", In J. L. Melena (ed), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, EHU/UPV, Vitoria-Gasteiz, II, 921-935.

Sarasola, I., 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* 20: 1, 203-216.

Para las abreviaturas de fuentes primarias o secundarias se recurrirá al "Índice de abreviaturas" publicado en *ASJU* 22 (3), 1988; cuando correspondan a otras filologías se atenderán los autores a las normas vigentes en las mismas. En caso necesario el autor utilizará otras adicionales cuyo valor explicará en la primera aparición de las mismas.

Se ruega a los autores que utilicen programas compatibles (Word-Star, Word-Perfect, McWrite o Word), tanto para PC como para Mac. Acompañarán al diskete tres copias del artículo, en papel y en las condiciones arriba citadas.



ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA  
"JULIO DE URQUIJO"  
International Journal of Basque Linguistics and Philology  
ASJU, XXXIV-1, 2000

XABIER ALBERDI, JULIO GARCIA, IÑAKI UGARTEBURU, <i>Xgabe</i> tankerako hitz elkartuak .....	5
XABIER ALBERDI, JULIO GARCIA, IÑAKI UGARTEBURU, <i>Perpaus</i> osagarri izenlagunak: tradizioa (I) .....	65
IÑAKI CAMINO, <i>Goñerriko hizkera</i> (II) .....	137
JON KORTAZAR, <i>Literatura konparatuaren saioak</i> (I). <i>Olerkariak 1930-1936</i> .....	197
Analytic Summary .....	223